

# HERRITARREN PARTAIDETZA

## GIPUZKOAN 2018-2019



#Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b>		<b>04</b>
<b>Udalerrietako parte-hartze esperientziak</b>		<b>06</b>
<b>BIDASOA</b>		<b>07</b>
	Hondarribia	08
	Irur	10
<b>DEBA BEHEA</b>		<b>14</b>
	Elgoibar	15
<b>DEBA GARAIA</b>		<b>19</b>
	Arrasate	20
	Elgeta	24
	Oñati	28
<b>DONOSTIALDEA</b>		<b>32</b>
	Astigarraga	33
	Hernani	37
	Pasaia	41
	Urnieta	45
<b>GOIERRI</b>		<b>49</b>
	Altzaga	50
	Arama	52
	Beasain	54
	Ezkio	58
	Idiazabal	60
	Itsasondo	62
	Legazpi	66
	Mutiloa	70
	Ordizia	74
	Segura	78
	Urretxu	80
	Zerain	84
	Zumarraga	88
<b>TOLOSALDEA</b>		<b>92</b>
	Abaltzisketa	93
	Aduna	95
	Amezketza	99
	Anoeta	103
	Asteasu	107
	Baliarrain	111
	Berastegi	113
	Irura	115
	Lizartza	117
	Orendain	119
	Orexa	121
	Tolosa	125
<b>UROLA KOSTA</b>		<b>129</b>
	Aizarnazabal	130
	Azpeitia	134
	Getaria	136
	Zestoa	140
<b>GFaren baitako parte-hartze esperientziak</b>		<b>144</b>
	Aurrekontu irekiak 2019	145
	OGP Euskal Zuzentasun Sistema	152
<b>Gipuzkoako elkarten parte-hartze esperientziak</b>		<b>157</b>
	Arrats elkarte	158
	Elhuyar	159
	Emanhar gizarte elkarte	161
	Euskararen gizarte erakundeen kontseilua	163
	Eusko Ikaskuntza	165
	Garaion natur elkarte	167
	Herrizomak	168
	Ezkide Eskola	169
	Hiritik at	171
	Impact Hub Donostia	173
	Kale dor kayiko	174
	Landetxa auzo elkarte	175
	Natul euskara elkarte	177
	Politki elkarte	178
	Gipuzkoako SOS arrazakeria	179
	Topagunea	180
	Txatxilipurdi	181
	Zerainlab	182

#Hitzaurrea





# EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gobernantza Diputatua  
Gipuzkoako Foru Aldundia | 2019-2023 legegintzaldia

HERRITARREN PARTAIDETZA GIPUZKOAN 2018-2019 planak zehatz-mehatz jasotzen ditu udalerriek, lurraldeko gizarte taldeek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berak sustatutako herritarren partaidetzako esperientzia aipagarrienetako batzuk.

Izaera eta helburu desberdinak dituzten ekimenak direnez, metodologia desberdinak erabili dira, baina ardatz nagusi komun batek lotzen ditu: proiektu horien helburu nagusia herritarrek kudeaketaren erdigunean jartzea da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak badaki datozen urteetan aldaketa handiak egin beharko direla. Beraz, erantzun egokia eman behar diegu gai horiei, guztiok nahi dugun Gipuzkoarantz aurrera egin ahal izateko. Gipuzkoa berritua, lurraldeko eta gure inguruko gainerako eragile eta pertsonekin eraiki eta partekatu behar duguna.

Gizarte gisa eragiten diguten arazoei irtenbidea bilatzeko deia egiten digute Gipuzkoako herritarrek. Orain, inoiz baino gehiago, elkarrizketa, ulermen, lankidetzeta, kudeaketa eraginkor eta gardentasunari lotutako dinamiken bidez helburu horiek lortzearen aldeko apustua egiten dugu. Dinamika horiek, hain zuzen, bete gabeko erronkei aurre egiteko eta gure lurraldea biziberritzeko balioko dute.

Partaidetzaren alde gaude erabat eta, beraz, hura bultzatzen eta instituzionalizatzen jarraitu nahi dugu. Izan ere, instituzionalizazio horrek politika egiteko modu tradizionalak aldatzea ekarriko du, atzera bueltarik gabe, eta horrek aukera emango digu foru administrazio modernoagoa, gardenagoa eta eskuragarriagoa Gipuzkoako herritarrei eskaintzeko.

Huts egiteko beldurrik gabe, baieztatu dezakegu gobernantza ireki eta kolaboratiboaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa eredu baten aldeko apustua egiten duen erakunde-erreferente bihurtu dela Gipuzkoako Foru Aldundia; izan ere, gobernu eredu horren bidez arautzen dira Europako gizarte aurreratuenak.

Horretarako, herritarren partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, baliabide horren bitartez Gipuzkoako herritarrek balio publikoa sortzeko erantzukizuna har dezaten. Beraz, gizarte osatzen duten pertsonengan jartzen dugu begirada, hiritartasuna, kidetza sentimendua eta ingurunearekiko nahiz guztien ongiarekiko konpromisoa sustatuz.

Orain arte, herritarren partaidetzan aurrerapen handiak egin ditugu (Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua eguneratu dugu, Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa bultzatu dugu, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua eta Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Foru Erregistroa sortu ditugu, Herritarren Partaidetzako Zerbitzuko Zerbitzuen Karta egin dugu, Foru Aldundiko departamentuak partaidetza prozesuen garapenean inplikatzeko lortu dugu, Aurrekontu Irekiak eredu berrikusia diseinatu dugu, etab.), eta, orain, norabide berean egin behar dugu aurrera, denontzat garrantzitsuak diren erronkei irmo helduz, hala nola organoak, egiturak eta araudiak ezartzea eta sustatzea, baliagarri izango direnak partaidetza, diseinua eta ezagutza sortzeko jarduerak bermatzeko eta sustatzeko, eta baita berrikuntza digitalari ekiteko ere, partaidetzarako bideak zabaltzeko aukera emango diguten tresnak eta ekipamenduak sortzeko helburuarekin.

Egiten ari garena garrantzitsua da, baina garrantzitsua da ere nola egiten ari garen; izan ere, herritarrekin egiten ari garen esperimentazio kolektiboak eta elkarrekin sortzeko prozesuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren agenda politikoa gidatzen dute, eta horrek aukera ematen du elkarrekin lan egiteko eta gizarte antolatuekin komunikatzeko espazio berriak sortzeko. Eredua aldatzea, begirada gizartea osatzen duten pertsonengan jarrita, betiere hiritartasuna, kidetza sentimendua eta ingurunearekiko nahiz guztien ongiarekiko konpromisoa sustatuz.

Hori lortzeko, atsedenik gabe egingo dugu lan ingurunearen etengabeko aldatetara egokitzeko beharrezkoak diren gaitasunen garapenean, betiere kontuan hartuta zeintzuk diren gizartearen alderdi erabakigarriak, herritarrengandik hurbilago dagoen administrazio bat bultzatzeko, norberarena balitz bezala hartuko dena, eta eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioen arabera jardungo duena.

Pertsona guztiei entzutea eta guztiekin hitz egitea. Proiektu komun bat partekatzea. Azken batean, gipuzkoarrek gure foru erakundea hurbil senti dezagun lortzea, eta harekiko eta hark bultzatzen dituen politikekiko harro egon gaitezen lortzea.

Ateak eta leihoak irekitzen jarraituko dugu, guztion artean etorkizuna eraikitzeko.

#Udalerriak

# BIDASOA

Lur eremu txikiena hartzen duen eskualdea da (71,6 km<sup>2</sup>), hori horrela delarik, eskualde osoa dena batera begi bistan eduki daiteke, bertan diren talaia zoragarriren batetik. Gipuzkoako ekialdean dago, eta hauek ditu mugak: iparraldean Bizkaiko itsasoa, ekialdean Frantzia, hegoaldean Nafarroa, eta mendebaldean Donostialdea eskualdea.

Bidasoa ibaia da eskualde honetan Gipuzkoa eta Frantziaren arteko muga naturala. Txingudiko badiaren itsasoratzen da 66 km-ko bidea egin ondoren, batez ere nafar lurretan barrena. Badiara bertara heldu aurretik, padurak sortzen ditu itsasoko urarekin nahasirik, nahiz eta azken urteotan padura horien luze-zabalera asko urritu den. Eskualdearen barruan Bidasoa ibaiaren adar garrantzitsuenak Errolasarko eta Jaizubia dira.

Bidasoa Beherean bi udal bakarrik daude: Irun, Gipuzkoako bigarren herririk handiena, eta Hondarribia. Lehendabizikoa eskualdearen barnealdean dago eta bigarrena, berriz, badiaren alboan. Bi udal horien herriguneak elkarturik daude gaur egun, eta elkargune hori Donostiaren eraginpean dagoen azpimultzo baten buru gertatzen da.

Frantziako mugakide izanik, ekonomia jardueraren zati handi bat aduanaren burokraziaren ingurukoa izan da, baita eskualdea zeharkatzen duten bide azpiegituren ingurukoa ere: A-8 autobidea (Bilbao-Behobia) eta N-1 errepidea (Madril-Irun), gero Pariseko bidea hartzen dutenak. N -121 eskualdeko errepideak Bidasoa Beherea Nafarroarekin lotzen du; errepide horri esker eskualde honek harreman estuak ditu ipar-ekialdeko nafar herrieekin.

Trenbide komunikazioetarako geltoki handi bat dago Irunen, mugaren beste aldean, Hendaian, jarraipena duena. Bada bide estuko trenbide bat, Eusko Tren enpresaren mendekoa, Donostia eta Hendaia lotzen dituena. Topo. izenez ezaguna da. Bi trenbide horiei, baliteke agian denbora gutxi barru Abiadura Handiko Trena ere gehitzea.

Garraiobideen azpiegituraren barnean, azkenik, Hondarribia ondoan berrogeita hamargarren hamarkadaren amaieran eraikitako aireportua dago. Pista bakarrekoa da, txikia, eta handitzea, bestalde, ia ezinezkoa da, lehendik ere itsasoari kendutako lurren gainean baitago egina.

# Hondarribia

**AZALERA: 28,63 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 16.937\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Hondarribiko Tokiko Agenda 21eko I. Ekintza Planaren berrikuspenerako parte-hartze prozesua

Hondarribiko Udalak 2018an abiatutako parte-hartze prozesuak helburu izan zuen herritarren parte-hartzearekin batera Hondarribiko errealitate desberdinen diagnostiko konpartitu bat egitea, Hondarribiko kudeaketan estrategikoak izango diren gaien inguruko hausnarketa bultzatzea eta, parte-hartzearen, elkarlanaren eta adostasunaren bidetik, gaurko eta biharko beharrei modu eraginkorrean erantzuteko proiektuak definitzea, baita horien gauzatze mailaren jarraipena egitea ere.

Horretarako, hain zuzen, Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuspenera egiteko prozesua abiarazi zuen eta jarraian laburbiltzen dira prozesuari lotutako lan nagusiak:

- Aholkularitza-teknikoarekin kontratua formalizatzea.
- Prozesuaren zuzendaritza eta koordinaziorako talde eragilea sortzea. Talde hori, arloko zinegotziak, teknikariak eta, aholkularitza-enpresako kideak osatu zuten. Bere egitekoa zen prozesuaren gidaritza orokorra aurrera eramatea.

- Udaleko sail ezberdinen arteko koordinaziorako eta inplikaziorako Jarraipen Batzordea sortzea. Ondorengoek parte hartu zuten:
  - » Gazteria-teknikaria.
  - » Kultura eta turismoko teknikaria.
  - » Kiroletako teknikaria.
  - » Gizarte zerbitzuetako gizarte-langileetako bat.
  - » Ingurumeneko zinegotzia.
  - » Alkatea.
  - » Bidasoa eskualdeko garapen-agentziako teknikarietako bat.
  - » Euskarako teknikaria.
  - » Arkitektoa.
  - » Arkitekto teknikoa.

Jarraipen Batzordea martxoaren 19an bildu zen lehen aldiz eta bilera horretan I. Ekintza-Planaren berrikuspenera-prozesuaren nondik norakoak azaldu eta herriko egoeraren diagnostikoak izango zuen egitura eta eduki nagusiak zeintzuk ziren azaldu zen.





- Udalerriko laburpen-diagnostikoaren lehen bertsioaren idazketa-lanak aurrera eramatea: apirila-uztaila.
  - Herri-bilera antolatzea: maiatzaren 23an antolatu zen, udaletxeko bilkura-aretoan. 15 bat herritar bertaratu ziren (banakakoak, auzo elkarte batekoak, Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateko uren teknikaria eta hondakinen teknikaria, Bidasoa bizirik garapen-agentziako zuzendaria eta teknikarietako bat, udaleko ingurumen zinegotzia, oposizioko alderdietako ordezkariak..) Helburua prozesua aurkeztea, diagnostikoaren ezaugarri orokorrak azaltzea (diagnostikoaren emaitzen aurkezpena irailaren amaieran egin zen) eta 2030 urtera begirako Hondarribiko ikuspegia adosteko talde-dinamika egitea izan zen. Bertan jasotako ekarpenak eta ideiak aktan jaso ziren eta II. Ekintza-plana izango denaren oinarrietako bat izango dira (herritarren ikuspuntutik abiatuz).
  - Uztailean herriko sektore zehatzekin Hondarribiko arazo, indargune eta etorkizuneko erronkak antzemateko elkarrizketa-saioak antolatzea:
    - » Jubilatuekin.
    - » Emakumeekin.
    - » Kultur izaerako elkarrekin.
    - » Hezkuntza-zentroekin.
    - » Gazteekin.
    - » Kirol arloko elkarrekin.
    - » Merkatariekin.
- desberdinetan banatu zen.
1. Aurretiko fasea: Fase honetan, prozesuaren oinarriak zehaztu ziren, ikuspegia eta lehentasunak adostuz eta partaidetzarako eta komunikaziorako mekanismoak diseinatu.
  2. Informazio bilketa: Informazio kualitatibo zein kuantitatiboa bildu eta antolatu zen fase honetan.
  3. Diagnostikoa osatzea: Jasotako informazioa landuz eta interpretatuz, laburpen-diagnostikoa osatuko zen fase honetan.
  4. Planaren formulazio estrategikoa definitzea: laburpen-diagnostikoan lehentasunezko hartutako eremuak oinarri hartuta, planaren ikuspegi, helburu estrategiko eta helburu konkretuak zehaztu ziren atal honetan.
  5. Ekintzen ezaugarriak finkatzea: Ekintza-planeko ekintza bakoitzaren deskribapen-fitxak bete ziren, Ekintza-planaren zehaztasunak jasoz.
  6. Planaren kudeaketarako eta jarraipenerako tresnak diseinatzea: Behin Ekintza-planaren oinarriko edukia finkatuta, planaren kudeaketa zuzenduko zuten puntuak zehaztu ziren. Aldi berean, planaren jarraipena egiteko tresnak finkatu ziren.
- Gauzak horrela, parte-hartze prozesuan egindako bilerak zein elkarrizketak positiboak izan ziren. Parte-hartzaile kopurua txikia izan bazen ere, horiek egindako ekarpenak guztiz garrantzizkoak izan ziren proiektuak barneratzeko, beste ikuspuntu bat jasotzeko eta herritarren errealitatea ezagutzeko.

Hori guztia aurrera eramateko, halaber, metodologia zehatza jarraitu zen. Horrela, prozesua 6 fase



# Irun

**AZALERA: 42,8 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 59.899**

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Aurrekontu parte-hartzaileak

Irungo Udalak urteak daramatza aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa lantzen. Hain zuzen 2011n ekin zion lehen aldiz eta orduz geroztik, urtetik urtera, gardentasuna ardatz hartuta, prozesua egokitzen joan da, bereziki bozketa fasearen eraginkortasuna eta zehaztasuna hobetuz.

2018an, urtero legez, Udalak 1.500.000€ko kontu saila jaso du herritarrek diru horrekin zer egin erabaki dezaten. Prozesua bi zatitan banatu da:

- Orokorra, 16 urtetik gorako herritarrekin: 1.300.000€.
- Gazteak, 16-30 urte bitarteko herritarrekin: 200.000€.

### PROZESU OROKORRA

Ohikoa den bezala, prozesu orokorrean zein gazteen prozesuan, bi fase nagusi bereizi dira: proposamenak egiteko fasea (presentzialki zein internet bitartez; gazteek soilik internetez) eta webgunearen bitartez bozkatzeko fasea.

#### Proposamenak egiteko fasea:


Prozesu orokorrean proposamenak egiteko, online egiteko aukeraz haratago, 2 saio ireki egin ditu.

Saio horietan, herritarrek beren ideia eta proposamenak aurkeztu dituzte 7 arlotan banatuta:

kultura, aisia eta kirola - tokiko ekonomia - hezkuntza eta hizkuntzak - gizarte-ongizatea - Irun berdea - lanak eta mantenua - beste batzuk. Aurkeztutako guztien artean 14 aukeratu dira azken bozketa faserako.

Aldi berean, herritarrek proposamenak internet bitartez aurkezteko aukera ere izan dute eta presentzialki egiten den moduan, aurkeztutako guztien artean 6 gustukoena bozkatu dituzte azken faserako.

Behin presentzialki zein online egindako proposamenak elkartu eta guztien bideragarritasunaren balorazioa



egin ostean, webgune bitarteko azken bozketa fasera pasatzen da prozesua. Urtero 20 proposamen izaten dira azken bozketa fasera eramaten direnak.

### Azken bozketa fasea

Azken fase honetan, herritarrek gustukoak dituzten proposamenak bozkatzen dituzte Irun txartela erabiliaz. Dena den, 2018an, azken bozketa fasea zabaldu aurretik, bilera ireki bat egin da fase horretan dauden proposamen guztiak azaltzeko eta kanpo gelditu direnen kontu ere emateko. Bilera hori urriaren 4an egin zen Palmera Montero gunean.

### GAZTEEN PROZESUA

Gazteen prozesuak bide bakarra dauka proposamen bilketarako zein azken bozketarako; guztia internet bitartez egiten da. Aurten baina, prozesu honetan gazteen parte-hartzea areagotzeko xedez, informazio karpa bat jarri da eta bertan informazioa eskaini eta proposamenak ere jaso dira. Horiez gain, berritasun gisa, Eskola Agenda 21eko bi proposamen ere txertatu dira.

Horiek zein internet bidez egindakoak azken bozketara pasa dira eta bertan bozka gehien jaso dituen proiektuekin osatuko da gazteei bideratutako 200.000€ko kontu saila.

Aipatutakoaz gain, beste urteetan bezala, prozesu honetan gazteei parte hartzeko aukera zabaltzeko foro irekiak ere egin dira, bai online zein presentzialki. Horrez gain, kale dinamizatzaileak jarri dira eta

prozesuaren aurkezpen bideo bat ere zabaldu da sare sozialetan.

Era berean, prozesu orokorrean egin bezala, urriaren 4an bilera irekia ospatu zen Palmera Montero Auzo-Etxean, azkeneko bozketari begira gazte prozesuan balioetsitako proposamenak azaltzeko.

### ALKATEA AUZOETAN

2011n, udal hauteskundearen ondoren, alkateak Udal Etikaren aldeko Dekalogoak argitaratu zuen eta horren baitan hartutako konpromisoen artean, hiriko auzoetako bizilagunekin bilera irekiak egiteko hitza eman zuen, bertakoek ideiak, kezkak eta iritziak entzun eta jasotzeko.

Horrela jaiotzen beraz, "El alcalde en los barrios" deituriko ekimena. Horren bitartez, legealdian behin, alkatea Irungo auzo desberdinetara joaten da bertako bizilaguneari entzuterako. Bisitaldi horietan, halaber, proposamen horiek egiteko konpromiso berriak hartzen ditu eta aurrez hartutako kontu ematen die.

Azken legealdian egindako bisitaldietatik hauek dira emaitzak:

- Jasotako eskaerak: 601.
- Konpromisoa sortu duten eskaerak: 454 (%75,54).
- Amaituta dudenak: 267 (%58,81).
- Prozesuan daudenak: 82 (%18,06).
- Egin gabe daudena: 51 (%11,23).
- Egin ezinak: 54 (%11,89).



## Javier Arranz

Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze zuzendaria

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea herritarrei hitza emateko modu bat da, baita udal kudeaketarekiko erantzunkidetasuna sustatzeko bide bat ere. 2011n Informazio gizartearen eta herritarren parte-hartze arloa sortu zen eta orduz geroztik, Irungo Udalak urteak daramatza egoera desberdinen inguruan herritarren iritzia ezagutu eta jaso nahian, horrela, ordezkartzako demokrazia eta parte-hartzearen demokrazia elkar uztartuz eta osatuz. Udalak aurrez parte-hartze bide garrantzitsuak bazituen ere, 2011z geroztik, herritarren parte-hartzea alkatetzak ezarritako lan ildo estrategikoetako bat da. 2011n, hain zuzen, alkatearen konpromisoen inguruko dekalogoia argitaratu zen eta bertan, gardentasuna eta parte-hartzea elementu osagarri gisa jaso ziren.

Horregatik, Irungo Udalarentzat, udaletxetik bultzatutako edozein proiektu, ekimen edo egitasmo osatzeko eta hobetzeko baliagarria den lan tresna gehigarri bat da parte-hartzea, gure lana hobetzeko ezinbesteko tresna, alegia.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Alkatearen dekalogoan adierazten zenaren arabera, 100.000€tik gorako aurrekontua zuen proiektu oro martxan jartzeko parte-hartze prozesu bat abiarazi behar zuen Udalak eta hori, guztiz bete da azken urteotan. Are gehiago, aurrekontu hori baino askoz txikiagoa duten ekimen xumeagoak burutzeko ere jarri dira parte-hartze prozesuak martxan, esate baterako festetarako kartela edota inauterietakoa.

Garrantzia minimo bat duten proiektu ia guztiak egiten dira jada parte-hartze prozesu bidez. Noski,

prozesu bakoitzak bere parte-hartze eredua izango du, prozesuaren arabera definituta. Horrez gain, zeharkakotasun handiago duten prozesuak ere baditugu, besteak beste aurrekontu parte-hartzaileak edo alkatea auzoetan ekimena.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Asko kostatzen da. Momentu honetan oso aktiboak diren elkarte ugari ditugu Irunen baina herritarren parte-hartzea eskasagoa da. Prozesu motela da, baita, nolabait, hezkuntza prozesu bat ere. Udaletik, ahal dugun heinean, erantzunkidetasunaren eta elkarlanaren oinarriak islatzen eta sustatzen saiatzen gara, baina herritarrek askoz ere errazago hartzen dute parte gertuko gaietan, norbanakoari eragiten dioten gaietan, alegia, gai orokorretan baino. Oso zaila da herri mailako gaietan edota etorkizuna eraikitzeko proiektuetan parte-hartze altua lortzea. Gai zehatzetatik orokorretara salto egitea oso prozesu zaila eta motela da. Eta ildo horretan bereziki gazteak erakartzea da zailena.

Alkatea auzoetan ekimenak, adibidez, parte-hartze oso altua du, baina, esan bezala, ekimen horretan landutako gaiak norbanakoei eragiten dieten gaiak izaten dira, auzo konkretu bateko bizilagunei eragiten dieten gaiak, esaterako.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Alkatea auzoetan ekimena, 2011n alkateak hartutako 10 konpromisoen harira sortutako programa da. Horren arabera, gutxienez legealdian behin alkateak Irungo auzo guztietara joateko konpromisoa hartzen du, bertako bizilagunen eskaerak eta proposamenak entzun eta jasotzera. Azken txandan

500 ekarpenetatik gora jaso ziren eta horietatik %75a betetzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Ondoren, horien guztien kontu ematea egiten da eta bertan, proiektu, egitasmo edo ekintza bakoitza nola dagoen azaltzen da. Horrek sinesgarritasuna ematen dio ekimenari, baita aurrekontu parte-hartzaileei ere. Gardentasunez jokatzeko dugu eta hartutako konpromiso guztien zein proiektuen egoeraren berri ematen diegu herritarrei, onerako eta txarrerako.

Aurrekontu parte-hartzaileei dagokienean, duela 6 urte abiarazi genuen lehen aldiz aipatu egitasmoa eta urtetik urtera gauza mordoa ikasten dugu, bat bera ere ez baita aurrekoaren berdina izan. Nabardurak gehitzen joan gara. Lehen urtean hala moduz jarri genuen martxan, baina bigarrean, adibidez, proposamenen azken bozketan zorroztasun handiagoa behar genuela konturatu ginen. Horrela sortu zen, hain zuzen, Irun txartela, eta honek, gaur egun, Udalaren eta herritarren arteko harreman elektronikoa errazten du. Horren bitartez hainbat tramite egin daitezke, horien artean, bozketa digitalak.

Ondorengo urtetan egokitzapen ugari egin ditugu parte-hartzea sustatzeko, betiere, zorroztasuna galdu gabe edota aurrez-aurreko saioak alde batera utzi gabe. Azken horiei, hain zuzen, garrantzia handia ematen diegu, gai zehatzetatik orokorretara salto egiteko lan tresna ezin hobeak direlako.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Alkatea auzoetan programaren bitartez, alkatea Irungo auzo guztietara joaten da bertakoen eskaera eta proposamenak entzun eta jasotzera. Eskaera horiek guztiak jasotzen diren bitartean, bizilagunek pantaila batean ikus dezakete prozesu hori.

Aurrekontuen ekimenean, aldiz, aurrez-aurreko saioak internet bidezko lanketarekin osatzen dira. Internet bidez jasotako guztia udal teknikariek aztertzen dute, prozesuko irizpideak betetzen dituztela ziurtatzeko eta proiektua bideragarria den ala ez jakiteko. Ondoren, aurre-bozketa bat egiten da. Aurrez-aurreko saioetan, halaber, aurre-bozketa hori saioan bertan egiten da. Herritarrek gehien bozkatutako proposamenak jasotzean, guztira 20 proposamenez osatutako zerrenda bat osatzen da eta horiek pasatzen dira azken bozketa fasera. Horien artean bozka gehien jasotzen dituztenak udal aurrekontuaren baitan txertatzen dira herritarrei bideratutako kontu-saila estali arte. Zailtasun asko topatu ditugu azken urteotan, baina horietatik nagusiena, herritarrek parte hartzea lortzea izan da.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Aurrekontu parte-hartzaileen kasuan, parte-hartzea nabarmen jaitsi da. Alkatea auzoetan ekimena, aldiz, oso arrakastatsua da eta auzoetatik hirugarren bisitaldi bat egitea ere planteatu da. Baina aurrekontuen prozesuarekin sententzio gazi-gozoa dugu. Dena den prozesua behar bezala garatu da eta kontentua gaude emaitzekin.

### **Zein ikasgai ateratu dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Lan egiten jarraitu behar dugu eta herritarrentzat deigarriak diren gaiak landu behar ditugu, asko kostatzen baita herritarrek parte-hartzeko aukera hori dutela ulertzea, herriaren eraikuntzan parte hartzeko aukera hori eskura dutela ikustea, alegia.

# DEBA BEHEA

Deba Behereko eskualdeak 180,3 km<sup>2</sup>-ko lur eremua hartzen du Gipuzkoako hego-mendebalean. Markina-Ondarroa eta Durangaldea ditu mugakide mendebaletik; ekialdean, Urola-Kostaldea; hegoaldean, Deba Garaia; eta iparraldean, itsasoa. Eibar da eskualde honetako herririk nagusia. Eibarren eraginpean bizi dira: Elgoibar, Deba, Soraluze, Mutriku eta Mendaro. Bizkaiko Ermua eta Mallabia ere Eibarren eraginpean sartzen dira guztiz; halaber, Bergarak gisa bereko eragina du Soraluzeri buruz. Eskualde honetako hondartzarik garrantzitsuenak dira: Mutrikun, Ondarbeltz, Mutriku, Zazpi Hondartzak eta Saturraran, eta horiei Debako hondartza gehitu behar zaie. Deba ibaiak bere ur barrenean bihurtune handiak egiten ditu Altzolara heldu bitartean; hortik aurrera, Arnoko alderdira sartzen da berriro ere, itsaso aldera jo aurretik; 58 km egin ondoren, estuario bat sortzen du itsasoratzean.

Komunikabide egokiak ditu eskualde honek. A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak eta kostaldeko N-634 errepideak lotzen dituzte herri nagusiak, eta euskal itsasaldearekin nahiz Donostia edo Bilborekin harreman bideak jartzen dituzte. Bizkaiko hiriburua hurbil izanik, merkataritzaren aldetik eskualde honetako herri gehienek Bilbora dute joera, ez Donostiara. Oinarrizko sareko GI-638 errepideak Mutriku eta Ondarroa Debarekin lotzen ditu. GI-2634 errepideak Elgoibar Azpeitiarekin lotzen du, eta GI-2636 errepideak Elgoibar Markinarekin. Eskualdea burdinbide bakarrak zeharkatzen du, Donostiatik Bilboraino doan bide estukoak; garrantzi handia dauka Elgoibar, Eibar eta Ermua bitarteko aldiriko zerbitzu gisa.

Deba Beherean industrian ari diren langileak biztanleria aktiboaren erdia dira gutxi gorabehera; hirugarren sektoreak ehuneko berrogei hartzen du, eraikuntzak ehuneko bost eta lehen sektoreak ehuneko hiru. Pisurik handiena metalen transformazioko industriak dauka. Turismoari lotutako jarduerak Deban eta Mutrikun bakarrik dauka pisurik. Mendaron dago eskualdeko ospitalea, eta Eibarrek eskualde osoko epai barrutiko buru gisa jokatzeko du; lehen instantziako eta lehen instrukzioko bina epaitegi ditu. Itsasoko arrantza Mutrikun egiten da bakar-bakarrik.



# Elgoibar

**AZALERA: 39,2 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 11.585\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

San  
Bartolome  
jaietako  
programa  
diseinatzeko  
partaidetza  
prozesua

Elgoibarko San Bartolome jaiak abuztu amaieran ospatzen dira eta herriko jai garrantzitsuenak eta kuttunenak dira. Ohiturei, erlijioari eta herria zein herritarren identitateari loturiko festak dira. Elgoibartarren hitzetan, "San Bartolomeak herritar guztien festak dira, betikoak, gureak".

Hori kontutan hartuta, Udalak, jaien premiak ezagutu eta egitaraua hobetzeko, parte-hartze prozesua abiarazi zuen, horren bitartez, haur, gazte zein helduen proposamen eta iritziak jasotzeko.

Parte-hartze prozesua urtarrilaren 22an hasi eta otsailaren 5ean amaitu zen. Denbora tarte horretan, besteak beste, herritarren iritzia ezagutzeko 6 bide desberdin zabaldu zituen Udalak:

- Telefono zenbaki bat ekarpenak egiteko.
- Telefono mugikor bat Wathsapp bidez ekarpenak egiteko.
- Helbide elektronikoko bat, udalerriko gainerako parte-hartze prozesuetan erabiltzen dena.
- Online galdetegia udal webgunean.
- Galdetegi deskargagarria udal webgunean.
- Galdetegia Herritarren Arretarako udal bulegoetan.

Horrez gain, herritarren iritzian sakondu eta beren eskaerak zuzenean jasotzeko, 4 parte-hartze saio egin ziren, adinaren arabera banatuta:

Urtarrilak 26	5 eta 12 urte bitarteko haurrak
Urtarrilak 26	13 eta 15 urte bitarteko haurrak
Urtarrilak 31	60 urte edo gehiagoko herritarrekin
Otsailak 2	16-25 urte bitarteko gazteeekin

Udal sareetan eta herriko medioetan ere zabaldu zen parte-hartze prozesuaren berri, ahalik eta herritar gehienei iristeko asmoz.

Proposamenak jasotzeko garaian, galdera desberdinak luzatu zitzaizkien herritarrei, hala nola, zer diren San Bartolome jaiak, zer duten gustukoen jaietatik edo zer hobetuko luketen. Erantzunen artean, nabarmenak izan ziren ondorengoak:

- Zer dira San Bartolome jaiak: "Betiko jaiak dira, gureak, guretzat eginak, ez beste herrikoentzat".

- Zer da gehien gustatzen zaizuna San Bartolome jaietan?: Euskal musika, adin tarte bakoitzak bere eguna duela, guztiontzako ekintzak daudela, kontzertuak, musika kalean.
- Zer hobetuko zenuke San Bartolome jaietan?: segurtasuna, kontzertuen ordutegiak, sokamuturraren eremua

Proposamen orokorren atalean, aldiz, hauek izan ziren jasotako batzuk:

- Umeen eta jubilatuen eguna banatzea.
- Su artifizialak jartzea.
- Tortilla lehiaketa.
- Sokamuturra ikusteko leku aproposa bilatzea.
- Elektro txaranga jartzea.
- Haurrentzako jolas alternatiboak jartzea.

Amaitzeko, haur, nerabe edota helduen egunetarako proposamenetara joz, ondorengoan izan ziren errepikatuenak:

- Umeen egunean (5-12 urte): Patin lehiaketa, eskalatzeko tresnak, giza mahai-futbola, futbol txapelketa, Golazen, Twin Melody..
- Umeen eta gazteen egunean (13-15 urte): Esne Beltza, Glaukoma, disko gazteentzat, pin pon lehiaketa, eskubaloi partidak, mendi txirindulari lasterketa, dantza lehiaketa..
- Gazteen eguna (16-25 urte): Glaukoma, Gatibu, Zea Mays, oztopo-lasterketa, gaueko ikuskizunak..
- Helduak (26-59 urte): Jazz kontzertuak, Belako, Su ta Gar, Euskal Dantza klaseak, helduentzako karaokea, antzerkia, paella edo marmitako lehiaketa..
- Jubilatuen eguna (60 urtetik gora): Talde mexikarrak, musika heavy eta funk, tonbola, postuak, txokolata txurroekin goiz eta arratsaldez..

Prozesuan guztira 113 lagunek hartu zuten parte. Proposamen anitz eta andana batu zituen Udalak eta horiei esker, festa egitarau oparoa antolatatu zen, adin guztiei zuzenduriko ekintza desberdinekin.

Festak amaitu ostean, halaber, balorazioa egiteko bilera egin zen eta herritarrek begi onez ikusi zuten egindako prozesua eta egituraturako egitaraua.





## Andrea Arriola

Parte-hartze eta gardentasun zinegotzia

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat parte-hartzea herritarren ahotsa entzuteko modu bat da. Parte-hartze horrekin Elgoibarko bizitza indartu nahi dugu, herritarrek nahi dutena kontutan hartuta, ahal denean behintzat, gauzak beraien gustura egiteko. Herritarrek politikan inplikatu nahi ditugu, hau da, udal erabakietan parte-hartzeaz haratago, udal dinamika ezagutzera eman nahi diegu eta ekintza edota proiektuen planteamenduetan ere inplikatu nahi ditugu, modu horretara, gauzak aurrera eramatea zenbat kostatzen den zuzenean ikus eta ikas dezaten. Gobernu Irekia deitzen dugun honetan, parte-hartzea eta gardentasuna eskutik helduta doaz eta gure helburua da herritarrei parte-hartzeak dakarren konpromisoa helaraztea, hau da, herria eta herritarrekiko konpromiso hori ezagutaraztea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Guretzat parte-hartzea Udaleko sail guztietan kontuan hartu beharreko zerbait da. Sail batzuek parte-hartze prozesu oso konkretuak dituzte, programa batzuen baitan kokaturik daudenak, hain zuzen, baina beste hainbat sailek zeharka lantzen dituzte, beste departamentuekin elkarlanean. Horren adibide dira, esaterako, Jai Batzordea edota aurrekontu parte-hartzaileak. Guretzat oso garrantzitsua da udal teknikariek ere parte-hartzea barneratuta izatea eta parte-hartzea sustatzea.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte-hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Orokorrean kostatzen da. Gaur egungo gizartea oso indibidualista da, empatia gutxi dago eta norberaren arazoak konpontzea da nahi edo ardura nagusia. Prozesu parte-hartzaileek, baina, ikuspegi hori aldatzen laguntzen dute. Parte-hartze prozesuetan parte hartzen duten herritarrek, interes indibidualez haratago, herri ikuspegi bat izatera heltzen dira. Baina denak ez daude horretarako prest. Denak ez daude ezezko bat entzuteko prest edota herri osoko gauzak lantzeko prest.

Era berean, parte-hartzean kopurua garrantzitsua da baina ez garrantzitsuenak. Gure ustetan, garrantzitsuenak iritzi desberdinak jasotzea da. Elgoibar herritar askok eta iritzi anitz eta desberdinek osatzen dute eta horiek guztiak ezagutu eta jaso nahi ditugu, ez soilik gehiengoak pentsatzen duena. Aniztasuna bilatzen dugu.

Herritarrek animatzeko orduan, deialdi zabala egiten dugu: gazteak, helduak, elkartek, eragileak... Horretarako gure eskura ditugun medioak erabiltzen ditugu: digitalak, komunikabideak... Komunikazioa heltzen zaiela uste dugu, baina oso zaila da ondoren guztiak animatzea. Oraindik ere asko kostatzen den zerbait da.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Jaiak antolatzeko betidanik egin izan dugu parte-hartze prozesu moduko bat. Antolakuntzan hasi orduko, Udaletik herritarrei zuzenduriko deialdia egiten genuen telefonoz edo posta elektronikoz ekarpenak egin zitzaizkion. Dinamika horrekin, ordea, nahi edo ekarpen indibidualak lortzen genituen eta ez programa sendotzeko ekarpenak. Horregatik deialdia herriko elkarteei zabaltzea erabaki genuen.

Deialdi horretan jende asko gerturatu ez bazen ere, profil oso desberdineko herritar eta elkarteak hurbildu ziren. Bileren bitartez, ekitaldi konkretuak lantzeaz haratago, herritar orori zuzenduriko programa bat landu nahi genuen, behar eta berezitasun konkretuak jasotzen zituen programa bat, alegia.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Prozesua bi arlotan banatu genuen: herritarrekin landutako arloa batetik eta teknikoekin landutakoa bestetik. Urtarriletik maiatzera bitartean hilean behin elkartu ginen herritar eta elkarteekin. Hasieran 2017ko programa eman genien begirada orokor bat bota zezaten eta ondoren, saioz saio beren proposamenak eta ekarpenak jasotzen eta lantzen joan ginen. Aldi berean, proposamen horiek teknikariekin partekatzen genituen bideragarritasuna aztertzeko eta maiatzerako, gutxi gora behera, programa berria lotu genuen.

Modu horretara lan eginez genero ikuspegiak herritarrentzat eta herriko elkarteentzat duen garrantziaz jabetu ginen, baita adin desberdinetako umeentzat edota behar bereziak dituzten pertsonentzat (autistak, gurgildun aulkien doazenak...) ekintza eta ekitaldi desberdinak antolatzearen garrantziaz ere. Behar desberdinak dituzten kolektibo desberdin asko identifikatu genituen elkarlanean eta horiek guztiak kontuan hartuta osatu genuen programa.

Zailtasunak, gehienetan, teknikoak edota ekonomikoak izan ohi dira. 6 egun dira eta gauza eta ekintza asko izaten da antolatzeko.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua oso interesgarria eta lagungarria izan da. Askotan, antolakuntza lanetan murgilduta gaudela, hainbat gauzek ihes egiten digute, baina prozesu honen bitartez, herritarren eta elkarteekin laguntzarekin, horiez guztiez jabetu eta herritar ororentzat eginiko programa osatu genuela esan genezake.

Prozesua guk nahi bezain partaidetsua izan ez den arren, parte hartu dutenak oso inplikaturik egon dira. Amaieran, jaien balorazioa ere egin genuen elkarlanean eta orokorrean, emaitza ona izan zuen.

Noski, datozen urteei begira hobetzeko gauza ugari ditugu, baina horri lotuta, azken hartu eman hori jaiak hausnartu eta hobekuntza puntuak identifikatzeko oso interesgarri zein aberasgarria izan zela uste dugu, datozen urteei begira horiek hobetzeko.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Egia esan asko ikasi dugu prozesuan zehar: urtero errepikatzen diren ekintzak beste modu batean egin behar direla, jendeari heltzeko beste modu batean antolatu behar dugula... Batzuetan ezetz esan behar dela ere ikasi dugu, beti ezin baitira gauzak guztion gustura egin. Azken hori, bai guk baita herritarrek ere ikasi dute, gainera.

Guzti hori ikusirik, datozen urteetan ere berdintzat jarraitzea da gure asmoa, eta horretarako ezinbestekoa da herritarren ahotsa entzuten jarraitzea.

# DEBA GARAIA

Gipuzkoako hego-ekialdeko 348,4 km<sup>2</sup>-ko lur eremua hartzen du. Iparraldean Deba Beherea du muga; ekialdean, Goierri; mendebalean, Araba eta Bizkaia; eta hegoaldean, Arabako lurraldea. Zortzi udal dira eskualde honetan, Arrasate buru dutelarik. Arrasatekiko mendekotasun urbanoa oso agerikoa da Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan. Bergarak berriz eskualdeko bigarren buru izateko joera dauka; Bergararen eraginpean dira Antzuola eta Elgeta, nahiz azken herri hori nolabait Eibarrekin ere lotua egon. Soraluze Deba Behereko eskualdean egonda ere, Eibar eta Bergararen eraginpean bizi da.

Donostiarekiko komunikabideak kaskarrak direnez, eskualde honetako hego-mendebaleko muturra askoz ere gehiago lotzen zaio Arabako hiriburuari. Deba Garaiko komunikabide nagusiak oinarriko errepide sareko GI-632 (Beasain, Zumarraga, Bergara eta Durango lotzen dituena) eta GI-627 errepideak dira (Maltzaga, Bergara, Arrasate eta Gasteiz lotzen dituena); azken errepide hori aurki Maltzagatik Urbinarainoko autobideak hobetuko du. Abiadura handiko trenak eskualdea E-W norabidean zeharkatuko du, Bergararen inguruan, esku artean den proiektuaren arabera.

Industriak eskualde honetan duen pisu nabarmena neurri handi batean kooperatiben mugimenduari zor dio. Mugimenduaren sorlekua 1941ean Arrasaten zabaldutako Lanbide Eskola izan zen; eskolan ari izandako bost ikaslek ULGOR sortu zuten, lehendabiziko kooperatiba. Kooperatibetan lanean ari ziren langileen behar sozial eta ekonomikoek eraginda, 1959an kreditu kooperatiba sortu zuten, Lankide Aurrezki Kutxa, hortik aurrera, kooperatiben mugimenduak urrats handiak egin zituen, langintza anitzagoetara zabalduz eta Arrasatez kanpora hedatuz. Gaur egun, Mondragon Korporazioak berrehun bat kooperatiba elkartzen du industrian, agro-elikaduran, irakaskuntzan eta zerbitzuetan. Osasun zerbitzuen atalean nabarmentzekoa da Arrasaten dagoela Euskal Herriko ospitale psikiatrikorik handiena.



# Arrasate

**AZALERA: 34,2 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 22.058\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Partaidetzazko aurrekontuak

Udalak 2018ari begira ekin zion lehen aldiz Partaidetzazko aurrekontuen ekimenari. Lehenago ere beste hainbat arlotan parte-hartze prozesu desberdinak egin bazituen ere, aurrekontuen kasuan, 2018rako dokumentua lantzeko garaian jarri zuen, lehen aldiz, 250.000€ko kontu saila herritarren esku, arrasatearrek erabaki zezaten diru hori zertara bideratu.

Prozesuak herritarren artean izandako harrera ona eta arrakasta ikusirik, 2019ko aurrekontuak prestatzeko ere formula berdinez baliatu zen Udala, helburu baitu Arrasateko etorkizuna herritarrekin elkarlanean eraikitzen jarraitzea.

Prozesuari erreparatu, partaidetzazko aurrekontuen xedea kudeaketa eraginkorragoa lortzea da, baita demokrazian sakondu eta herritarrek udalgintzan inplikatzeko ere. Horretarako, ezinbestekoa da herritar aktiboak sustatzea, herritartasuna eta erantzunkidetasunean sakonduz eta politika-eredu parte-hartzailearen kultura sustatuz. Era berean, partaidetzazko aurrekontuen bitartez

herritarren eta erakundeen arteko lotura indartu eta Udalarekiko konfiantza handitzea da helburua, hau da, elkarren arteko elkarlan eta parte-hartzea indartzea.

Gauzak horrela, Udalak herritarren inplikazioa bultzatu zuen, horretarako haien erabakimena handituz. Horrek, halaber, herritarren nahiak ezagutzeko aukera eman zion Udalari, modu horretara guztion beharretara egokitutako herria eraiki ahal izateko.

### Prozesuaren inguruko nondik norakoak

Partaidetzazko aurrekontuak bi fase nabarmen izaten ditu: proposamenak egiteko fasea eta bozketa fasea. 2019ko prozesuak, ordea, berezitasun nabarmenak izan zituen. Esate baterako, 2018an jasotako proposamen mordo delatzen eta, 2019ari begira, Udalak proposamen fasea bertan behera uztea erabaki zuen, aurreko urtetik oraindik ekarpen mordo baitzegoen bideragarri eta baliagarria. Azkenean, ordea, fase hori zabaldu eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Kronogramari dagokionean, hauteskundeak medio prozesuak nahi baino luzeago jo zuen eta bozketa fasea azaroan egin zen. 2018an, gainera, azpimarra berezia jarri zen bozketa fasean, herritar gehiagok parte hartzea helburu hartuta.

### **Emaitzak**

Proposamen fasea oraingoan ez zen oso emankorra izan; guztira 23 proposamen egin zituzten herritarrek (bideragarriak 13), baina aurreko urtetik oraindik 100 proposamen bideragarri baino gehiago zeudela kontutan hartuta, guztira 115 proposamenen artean bozkatu ahal izan zuten arrasatearrek.

Gauzak horrela, bozketa faseak iraun zuen bi astetan, alderdi pedagogikoa lantze aldera, Emuneko aholkulariak herritarrei informazioa eman edota haien zalantzak argitzen hainbat udal eraikinetan egon ziren, besteak beste, BAZen, Kulturaten, Musakolan, Etxaluzen, Santa Marina auzoko liburutegian..

Azaroaren 12tik 22ra bitartean, guztira 725 bozka jaso ziren, 355 emakumeak eta 370 gizonezkoak. Internet izan zen bozkatzeko gehien erabilitako bidea baina informazio guneetan ere 184 bozka jaso ziren.

Hauek izan ziren herritarrek aukeratutako proposamenak:

- Jose Luis Iñarrako jolas parkea zein espaloiak hobetu eta berritzea.
- Santa Marinako auzoa egokitzea.
- Bidegorrian komun publikoak jartzea.

Emaitzen eboluzioaren inguruan esan behar da balorazioa ona izan zela, helburua bozketa fasea indartzea eta herritar gehiagoren parte hartzea lortzea zelako. Horrez gain, herritarrek, 2017an proposatutako proiektuak gauzatuta zeudela ikusi zuten eta horrek parte hartzen jarraitzea animatu zituen, kultura parte-hartzailea ere areagotuz.





## Maria Ubarretxena

Arrasateko alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat parte-hartzea garrantzitsua da Udala herritarrei gerturatzeko modu bat delako, Udalaren edo administrazio publikoaren eta herritarren arteko distantzia hori txikitzeko modu bat, alegia. Parte-hartzea ere mota ezberdinetako izan daiteke: informazioa ematea, bozketa bat egitea, hausnarketa kolektibo bat egitea... Prozesu bakoitzak parte-hartze mota ezberdin bat eskatzen duela uste dugu, baina modu natural batean herritarrekin interakzio hori lantzea izango litzateke guretzat parte-hartzea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Arrasateko Udala aurreko legealdian hasi zen prozesu parte-hartzaileak egiten. Aurretik ere egon zen beste prozesuren bat edo beste, hala nola, azokaren ingurukoa, baina modu puntualago batean egiten ziren. Joan den legealdian, ordea, gai askoren inguruan hasi ginen prozesu parte-hartzaileak zabaltzen, eta horien artean, aurrekontu parte-hartzaileak abiarazi genituen. Horri lotuta, parte-hartze ordenantza bat lantzeko prozesua ere abiarazi genuen baina ordenantza hori bukatzeko denborarik izan ez genuenez, legealdi honetan amaituko dugu. Horrez gain, 2019-2023 bitartean batzorde berezi bat sortu dugu, Parte-hartzea eta Bizikidetzaren batzordea, hain zuzen, teknikari baten gidaritzapean noski.

Horren bitartez, garrantzia eta forma eman nahi izan diogu nolabait parte hartzeari.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Badira parte asko hartzen duten herritarrak, nahikoa parte hartzen dutenak... baina orokorrean, nire iritziz, herritarrek parte hartzeko aukera hori eskaintzea da nahi dutena, hau da, beren Udalak parte hartzeko aukera hori eskaintzea. Gero herritarrak erabakiko du, denboraren arabera, interesen arabera edo beste hainbat faktoreen arabera, parte hartu ala ez, baina behintzat, Udalak aukera hori ematea asko eskertzen dute. Edozein kasutan, oraindik asko kostatzen zaigu parte hartzea eta kultura horretan gehiago sakondu behar dugu.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Udal batzuen aurrekontu parte hartzaileak egiten hasiak ziren, Gasteiz esaterako, Aldundia ere... eta guk ere, mozio bat tarteko, aho batez interesgarritzat jo genuen prozesu hori gure herrian abiaraztea. Talde politiko guztien arteko akordio bat lortu genuen kasu honetan eta horrek, herritarrei begira balio gehigarri bat du.

Ordenantzari dagokionez, luze jotzen ari da, baina gure asmoa da hori ahal bezain azkar amaitu eta onartzea.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Prozesu parte-hartzailearen izaeraren arabera, egitasmo bakoitzak behar ezberdinak dauzka. Batzuetan udal balibideekin soilik jarri ahal izan ditugu martxan (bozketak, mural aukeraketak, haur parkeen ideia lehiaketa eta diseinu aukeraketak...), baina aurrekontu parte-hartzaileekin, aholkularitza eta dinamizazio bat kontratatzen da. Gure kasuan Emun-ekin garatu dugu prozesu hau. Izan ere, zenbat gaiekin, bereziki kutsu politikoa duten gaiekin, kanpo aholkularitza zein dinamizazioak prozesuari objektibotasun puntu hori eman diezaiokeela uste dugu eta hori garrantzitsua da guretzat.

Aurtengoa ez da izan aurrekontu parte-hartzaileen ekimena egiten genuen lehen urtea, beraz, oraingoan indar berezia jarri dugu bozketa fasean eta horretarako karpa ugari jarri ditugu herrian zehar. Ekimenaren inguruko informazioa eta proposamenak egiteko aukera Internet bidez soilik zabaldu dugu. Izan ere, aurreko urtean proposamen mordera jaso genituen, gehienak bideragarriak gainera, baina jasotako aurrekontuarekin horietatik 5 soilik eraman dira aurrera. Horregatik, herritarrek egindako lanketa hori ez galtze arren, aurten gainerakoak berreskuratu ditugu eta fokua bozketa fasean jarri dugu.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Kasu honetan, bozketa fasea orain ari da burutzen, horrenbestez, erantzun bat ematea zaila da. Orain

ikusiko dugu bozketa fasean indar gehiago jarrita emaitzak positiboak diren ala ez.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Momentu honetan aurrekontu parte-hartzaileak urtero egitearen egokitasuna aztertzen ari gara. Izan ere, proposamenak egiteko garaian horiek urtebeteko epean exekutagarriak izatea dugu baldintza gisa jarrita, baina herritarrek eskatutako proiektuak proiektu potoloak dira (auzoetako igogailuak, parke estaliak...) eta horiek urtebetean aurrera eramatea oso zaila da. Horretarako azken finean lehiaketa publikoak ireki behar dira esleipena egiteko, obrak egiteko... eta horrek denbora gehiago behar da, baita errekurtsio gehiago ere. Azken finean, guk urtero 250.000€ko kontu saila uzten dugu herritarren eskura, baina agian egokiagoa da legealdi osoko kontu-sailak batzea eta herritarrek eskatutako proiektuak legealdian zehar gauzatzea.

Edozein kasutan, hori datorren urtera begira erabakiko dugu. Aurtengoa horrela egitea erabaki genuen mahai politikoen hauteskunde aurretik, baina datorren urtera begira buelta bat eman behar diogula uste dut.



**AZALERA: 16,9 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 1.139\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

# Elgeta, danon artian danon herrixa

Elgetako Udalak, "Elgeta: danon artian, danon herrixa" parte-hartze prozesuaren baitan hainbat ekimen burutzen ditu urtero: 2018/2019 ikasturtean, esaterako, ikasturteko kirol eta hezkuntza jardueren esku-orria, aurrekontuak modu parte-hartzaileago batean lantzeko proposamena, "Ateak irekiz" prozesua eta Hirix plataformaren eguneraketa eraman zituen aurrera.

2018-2019 ikasturteari ekin berri, Elgetako Udalak ikasturteko kirol eta hezkuntza jarduerak jasotzen zituen esku-orria argitaratu zuen. Dokumentu hori oso lagungarri izan zen herritarrentzat eskura dituen aukeren berri jaso eta izen emateak gauzatzeko. Esku-orriarekin batera, herritarrek parte hartzeko eta Udalarekin harremanetan jartzeko dituzten bideak azaltzeko aprobeztatu zuen Udalak.

Urria eta azaroa bitartean, aurrekontuak modu parte-hartzaileago batean lantzeko proposamena luzatu zien herritarrei, udal arlo ekonomikoa modu garden batean azalduz eta aurreikuspenekin zer egin galdetuz, betiere, Elgetako Udalaren egoera ekonomiko latza aintzat hartuta. Horretarako, batzar irekia deitzez gain, landutako informazioa publiko egin zen sare sozial zein udal webgunean. Horrenbestez, herritar orok izan zuen aurrekontuen lanketan inbertsioen bat, jarduera berriren bat edota bestelako proposamenak egiteko aukera.

Aipatzekoa da baita ere "Ateak irekiz" bezala ezagutzera eman den prozesua, non udal eraikin hutsen ateak herritarren aurrean zabaldu dituen Udalak, eremu horiek nola biziberritu hausnartzeko. 2018-2019 ikasturtean, Kultur-etxeko argazkilaritzako gela txukundu zen auzolanean.



Hirix plataforma, halaber, 2017az geroztik dago herritarrentzat erabilgarri eta Udala horren eguneraketaz arduratu zen. Horri esker, herritarrak informaturik egon dira (berriak, abisuak, agenda, bestelako informazioa...) eta parte hartzeko aukera ere izan dute (intzidentziak, iradokizunak...).

Azkenik, udal aldizkariaren ale berria ere landu zen, Udalak egindakoak batzen dituen dokumentua argitaratzea herritarren intereskoa dela uste baitu Udalak.

### **Emaitzak**

Orokorrean, herritarrak informatzea lortu zela esan daiteke, izan ere, herritarrak parte hartzera hurbiltzeko lehen urratsa baita haiek informatuta egotea. Zer, noiz, nola edo zergatik egingo den jakiteak prozesuaren parte sentitzea errazten du, baita bertaratzeko urratsa ematea ere. Hala eta



guztiz ere, sare sozialek gero eta indar gehiago dutela ohartu da Udala eta horien ustiapenean maila bat gora egiteko beharra antzeman du.

Era berean, ekimen batzuen eta besteen artean ezberdintasun ugari aurkitu ditu Udalak: batzar formal edo teorikoei dagokionean, partaidetza ahulagoa da, herritarrek kostatzen zaie hurbiltzea. Aldiz, auzolan deialdiek, ateak irekiz ekimenek (lokala txukundu...), jarduera ezberdinek, harrera oso ona izan dute, Udalaren aurreikuspenak gaindituz.

Hori aintzat hartuta, Udalak landutako metodologia ondorengoa da: parte-hartze prozesu teorikoetan, egoeraren analisia planteatu eta ekintza berriak egikaritzeko dituen aukeren berri ematen du. Herritarrak informatu ostean, iritziak eskatzen ditu eta lehentasunak finkatzen dira, adostasunetara iritsiz. Prozesu praktikoetan, deialdiak egin, komunikabideak informatu eta bertaratzeko diren arabera planteatutako lan edota auzolanak egiten dira.

Guzti hori koordinatzeko, baina, ezinbesteko tresna da parte-hartze batzordea, hori baita eragile, herritar eta Udalaren arteko zubia.

### **Etorkizuneko erronkak**

Lehen adierazi bezala, egungo gizartea aldatuz doan heinean, sare sozialek gero eta pisu handiagoa hartu dute eta hori aintzat hartuta, horien erabilera sakontzeko beharra ikusi du Udalak.

Era berean, herritarren parte-hartzea errazteko sistema berriak martxan jartzeko premia ere antzeman du, bereziki gazteak erakartzeko. Bide horretan, Hirix bezalako aplikazioak asko erraztu dute ibilbidea eta horrenbestez, hori jorratzen jarraituko du Udalak.

danon  artian  
**elgeta**



## Ane Bilbao eta Janire Lazkano

Elgetako kultura eta euskara zinegotzia eta zinegotzi ohia

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat parte-hartzea sistema demokratiko bateko ezinbesteko tresna da, bai Udalarentzat baita herritarrentzat ere. Azken finean, Udala zinegotziek, talde politikoek eta pertsonal teknikoak osatzen dute eta guztion lana da herritarren ordezkari izatea. Horretarako, baina, ezinbestekoa da herritarrek beren iritzia ematea, parte hartzea eta udal erabakietan zuzeneko inplikazioa lortzea. Hori guztia lortzea eta horretarako tresna zein baliabideak eskaintzea Udalaren lana dela uste dugu. Lan handia suposatzen du, bai, baina benetan pena merezi duela sinesten dugu.

Parte-hartzea, iritzia emateaz haratago, ideiak ematea ere bada, herritarrek ikus dezaten horiek ere kontuan hartzen ditugula, guztion herria dela, eta guztion artean eraikiko dugula, alegia. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu herritarrek beren ahotsa aditzera emateko dituen bideak ezagutzea. Bideak existitzen dira eta guztion eskubidea da iritzia ematea. Horregatik, benetan gardentasuna bultzatu nahi badugu eta demokrazian sakondu nahi badugu ezinbesteko baldintza da Udalak eskubide hori herritarrei bermatzea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Ez dugu uste parte-hartzea zerbait puntuala izan daitekeenik. Gure kasuan, Udal honek batzordeekin funtzionatzen du. Batzorde guztiak irekiak dira, edonor etor daiteke eta edonork parte har dezake. Guk lanketa bat egin dugu herritarrek batzordeetara etor daitezten eta erantzuna handitzen doala ikusi dugu, gero eta jende gehiago etortzen dela, alegia.

Hori kontuan hartuta, parte-hartzea zehar lerro bezala ulertzen dugu. Herritarrek udalgintzan parte hartzea da gure nahia eta interesa eta horretarako gure esku dauden erraztasunak ematen saiatzen gara, nahiz eta askotan kosta egiten den.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Asko kostatzen da. Sarritan ez dago gaiekiko interesik eta beste askotan, beldurraren eraginez jendea atzera botatzen da. Izan ere, gaia ez badute erabat kontrolatzen, ez dira horren inguruan iritzia ematera ausartzen. Boluntariotza lanetarako denean, ordea, Elgetan laguntza ikaragarria jasotzen dugu baina herritarrek ez badira proiektuaren parte sentitzen edo gaia arrotza egiten bazaie, gehiago kostatzen zaie parte hartzea.

Gainera, egungo gizartean individualismoan bizi gara eta sarritan norberaren interesei besterik ez diegu erreparatzen. Guk gure aldetik herritarrek animatzen saiatzen gara, informazioa Udalak dituen bide ezberdinetatik zabaltzen.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

"Elgeta danon herria danon artean" sortzeko garaian gure lehen urtea zen udaletxean eta gure programaz haratago, herritarren ekarpenak, iritziak eta ideiak ezagutu nahi genituen. Horretarako elkarrizketa eta bilera ugari egin genituen herritarrekin, elkarrekin, eragileekin... azken finean guztien iritzia ezagutzeko eta lehentasunak ezarri ahal izateko. Eta horrela, herritarrekin batera 4 urterako ekintza plana garatu genuen.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

2018an aurrekontuen bilera eta 6 parte-hartze batzorde egin genituen. Horietan auzo lan deialdiak, iradokizunak, proposamenak... jaso genituen. Horrez gain, Hirix-a berritu eta aplikazioa eguneratuta mantendu genuen, webgune berria zabaldu genuen, parte-hartze atalarekin, eta urtean zehar inkesta ezberdinak egin ditugu, urtero bezala, Udaletik eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea ezagutzeko (udalekuak, kirol zerbitzuak, jaiak..).

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Bai, jendeak parte hartu zuen. Guk, noski, herritar gehiagok parte hartzea nahi genuke, bai

antolatutako ekintzetan, egiten ditugun bileretan, batzordeetan edo beste hainbat esparrutan. Eta guk martxan jarritako prozesuez haratago, herritarrek inizatiba hartzea da gehien gustatuko litzaigukeena, baina ulertzen dugu hori oso zaila dela. Edozein kasutan, orokorrean kontentu gaude prozesu honek emandako fruituekin.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Nik uste dut orain bideak ondo markatuta ditugula eta herritarrek ondo dakitela zein eskubide eta zein kanal edo medio dituzten parte hartzeko. Tresna hori eskuartean izatea ezinbestekoa eta bere horretan positiboa da.

Elgetako Udalak aukera asko eskaintzen ditu herritarren parte-hartzea bermatzeko eta uste dugu herritarrek gero eta kontzienteago direla horretaz, nahiz eta oraindik ohitura falta handia dagoen.

# Oñati

**AZALERA: 107,31 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 11.355\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Oñatiko partaidetzazko aurrekontuak 2019-2020

“Oñatiko partaidetzazko aurrekontuak 2019-2020” lelopean, udal aurrekontuetan 500.000€ zertan inbertitu herritarren artean eztabaidatu eta erabakitzeko prozesua izan zen. 2018ko apiriletik abendura bitartean garatu zen eta datozen bi urteetan zehar (2019 eta 2020) gauzatuko dira emaitzak, 250.000€ko aurrekontuarekin urte bakoitzeko.

### PROZESUAREN METODOLOGIA

Partaidetzazko aurrekontuetan erabilitako metodologia ohikoa izan da: joko-arauak ezarri, herritarrei proposamenak egiteko aukera eman, maila politikoan lehen galbahea egin (akordio politikoan ezarritako irizpideak oinarri hartuta), herritarrek proposamen horiek lehenetsi, maila teknikoan proposamenak aztertu eta balioztatu eta herritarrek aurrera eraman nahi duten proposamena bozkatu. Horren ostean, proposamenik bozkatuenak udal aurrekontuetan txertatu dira.

### Proposamen fasea

Proposamenak 2018ko maiatzaren 7a eta 24 bitartean egin ahal izan zituzten herritarrek, horretarako ahalbidetutako bide ezberdinen bitartez: aurrez aurreko saioak, webgunea... Guztira 376 proposamen jaso ziren, arlo desberdinetakoak. Errepikatuak zeudenak batuta, 267 izan ziren maila politikora heldu zirenak eta lehen galbahean, 105 kanpo gelditu ziren akordio politikoan ezarritako irizpideak betetzen ez zituztelako. Leheneste fasera 161 proposamenek egin zuten aurre.

### Leheneste fasea eta balorazio teknikoak

Leheneste fasean aurrez aurreko kanala soilik erabili zen eta horretarako hiru saio ireki egin ziren ekainean zehar. Fase honetan, 161 proposamenetatik 66k egin dute aurrera. Proposamen horietako asko

antzekotasunagatik batuta zeuden, horregatik, bideragarritasun teknikoak balioztatzera pasa ziren proposamenak guztira 118 izan ziren. Horietatik 83 pasa ziren bozketa fasera.

### Bozketa fasea

Azken fase honetan, aurrekoan gertatu bezala, 83 proposamenetatik antzekotasuna zutenak batu eta guztira 38 proposamen utzi ziren herritarren esku, horietatik gustukoena aukera zitzaten. Kasu honetan, aurrez aurreko saioen ordez, kale dinamizazioa eta kale ekimenak egin ziren eta emaitzak oso eraginkorrak izan ziren.

Herritarrek ez zuten proposamen kopuru jakin bat bozkatzeko mugarik eta 16 urtetik gorako herritar orok bozkatu ahal izan zuen. Gauzak horrela, guztira 1150 boto zenbatu ziren, horietatik 1.032 baliozgarriak (16 urtetik gorako biztanleriaren %11). Generoari dagokionez, emakume gehiagok (570) bozkatu zuten gizonetakoek (462) baino eta adinari erreparatu gero, 36-45 urte bitarteko adin-tarteko herritarrak izan ziren bozka gehien eman zutenak.

### PROPOSAMEN BOZKATUENAK

1. Erabilera publikoko komun irisgarriak jartzea (2019an exekutatu)
2. Bizikletentzako aparkaleku estaliak jartzea ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruan (2019an exekutatu)



3. Bide segurtasuna hobetzeko zebrabideak argitzea (2019)
4. Herriko hainbat puntutan hondakinak gaika sailkatzeko launakako edukiontzia jartzea (2019)
5. Olakua auzoko kirol pista edo kantxa hobetzea (2019)
6. Herriko hainbat tokitan banku edo eserleku gehiago jartzea (2020)
7. Haurren jolas parke bat estaltzea – Ugarkalde- (2020)
8. Zaborra lurrera ez botatzeko kontzientziazio kanpaina bat egitea (2020)
9. Herrigunean altuera txikiko rokodromo bat eraikitzea (2020)
10. Urdandietako udal ur depositurako baso bidean dagoen lur jausia konpontzea (2020)
11. Igotzeko eta oreka mantentzeko jolasekin gune bat hornitzea 6-14 urte bitartekoentzat (2020)
12. Kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edota jartzeko sentsibilizazio kanpaina bat egitea (2020)
13. Adineko pertsonen erorketen prebentziorako eta gaitasun fisikoaren mantentzerako jarduerak garatzeko espazio bat egokitzea (2020)
14. "Emakumeen Etxea" martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea (2020)
15. Aire libreko zinema emanaldiak eskaintzea (2 emanaldi urteko) (2020)
16. Industria-pabiloi hutsen eta hauen erabilera aukeren azterketa egitea (2020)

## EMAITZAK

Prozesuaren emaitzak oso positiboak izan ziren eta helburuen betetze maila oso altua izan zen. Herritarren artean, halaber, oso harrera ona izan zuen egitasmoak eta nolabait herritarren behar edo nahiak ezagutzeko balio izan du.

Saio irekietara normalean parte hartze prozesuetara gerturatzen ez diren profilak hurbildu dira eta bozketan ere jende asko inplikatu da.

Barne lanketari dagokionean, maila politikoan udal ordezkarien jarrera oso baikorra izan da eta akordioa lortzeko prestutasuna nabarmena izan da. Maila teknikoan, halaber, modu onean balioztatu da prozesua eta udal sail ezberdinak lankidetzan aritu dira.

Guzti horri esker, erakunde publiko eta herriaren artean elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea lortu da, baita, bereziki, talde lanerako espazioak sortuz, eragile eta pertsona bakoitzaren ikuspegi zehatzetatik abiatuz Ni-tik Gu-rako saltoan aurrera egitea ere.

Era berean, aurrekontu publikoaren garrantziaz herritarrak kontzientziaztea ere lortu da.



## Onintza Andres

Parte-hartze teknikaria

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat erakundetutako parte-hartzea ikuspegi bat da, herritarrekin, izan norbanako nahiz antolatuak, harremantzeko modu bat. Parte-hartzea garrantzitsua da, izan ere, bakarrik ezin baitugu eta ez baitakigu arazo kolektiboak irtenbidea bilatzen; are gehiago, ez dugu nahi publikoa den gaietan bakarrik aritzea. Horrez gain, herritartasuna eraiki eta kapital soziala indartzeko beharrei ere erantzuna ematen dio parte-hartzeak.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Esperientzia solteekin hasi ginen eta zehar lerro izatea da azken helburua. 2015etik aurrera partaidetza saila dugu Udalean, aurrekontu eta baliabide propioekin.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte-hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Erakundeetatik bultzatutako parte-hartzearen kasuan, begirada altxatzea tokatzen zaigu Udaloari, parte-hartzea benetan inklusiboa izan dadin. Bestela, herritar asko uzten ditugu, nahi gabe bada ere, kanpoan. Gainera, fokua, kuantitatiboan baino kualitatiboan jarri behar dugu. Esate

baterako, iritzi asko jaso ditzakegu gai konkretu baten gainean, baina bilatu behar duguna iritzi ezberdin guztiak jasotzea da eta aniztasun hori kudeatzea. Hor dago gakoa.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Udal aurrekontuak gai estrategikoak dira, dokumentu ekonomiko nagusia. Modu kolektiboan gastu publikoaren zati bati buruzko eztabaidan eta erabakietan herritarrek parte-hartzea ahalbidetzen dute partaidetzako aurrekontuek. Udal aurrekontua lantzeak hainbat gaitan ekarpenak egiteko aukera zabaltzen du.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Ez da lehen aldian aurrekontuen gaineko eztabaidan herritarrei parte-hartzeko aukera ematen zaiena, baina kasu honetan zenbat aurrerapauso txertatu ditugu prozesuan. Esate baterako, lehen aldiz diru kantitate zehatz bat jarri da herritarren eskura (500.000€, bi ekitalditan gauzatzeko, 2019an eta 2020an). Azpimarratzekoa da ere udalbatza osatzen duten bi alderdien adostasun politikoz diseinatu eta gauzatu dela egitasmoa hasieratik bukaera arte.

Proiektuaren mesedetan barne zein kanpo baliabideak jarri dira. Kanpo aholkularitzaren

laguntza ezinbestekoa izan da prozesuaren diseinuan eta egikaritzean.

Zailtasunak ere izan ditugu, edozein prozesutan bezala. Horietako bat da ez garela auto-araudia sortzera heldu.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesu osoan zehar herritarren parte-hartzea altua izan da, talde lanerako sortu diren espazioetan giroa ona izan da eta parte-hartzaileen aldetik balorazio positiboa jaso da. Pozik gaude emaitzarekin.


**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Herritarrek herriarekiko duten ezagutza zabala eta aberatsa dela eta arazo kolektiboak erantzun kolektiboak emateko kulturaren sakontzen goazela.



# DONOS- TIALDEA

Gipuzkoako ipar-ekialdean dago. Iparraldean itsasoa du muga eta ekialdean, Bidasoa Beherea eta Nafarroa. Hegoaldean, Nafarroa eta Tolosaldea ditu mugakide; mendebaldean, Urola-Kostaldea eta Tolosaldea. Guztira 305,2 km<sup>2</sup> ditu. Oiartzun, Urumea eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak; erliebea perpendikularki zatikatzen dutelarik, airetik ikusita koadrikula itxura ematen diote. Donostialdea da Gipuzkoako eskualdeetan biztanleriarik handienekoa. Hamaika udal dira: Donostia, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil. Eskualde hau izaera metropolitanoa hartzen ari da pixkana-pixkana, Bidasoa Behereko eskualdearekin harreman hain estuak direnez, esan daiteke bi eskualdeok area funtzional bakarra osatzen dutela.



Errepideko komunikabideetan, A-8 autobidea (Bilbao-Behobia) aipatu behar da lehen-lehenik; ekialdera, Bidasoa Behereko eskualdearekin lotzen du, eta mendebalera, berriz, Zarautz, Eibar eta Bizkaiarekin. N-1 errepidea (Madril-Irun) autobia bihurtzen da Beasain-Donostia tartean; bertatik abiatzen da A-15 Nafarroako autobia, Iruñearekin eta Ebroko arroarekin lotzeko. Itsasaldeko N-634 errepide bihurriak kostako herriak lotzen ditu, Eibar eta Bilbo aldera jotzeko. Trenbideetan Madril-Irun burdinbide zabala nabarmendu behar da alde batetik, RENFEk ustiatzen duena, eta Donostia-Hendaia (Topoa) nahiz Bilborainoko bide estukoak bestetik. Bilbora doan azken trenbide horrek nekez egin diezaioke lehia errepide gaineko garraioari, joan-etorri laburretan ez bada. Abiadura handiko trenaren proiektuak eskualdea zeharkatzeko asmoa dauka. Itsas garraioa Pasaiaiko portuaren bitartez egiten da, batez ere txatarra, autoak eta petroliotik eratorritako gai finduak higiarazten ditu portuak.

Ekonomiaren aldetik ikusita, eskualde hau Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren gunea da eta zerbitzuena da indar gehien duen sektorea. Donostian administrazio-jarduera handia dago: Estatuko, Erkidegoko nahiz administrazioaren ordezkariak daude. Justizia-administrazioak ere Donostian dauka Probintziako Auzitegia eta gainerako epaitegiak. Hiriburuan daude baita ospitaleak, unibertsitateak eta hainbat komunikabideren egoitzak.





# Astigarraga

**AZALERA: 11,91 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 6.180\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Ergobiko gune historikoaren urbanizaziorako parte-hartze prozesua

"Ergobiako gune historikoaren urbanizaziorako negoziazioa eta partaidetza prozesua 2018" izeneko egitasmoa uztaile eta abendua bitartean egin zen eta horren baitan, elkarrizketak, bilerak eta lan saio ugari egin ziren Ergobiako bizilagunekin eta Astigarragako udal teknikari eta ordezkari politikoekin. Horietan Ergobiako plazan lur zatiren baten jabetza zuten bizilagunak izan ziren lehentasunezko partaideak. Ergobiako gainerako bizilagunek ere parte hartu zuten egitasmoaren bigarren fasean. Horrez gain, udal teknikarien lana ere ezinbestekoa izan zen, haien lanari esker proiektu bideragarri eta egingarria aurkeztu baitzitzairen bizilagunei.

Ergobiako kasko historikoko plaza Udalak oinezko egin zuen arren, ohituraz, aparkaleku gisa erabiltzen jarraitzen zen eta horri aurre egiteko neurri ezberdinak martxan jarri baziren ere, ez zen, ordura arte, elkarbizitza eskema baten barruan arauak errespetatzea lortu eta bizilagunek bertan aparkatzen jarraitzen zuten, ohituraz. Gauzak horrela, partaidetza prozesu honek helburu izan zuen ohitura horiek aztertzea, hausnarketa egitea eta horiek aldatzeko eta Ergobia benetan oinezkoentzat eginiko plaza bat izateko bertako bizilagunekin batera proiektu bat eztabaidatu eta adostea, baita oinezko erabilera izateko mekanismoak, arauak eta horien funtzionamenduak bizilagunei aurkeztea eta haien ekarpenak, kezkek eta iradokizunak jasota horiek osatzea.

Lehen fasea 2018ko ekaina eta uztaile bitartean garatu zen eta bi lanketa desberdin egin ziren, Obra eta Zerbitzuetako udal teknikariek lehena eta Ergobiako

plazaren berrurbanizazioan eragin zuzena zuten bizilagunekin, hau da, lur zati baten jabetza zuten bizilagunekin bigarrena. Udal teknikariek Ergobiako plazaren planoak kontrastatu ziren eta exekuziorako aurre-proposamen bat egin zen. Horrez gain, zein bizilagun elkarrizketatu adostu zuten, bakoitzaren egoera aztertuz (jabetza eta erregistro egoera). Bestalde, hiru lan bileretan aparkatzeko aukerak zeintzuk ziren argitu zen. Bizilagunekin guztira 6 elkarrizketa egin ziren uztailean zehar: luraren jabetza zuten etxeetako jabeak lehenbizi eta auzoan jarduera komertziala zuten bizilagunak ondoren. Horrez gain auzo elkarteak kide bat ere elkarrizketatu zen eta tailerreko kideekin ere harremanetan jarri zen Udala, prozesuaren inguruko informazio guztia emateko. Elkarrizketak egiteko oinarrizko gidoi bat eman zen, elkarrizketatuen beharretara egokitutakoa. Bertan plazaren zati baten jabetza zutenei plaza ixtearen aldekoak edo kontrakoak ziren eta plazaren momentuko erabileraren inguruan galdetu zitzairen. Ondoren, Udalaren proiektua azaldu eta beraien iritziak eta kezkek jaso ziren.

Iraila eta abendua bitartean burutu zen bigarren fasea. Bertan, elkarrizketen ondorioetatik abiatuta egingarria zena eta ez zena kontrastatu eta bizilagunekin bildu zen Udala, ondorio horiek azaltzeko.

Fase honetan egindako lanketa ondorengoak izan zen:

- Elkarrizketen ondorioak obrak eta zerbitzuetako batzordean aurkeztu.
- Oinarrizko proposamenen txosten juridikoa jaso.
- Obren inguruko informazioa eta kontrastea egin bizilagunekin.
- Goiko bizilagunekin bilera informatiboa.

Prozesuaren emaitzak denboran kokatuko diren arren, Udalak herritarren beharren eta kezken berri jaso ahal izan zuen, baita horiek asetzeko proposamenak zerrendatu eta adostu ere. Horrela, prozesuaren ondorengo 12-18 hilabeteetarako egitasmoen eskema dokumentua osatu ahal izan zuen, plaza benetan oinezko bilakatzeko egingo diren interbentzio eskemak zehaztuz. Era berean, bizilagunen parte-hartzea aktiboa izan zen, %58k parte hartu zuelako zuzenean eta kontsentsu maila handia lortu zen plaza ixteko herritarren proposatutako neurriekin (aparkaleku publikoak egokitzea, egoiliar plazak eskaintzea eta plaza itxiko duen pibotea ireki eta ixteko giltza izatea). Udalaren erronka, aldiz, herritarren iritzi eta proposamenak entzun, jaso eta aintzat hartu direla erakustea da, bizilagunekin konfiantza giroa sortzeko.



# Emakumeon Plazaren proiektu urbanistikoa herritarrekin zehazteko prozesua

"Astigarragan Emakumeon Plazarako proiektu urbanistikoa herritarrekin zehazten 2018" egitasmoa otsaila-martxo bitartean garatu zen. Emakumeon plaza urbanistikoki eraberritu nahi zenez, prozesu parte-hartzailearen helburua zen eraberritze horretan herritarren iritzi, ikuspegi eta balorazio ezberdinak jaso eta txertatzea, udaleko ordezkari tekniko eta politikoen iritziekin batera. Prozesu osoan zehar kontutan izan zen Emakumeon plaza izanik, emakume guztiak ordezkatzeko eta sinbolikoki irudikatzen dituen plaza dela, eta horrenbestez, zenbait oinarriko irizpide bete behar zituela: egunerokotasunean egoteko gune izateaz gain aldarrikapenak egiteko gune izatea eta emakumeon ordezkari fisikoa izatea. Horretarako, plazaren urbanizazioak ondorengo ezaugarriak betetzea eskatu zen:

- Gune aldarrikatzailea izatea.
- Sinbolikoki emakumeak gogoraraziko dituen gunea izatea.
- Goxoa eta indartsua izatea.
- Egotera gonbidatuko duen gunea izatea.

Lehen fasean, herritarren lan taldea eratu zen. Emakumeon Plazaren proiektu urbanistikoaz hausnartzea eta hautatzea zen lan talde honen egitekoa. Taldea eratzeke lanak, beraz, arreta bereziz jardutea eskatu zuen. Lehenengo urratsaren helburua taldearen ezaugarriak definitu eta taldea bera osatzea izan zen. Horretarako PPE edo "Herritarren lan taldea edo Partaidetzazko esku-hartze eremua" sortu zen.

Lehen lan faseko kronograma:

- Herritarrek ausaz hautatzeko zozketa otsailaren 5-9 astean.
- Zozketan irteerako herritarrei gutunak bidali otsailaren 9-12an.
- Erantzunak jasotzeko epea otsailak 22.
- Gizarte Eragileekin bilera zuzenak otsailaren 9 eta 23a bitarte.
- Deialdi irekia otsailaren 20 eta 28a bitarte.
- Lan taldearen behin behineko osaketa otsailaren 23an.
- Lan taldearen behin betiko osaketa otsailak 27an.
- Lan-saioak: otsailaren 28an eta martxoaren 7an.

Bigarren fasean, Emakumeon Plaza eraberritzeko aurkeztu ziren proiektu urbanistikoak ezagutu eta hauen artean hautaketa egin zen. Horretarako bi lan saio antolatu ziren, arratsaldean, Astigarragako Kultur Etxean. Lehen saioan, Udalak eskuartean zituen 4 proiektuak aurkeztu eta ondoren, horien inguruko lehen balorazio dinamika burutu zen, bi taldetan banatuta. Saio horretan, herritarren iritzi eta ekarpenak ere jaso ziren. Proiektu honetan, aparkaleku guztiak kentzeaz gain, lurri tratamendu bat ezarriko litzaiotke plazaren L-an eta errepidean zein ezkerreko plazarekin lotu arteko zatian. Proiektu hau aurrekoarekiko oso antzekoa zen, zituen alde nagusiak honako hauek ziren: batetik, aparkaleku batzuk mantentzea eta bestetik, pergola obalo osoa izan ordez, obalo-erdi bihurtuko litzateke. Lehenengo bi proiektuekin alderatuz, alderik nagusiena gune zentral bat eduki beharrean hainbat gune ezberdin dituela da. Gune horiek, nagusiki elkarri begira dauden eserlekuak, taulatxo bat eta gune estali bat lirateke. Azken proiektu honek, hirugarren proiektuaren eredu bera jarraitzen du, alboetan pasadizo moduko bat markatzen duten landareak edukiz eta horren erdialdean biribilen bidez gune ezberdinak markatuz.

Bigarren saioan, lehen saioaren amaieran herritarrek ezinbestekotzat jo zituzten ezaugarriekin osaturiko proiektu bateratuaren plana erakutsi eta horren aurkezpena egin zen. Bosgarren proiektu horrek beraz, beste lau proiektuen ezaugarri asko barnebiltzen zituen. Azalpen guztiak entzun ostean, parte-hartzaile guztiak taldean eztabaidatu zuten eta proiektu bakoitza puntuatu zuten hiru arlo desberdinetan:

- Aldarrikapenerako gunea.
- Egoteko gunea.
- Erabilera anitzeko gunea.

Horren ostean, herritarren pegatina bat jarri zioten gustukoaren zuten proiektuari. Metodologia horri jarraiki, bosgarren proiektua izan zen herritarren aukeratutakoa eta horrenbestez, Udalak gauzatzeko konpromisoa hartu zuena. Gauzak horrela, prozesua oso emankorra izan zen, dimentsio eta diziplina ezberdinak batu zituen eta adostasuna nagusi izan zen.



## Leire Goiburu

Berdintasun, elkarbizitza eta parte-hartze teknikaria

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Udalak herritarrentzat egiten du lan eta parte hartzeak kasu honetan inplikazio aktibo bat izateko balio du, hau da, bozkatzearaz haratago, herritarrek udalgintzan inplikatzeko modu bat da. Alegia, parte hartzeak herritar aktiboak izateko eta udal zerbitzuetan zuzenean eragiteko aukera ematen du.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Orain arte parte hartze prozesuak proiektu zehatzei lotuak egon dira eta gaur egun ikuspegi horrek ere jarraipena du Udalean, baina bestalde, duela urtebete partaidetza arlo bezala sortu zen Astigarrako Udalean, orain arte ez baitzegoen partaidetza teknikaririk. Orain, partaidetza eredu eta Plana lantzen ari gara. Arlo bakoitzak ekimen bat abiarazi nahi duenean eta horretarako herritarren iritzia jaso nahi duenean biztanleriarengana jotzen dugu galdetzeraz, baina horretaz haratago, partaidetza modu zabalagoan lantzeko lanketa egiten ari gara orain, hau da euskarriak, komunikazioa... lantzen.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Herritar batzuk beti daude parte hartzeko prest eta hori oso eskertzekoa da, haiek gabe ezinezkoa izango litzateke eta parte-hartze prozesuek aurrera egitea. Baina egia da parte-hartzea txikia izatearen sententzia ere badugula, eta baita jende bera leku guztietan egotearena ere. Erronka handia dugu parte-hartze kultura sustatzeko eta Udalarekiko komunikazioa hobetu eta arintzeko. Horretarako, besteak beste, komunikaziorako bide berriak landu behar ditugu eta herritarren behar eta ohituretara egokitu.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Astigarraga izugarri aldatu da azken hamabost urteetan eta horrenbestez, espazioak ere asko aldatu dira. Bi proiektu hauek herriko bi espazio oinezko egiteko proiektuak dira eta horiek zuzenean eragiten diete herritarrei (sarrera-irteerak, aparkalekua...). Parte hartze hauek, beraz, herritarrek prozesuan inplikatu eta sor zitezkeen

desabantailei elkarrekin irtenbidea bilatzeko jarri ziren martxan.

Emakumeon plazaren inguruan, halaber, horrez gain, emakumeei ikusgarritasuna eta zentralitate bat emateko asmoarekin ere abiarazi zen prozesua.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Bilera irekiak egin ziren herritarren ekarpenak jasotzeko. Behin proiektua idatzita, aurkezpen bilera bat ere egin zen, modu horretara bileretan jasotakoa aintzat hartu zela ere ikusarazi eta herritarrak proiektuan inplikaturik sentiarazteko. Zailtasun gisa obren edo kasu honetan administrazioaren denborak aipatuko nituzke, Emakumeon Plaza, adibidez, oraindik egiteke baitago.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Udaletik balorazio positiboa egiten dugu eta jakin ahal izan dugunaren arabera, herritarrek ere balioztatu dute euren iritzia kontuan hartzea, nahiz eta, lehen aipatu bezala, Emakumeon Plazaren proiektuarekin herritarrek sentsazio gazi-gozoa

dute. Gozoa galdetu zitzaielako eta gazia, oraindik emaitza ikusi ez eta beren iritzia bere horretan utzi dugula pentsatzen dutelako.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Ikasgai bezala azpimarratu partaidetza kultura eredu bat behar dugula partaidetza bera plangintza baten gainean antolatzeko. Era berean, herritarrekiko komunikazioa hobetu eta arindu eta herritar desberdinengana iristeko gaitasuna ere landu behar dugu. Horretarako, besteak beste, partaidetza prozesu horiek bere gain genero ikuspegia barneratua izan behar dute eta bide horretan geroz eta baliabide eta eredu egoki gehiago ditugu erabilgarri.

# Hernani

**AZALERA: 42 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 20.013\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Hernani Erabaki, aurrekontu parte- hartzaileak

Hernani Erabaki 2014az geroztik urtero errepikatzen den prozesu bat da. Hernaniko Udalak herritarren esku uzten ditu urtero 500.000€, haiak erabaki dezaten zertara bideratu. Azken finean, herria herritar orok osatzen du eta Udalaren nahia da Hernaniko etorkizuna elkarrekin eta elkarlanean eraikitzen jarraitzea.

Horretarako, otsailean, udal gobernuko Partaidetza zinegotziak, alor bereko teknikariak eta aholkularitza teknikoko kideek koordinazio taldea osatzen dute. Behin hori eginda, prozesuaren berri ematen diete herritarrei, etxeetara esku-orri bat bidaliaz. Horrez gain, herriko hedabideetan eta Udaleko sare sozialetan ere zabaltzen da horren berri.

Behin amua botata, koordinazio taldeak talde eragilea osatzen du eta horren ostean, prozesua martxan jartzen da ohiko faseekin: proposamen fasea, aukeraketa politikoa, leheneste fasea, aukeraketa teknikoa eta bozkatze fasea.

Gauzak horrela, lehenik eta behin herritarren proposamenak jasotzen dira. Horiek, talde eragileak aurrez ezarritako irizpideak bete behar dituzte. Ondoren, proposamen horiek guztiek politikoen aukeraketa pasa behar dute. Aukeraketa horretan, hain zuzen, udal ordezkariak proposamenak Udalaren eskumenekoak diren ala ez ziurtatu behar dute eta horrez gain, baita Udalak ezarritako hiru irizpideak betetzen dituztela ere (euskararen, berdintasunaren edota jasangarritasunaren aurka ez joatea). 2018an, herritar askok parte hartu zuten eta guztira 400 proposamen inguru jaso ziren.



Lehen aukeraketan, 60 inguru kanpo gelditu ziren adierazitako irizpideak betetzen ez zituztelako.

Bigarren fasean, leheneste fasean, alegia, hiru edo lau bilera egiten dira, gaien arabera sailkatuta eta herritar orori irekita. Eta fase honetatik balorazio teknikora pasatzen dira, udal teknikariek banaka aztertu eta bideragarriak diren ala ez zehaztu dezaten.

Azken fasean, bozketa fasean, alegia, herritarrek gustukoaren duten proposamena bozkatu behar dute horretarako Udalak ezarritako bide desberdinen bitartez: buzoiak herriko puntu esanguratsuenetan, kale dinamizazio, webgunea...

Azkenik, prozesua biribildu eta ixteko, urtero, balorazio moduko bat egiten du Udalak, datorren urteari begira zer hobetu jakiteko. Eta hain zuzen 2017ko balorazioari helduta, 2018rako bi erronka nagusi finkatu zituen Hernaniko Udalak: haurren gaiak txertatzea batetik eta etorri berrien partaidetza sustatzea bestetik.

### **Haurrak udalgintzan inplikatuz**

Hernaniko haurrak ere herriaren parte garrantzitsu bat izanik, Udalak haien iritzia kontutan hartu nahi zuen, baita, nolabait, Eskola Agenda 21ean, ikastetxe desberdinetako ikasleek egindako lanketa ere.

Horretarako, Hezkuntza Plataforma gonbidatu zuen talde eragileko kide izatera eta ondoren, Agenda 21 egitasmoan landutako proposamen guztiak Hernani Erabaki prozesuaren baitan txertatu zituen,

gainerako proposamenekin batera aztertu eta bozkatu ahal zitezten.

Horrez gain, bozkatu ahal izateko adin muga jaitsi eta 8 urtetik gorako herritar ororentzat zabaldu zuen aukera hori Udalak. Hori egiteko, baina, aurrez, ikastetxeen bitartez 8-16 urte bitarteko haurrekin lanketa berezia egin zuen, bereziki txikienekin, prozesuko proposamen oro hizkuntza xamur eta ulerterrazean azalduz, bozkatzeko garaian informazio osoa izan zezaten eta haien proposamenaz haratago, herritar gisa, herriko gaiez erabaki ahal zezaten.

### **Etorkinen partaidetza sustatuz**

Haurrekin bezala, Hernaniko Udalak arreta berezia eskaini nahi izan zien herriko etorkinei. Horietako askok hauteskundeetan bozkatu ezin dutenez, Udalak antolatutako parte-hartze prozesuetan ere parte hartzen ez dutela konturatuta, 2018an, herritar gisa horrelako prozesuetan hitza eta bozka emateko duten eskubidea ikusarazi eta ulertarazi nahi izan zien Udalak, horretarako, talde eragilean AMHER, Hernaniko Kulturartekotasun taldea inplikatuz.

### **2018ko datuak**

2018ko prozesuan, guztira 1.167 herritarrek parte hartu zuten. 400 proposamen inguru jaso ziren eta leheneste eta aukeraketa fase guztien ondoren, 30-35 proposamenen artean bozkatu ahal izan zuten herritarrek.



## Estibaliz Aldeiturriaga eta Mertxe Gomez

Partaidetza, Hezkuntza eta Jarduera fisiko eta Kirol  
alorreko zinegotzia eta Partaidetza alorreko teknikaria

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea udalgintza egiteko ezinbesteko tresna bat dela uste dugu eta bide horretan helburu desberdinak betetzen ditu: batetik herritarrak ahalduntzea, herria elkarrekin eta elkarlanean sortzen eta eraikitzen dugula sinesteko eta bestetik botere banaketa egiteko, botere hori udaletxera soilik ez mugatzeko eta herritarrei ere zabaltzeko, alegia.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Parte-hartzeak, hitz horrekin, urte gutxi daramatza Udalean. Momentu honetan ez dugu parte-hartze sailik, teknikaria bai, baina saila bere horretan ez. Dena den, parte-hartze dinamika aspalditik datorren kontua da. Herri honetan kontseilu desberdinak daude, hala nola, kirol kontseilua edo berdintasun kontseilua. Urte asko daramatzate martxan, herritarrek sortuak dira eta erabaki gune dira. Emakumeen etxea ere badugu eta horrez gain, momentu puntaletan ere izaten ditugu parte-hartze prozesuak.

Hasiera batean, parte-hartze prozesu puntual horiek sail batek aginduta egiten genituen eta sail horretan bakarrik garatzen ziren baina orain, poliki-poliki teknikari zein politikariok hainbat gai zeharkakotasun batekin landu behar direla konturatu gara eta azkenaldian lantzen ari garen prozesu gehienak transbertsalak izaten ari dira, hau da, departamentu batek baino gehiagok hartzen dute parte.

Orain, aurrera begira jada modu ordenatuan landu nahi dugu eta aurten Parte-hartze Plana osatu nahi

dugu, gure eredia definitu eta antolatzeko.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Hernani oso herri aktiboa da. Eragile asko daude eta oso aktiboak dira. Baina udaletxetik antolatutako ekintzei dagokienean, jaitsiera nabarmena dela ikusten dugu. Hau da, herritarrak herrigintzan oso aktiboak dira baina udalgintzarako salto horretan gehiago kostatzen da parte-hartze hori lortzea. "Hernani Erabaki" aurrekontuen prozesu horren helburuetako bat hain zuzen hori da, herritarren eta Udalaren arteko zubi-lanak egitea, udalgintza barruan ere herrigintza egin daitekeela ulertaraztea. Baina errealitatea da udalgintza prozesuetan jendeak ez duela prozesua bere sentitzen eta horrenbestez parte-hartzea ez dela nahi bezain altua.

Horrez gain, herri osoari zuzendutako deialdiak egiten ditugunean, deialdiak nolabait indarra galtzen duela ohartu gara, baina gai konkretu baten inguruan herritar multzo konkretu bat deituz gero, emaitzak hobetoak izaten dira.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

2011-2015eko legegaldian, Foru Aldunditik proposatu ziguten aurrekontu parte-hartzaileen prozesuarekin hasiera eta 2014an ekin genion lehen aldiz. Orduz geroztik 500.000€ko kontu saila jasotzen da herritarrek erabaki dezaten horrekin zer egin.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Urtarrila amaiera edota otsaila hasieran koordinazio taldean lanean hasten gara. Lehenbizi talde motorra

osatzen dugu eragile eta interesa duen herritarrekin. Kasu honetan, 2018an erronka gisa hartu genuen haurren gaiak txertatzea eta etorri berrien partaidetza lortzea. Azken hori lortzeko AMHER, Hernaniko kulturartekotasuneko eragilea, gonbidatu genuen talde eragilean parte hartzera eta haurren gaia lantzeko Hezkuntza Plataforma gonbidatu genuen. Horrez gain kirol elkarteak, auzo elkarteak... eta herritar solteak ere sartu genituen.

Behin hori eginda talde motorrak aurrekontu parte-hartzaileen fase bakoitzak izango dituen irizpideak definitzen ditu. Faseak beti berdinak dira: proposamen fasea, hautaketa politikoa (udaletzeko eskumenekoa den ala ez aztertzeko), leheneste fasea (saio irekiak herritarrekin), balorazio teknikoa eta bozketa fasea. Azken fase horretan, auzoz auzo azaltzen ditugu proposamenak eta ordura arte egindakoen kontu ere ematen diegu herritarrei, aurreko urteetan eskatutakoa zer-nola dagoen jakin dezaten. Bozketa fasean, halaber, kale dinamizazioa ere jartzen da.

Era berean, haurren gaiari garrantzia eman nahi genenez, Eskola Agenda 21ean landutako proposamenak "Hernani Erabaki" prozesuan txertatu eta bozketa adina 8 urtetik aurrera egin ahal izatea ahalbidetu genuen. Horrez gain, bozkatzeko garaian haurrek gainerako beste proposamenak ulertzen eskola parte hartzaileekin eta institutuarekin elkarlanean lanketa berezi bat egin genuen.

Zailtasuni dagokionean, orokorra adostasun politiko falta izan ohi da. Batzuetan erabateko babesia izan dugu, beste batzuetan ez, eta horrelako kasuetan, prozesua hanka motz geratzen da. Ondoren, fasez fase zailtasunak desberdinak dira. Proposamenak asko direnean, teknikariak lan karga ikaragarria izaten dute eta guztiak aztertzea esfortzu handia suposatzen die.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

2018ko prozesua ondo joan zela esan dezakegu. Egia da helburu batzuk ez zirela bete baina horri esker hausnarketa fase batera heldu gara. Proposamenen kalitatean eta debatean gora egin dugu baina zenbakietan gelditu egin gara. Beraz, alde batetik kontentu gaude, parte-hartze kultura hori sustatzen ari garelako eta gainera herritarrek oso positiboki baloratzen dutelako, baina datuak hobetzeko hausnartu behar dugu ea egungo metodologia egokia den ala aldaketa baten beharra dagoen. Izan ere, administrazio denborak direla eta, herritarrek egindako proposamen batzuk oraindik egin gabe daude, beraz, nolabait, herritarrek prozesuarekiko sinesmena ere galdu dute. Horregatik uste dugu zifrak gelditu egin direla.

Ikastetxeekin egindako lanketa, aldiz, erronka bat izan zen eta guztiz bete genuen. Parte hartu zuten ikastetxeek berriro errepikatu dute aurten. Positiboa izan da batetik, haurrak parte-hartze dinamika txikitatik barneratzen hasten direlako eta bestetik hausnarketarako gunea eskaintzen zaielako. Emaitzak sorpresa bat izan ziren eta haurrek erabakitzeke eta ulertzeko gaitasun ikaragarria erakutsi zuten.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Prozesua positiboa dela, aurrera egingo dugula baina metodologiaren inguruan hausnarketa egin behar dugula konturatu gara. Zer-nola egin benetako parte-hartzea sustatzeko eta hori eraginkorra izateko.



# Pasaia

**AZALERA: 11 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 16.711\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Haur eta nerabeen eskubideen plana

Pasaia herriak haurren eta nerabeen aldeko konpromiso irmoa dauka. Adingabekoen eskubideen defentsan mugarririk izan zen 2008. urtea. Orduan, Pasaia Udalak aho batez "Haur eta nerabeen babeserako adierazpen instituzionala" onartu zuen. Adierazpen hori onartzearekin batera, herriko adin txikikoak udalarentzako lehentasunezko populazio multzo bilakatu ziren. Horrela, Pasaia haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana abian jartzeko udal sail arteko mahaia sortu zen, herriko gainerako eragileekin batera, gai honen inguruan elkarlana sustatzeko.

Bide horri jarraiki, Pasaia Udalak 2008an sortu zen Haur eta Nerabeen eskubideak bermatzeko plana, eta ordutik elkarlanean dihardute Pasaia Udalak, herriko haur eta nerabeekin lan egiten duten elkarteek, hezkuntza komunitateak eta udal zerbitzuek.

Planaren gauzatzea aurrera eramateko, barne naiz kanpo mailako egitura iraunkorra sortu zuen Udalak.

Barne mailan, sail arteko mahaia zuen (gizarte izaerako 11 teknikariz osatutako erabaki gunea, bi astez behin biltzen zena). Aipatu mahaia gaur egun ere martxan jarraitzen du.

Horrez gain, herriko eragileekin beste hiru erabakigune osatu zituen:

- Elkarteen gunea (haur eta nerabeekin aritzen diren 18 elkarte osatuta).
- Hezkuntza gunea (Pasaia lau ikastetxe osatuta).
- Udal zerbitzuen gunea (haur eta nerabeekin lan egiten duten udal zerbitzu guztiekin osatuta). Horiek ere jarraipena dute gaur egun.

Koordinazio moduan, bilerak egin ohi ditu Udalak, batzuk hamabostean behin eta besteak hilero.

ildo horretan, aipatu planaren helburu nagusia betetze aldera, hau da, adingabekoak eskubidedunak



izate aldera, Pasaia Udalak haur eta nerabeen errealitatearen inguruko diagnostia egin eta diagnosi horretatik abiatuta, ekintza plana osatu zuen. Horrez gain, 2018-2019 ikasturteko funtzionamendua ere adostu zuten elkarlanean.

### **Haur eta nerabeen errealitatearen diagnostia eta ekintza plana**

Diagnosi horren baitan, Pasaia Udalak haur eta nerabeek haien egoera nola ikusten zuten, zer behar sumatzen zituzten edota beraien interesak zeintzuk ziren ezagutu eta jaso ahal izan zituen Udalak eta hain zuzen interes-gune horietatik abiatuta jarri zuen martxan ekintza plana.

Lanketa horri esker, Pasaia Udalak haur eta nerabeen errealitatea ezagutzeko, 2019-2020an garatzeko ekintza plan bat izatea, herria hobetzeko proposamenak jasotzea, eragileek haur eta nerabeak subjektu politiko moduan ikusi eta erdigunean kokatzea eta eskolen inplikazioa indartzea lortu zen.

### **Balorazioa eta emaitzak**

Haur eta nerabeen parte-hartzea handia izan zen. Diagnostia eta ekintza plana egiteko ikastetxeekin lortutako lanerako espazioak adingabe gehiagorengana iristeko aukera eskaini zion Udalari eta ikasturte osoan zehar ikastetxe bakoitzean gelaz gela aritu zen lanean. Era berean, irakasle zein zuzendaritzaren inplikazioa ere handitu zen, planak hartu duen dimentsioaren ondorio zuzen gisa.

Horrez gain, udal barruan, prestakuntza ere burutu zen eta haur eta nerabeak erdigunean kokatzea eta haien proposamenak bideratzea lortu zen.

Gauzak horrela, bai haur zein nerabeek zein prozesuan inplikaturiko eragileek balorazio positiboa egin zuten prozesuaren inguruan.

Udaletik, hain zuzen, modu ezin hobean baloratu zuten ordura arte egindako lana. Ikasketa prozesu garrantzitsua izan zen Udalarentzat, zehazki teknikari desberdinetzat eta bide horretan Pasaia Udalak haur eta nerabeak izan zituzten irakasle.

Horrenbestez, Udalak bere helburuak bete zituen. Diagnostia egin eta aurrera begirako ekintza plana ere osatu zuen, 2019-2020an zehar jorrazteko. Orain, haur eta nerabeen sistema egonkortzeko lanketan dihardu eta bertan sail ezberdinetako teknikariek parte hartzen dute.

### **Pasaia, Haurren Lagun den Hiria (Unicef)**

Haur eta nerabeen eskubideen alde lan egiteko ekingarri ibilbideagatik, eta haurren eta nerabeen eskubideak udal lehenbaitasunen erdialdean jartzeagatik, Pasaia, Unicefen Haurren Lagun den Hiria bereizgarria eskuratu zuen 2018ko azaroan. Gipuzkoa mailan aipatu titulua duen lehen herria da.



## Iyuya Urrutia

Pasaiaiko haur eta nerabeen eskubideen koordinatzailea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Pasaia hobetzeko ezinbestekoa da herritarren iritzia kontutan hartzea, horrenbestez, ezinbestekoa da haien parte-hartzea sustatzea. Azken finean herria herritarrok osatzen dugu eta etorkizunera begira oso garrantzitsua iruditzen zait parte-hartzearen bidez herritar aktiboak eta iritzi kritikoa izango dutenak sortzea. Bide horretan, parte-hartze prozesu batek ahalmen guzti horiek lortzeko aukera ematen du.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Haur eta nerabeen kasuan zehar lerro gisa lantzen dugu. Urte osoan zehar parte har dezaten parte-hartze sistema sortua dugu eta aldi berean, asmoa da sistema hori udaletxeko gainerako sailetan txertatzea. Sistema horren bitartez, haur zein nerabeek proposamenak egiten dituzte, sarritan, sail desberdinei dagozkien proposamenak, eta horregatik, pixkanaka, udaletxeko sailak sistema honetan inplikatzeko doaz. Azken finean, hau guztia ardura partekatu bat da.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatu egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Niri dagokidanez, nahikoa parte hartzen dutela uste dut. Esango nuke lehen elkartegintzak indar gehiago zuela, taldeen bitartez herrian bizitza

aktiboago bat egiten genuelako, baina orain, belaunaldi berriek beste ohitura batzuk dakartzate eta gu kultura hori indartzen saiatzen ari gara. Gure esperientziaren arabera, haur eta nerabeekin aurrera daramagun parte-hartze horretan, kolektibo moduan nahikoa parte hartzen ari direla uste dut.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Hasiera batean haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko lan egiten genuen: tratu ona, harrera ona egitea etorri berriei... Baina prozesu horretan proposamenak haien beharrak kontutan hartu gabe egiten genituela konturatu ginen. Haur eta nerabeak erdigunean jarri behar genituela ikusi genuen, subjektu bilakatu behar genituela, alegia, eta horretarako beraiei galdetu genien Pasaia herria hobetzeko zein behar ikusten zituzten eta zein proposamen zituzten. Abiapuntu horretatik abiatuta, diagnosi sakon bat egin genuen. Bertan behar eta proposamen zerranda bat landu zuten eta horretatik ekintza plan bat osatu genuen, lehenetsunak markatuta.

Orain ekintza plan hori gauzatzen hasi gara eta horretarako, hain zuzen, sortu dugu parte-hartze sistema.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Haurrak eta nerabeak erdigunean jarriz geroztik, beraien egunerokotasunean ibiltzen diren eragile,

erakunde edota espazioak ezagutu eta gurekin lanean jardutea lortu dugu. Esate baterako, hezkuntza formalean Pasaiaiko lau ikastetxeek parte hartzen dute. Horrez gain, udal zerbitzuek ere parte hartzen dute: ludoteka, Euskaltegia, Musika Eskola, Kale hezitzaileak, gaztelekuak...

Metodologiari dagokionean, hilabetean behin ikastetxeetara eta Pasaiaiko lau barrutietara joaten gara bertako haur eta nerabeekin saio bat egitera. Ikastetxeen kasuan, gainera, urtean bitan saio bateratu bat egiten dugu guztiekin, haien lana azaleratu eta Pasaia identitate moduan indartzeko.

Barrutietan halaber, nerabeekin biltzen gara. Udal teknikariak saio horietan egoten gara, asmoa delako guztiak parte-hartzean prestatzen joan eta ahalduz. Edozein kasutan, behararen arabera, bileren maiztasuna aldakorragoa izan daiteke.

Eta aipatu beharra dago, prozesu hau Udala ezagutzera emateko ere aprobetxatzen dugula, horretarako, haur, nerabe eta politikoekin lan eginez, zerbitzuetako lana zertan datzan azalduz...

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Nik uste dut prozesua ondo joan dela. Beraiek ere oso balorazio positiboa egiten dute. Izan ere, egindako proposamenak aurrera doazela ikusten doazen heinean, beraien iritzia ere kontutan hartzen dugula ikusten dute eta hori oso positiboki baloratzen dute. Askotan gauza txikiak dira guretzat baina beraien egunerokotasunean garrantzitsuak dira.

Gainera, denboran aurrera egin ahala, prozesuak kutsu instituzionala galtzen ari da. Ikastetxeak, aisialdiko eragileak, hezitzaileak... inplikatzeko dituzunean prozesua Udalaz haratago zabaltzen da eta hori aberasgarria da. Udala bultzatzailea den arren, herri prozesu bilakatzen ari da.

Era berean, egindako lanaren aitortze gisa, Pasaia Unicef-ek Haurren Lagunen Hiria titulua eskuratu du eta titulu hori duen Gipuzkoako lehen herria bilakatu da. Noski, horrek izugarri pozten gaituen zerbait da.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Haur eta nerabeen iritzia ez da askotan kontutan hartzen eta gure ikasgairik nagusia hain zuzen hori izan da: haien iritzia kontutan hartzea oso garrantzitsua dela, alegia.

# Urnieta

**AZALERA: 23 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 6.190 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Aurrekontu irekiak 2018

Joan den urteetan egin bezala, 2018an ere, Urnietako Udalak, Gobernu Irekiaren strategiaren baitan, parte-hartze prozesu berri bat buru zuen herritarrek erabaki zezaten aurrekontuetan barneraturiko 125.000€ zertan gastatu.

Prozesu hori, hain zuzen, urtarrilaren 17tik otsailaren 11ra bitartean burutu zen eta epe horretan, Urnietan erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek, beren ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera izan zuten.

Horretarako, honako bideak zabaldu zituen Udalak:

1. Triptikoa etxe guztietara.
2. Online inkesta udal webgunean.
3. Informazio karpak herriko leku desberdinetan otsailaren 2an eta 3an.
4. Udalerriko hainbat lekutan jarritako kutxa eta postontziak.
5. Urnietako App-a.

Era berean, proposamenak egiteko garaian, ondorengo baldintzak ezarri zituen:

- Udal eskumeneko proposamenak izatea eta obrak, hirigintza eta mantentze lanei loturikoak izatea.
- Ekonomikoa edo/eta teknikoki bideragarriak izatea eta 25.000€ baino gehiagoko kostua ez izatea.
- Iraunkortasun ekonomikoa eta finantzarioa bermatzen dituzten proposamenak izatea.
- Urnietan bizi diren herritar guztien interesa norberaren interesaren gainetik jartzea.
- Udalerriko auzoen arteko oreka bermatzea.

Esan bezala, prozesurako 125.000€ko aurrekontua jaso zuen, aurreko urteetan baino 25.000€ gehiago, alegia.



Era berean, iaz egin bezala, frustraziorik ez sortzeko eta herritarrak informatzeko, 2018an egitea aurreikusita zeuden ekintzen zerrenda ere helarazi zien herritarrei:

- Irisgarritasuna Azkorte kalean.
- Langardako argiteria LED sistemara pasa.
- Idiazabal kaleko mugikortasuna.
- Plazido Muxika plazako irisgarritasuna hobetzeko neurriak.
- Sarobeko aire egokitua berritu.
- Txoritagaingo parkea eraberritzea.
- Aparkalekuak Txoritagainen.
- Ergoiengo industrialdeko saneamendua konpontzea.

Prozesuan guztira 157 galdetegi jaso ziren, haur da, 157 proposamen. Horietatik 142 eman ziren baliozkotzat, teknikarien azterketaren ondoren. Gainerakoak, besteak beste, Urnietan erroldatuta ez egoteagatik edota proposamenaren egilea ez identifikatzeagatik baztertu ziren.

- 36 modu presentzian informazio karpetan.
- 51 herriko puntu desberdinetan jarritako postontzietan.
- 16 udal webguneko online galdetegiaren bidez.
- 39 App-aren bidez.

Informazioa eta ekarpenak ondorengo gaien arabera sailkatu ziren:

- Irisgarritasuna.
- Obrak.

- Espaloiak.
- Argiztapena.
- Aparkalekuak.
- Hezkuntza eta kultura.
- Lorezaintza.

Ohikoa den bezala, udal teknikariek guztiak aztertu eta zerrenda bat osatu zuten lehentasun ordenaren arabera. Zerrenda horretatik abiatuta, proposamen guztietatik 10 egitea erabaki zen, horretara bideratutako 125.000€ko aurrekontuaren barruan beti ere.

1. Txoritagaingatik Salestarretara doan bidea konpondu.
2. Txakurrak ibiltzeko leku bat egokitu.
3. Herriko puntu desberdinetan lore gehiago landatu.
4. Belandi-Akan kalean ibilgailuen abiadura murrizteko kojinekin berlinesak jarri.
5. Lizardi 1-3 atzeko parteak dagoen.
6. espazioa hobetu.
7. Zebrabide garai bat egin Pintore kalean.
8. Arantzubi- Santa Leokadiako baranda berritu.
9. Lekungo tunelaren ondoan atsedenerako edo piknikerako gunea egin.
10. Herriko puntu desberdinetan eserleku gehiago jarri.
11. Eteneta elkartearen ondoan zebra-bide berria egin.



## Mikel Pagola

Urnietako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea etengabeko erantzunkidetasun ariketa bat da guretzat. Lau urtez haratago, herritarrei Udaleko erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko aukera eman behar zaie erantzunkidetasun horretatik abiatuta, noski, eta Udalak bere ardurak, erantzukizunak eta bere erabakiak hartu behar dituen arren, horretarako beharrezkoa du herritarren laguntza.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Urnietan oraindik ez dugu parte-hartzearen arategi ordenantzarik. Dena den, horrek ez du esan nahi aurrera eramaten ditugun prozesuak araututa ez daudenik, baizik eta bakoitzak bere irizpide propioak dituela. Guk dagoeneko udaletxeko urteko jardueretan sistematizatuta ditugu hainbat parte-hartze prozesu, adibidez, aurrekontu parte-hartzaileena. Beste batzuk tokatzen direnean egiten ditugu, hau da, plan edo proiektu bereziren bat egiten dugunean, parte hartze prozesu bidez egiten dugu. Horrez gain, Jai Batzordea ere hileroko elkartzeko da... Horrekin guztiarekin nik uste dut nolabait iraunkortasuna ematen zaiola.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Parte hartze prozesuek oro har ez dute ibilbidea luzea. Luzeagoa izan beharko lukete baina momentuz ez da horrela, beraz, garbi izan behar dugu herritarrei parte-hartze hori erraztu behar diegula. Edozein kasutan, nire iritziz, herritarrek gero eta gehiago eskatzen digute eta ildo horretan, parte-hartzea gero eta gehiago demandatzen duten zerbait da.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Aurrekontu parte-hartzaileen ekimena duela hainbat urte abiatu genuen, lau urtetik behin herritarrak entzuteaz haratago, urtero - urtero haien iritzia eta ekarpenak jaso eta inbertsioen atalean proposamenak egin zituzten. Hori zen beharra eta abiapuntua.

Lehen bi urteetan herritarrek zein proposamen egin zituzketen identifikatzeko zailtasunak zituzten arren, hirugarren prozesu honetan, 2018koan, alegia, konturatu gara herritarrek jada barneratu dutela parte hartze prozesuaren arategia eta proposamen gehiago jasotzeaz gain, oso gutxi izan dira irizpideak ez betetzeagatik automatikoki baztertuak izan direnak. Horrenbestez, herritarrek dinamikak ulertu dituzte eta barneratu dituzte. Horrek, noski, barne lanketan zailtasunak eragin dizkigu, bereziki udal teknikariei, aztertu beharreko proiektuak askoz ere gehiago izan direlako eta horrenbestez lan karga handiagoa suposatu duelako. Baina hori guretzat aberasgarria da,

jendeak parte hartzeko dinamikak ulertzen ari denaren seinale delako, baita parte hartzeko gogo duenaren seinale ere.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Guk hemen bi figura nagusi ditugu: kanpoko aholkularitza batetik eta udal komunikazio arduraduna bestetik. Lehenbizi, kanpo enpresarekin prozesuaren diseinua egiten dugu: irizpideak, diru kopuruak, epeak... Ondoren, gure komunikazio arduradunak prozesua abian jartzen du: mugarriak, eman beharreko urratsak, prozesua zabaltzeko euskarriak... Horrela herritarrei ahalik eta gehien errazten diegu parte-hartzea, bai telematikoki zein fisikoki ere. Behin proposamenak jasota, udaleko gorputz teknikoak guztiak aztertu eta ondoren herritarrei horien inguruko kontu ematen zaie.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesu honen inguruan balorazioa positiboa da, egindako eskaeraren aurrean herritarrek erantzun egin digutelako. Guri, halaber, prozesuaren inguruan hausnarketa egitera eraman gaitu. Izan ere, herritarren beharrak eta eskaerak zeintzuk diren ikusirik, datorren urteei begira, prozesuaren irizpideak moldatu behar ditugula ikusi dugu, herritarren proposamenak gauzatzeko jasotako kontu saila handituz, adibidez. Edozein kasutan, kontentu gaude herritarrek oso ondo erantzun

dutelako. Orain gure erronka herritarren beharrei erantzutea da eta hori ez da lan erraza.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Herritarrek parte hartzeko gogoia dutela baina horretarako lagundu egin behar zaiela eta bideak erraztu behar zaizkiela. Gure kasuan, udal osoaren borondatea da herritarren beharrei erantzuna ematen jarraitzea eta horri helduta haien parte hartzea sustatzen jarraituko dugu.



# GOIERRI

Gipuzkoako probintziaren hego-ekialdean dago; 340,5 km<sup>2</sup>-ko lur eremua hartzen du, Urola eta Oria ibaien ur goien eta erdibidean. Iparraldean Urola-Kostaldeko eskualdea du muga; ipar-ekialdean, Tolosaldea; mendebalean, Deba Garaia; eta hegoaldean, Araba eta Nafarroa. Urola eta Oria ibaiak jasotzen dituzte eskualdeko urak. Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoko herriguneez izan duten zabalkundearen indarrez, hiru udal barruti horiek elkartu egin direla esan daiteke, eta eskualdearen buru egiten duen konurbazioa sortu. Bere eraginpean bizi dira Olaberria, Arama, Ormaiztegi, Mutiloa, Zerain, Zegama, Segura, Idiazabal, Ataun, Zaldibia, Gaintza, Alzaga eta Itsasondo. Zumarraga eta Urretxu ia elkartu daudenez, halako konurbazio txiki bat sortu dute; esan daiteke eskualdeko bigarren burua dela hori, eta bere eraginpean bizi direla Legazpi, Gabiria, Ezkio eta Itsaso.

Komunikabideetan, eskualdeko bizkar hezurra N-I (Madril-Irun) errepidea da; Nafarroa nahiz Araba aldera lotzeko bidea da, Arsuaran haranean zehar. Beasaindik GI-120 errepidea abiatzen da, Nafarroarekiko lotura egiteko. Zumarraga eta Deba Garaiarekiko lotura GI-632 errepidearen bitartez egiten da. Zumarragatik Urola-Kostaldera jotzeko GI-631 errepidea erabil daiteke, eta Legazpi edo Deba Garaia jotzeko, berriz, GI-2630 errepidea. Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen bizitza eta egitura sendotzeko, Oriako haranetik sartzen da Gipuzkoara trenbidea, Urolan barrena Urretxu eta Zumarragara heltzen da, eta handik ostera Oria aldera jotzen du, Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatuz. Abiadura handiko trenak Goierri E-W norabidean zeharkatuko du, gutxi gorabehera gaur egungo bidean Urretxuraino; handik Antzuola eta Elorriora joko du, Gasteizetik eta Bilbotik datozen adarrekin elkar lotzeko. Ezkio-Itsason bazterbide bat egiteko asmoa dago.

Goierriko ekonomia, batez ere, metalgintzarekin lotutako industriaren gainean dago antolatua. Lantegi handiak kokatzen dira bertan eta horien inguruan enpresa txikiagoak sortu dira.



# Altzaga

**AZALERA: 2,52 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 188\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Baratza sozialak eta konposta gune komunitarioa auzolanean

Parte-hartze prozesu honen bitartez, Altzagako Udalaren helburua izan zen, herritarren partaidetza sustatuz eta haiekin elkarlanean, Altzagan baratza sozialak kokatzeko gune bat identifikatu, definitu eta sortzea. Izan ere, Altzagako Udalak 2016-2017 urtean onartutako II Ekintza Planean, baratza sozialak eta konposta gune komunitarioa auzolanean izeneko proiektua estrategikoa zela erabaki zen eta 2018. urtean, proiektu hori burutzea erabaki zuen.

Prozesuak zortzi hilabete iraun zuen eta denbora horretan herritarrekin elkarlanean aritu zen Udala. Egindako parte-hartze prozesuari jarraiki, 2019ko martxorako proiektua amaitzea lortu zen eta sortutako lehen baratza sailak lantzen hasi ziren Altzagako lau familia. Aipatu baratzak Ertotxe etxearen azpialdean sortutako lur sailean egin ziren, 10 baratza, hain zuzen. Udalak erabiltzaileen eskura jarri zituen baratza lantzeko tresneria jasotzeko txabola, erremintak eta ura.

Lursaila sortzearekin batera ere, horiek ustiatzeko araudia ere prestatu eta onartu zuen. Horren arabera, baratzak nekazaritzarako jarduerak egitera bideratzen ziren eta horien ustiapena, nekazaritza ekologikoaren printzipioetara lotzen zen.

Baratze sozialak egiteko lur eremua identifikatu eta proiektuaren irizpideak definitzeko, hainbat bilera edota lan saio egin zituen Udalak, urrian lehen saioa, azaroan, Kutxa Ekogunearekin bilera eta irailean araudiaren berri emateko saioa

Bilera horietan 12 lagunek hartu zuten parte. Kasu honetan ere, herri txikia izanik, herritarren parte-hartzeak eta inplikazioak garrantzi handia izaten du tokian tokiko dinamizazioan eta hori sustatu ahal izateko ezinbestekoa da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea. Horretarako, proiektuaren berri eman eta bileren deialdiak zabaltzeko, Udalak iragarki taulak erabili zituen, etxez etxe idatziak bidali zituen eta ahoz-ahokoaz ere baliatu zen gaiari ahalik eta zabalkunde handiena emateko. Era berean, Altzagan WhatsApp taldea ere sortua dago. Bertan 38 bizilagunek hartzen dute parte eta Udalak bide hori aprobetxatzen du horrelako gaiak ere zabaltzeko.

Gauzak horrela, Udalak planteatutako helburu guztiak lortu eta bete zituen: 10 baratze sail sortu zituen eta horietatik, hasiera batean, 4 betetzea lortu zuen, nahiz eta gainerako 6ak ere ustiatzeko prestatuak egon. Horrenbestez, parte-hartzaile kopuru aldetik Udala kontentu badago ere, partaidetza hori handitzea du erronka gisa datorren urtetarako.



## Belen Mendizabal

Altzagako idazkaria

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea herriko erabakietan parte hartzeko bide bat da eta garrantzitsua deritzot azken finean herri bat herritar orok osatzen dutelako. Partaidetza herritarren ideiak eta beharrak ezagutzeko bide bat da eta parte-hartzailea bazara, zure herritartasuna handitu egingo da. Bertako partaide sentituko zara.

Gainera, Altzagan kanpotik etorri den jende asko dago eta azken legegaldian haien herritartasuna landu eta haien behar eta ideiak ezagutzeko lan asko egin da eta egun egiten da.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Altzagan WhatsApp talde bat dago eta horrelako edozein prozesu egiten denean, bertatik zabalitzen da horren berri. Horrez gain, bilerak eta deialdiak ere WhatsAppez zabalitzen dira, urteko bilera bat egiten da herritar guztiarekin udal erabaki, ekimen eta ekintzen berri emateko.

Altzagan 160 biztanle inguru gara eta herritar guztiak dute WhatsApp talde horretan parte hartzeko aukera eta WhatsAppz haratago, Udalaren eta herritarren arteko harremana etengabekoa da, horrenbestez, zehar lerro gisa lantzen dela esango nuke.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen da baina pixkanaka gero eta jende gehiago animatzen da. Azken plenean, esaterako, zinegotziez gain, 10 herritar inguruk parte hartu zuten eta Altzaga bezalako herri batentzat, kopurua altua da.

Herritarrek, noski, bilkuran hitz egiteko aukera dute eta askotan aprobetxatzen dute espazio hori proiektu edo ekimen konkretuen inguruan informazio eskatzeko.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Altzagan 2017an Agenda 21eko plana berri zuten herritarren eta bertako eragile zein elkarterekin elkarlanean eta plan horretan, beharrezkotzat jo zuten baratza sozialak jartzea. Egia da, behar hori zenbait pertsonen soilik plazaratu zutela, Altzagan badira baserri asko jada bere baratza propioa dutenak eta.

Edozein kasutan, eskaera eta behar horretatik abiatuta ekin genion proiektuari.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Lehenik eta behin interesa azaldu zuten herritar horiekin hitz egin genuen eta behin haien konpromisoa lortu eta proiektua interesgarritzat jo zutenean, lursailak aukeratu eta landu genituen elkarlanean.

Horretarako, noski, hainbat bilera egin genituen, gainerako herrietako ereduak aztertu genituen, horiek Altzagara eta Altzagako beharretara egokitu genituen, araudia landu, herritarrei aurkeztu eta haien ekarpenak jaso genituen. Hori guztiaren ostean, jada martxan dago.

Hasiera batean baratzen behar hori pertsona gehiagok zutela aurreikusi genuen eta horietako batzuk atzera bota ziren, baina edozein kasutan, baratzeak bertan daude eta jende gehiagok parte hartu nahi badu aukera badago.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Baratzak bertan daude, helburua bete da, baina ez da %100ean bete 6 lursail osatu zirelako eta erdia soilik landu direlako, besteak oraindik hutsak daude.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Parte-hartzean azpimarra egiten jarraitu behar dugula da ikasgairik nabarmenena, baita, lehen esan bezala, herritarrentzat pizgarriak txertatzea, herritarrei proiektuaren parte sentiaraztea eta noski, proiektuak aurrera eramateko garaian beti beraiekin kontatzea. Beti dago zer ikasi eta zer hobetu.



# Arama

**AZALERA: 1,32 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 202\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Aramako apaiz-etxea eraikinaren erabilera zehazteko prozesu parte- hartzailea

Aramako herria garatzen jarraitzeko eta herria zein herritarren behar berriei erantzuteko, Udalak Aramako herrigunean kokaturik dagoen apaiz-etxea berri eta bertan herriaren etorkizunerako garrantzitsuak eta estrategikoak diren zerbitzuak ezartzeko prozesua abiarazi zuen.

Horretarako, baina, eraikinaren erosketa prozesua erabakitzeke eta erabilera zehazteko parte-hartze prozesu bat egin zuen, horrelako erabaki garrantzitsuak eta herritar orori eragingo diotenak hartzerakoan Udalak ezinbestekotzat jotzen baitu herritar guztiak inplikatzeari.

Izan ere, herritarren parte-hartzeak eta inplikazioak garrantzi handia izaten du herri txikien dinamizazioan eta hori sustatu ahal izateko ezinbestekoa da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea. Horretarako, deialdi orokorrek parte-hartze emaitza baxuagoak ematen zituela ohartuta, etxez-etxeko deialdia egin zuen Udalak. Horrez gain udaletxean ezarrita dauden pantaila elektronikoetan ere eman zuen prozesuaren berri, baita "Arama zaitez" urteroko udal aldizkarian ere.

Gauzak horrela, prozesuan zehar hainbat bilera egin ziren aramatarrekin eta horietan 30 lagunek hartu zuten parte. Bertan, prozesuaren inguruko informazio guztia eman, herritarren kezak argitu

eta ondorengo erabakiak hartu zituen Udalak, bizilagunekin elkarlanean.

- Eraikinaren erosketa.
- Eraikineko zerbitzuak.
- Eraikinaren egitura.

Bileretan landutakoari jarraiki, eraikina erostea erabaki zen uztailean eta horren ostean, bertan ezarriko ziren zerbitzuak zehaztu ziren herritarrekin, baita moldaketa eta egitura ere. Horren arabera, apaiz-etxeko lehen solairuan taberna-jatetxea jartzea eta bigarren solairuan ostalua egitea erabaki zen.

Horri jarraiki, prozesua bera positibotzat jo zuen Udalak eta parte-hartze handiagoa espero zuen arren, bertaratu zirenen inplikazioa handia izan zen eta jarritako helburuak bete ziren.

Parte hartu zuten herritarrek zuzenean jaso zuten proiektuaren inguruko informazioa eta gainerakoek, etxeetara bideratu ziren oharren bidez izan zuten egindako urratsen berri. Edozein kasutan, etorkizunera begira, parte-hartzeak duen garrantziaz jabetuta, Udalaren erronka da parte-hartzaileen kopurua handitzea eta horrelako prozesuetan sakontzea. Aramako biztanleak herrian hartzen diren erabakietan haien parte-hartzeak duen garrantziaz jabetu daitezten.



## Maider Romo

Aramako udal arkitektoa

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Herritar guztien artean erabakiak hartu ahal izateko tresna bat. Eta eskubide bat. Udal ordezkariak erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzten kasuetan, ikuspuntu eta iritzi ezberdinak azaleratzen direlako eta hartutako erabakiak beste berme batzuk dituelako.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Egunerokotasunari dagokionez ekintza puntual gisa. Baina herrian hartu behar diren erabaki garrantzitsuei dagokionean zehar lerro bezala lantzen dela esango nuke. Hau da, egunerokotasunean zerbait puntuala da, baina garrantzizko gaiei dagokienean, zehar lerro bat da.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gaiaren araberakoa izaten dela esango nuke. Kasu konkretu honetan nahikoa herritarrek parte hartu dutela esango nuke. Orain etxebizitzaren tipologiaren inguruan egin behar dugu parte-hartze prozesu bat eta ziurrenik horretan ere jende asko etorriko dela. Joera hori areagotzeko, nolabait herritarrei eztabaidatu behar den gaiarekiko interesa piztuko nieke.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Lehen parte-hartze prozesua apaiz-etxea eraikinaren erosketa eta erabilera orokorraren inguruan erabakiak hartu ahal izateko burutu zen. apaiz-etxea taberna, jatetxe eta ostatu erabilerarako egokia izan zitekeela adostu zen.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Lehen fase batean, egungo egoerari buruzko informazio lortzeko, datu bilketa eta lantzea egin zen. Arketaz, Arkitektura eta Zerbitzuak enpresari apaiz-etxea orubeari buruzko tasazioa egiteko eskatu zion Udalak, erosketak zein inbertsio ekarriko lukeen ezagutzeko. Eta ondoren, parte hartze prozesua jarri zen abian.

Lehen bilera batean, herritarrei udaletxean gaia aurkeztu zitzaion. Ondoren, eraikina ezagutzeko bisita bat egin zen eta baratza bezala erabiltzen den ondoko lursaila ere ikusi zuten.

Lehen analisia egiteko, gaur egun udalerrian dauden zerbitzuen azterketa eta zein behar dauden ezagutzeko herriko talde ezberdinak bertaratu ziren. Hirigintza zerbitzuen arduradunekin ere elkarrizketak egin ziren eta parte-hartze prozesuaren bigarren fase batean, egungo egoeraren diagnostikoa burutu zen.

Herri batzar edo parte-hartze saio berri bat antolatu zen eta bertan, herriko tabernaren leku aldaketa beharrezkoa zela ondorioztatu zen. apaiz-etxea taberna, jatetxe eta ostatu erabilerarako egokia izan zitekeela adostu zen, eraikin hau eraberrituta, zerbitzu hobea eskaintzeko aukera emango zuelako.

Lehen analisia egiteko, gaur egun tabernak duen programa zein den eta eskaintzen dituen zerbitzuak zein diren ezagutu zen.

Eraikinaren egungo egoerari buruzko planoak egin eta programa bertan nola lekutu zitekeen ezagutu ahal izateko, Aramako Udalak Zehark Studiari apaiz-etxea taberna, jatetxe eta ostatu erabilerarako egokitzeko aurreproiektua lantzeko eskatu zion.

Bigarren parte hartze prozesu honetan beste herri batzar edo parte-hartze saio berri bat antolatu zen. Eta bertan bi aukera landu ziren.

Bigarren aukeraren alde egin dute herritarrek; ostatu erabilerara bideratuko dira eraikinaren goiko bi solairuak, eta frontoi txikia elkargune berri bilakatuko du, jateko eta elkartzeko gune bihurtuz.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesu honekin herriko proiektuetan gardentasuna eta proiektuen eta planen definizioan herritarren partaidetza txertatzea lortu da. Eta Udal kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzeko beste esperientzia aberasgarri bat garatu dela ulertzen da.

Konkretuki, apaiz-etxea eraikinaren erabilera zein izango den, barneko programa nola antolatuko den eta orubean dauden kanpo espazioak eraikinarekin eta herriko plazarekin zein erlazio izango duten erabakitzea lortu da parte-hartze prozesu honekin.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Partaidetzak bere garrantzia duela baina baita bere mugak ere, asko kostatzen delako jendea erakartzea.

# Beasain

**AZALERA: 29,9 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 13.969\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Beasain partekatuz

Beasain partekatuz prozesuaren baitan, Udalaren helburu nagusia izan zen, barne zein kanpo kolektiboaren, baina, bereziki Beasaingo biztanleriaren aurrean, Beasaingo Udalak definituta eta martxan zituen proiektuekiko gardentasuna, parte-hartzea eta kontu-ematea bermatzea. Horretarako eta proiektuaren eraginkortasuna bermatzeko, ondorengo urratsak jarraitu ziren:

- Lehen fasea: informazioa jaso eta proiektua definitu.
- Bigarren fasea: komunikazio plana garatu / dokumentazioa eta baliabideak prestatu.
- Hirugarren fasea: parte-hartzea.
  - » 3 lan saio:
    - Udaletxeko teknikariak.
    - Beasaingo elkarte desberdinak.
    - Taldekatuta ez dauden herritarrak.
- Laugarren fasea: lortutako emaitzen analisia.
- Bosgarren fasea: ondorioak eta txostena.

Prozesuan zehar, Udala 48 pertsonekin egon zen guztira: 14 udal teknikari, 23 elkartekide eta 11 herritar. Guztiek egin zizkieten ekarpenak legintzaldi planari eta guztiak izan ziren aberasgarri, kolektiboaren arabera, ekarpen desberdinak eta behar desberdinak ezagutu eta jaso ahal izan zituelako Udalak.

Oro har, Beasaingo 2015-2019 legegintzaldi planarekiko sentsazio positiboa sumatu zuen Udalak. Teknikarientzat ziurtasuna, horizonte eta helburu argiak islatzen zituen dokumentuak; herritar batzuen artean, Gobernu Irekiaren ezarpenari, gardentasunari eta kudeaketa-modu berriari buruzko balorazio positiboak jaso ziren eta elkartei dagokionez, Udalarekin komunikazio ona dagoela iritzi zuten, baita bertako langile teknikoekin ere.

Dena den, herritarrek ez zuten aurreko urteekiko aldaketarik sumatzen, eta, beraz, Udalaren eta herritarren arteko harremana korapilatsua eta sarbide zailekoa zela adierazi zuten. Edozein kasutan, guztiek ulertu zuten lehen esperientzia zela eta oraindik hobetzeko arloak zituela Udalak.



Ildo horretan, etorkizuneko planerako hobekuntza gisa, inplikazio tekniko handiagoa eskatu zen, helburuak eta garapena eguneroko bizitzan integratuago egoteko.

Helbururen betetze maila, halaber, altua izan zen, hasieratik ezarritako guztiak bete baitziren:

- Legealdiaren Kudeaketa Planaren betetze maila erakutsiko duen eragileak zehaztea.
- Beasain.eus webgunearen barnean materia horietan ematen den aurreratze maila erakusteko espazio bat sortzea.
- Kontu-ematea.
- Eragile lokalarekin kudeaketaren ebaluazioa ahalbidetuko duen kontu-emate sistema publikoa ezartzea.
- Udal-korporazioan egiten dena ezagutarazi eta jarraipen eta parte-hartze mekanismoak ahalbidetzea.
- Udal kudeaketen jokabide estrategikoaren kontu ematea bermatzea.
- Lantegien martxa jartzea.
- Parte-hartze txostenaren erredakzioa.
- Euskarri desberdinen sortzea: berriak, esku-orria.
- Metodologiaren esku-liburua sortzea.
- Parte-hartzearen kultura udaletxe zein Beasaingo herrian sustatzea.



## Julen Urteaga

Antolakuntza eta Giza baliabideen arduraduna

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea guretzat garrantzitsua da herritarra bere lekuan jartzen duelako. Hau da, parte-hartzeak herritarra jartzen du ardatz gisa eta horrenbestez, herritarra udal erabakietara gerturatzen du, batzuetan erabakietan zuzenean parte hartuz, beste batzuetan informazioa jasoz edo beste batzuetan kontsulta eginez. Laburbilduz, partaidetza garrantzitsua da herritarrengan jartzen duelako fokua.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Beasaingo Udalean partaidetza nola zegoen aztertzeko diagnostika egiteko garaian udaletxean parte-hartze prozesu isolatu edo solteak zeudela konturatu ginen, baina prozesu horiek ez zeuden inondik inora egituratuta. Gure egitekoa horiek egituratzea izan da.

Horretarako metodologia bat markatu dugu eta horren baitan, udaletxeko edozein arlo edota sailetan parte-hartze inizatiba sortzen denean, fitxa bat betearazten dugu. Fitxa horrek parte-hartze gai horren inguruko informazioa jasotzen ditu: helburua, partaideen ezaugarriak (kopurua, adina...), prozesuaren deskripzioa, iraupena, aurrekontua, prozesu mota ordenantza, herri galdeketa..., komunikazio kanalak, metodologia...

Behin hori beteta, udaletxean sekuentzi jakin bat jarraitzen dugu eta azkenean aurrera egitea erabakitzen bada, prozesua abian jartzen da eta webgunean dagoen parte-hartze plataformara igotzen da.

Edozein kasutan, hori guztia ordenatze prozesu bat da eta orain, arautze prozesu bat lantzen ari gara. Gure ustetan, Udalak parte-hartze mota desberdinak zeintzuk diren identifikatu eta zehaztu behar ditu eta horretarako partaidetzaren barne-araudia osatzen ari gara.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Ez, oraindik kosta egiten da. Herritarrak gai baten inguruan biltzea zaila izaten da eta zentzu horretan, Udalak asko du oraindik ikasteko. Interes puntuak edota gaiak identifikatzen ikasi behar dugu.

Era berean, gardentasunean sakontzea ere beharrezkoa ikusten dut herritarrek administrazioa hobetoago ezagutu eta hurbilago sentitu dezaten. Horrek ondoren beren partaidetza areagotzen lagunduko duela uste dut. Eta hain zuzen horregatik landu genuen Beasain partekatuz prozesua.

Edozein kasutan, Udalaren egitekoaz haratago, bada landu beharreko kultura eta pedagogia bat, txiki txikitatik errotu beharreko kultura eta pedagogia bat, alegia.



**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

2015-2019 legealdian Beasaingo Udalak legegintzaldi plana egin zuen lehen aldiz eta bertan jaso ziren Udalak 4 urte horietarako hartzen zituen konpromisoak.

Behin legealdi plana bere amaierara iristen ari zen heinean, horren kontu emateko beharra sentitu genuen, hau da, legealdi hasieran hartutako konpromiso horiek zertan gelditu ziren azaltzeko beharra. Eta hori gardentasunean oinarrituta eraman nahi izan genuen aurrera, errealitatea adieraziz, alegia, egin zirenak zertan gelditu ziren eta egin ez zirenak zergatik ez ziren egin azalduz.

Horrenbestez, guretzat gardentasun ariketa bat ere izan da. Legealdi planak hasiera eman zion legealdiari baina kontu emateak nolabait amaiera ematen zion.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Hiru bilera egituratu genituen: herritar orori zuzendurikoa lehena, herriko eragileei zuzendurikoa bigarrena eta udaleko langileei zuzendurikoa hirugarrena. 2 orduko bilerak izan ziren guztiak eta horietan alkateak zuzenean azaldu zuen legealdi planean jasotako ekintza guztien betetze maila, banan-banan. Herriko elkarte eta herritar desberdinen balorazioa ere jaso genuen.

Zailtasun bezala, parte hartu zuten herritarren kopuru baxua adierazi beharko genuke. Agian Udalak ez zuen jakin beasaindarren interesa nola piztu eta argi dugu horretan ere ikasi eta aurrera pausoak eman behar ditugula.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Herritarrekin ez dira izan, eragileekin, ordea, bai eta baita udal langileekin ere.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Parte-hartzea egituratzen eta arautzen jarraitu behar dugula eta hori ahalik eta adostasun handienarekin egin beharreko zerbait dela. Ondoren noski, araututako hori errealitatera eramaten ere jarraitu behar dugu.



**AZALERA: 12,38 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 644 (Ezkio-Itsaso)\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

# Ezkioko etorkizunaren inguruko gogoeta

Ezkio eta Itsaso herriak 1962an, frankismoaren garaian, inposatutako erabaki baten ondorioz elkartutako herriak ziren.

2016ko irailaren 18an, ordea, herri-galdeketa bat egin zen Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin. Galdeketa horretan, 119 bizilagunek bozkatu zuten eta horietatik %88k banantzearen aldeko hautua egin zuten.

Horren aurrean, abenduaren 22an, Foru Gobernuako Kontseiluak desanexio dekretua onartu zuen.

Orduz geroztik desanexio prozesuak luze jo duen arren, 2018an Ezkioko Udalak herriko etorkizunerako oinarrien inguruko gogoeta egitea ezinbestekotzat jo zuen, Ezkiok, udalerrri bezala, bere nortasun propioa garatu eta bere etorkizuna definitzen joan zedin.

- Zer nolako herria nahi dugu?
- Nola bultzatuko dugu?

Galdera horiei eta beste askori erantzuteko, baina, Udalak ezinbestekotzat jo zuen herritarren iritzia jasotzea. Udalaren helburua zen etorkizuneko Ezkioren eraikuntza pausoz pauso herritarrekin batera eztabaidatu eta elkarlanean hasiera ematea, etorkizunerako mugarri eta erronka garrantzitsuak beraiekin adostuz.

Horretarako batzar irekiak egin zituen, urtarrilaren 20an lehena eta 27an bigarrena. Biak udaletxean egin ziren eta herritarren partaidetza altua izan zen bi saioetan. Horietan, bakoitzak bere iritzia, galderak edo zalantzak elkarbanatzeko aukera izan zuten, baita gainerakoenak entzuteko ere.

Bide horretan, Ezkiok herritarren partaidetzan aurrera pauso garrantzitsu bat egin duela esan daiteke, baina bidea hasi den honetan, ezin du bere horretan utzi. Bi saio horietan sortu eta landutako edukia baliagarria izan zen arren, abiapuntua soilik ez zen izan, lanketa handiagoa egitea beharrezkoa baita aurrez aipatutako helburuak lortzeko, hau da, Ezkioren nortasuna eta etorkizuna garatzen jarraitzeko, alegia.



## Tomas Etxaniz

Ezkioko alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Herria komunitate bat bezala ulertzen dugu eta hori horrela izanik, herritarren iritzia eta inplikazioa ezinbestekoa da.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Kasu honetan, kanpo enpresa baten bitartez eraman genuen aurrera prozesu hau eta oso transbertsala izan zen. Ezkion egin den lehen parte-hartze prozesua izan da eta herritarrek asko eskertu zuten. Izan ere, Ezkio eta Itsasoren bereizketa garaian egin zen, herritarrek ere Ezkioren identitate edo herri ikuspegi berri hori lantzeko ezinbestekotzat jotzen baitzuten.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Kasu honetan herritar askok hartu zuten parte, agian gaia ere eragin eta garrantzia handiko gaia zelako.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Esan bezala, Itsaso eta Ezkio banatzean, ezinbestekotzat jo genuen gure komunitatearen oinarriak definitzea eta horretarako hain zuzen abiatu genuen prozesu hau. Aurreko legegaldiko gauza izanik, gainera, Udalean sartzen zen talde berriak argi izan behar zituen oinarri horiek, ondoren jarraipena emateko.

Era berean, Ezkio bi zatitan banatuta dago: nekazaritza mundua batetik eta azken urteetan

eraikitako mundu urbanoago bat, bestetik. Bi mundu horiek interes eta helburu desberdinak dituzte eta bi horietan herri ikuspegia txertatzea oso zaila den arren ezinbestekoa da, eta azken finean, oinarri horiek horretan laguntzen dute.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Aztiker enpresaren bitartez egin genuen eta lanketa batzar bidez eraman genuen aurrera, Guztira 4 batzar egin genituen eta gehienbat barne lanketa izan zen. Ondoren txosten bat osatu zen eta bertan zehaztu ziren oinarri horiek zeintzuk ziren.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Oso ona. Helburuak guztiz bete dira. Egia da ondoren, hauteskundeak medio, oinarri horien aktibatzea pixka bat atzeratu zela baina orain guztiak ditugu martxan.

### **Zein ikasgai ateratu dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Funtsezko ikasgaia izan zen herri ikuspegia herritarrengan txertatzea. Herri txikietan, norberak bere ikuspegi propioa du eta hori zabaltzea oso zaila da, are gehiago Ezkion, lehen aipatutako bi munduen arteko aldeagatik.

Edozein kasutan, datorren urtera begira dagoeneko pare bat parte-hartze prozesu prestatzen ari gara, oso interesgarria iruditu baitzaigu eta komunitate sentimendu hori lantzeko ezinbestekoa baita parte-hartzea indartzen jarraitzea.



# Idiazabal

**AZALERA: 29,47 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 2.388\***

Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Haurren festa batzordea eta nerabeen festa batzordea suspertu

Haurrei eta nerabeei aukera berdintasuna bermatu eta herriko festen inguruan haien iritzi, ideia eta proposamenak jasotzeko, Idiazabalgo Udalak haur eta nerabeen festa batzordea suspertzeko parte-hartze prozesua abiarazi zuen 2018an. Prozesuaren helburua zen, halaber, udal jardunean haur zein nerabeen partaidetza bermatzeko baliabideak jartzea.

Gauzak horrela, prozesua aurrera eramateko garaian hezitzailean kontratatu ziren eta udal

barruan, erakunde kudeatzailearekin batera prozesua diseinatu zen: mugak definitu, aurrekontua zehaztu... Era berean, prozesuan parte hartu zuten Xapobixi aisialdi elkarteak, helduen festa batzordeak eta noski, baita haur zein nerabeen festa batzordeak ere. Izan ere, prozesuaren metodologia haur eta nerabeen beharretara egokitzen saiatu zen Udala eta horregatik, prozesua, oro har, beren aisialdiko tarteetan garatu zen eta difusiorako bideak ere oso pertsonalak izan ziren.

Parte-hartze prozesuaren urratsak ondorengoak izan ziren:

- Udalaren ideia garatzeko azterketa eta proposamen teknikoa landu: helburuak, ekintzak, metodologia, beharrezko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.
- Parte-hartze prozesuaren izaera eta mugak definitzea (ordezkari politikoei).
- Kontratu txiki bat sinatu Xapobixi herriko aisialdi elkartearekin.
- Elkartea eta Udalaren arteko bilera teknikoak, prozesua birdefinitu eta elkartearen ekarpenak txertatzeko.
- Haurrekin, nerabeekin eta gurasoekin lehen hartu-emana ahalbidetu, herriko eskolaren bitartez: gelaz gelako bisitak, irakasle klaustroan azaldu, gurasoentzako korreo elektronikoak, oharrak.
- Adinen araberrako bilera deialdiak egin: tailer modukoak haurren kasuan eta bilera informalk nerabeen kasuan.
  - » Haurrak 3 taldetan banatu: 5-7 urte; 8-9 urte; 10-11 urte. Jolasen bitarteko metodologia aplikatu.
  - » Nerabeak 3 taldetan banatu: 12-13 urte; 14-15 urte; 16-17 urte.
- Talde bakoitzeko 3 bilera egin. Guztira 18 bilera.
- Bilera horietan erabakitakoa helduen festa batzordean elkarbanatu eta festa programaren barruan txertatu.
- Balorazio bilera egin haur zein nerabeekin.
- Balorazio teknikoa egin hezitzaile eta udal teknikariek.
- Balorazio politiko orokorra egin Idiazabalgo Udalak eta aurrera begirako ondorioak jaso.

Asistentziaren alorrean, datuak ez ziren homogeenak izan. Haurren batzordean parte-hartzea txikiagoa izan zen (26 haur guztira, 19 neska eta 7 mutil). Nerabeen batzordean, halaber, parte-hartzea zabalagoa izan zen. Guztira 57 nerabek hartu zuten parte, 33 neska eta 24 mutil. Hezitzaileen aldetik, talde mistoak sortu ziren eta guztira 4 hezitzaile aritu ziren haur zein nerabeekin lanean.

Gauzak horrela, parte-hartze prozesu horren bitartez, haurren eta nerabeen partaidetza

ahalbidetzeko bitartekoak jarri ziren eta helduen festa batzordeak haien proposamenak entzun eta onartu zituen. Ondorioz, haurren eta nerabeen gustuko ekintzak garatu ziren eta zenbaitetan antolaketa ardurak ere bere gain hartu zituzten (marrazki lehiaketa, esaterako). Behin guztia amaituta, balorazio bileran, datorren urtean, hau da, 2019an, prozesu bera garatzea erabaki zen.

Izan ere, herriko festetako programa osatzeko haurren eta nerabeen iritziak jasotzea eta beraiei protagonismoa ematea zen parte-hartze prozesuaren helburu nagusietako bat eta hori betetzea lortu zen. Bestetik, helduengan hausnarketa prozesuak bideratzea eta haurren iritziak eta nerabeenak ere kontutan hartzearen garrantziaz jabetzea nahi zen eta hori ere lortu zen, nahiz eta etorkizunera begira prozesu bera herriko ekimen gehiagoetara zabaltzeko beharra antzeman zen.

Zeharka, parte-hartzea sistematikoa bihurtzea eta ekimen gehiagoetara zabaltzea zen helburua eta haur eta nerabeen parte-hartzerako zerbitzuetan (PSZ) ekimen hori oinarri izanik, beste ekintzetarako horrelako batzordeak deitzea egoki ikusi zen (Euskal Gazteen Azoka, adibidez).

Horrenbestez, Udalaren eta Xapobixi aisialdi elkartearen helburuak eta espektatibak erabat bete ziren. Ekimena zehatza izanik eta mugak alde aurretik zehaztu zirenez, neurrikoa izan zen bai espektatiben sorkuntza baita betetze maila ere. Haur eta nerabeen betetze mailaren balorazioa egitea ez zen hain erraza izan, bereziki nerabeen kasuan, haiek egindako ekarpenak edota eskaerak ezin izan zirelako bete (eskatutako taldeak data guztiak itxita zituen eta ezin izan zuten Idiazabalera joan).

Edozein kasutan, lehen aldia izanik horrelako ekimen bat diseinatu eta garatzen zela, sistematizazioa lortzea zaila suertatu zen. Gobernantza politikan urrats garrantzitsu bat izan zen, baina gehiagoren beharra sumatu zen, ekimen puntual batetik ohitura izaterako jauzia eman ahal izateko.

Ikasitakoak, baina, gauza ugari izan ziren. Helduen eta haurren iritzien artean distantzia handia dago eta haur eta nerabeen kasuan, Udalak, askotan gurasoak "ordezkari" bezala hartzen ditu eta ez da beti horrela izaten. Horregatik, prozesuak argi utzi zuen haurren eta nerabeen iritziak jasotzeko zuzenean beraiei galdetu behar zaiela, langile kualifikatuen bitartez (hezitzaileak). Era berean, festak intereseko gaia diren bezala, beste gaietan ere iritzia eska dakiekeela ikasi zuen Udalak, baita herritartasun aktiboa txikitatik sustatzen den zerbaite delako ere.

# Itsasondo

**AZALERA: 8,94 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 718\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

Itsasondoko

Hiri

Antolaketa

aldaketa

puntuala

egiteko

parte-

hartze

prozesua

Hiri Antolaketa Plana aldatzeko beharrezkoa da herritarren partaidetza saioak burutzea 2/2006 legearen 108. artikulua horrela agintzen duelako. Itsasondoren kasuan, Hiri Antolaketa Planaren aldaketa puntuala Beko kalen urbanizagarri bezala kualifikatutako eremu industrial bati zegokion. Garapen hori ezin izan zen berehala aurrera eraman, baina Beko kaleko eremuan sortzen ziren zirkulazio eta aparkamendu arazoak zuzentze arren, aipatu eremuko zati batean arazo horiek zuzentzeko errotonda bat eraikitzea planteatu zen. Errotonda egiteko, ordea, beharrezkoa zen Hiri Antolaketa Plana aldatzea.

Gauzak horrela, egindako parte-hartze saioetan, planteatutako proiektuaren berri eman zitzaion bizilagunei. Bi saio egin ziren, apirilaren gan bata eta irailaren 10ean bigarrena. Horietan 21 herritarren hartu zuten parte.

Proiektuaren aurkezpenaren ostean, eztabaida solasaldia egin zen. Orokorrean proposamena egokitzat eman zuten herritarrek, planaren aldaketak bizilagunek urtetan zehar Beko kaleko urbanizazioa egitearen eskariari erantzuten baitzion.

Egindako bi saioez haratago, Itsasondoko Udalean hirigintzako parte-hartze taldea hilean behin biltzen zen. Bilera horiek ere irekiak izan ziren eta



batez beste 8 bizilagunek hartu zuten parte. Saio horietan jarraipena eman zitzaion Beko kaleko eremuaren egokitzapena lortzeko Hiri Antolaketa Planaren aldaketa puntualari. Bide batez, herritarrekin egindako parte-hartze bileretan jasotako proposamenei jarraiki, Beko kaleko eremuan aparkalekuak margotu ziren, bertan sortzen ziren zirkulazio arazoak zuzentzeko.

Egindako lanketari esker herritarrek parte-hartze zuzena izan zuten Hiri Antolaketa Planaren aldaketa puntualean. Era berean, Beko kaleko eremua egokitzeko lanak azaldu zitzaizkien eta bertan ezarritako seinalizazioa eta araudiak errespetatzeko beharra ere bereganatu zuten.

Hiri Antolaketa Planaren aldaketaren garapena ondorengo izan zen:

- Hasierako onarpena 2018ko apirilaren 16an.
- Jendaurrean jartzea eta txostenak jasotzea azaroaren 26a arte.
- Behin behineko onarpena 2018ko abenduaren 17an.
- 2019ko martxoaren 12an, Hiri Antolaketa Planeko aldaketa puntualaren espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde

.Antolamendu Batzordean ikusi ondoren, aldeko txostena jasotzen du.

Une honetan, Udalak tramitatutako espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu behar du, behin betiko onarpenaren erabakia hartzeko eskumena diputatuen kontseiluak duelako.

Prozesuan zehar, halaber, Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa bide desberdinetatik egin da: etxez-etxeko komunikazioa, bandoak, herriko puntu desberdinetan dauden pantailak, Itsasondo 2.0 aldizkaria...

Edozein kasutan, Udalaren susmoa da herritarrek ez dietela gehiegi erreparatzen etxeetara bidaltzen diren komunikazioei eta horregatik, etorkizunera begira, komunikazio bide horiek berritzeko erronka du.



## Beñat Mendiburu

Itsasondoko udal arkitektoa

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Udalak erabaki asko hartzen ditu eta horietako askok herritarrengan eragina dute, horrenbestez, bertakoen iritzi eta esperientzia jasotzeko beharrezkoa ikusten dugu, herritarrak direlako herria ondo ezagutzen dutenak, herrian gertatzen dena lehen pertsonan bizi dutenak eta proiektuen eraginak zuzenak pairatuko dituztenak. Hori guztiagatik, ezinbestekotzat jotzen dugu parte-hartzea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Itsasondon badira gutxienez bost bat urte parte-hartze dinamikak herriko plangintzan sartuta daudenetik. Hiru parte hartze talde daude: herri bizitza, hirigintza eta ongizatea eta horiek jada egutegi bat dute. Plangintza hori oso erabilgarria da eta bai plangintza zein bilera bakoitzean tratatzen diren gaiak, guztiak udal webgunean jartzen dira, herritar orok ikus dezan eta nahi duena parte hartzera anima dadin.

Horrez gain, herri aldizkari bat ere argitaratzen dugu urtean 4 aldiz eta bertan herri bizitzaren edota udal erabakien berri ematen da eta herritarrei parte hartzeko aukera ere ematen zaie bertan.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu**

### **parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Kosta egiten da bereziki interes orokorreko kontuak direnean. Gero eta kontzientzia handiagoa dago, bereziki jende gaztearengan, baina oraindik kostatzen da.

Herritarrak animatzeko ezinbestekoa deritzogu komunikazio plana. Plan interesgarri eta bereziki erakargarria egin behar da herritarrak parte hartzera animatzeko. Horrez gain ezinbestekoa da partaidetzaren emaitzak ikustea, hau da, herritarrek beraiek proposatu dutena aurrera eraman dela ikustea. Horretaz haratago, herritarrei parte hartzeko erraztasunak ematea ere oso garrantzitsua da, parte hartzeko aukera eta bide desberdinak eskaintzea, alegia.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Bekokale auzoan, kalea bera bi noranzkoa da, aparkamendua erregulatu gabe dago eta gainera, enpresa bat dago eta ondorioz kamioien joan etorria handia da. Hori dela eta, kexa ugari jaso ditugu udaletxean. Egoera aintzat hartuta, Udala auzora bertaratu eta herritarrei bertako egoeraren inguruan galdetzen hasi zen. Agian ez zen parte-hartze prozesu gisa diseinatu hasieratik baina lehen urratsak horiek izan ziren, haur da, bertako arazoari eta bizilagunen eskaerei erantzuna ematea.



### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Prozesua fase desberdinetan garatu zen. Lehenbizi, herritarrengana zuzendu ginen auzoko arazoaren inguruko informazioa biltzeko. Horrela, aparkamendurekin eta oinezkoen espazioekin arazoak zeudela ondorioztatu genuen (mugikortasuna eta irisgarritasuna).

Horrek udal arauak aldatu behar genituela ikusarazi zigun. Lehenbizi, kalea noranzko batekoa bilakatu behar zela ondorioztatu genuen. Kaleak bukaeran kanpa bat du eta ez du amaierarik, horrenbestez, noranzko bakarrekoa egiteko, kanpa horretan N-1arekin lotura berri bat egin behar da, kamioiak ere bertatik bideratzeko.

Horretarako, Plan Orokorrean aldaketa bat egin behar da eta hori egiteko parte-hartze prozesu bat diseinatu zen, aldaketa puntual horri dagokiona, alegia. Horretarako, dokumentua idatzi aurretik herritarrekin bilera irekia egin zen, proposamena aurkeztu eta beraienak jasotzeko eta ondoren plana idatzi eta azalpen bilera egin zen.

Momentu honetan, aldaketa hori onartzeke dago oraindik eta horren ostean urbanizazio proiektua etorriko da, aldaketa horrek auzoko urbanizazioa ere aldatuko duelako. Eta hori ere parte-hartze prozesu bidez egingo da.

Bien bitartean, aparkalekua arautu dugu, horretarako aparkalekuak margotuz.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Bai, herritarren partaidetza eta erantzuna ona izan da. Enpresakoena, aldiz, ez horrenbeste. Prozesuan zehar kexatu egin dira sarritan, baina ondoren ez dira parte-hartze bileretara azaldu, agian ordutegiagatik, agian ez direlako proiektuaren parte sentitzen.. Edozein kasutan, faltan bota dugu beraien parte-hartzea.

Dena den, herritarrekin egindako lanketa izan denez, bertatik atera den eta aterako den proiektuak haien babesak du eta hori beti da positiboa.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Betiko ikasgaia, herritarrekin batera lantzen diren gaiek eta hartzen diren erabakiek adostasun maila handia dutenez oso konfliktu gutxi sortzen dituztela; jendeak proiektu horiek ezagutzen ditu eta bere egiten ditu, horrenbestez, Udalak jaso ditzaken kexak asko murrizten dira eta parte hartu ez duena kexatzen bada, legitimitate hori nolabait galdu egiten du.

# Legazpi

**AZALERA: 41,8 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 8.430 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Legazpiko Agenda 21eko foroa dinamizatzea



Legazpiko Udalak jasangarritasunaren alde duen konpromisoari jarraiki, 2018an abiarazitako parte-hartze prozesuaren helburua zen, hain zuzen, herritarren parte-hartzea bultzatzea jasangarritasunaren bidean aurrerapausoak ematen jarraitzeko. Era berean, Udalaren asmoa izan zen Legazpirako estrategikoak ziren gaiak herritarren parte-hartzearekin aberastea.

Horretarako, 2018an zehar Agenda 21eko Foroaren baitan egindako bileretan, ondorengo gaiak landu ziren:

- Mugikortasun Plana.
- Latxartegiko parke txikia.
- Drainatze Jasangarriaren Sistemak (2 bilera).
- Hondakinei buruzko informazioa.
- Bertatik Bertara.
- Laubideko haur-parkearen estaldura berdea (2 bilera).
- Olentzero Azoka.
- Gizarte gaiak (2 bilera).

Gai horien artean, etorkinentzat informazioaren lanketa, drainatze jasangarrien gaia eta Olentzeroren azoka gai berriak izan ziren. Foroaren saio horiek udaletxeko Batzar Aretoan, Kultur Etxeko Areto Nagusian, Domingo Agirreko Laubideko eskolan eta Laubideko parkean egin ziren. Batz bestea 21 pertsonak hartu zuten parte foroetan, horietatik %53 emakumezkoak. Guztira, ordea, 151 lagun hurbildu ziren bilera ezberdinetara.

Gauzak horrela, Foroan egindako lanketa ekarpen handia egin zuten Legazpira bizitzera joandako pertsonen hondakinak nola kudeatu behar zituzten azaltzeko. Fitxa bat diseinatu zen eta dokumentu hori gaur egun udaletxean informatzeko erabiltzen da; euskaraz, erdaraz, ingelesez, frantsesez, arabieraz eta errumaniarrez dago eta web orrian ere herritar ororentzat dago eskuragarri.

2018an halaber, Foroak drainatze jasangarriaren sistemak zer ziren ikasteko aukera izan zuen eta sistema horiei buruz Udalak egin zuen ikerketan parte hartu zuen. Horren baitan, bi obra proiektu landu ziren.

1. Latxartegiko parke txikia naturan oinarritutako diseinu partekatu bat egin zen. Forokideek, gurasoek, Haztegiko irakasleek, bizilagunek... parte hartu zuten. Honen ondorioz jolas parke desberdina gauzatu zen.
2. Olentzero Azoka antolatu zen lehen aldiz. Ingurumen irizpideak txertatzeko lan bikaina egin zen Foroaren eta Ilinti merkatarien elkartearen artean.

Lanketa horri esker, udal kudeaketa arlo desberdinetan aberastu zen. Helburuak bete ziren eta aurreikusitako gaiak aztertu eta proposamen berriak sortu ziren. Gainera, jorratutako gaietan konpromiso zehatzak hartu zituzten Legazpiko Udalak.



## Inma Hernandez eta Koldobike Olabide

Lurraldetasun arloko teknikaria eta Legazpiko alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat herritarren parte-hartzea demokrazia eta Udalaren kudeaketa hobetzeko modu bat da. Oso tresna baliagarria da herritarrek pentsatzen dutena ezagutzeko, proiektuak hobetzeko, eta herritarren kezka, kexa eta helburuak ezagutzeko. Dena den, ikasketa prozesu bat dela uste dugu, urteetan zehar ikasten dena, alegia.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Agenda 21eko Foroaz hitz egiten badugu, prozesu iraunkor bat dela esan behar dugu, 2001az geroztik urtero zehar lerro gisa tratatu baita.

Horrez gain, Udalean badira beste hainbat prozesu zehar lerro gisa ere lantzen direnak, hala nola Jai Batzordea, aurrekontu parte-hartzaileak, Gizarte Foroa (duela urtebete sortua).

Pixkanaka gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio parte-hartzeari eta gaur egun, prozesu horretan murgilduta gaude.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Edozein prozesutan bezala, hasieran kostatzen da. Agenda 21 Foroarekin hasi ginenean,

2001ean, alegia, herritarrek norbanako interesei soilik erreparatzen zioten, eta ez herriaren edota herritarren interesei. Sentsibilitate orokor edota kolektibo hori izatea denborarekin lortzen den gauza bat da, baina Agenda 21 Foroaren kasuan, denborarekin jada lortu dugula uste dugu. Etortzen direnek Foroaren dinamikak barneratu dituzte eta norberaren interesez haratago, herriaren eta herritar orenen interesei erreparatzen ikasi dute.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Esan bezala, Agenda 21 Foroa 2001ean sortu zen eta garai hartan ez zegoen gaur egun bezainbesteko parte-hartze prozesurik. Agenda 21eko prozesuetan derrigorrezkoa da herritarren parte-hartzea, gakoa, parte-hartze horri jarraipena ematean dago. Udal honek, legealdiz legealdi apustu egin du Foro horren alde eta jarraipena eman dio beti, baliagarri ikusi baitu gai desberdin ugari lantzeko.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Agenda 21 foroa jarraipen foro bat da. Legazpin "Legazpi Klima 2030" deituriko plan orokorra dugu eta horri jarraipena emateko eta bertako ekintzak martxan jarri eta aurrera eramateko erabiltzen dugu Agenda 21eko Foro hori.

19 urte daramatza jada martxan, horrenbestez, foro sendoa da eta parte-hartzea nahiko altua

izan ohi du, nahiz eta gaiaren arabera parte-hartze hori aldakorra izaten den. Urteko 6-9 bilera inguru egin ohi ditugu, normalean, hileko saio bat (udan izan ezik) eta 2018an, adibidez, bataz beste 21 lagunek hartu zuten parte saio bakoitzeko, horietatik %53 emakumezkoak.

Saio horiek antolatzeko edota dinamikak lantzeko kanpo aholkularitza jasotzen dugu, baina ondoren Udalaren lana da Forotik ateratako ikasgai eta ondorioei forma ematea.

Foroan lantzen ditugun gaiak orokorrean Legazpi Klima 2030 estrategiarekin loturiko gaiak edo jasangarritasunari loturikoak izaten dira. 2018an adibidez, garrantzia handia eman genion klima aldaketaren egokitzapenari, bereziki drainatze-sistema jasangarriari, eta ondoren bi parketan sistema hori aplikatu ahal izateko azterketa egin genuen.

Horrez gain, Legazpira bizitzera etortzen diren pertsonentzat hondakinen bilketaren inguruko informazioa, nola hobetu edota "Bertatik bertara" deituriko proiektua eta Olentzeroren azoka ere landu genituen. Esan bezala, guztiak jasangarritasunarekin lotuta.

Zailtasun bezala, esan dezakegu gazteak erakartzen saiatu garela, emaitza esanguratsurik lortu gabe. Horrez gain, online foro bat ere jarri genuen martxan eta ez zuen arrakastarik izan eta orain sare sozialen kudeaketan gabiltza. Momentuz, ez dugu guk nahi genuen emaitza lortu, oso zaila egiten da.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Parte-hartzearen arabera, batzuetan beste batzuetan baino gusturago, baina orokorrean kontentu gaude prozesuak emandako emaitzekin.

Gaur egun Agenda 21eko Foroaren dinamika nahiko antolatuta dugu eta foro kideek dinamika horiek ere ondo barneratuta dituzte. Urte hasieran egutegi bat egiten dugu eta horri esker, foro kideek bilera egunak eta askotan gaiak ere aurrez ezagutzen dituzte.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Horrelako prozesu bat, zeharkakoa eta luzea, alegia, goxatu egin behar dela ikasi dugu, hau da, garrantzitsua da herritarrek bertan landutakoa kontutan hartzen dela ikustea eta sentitzea.

Foroaren 19 urteko ibilbide honetan, herritar batzuk etortzeari utzi diote eta beste hainbat pertsona erakarri ditugu gurera, baina oraintxe bertan hausnarketa prozesu batean gaudela esan daiteke.

Edozein kasutan, oso kontentu gaude orain arte lortutako emaitzekin eta datorren urteari begira, Foroari jarraipena ematez gain, Gizarte Foro hori indartzeko asmoa ere badugu.

# Mutiloa

**AZALERA: 8,61 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 250\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

Mutiloako  
baserrietako  
lurrak  
digitalizatzeko  
parte-hartze  
prozesua



Mutiloako Udalak herriko lurrak digitalizatzeko parte-hartze prozesua abiarazi zuen 2018an eta 2019ko martxoa bitartean, lurren %75 digitalizatuta izatea lortu zuen, baita lur-jabe bakoitzak bere lur sailarekin muga egiten zuten pertsonekin hitz egin eta adostasuna lortu izanaren agiria sinatzea ere. Helburua izan zen 2019an zehar prozesuari jarraipena eman lursailen 100%a digitalizatzea lortzeko.

Proiektuarekin hasi zenean zailtasun ugari aurreikusten zituen Udalak, ez baitzen erraza lur jabeek urrats hori ematea lortzea. Digitalizazioaren garrantziaz jabetzen baziren ere, lanketa horrek aldameneko lur jabeekin hitz egitea, lursaila garbitzea eta beste hainbat lan dakartza, hori dela eta, hasiera batean, lur jabeak prozesuarekiko mesfidati ziren.

Azkenean, baina, prozesua ondo joan zen, herritarren artean harrera ona izan zuen eta Udalaren eta herritarren arteko harremana zein herritarrek euren artekoa hurbiltzeko ere balio izan zuen.

Prozesua aurrera eramateko eta herritarrei horren berri emateko herri batzarrez, etxez-etxe komunkazioaz eta eskualdeko komunikabideez baliatu zen Udala. Herri batzarretan bataz beste 35 lagunek hartu zuten parte eta horietan kezka eta zalantzak argitu ziren. Elkarren arteko komunkazioa, halaber, etengabekoa izan zen, aldiro-aldiro elkartu ziren mugak adostu, mugarriak aurkitu edota

lursailak garbitzeko. Batzarrez haratago, norbanako moduan, guztira 105 lagunena iritsi zen Udala.

Horrez gain, udal ordezkariak, teknikariak eta Baso Elkarteko teknikariak barne lanketa sakona egin zuten euren artean, baita, ondoren, lur jabeekin ere eta guztien arteko elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoa izan zen prozesua aurrera eramateko. Lan metodologiari dagokionean, metodologia erabat irekia erabili zuen Udalak, lanketa "terrenoan" bertan egin baitzen.

Helburuen betetze maila %75ekoa izan zen eta prozesua, horrenbestez, oso emankorra eta positiboa izan zen. Herritarrek gaurkoz ezagutza handia dute gaiaren inguruan (lur sailak identifikatzen dituzte, mugak non dauden dakite...). Ezagutza duten pertsona horiek, beraz, belaunaldi berriei informazio horren transmisioa egin ahal izango diete eta horrenbestez, egindako lanketak jarraipena izango du ahoz-ahokoaren bitartez.



## Iñaki Ugalde

Mutiloako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Udalak bere politika eta lanak aurrera eramateko gaur egun ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea. Azken finean, herritarrekin kontatzea oso garrantzitsua da, haien iritzia txertatu eta beraien inplikazioa sustatzeko.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Zeharkakotasun bat ematen saiatzen gara baina Mutiloak 255 biztanle ditu eta herria, modu batera edo bestera, ez da ulertzen parte-hartze gabe.

Beste gauza bat da Udalaren gaiekiko parte-hartzea. Horietan ere herritarren aldetik gero eta parte-hartze handiagoa dagoela esango nuke: urte amaieran, aurrekontuen onarpenaren aurretik bilerak egiten dira, aurreko urteko proiektuen berri ematen da, herritarren esku ere lehentasunezko proiektuak definitzea herritarren esku uzten da... gure esku dagoen guztia egiten dugu herritarren parte hartzea sustatzeko eta herritarrak udalgintzan inplikatzeko.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen da eta nire ustetan, herritarrak trebatu egin behar ditugu parte hartzera. Baita udal ordezkariok ere. Aldaketa guztion esku dago, Udalak pauso hori eman eta prest egon behar duelako eta herritarrak ere parte hartzeko prest egon behar dutelako.

Azken kasu horretan, herritarrak nola animatu ere jakin egin behar da: komunikazioa landu, gaia erakargarri egin... Bestela, betiko lagunek egiten dugu topo prozesu guztietan. Eta hain zuzen azken prozesu parte hartzailean hori izan da landu nahi izan duguna, herritarrak nola erakarri, alegia.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Prozesua oso behar konkretua da. Herritarren aldetik lurra definitzeko beharra jasotzen genuen eta behar horretatik abiatuta, herritarrei erantzuna eman nahi izan genien.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Lehenbizi Baso Elkartarekin harremanetan jarri ginen eta behin baietza jasotzean, herri mailan pare bat herri batzar egin genituen planteamendua azaltzeko. Herritarren partetik harrera ona izan zuen proiektuak.



Behin martxan jarrita, herritarrei prozesu hori martxan jartzeko prestutasuna adierazteko idatzitxo batzuk egiteko materiala banatu genien. Horrekin bakoitzaren terrenoarekin muga egiten duten lur-jabe guztiekin hitz egiteko baimena ere ematen zitzaion Udalari.

Horrela, Mutiloak dituen 9 km<sup>2</sup>-tik lursailen ia % 88ra iritsi gara, horrenbestez, jende askorengana iritsi gara eta prozesuak harrera ona izan du. Orain, nolabait prozesuaren itzultzea egitea falta zaigu, alegia, parte hartu duten lur-jabe bakoitzari banatu behar zaio dokumentu bat digital zein paperean bere lursailaren nondik-norakoaren inguruko informazioarekin.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Betetze maila oso ona izan da eta gu oso gustura geratu gara. Esan bezala % 88ra iritsi gara eta kontutan izan behar dugu prozesu honetan herritarrak eta herritarrak ez direnen lursailak ere sartzen zirela eta tartean parte hartu nahi izan ez dutenekin ere topatu garela.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Herritarrak nola erakarri da ateratako ikasgaietako bat, baita, bereziki Mutiloan erroldatuta ez dauden pertsoneri ere. Asko kostatzen da eta beti dago zer ikasi eta zer hobetu.

# Ordizia

**AZALERA: 5,65 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 9.970\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Kulturlab

Prozesua aurrera eramateko hiru lan bloke marraztu ziren:

- Egungo egoeraren azterketaren garapena eta tendentzia berrien azterketa.
- Ordiziako kultur eremuaren erronkak eta nahien diseinua.
- Plan operatiboaren garapena eta ekipamenduen erabileraren planaren diseinua.

Hiru lan talde ezberdinetan egin zen lan: talde bitartekaria, talde motorra eta talde irekia. Prozesu osoan zehar komunikazioa modu gardenean egin zen eta hasieratik online plataforma bat ireki zen informazio guztia bertan jarri ahal izateko. Prozesuaren inguruko posta elektronikoa ere sortu zen. Gonbidapenak korreo bidez egin ziren eta saio bakoitzeko informazioa prozesuaren plataforman eta sare sozialetan elkarbanatu zen.

Prozesuan erabilitako metodologia, halaber, ziklikoak diren hiru ardatzetan oinarritu ziren:

1. Lan talde desberdinetan garatzen zen informazioaren entzute aktiboa eta proposamenen jasotzea.
2. Jasotako informazioaren egituraketa eta ordenazio lana, talde aholkulariaren eskutik, momentu bakoitzean beharrezkoak ziren agiriak sortzeko.
3. Sorturiko dokumentuen kontraste eta balidazio saioak, azken ekarpenak jasotzeko.

Prozesuak interesa sortu zuen herriko kultur elkarte eta eragileengan eta parte-hartzea nahiko altua izan zen. Lan talde guztietan, halaber, ekarpenak eta iritziak antzekoak izan ziren, nahiko argi baitzeuden herriaren ahuleziak, erronkak eta indarguneak.

Esperientzia, beraz, oso positibo bezala balioztatu zuen Udalak arrazoi desberdinengatik:

- Kultur ehunak prozesuarekiko azaldutako konpromisoa argia izan zelako.
- Udalaren zein kultur eragileen oniritzia duen emaitza konpartitu bat eman zuelako.
- Elkartanerako lehen urratsak emateko balio izan zuelako, baita Udala eta eragileen arteko elkar ezagutza zein eragileen artekoa bultzatzeko baliagarria izan zelako, guztien arteko kolaborazio bideak zabalduz.

Gauzak horrela, lanaren emaitza nagusiak hiru ideia nagusitan batu ziren:

1. Ordiziako herriak udal, kultur eragile eta elkartegintzak sortutako kultur proiektu bakar baten alde lan egin behar zuela.
2. Udalak kultur proiektu horren dinamizatzaile, erraztaile eta babesle izan behar zuela.
3. Oinarriko kultur eta erakusketen kulturaren arteko oreka bat izatea beharrezkoa zela.



# Hondakin Mahaiaren jarraipena

Prozesu honen helburua zen Ordiziako hondakinen bilketaren jarraipena egin eta gaikako bilketa tasa %85era igotzea. Horrez gain, prozesu berak ondorengo ekintzak jasotzen zituen:

- Edukiontzien kokapena birplanteatzea.
- Hondakinen inguruko sentsibilizazio kanpaina abian jartzea.
- Hondakin bilketaren ordenantza lantzen jarraitzea.
- Herritarren kexak aztertu eta erantzutea.

Horretarako, 2018an zehar 5 saio ireki egin zituen Hondakin Mahaiak, hileko lehen asteartetan, bi orduko iraupenarekin eta beste hainbat gai posta elektronikoko bidez ere landu eta erabaki zituen.

Helburu bezala, zehaztutako gai guztiak landu zituen. Horietako batzuk 2018an bertan konpondu zituen eta besteak 2019an zehar landu eta burutu ditu, beste ekintza berri batzuei sarrera emanez: hondakinen prebentzio plana..

Gauzak horrela, 2018an egindako prozesuaren bitartez, ondorengo emaitzak lortu ziren:

- Hondakinen gaikako bilketa tasa %77an mantentzea, helburua %85era iristea izanik.
- Edukiontzien inguruko bilketan egon ziren arazoak konpontzea.
- Ordiziako hondakin bilketaren ordenantza lantzen jarraitzea.
- Auzo-konpostaren jarraipena egitea.
- Zaborrak jabea du" kanpaina abian jartzea: elkarteen parte-hartzearekin bideo bat egin zen eta umeen laguntzarekin kubo batzuk berrerabili eta herriko jatetxe eta tabernetan jarri ziren.

Prozesuaren balorazioa oro har positiboa egin zuen Udalak, gaia gatazkatsua izan arren eta oso politizatuta egon arren adostasunez eraman zelako aurrera eta parte-hartzea orokorrean altua izan zelako.



## Adur Ezenarro

Ordiziako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Ordizia hiri hezitzailea da eta hainbat urte daramatza hiri hezitzaileen sarean sartuta. Hori aintzat hartuta, parte-hartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu herritarren parte-hartzea ezin delako mugatu 4 urtetik behin bozkatzera eta erabakiak hartzeko orduan, herritarren iritzia ezagutzea ezinbestekoa delako.

Parte-hartzea ondo egitea, ordea, oso zaila da, baliabide eta inplikazio asko eskatzen dituelako.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Momentu honetan gure erronka da joko arauak legealdi honetan zehar finkatzea, ez baitugu oraindik horrelakorik. Orain arte parte-hartzea modu puntual batean eraman da aurrera eta gure ustetan askotan ez da modu egokian erabili. Izan ere, inkesta bat egitea edo iritzia galdetzea sarritan parte-hartze gisa identifikatzen diren arren, guretzat zerbait gehiago ere bada. Udalean gaudenen aldetik lan asko eskatzen duen zerbait da, gardentasunez eta modu ulergarri batean informazioa helarazteko eta komunikatzeko herritarrei. Eta horren arabera, parte-hartzea heziketa prozesu bat da. Horregatik orain hausnarketa prozesu batean gaude. Giza baliabideei begira, heziketa teknikari bat beharrezkoa dugula

uste dugu, parte-hartzea heziketa prozesu gisa ulertuta. Horrez gain, noski, baliabide ekonomikoak ere badaude. Askotan laguntza behar izaten dugu, parte-hartzea zerbait serioa delako eta jende aditua behar delako.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Nire esperientziaren arabera, benetan aurre lanketa bat dagoenean eta prozesuak ondo diseinatzen direnean, emaitzak hobeak izaten dira. Bide horretan, Udalak parte-hartze kultura hori sustatzeko ardura du, nolabait herritarrek hezteko ardura hori, baina askotan herritarrei eskatzea soilik goazenaren sentsazioa dago zabaldua. Eta uste dut eskatu baino lehen eman egin behar diegula eta herritarrek ikusten dutenean hainbat prozesutan hurbiltzen garela haiengana eta gauzak ulertarazten dizkiegula, beraiek ondoren gehiago inplikatzeko dira.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Lehen prozesuan, beharra argia zen. Garai hartan legealdizaldi aldaketa izan zen eta hondakinen kudeaketa ereduarekin herritarrei galdetzea erabaki zen. Prozesu horretan ez genuen kanpo laguntzarik behar izan baina garrantzitsua izan zen joko arauak aldeztu aurretik adostea.

Kultuz azpiegituren inguruko prozesuan, halaber, zaharkituta zauden azpiegiturak berritu eta hobetzeko premiaz haratago, kultur estrategia bat finkatzeko beharra ere sumatzen genuen. Prozesu hori bereziagoa izan da ez delako herritar guztientzat zabaldu, kultur eragileei soilik baizik eta kasu honetan kanpo aholkularitza izan dugu.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Hondakinen prozesuan, lehenbizi adostasun politikoa lortu eta ondoren Hondakinen Mahaia sortu zen. Gidaritza bertatik eman zen eta ez zen parte-hartze aditurik egon baina mahai politikoan joko arauak definitu genituen (informazioa, gardentasuna, saio desberdinak, aldibereko itzulpenak, auzoz auzoko bilerak, aldizkari berezia..) eta horrek asko erraztu zuen prozesu guztia. Prozesuan zehar kontzientziazio ariketa bat ere egin genuen, erabaki bat hartzeak konpromiso bat dakarrela ikusarazi nahi izan genien herritarrei. Konpromiso maila batzuk ezarri ziren gaikako bilketari dagokionez eta amaieran, prozesuaren inguruko kontu-emate bat egin zen.

Kultur azpiegituren kasuan, esan bezala, kanpo aholkularitza kontratatu genuen eta bertan definituta azaltzen zen jarraitu beharreko metodologia. Prozesuak fase desberdinak izan ditu, baita eragile desberdinak ere. Kultur eragile guztiek hartu zuten parte eta emaitzak oso onak izan ditu.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Bi prozesuetan emaitza onak izan ditugu, hain zuzen helburu guztiak bete direlako. Bi kasuetan hasieratik finkatu dira joko arauak eta horrek prozesua eraginkorragoa egin dute eta emaitzak horrelako erakutsi digute.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Lehen ikasgaia da ezin dugula parte-hartzea nahieran erabili, ez behintzat Udaletik etxeko lanak egiten ez baditugu. Hau da, parte-hartzeak arrakasta izan dezan, aurretik lan asko egin beharra dago eta bi esperientzia hauek argi utzi digute hori. Are gehiago gaiak gatazkatsuak badira.

Joko arauak definitzea ere ezinbestekoa da, bai udal langileontzat baita herritarrentzat: prozesua nolakoa izango den, nola parte hartuko duten, iritzia loteslea izateko baldintzak zeintzuk izango diren definitzea..

Azkenik, kontu-ematea ere oso garrantzitsua dela ere ikusi dugu. Hau da, herritarrei azalpenak ematea, informazio modu gardenean helaraziz eta hartutako erabakiak arrazoituz.



# Segura

**AZALERA: 9,2 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 1.523 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Herritarrekin erabakitzen:

Errebote prozesua, Gazteen beharrak eta lokalen erabilera prozesua, herriko jaien antolaketa eta Aiora plataforma digitala ezartzea.

2018an, Segurako Udalak hiru parte-hartze prozesu abiarazi zituen:

- Errebote prozesua: herriko plazaren berritzea eta berrantolaketa.
- Gazteen beharrak ezagutu eta lokalen erabilera definitzeko prozesua eta herriko jaien antolaketa lantzeko prozesua.
- Aiora plataforma digitala abiarazteko prozesua.

Prozesu horiek guztiak herritarrekin elkarlanean garatu zituen Udalak eta guztiek izan zuten emaitza ona, Aiora plataformarenak izan ezik, hori ez baitzen azkenean martxan jarri.

Edozein kasutan, prozesu horien berri emateko, Udalak eskura zituen baliabide eta komunikazio bideak erabili zituen, hala nola, lan bilerak, herri batzarrak, udal aldizkaria, txostenak, hitzaldiak, posta elektronikoa, WhatsApp...

Prozesu ororen helburu orokorra izan zen herritarrei erabakitze aukera eskaintzea, haiekin elkarlanean herriaren etorkizunaren inguruan hausnartu eta erabakiak hartzea, herri nortasuna sakontzea eta gardentasunari bide ematea ere.

### **Errebote plaza**

Aipatutakoaz haratago, prozesuaren helburua zehatza zen herriko gune esanguratsuena berritu

eta berrantolatzeko herritarren iritzi, ideia eta proposamenak ezagutu eta jasotzea, baita herriko gainerako espazio publikoak identifikatu eta horiek nola hobetu hausnartzea ere. Prozesu hau, gainerakoak bezala, jendetsua eta partaidetsua izan zen eta herritarrekin egindako lanketaren ostean, eremua biziberritzeko lanei ekin zitzaion.

### **Gazteen beharrak eta lokalen erabilera prozesua**

Prozesu honen helburu zehatza herriko lokalei etekina ateratzea izan zen, baita herriko elkarten arteko harremana sustatzea ere. Bide batez, prozesu honen bitartez gazteen beharrak ezagutzeko aukera ere izan zuen Udalak.

### **Herriko jaien antolaketa**

Jaiak ez dira jai herritarren parte-hartzerik gabe, horrenbestez, Segurako Udalak, haien inplikazioa eta parte-hartzea bultzatu zituen jaien antolakuntzan, modu horretara, guztiontzako, haur, gazte zein helduentzako, antolaturiko egitaraua prestatzeko. Egindako lanketari esker, beraz, helburu hori bete zen, baita ondorengoak ere:

- Jaietako egutegi zein ordutegietan ekintza desberdinak orekatzea.
- Kultura eta kirola sustatzea.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lantzea.
- Herritar nortasunean sakontzea.



## Iosune Arrondo

Segurako Kultura eta Turismo teknikaria

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Herri bat denok osatzen dugu eta udal agintari eta teknikari batzuk egon arren, nolako herria nahi dugun eta herritartasun kontzientzia hori lantzeko, ezinbestekoa iruditzen zait parte-hartzea. Denon artean sortutako zerbait bada, hobeto zaintzen dugu, guztiona sentitzen dugu. Eta hori oso garrantzitsua da. Segura herri txikia da, baina eragile asko daude, lan asko egiten dutenak, eta garrantzitsua da beraiekin ere kontaktzea, denon artean herria sortzen eta eraikitzen jarraitzeko.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Guk naturalki prozesu asko parte-hartze prozesu bidez egiten genituen. Egia da parte-hartzea, izen abizenekin, duela bi legealdi inguru sortu zela eta orduz geroztik definitzen joan gara lehen naturalki egiten genuen hori: metodologia, faseak... Baina egia da Seguran parte-hartze hori aspalditik erabili izan dugula. Normalean proiektuak gauzatzen dugu.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gaiaren araberakoa da. Batzuetan parte-hartze prozesu xumeagoak izan ditugu eta beste batzuetan potoloagoak, baina, esan bezala, gaiaren arabera.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Herriko plaza herriko leku garrantzitsuenetarikoa da. Jende gehien biltzen den lekua da eta bertako birgaiketa erabakitzeko herritarren iritzia jasotzea

ezinbestekotzat jo genuen. Oso prozesu zabala izan zen, udalarekin adin tarte guztietara iristen saiatu ginen, haur, gazte zein helduei, alegia, guztien iritzia jasotzeko.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Eragile asko inplikatu ziren prozesuan: parte-hartze zinegotziak, alkatea, Udaleko departamentu desberdinetako langileak, herri eskolako irakasleak, ikasleak, herriko eragileak... Horrez gain, batzorde berezi bat ere sortu zen gaia zeharka lantzeko. Prozesuak luze jo duenez, bilera ugari egin dira, hurrekin jolasak... Horrez gain, errebote udal aldizkariaren bitartez ere, herritarrei momentuko informazio guztia zabaldu diegu.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesuko txostenean jasotako ekarpen, proposamen eta ekintza guztiak ezin izan ditugu burutu. Herritar gehienek, adibidez, estalpe bat egitea eskatu zuten, baina behin plazako obra eginda, kokalekuaren egokitasuna berriro hausnartzeko beharra ikusi dugu. Horrek ez du esan nahi orain arte egin ez direnak egingo ez direnik, berriro aztertzen ari garela besterik ez.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Ikasgai bezala esan dezaket, azken finean, parte-hartzea zure lana egiteko sistema dela. Erabakiak hartzeko garaian gero eta gehiago kontaktzen da herritarrekin eta gure kasuan, gainera, jada barneratuta dugu elkarlan moduko hori. Horrez gain, noizbehinka Udaleko departamentu ezberdinei zuzenduriko formazioa eskaintzea ere aberasgarria izango litzatekeela uste dut.

# Urretxu

**AZALERA: 23 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 6.802\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Gobernu Irekirako Estrategia baten barnean herritarren parte- hartzea instituzio- nalizatzea

2018an zehar, Urretxuko Udalak, Gobernu Irekirako estrategiaren baitan, hainbat gai jorrazteko herritarren iritzi eta ekarpenak jaso nahi izan zituen. Horretarako bide desberdinak zabaldu zituen, saio irekiak batetik eta sare sozial zein online bidezko inkesta eta bozketak, bestetik. Horrez gain, komunikazio taldeaz eta familia transmisio taldeaz ere baliatu zen parte-hartze hori indartzeko.

Azken lan talde horren helburua da familiaren esparruan euskararen erabilera areagotzea eta bereziki gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan komunikazio hizkuntza euskara izatea, horretara bideratutako sentsibilizazio eta parte-hartze ekimenak indartzuz.

Prozesu guztiak, 3 fase nagusitan banatu ziren:

1. Joko-eremua eta publikoa definitu eta beharrezko deialdiak egin.
2. Gaiak aurkeztu eta saio desberdinetan landu prozesu bakoitzean behar diren bideen bitartez.
3. Landutakoa aurrera eraman eta beharrezko balorazioak egin.

EUSKALGINTZA:

Esan bezala, prozesuaren lehen fasea joko-eremuak zehaztea eta lan taldea osatzeko diseinua eta lanketa egitea izan zen. Behin hori eginda, estrategia adosteko lehen saioetan, joko-eremuaren azalpena egin zitzaizen parte-hartzaileei eta euskara sustatzeko beharra partekatu eta landu zen. Estrategiak adosteko bigarren saioan, aldiz, eraginpeko taldeen identifikazioa zein onura eta eragozpenei buruzko azterketa egin zen.

Era berean, udal barruko lanketa eta azken kontraste saioan, eraginpeko talde eta elkarten proposamen





zirriborrea idatzi eta azken proposamenaren definizioa egin zen.

#### EUSKARALDIA

Kronologiari so eginez, 2018a urte garrantzitsua izan zen lehen Euskaraldiaren ospakizuna izan zela eta. Gauzak horrela, martxoaren 14an Euskaraldiari buruzko xehetasun guztiak azaltzeko lehen herri batzarra egin zen. 21ean, aldiz, Euskaraldiaren talde eragilearen lehen bilera egin zen. Bertan, aipatu egitasmoa herrian gauzatzeko prozesuaren eta eman beharreko urratsen inguruan hausnarketa egin zen.

Orduz geroztik, talde eragileak hainbat prestaketa bilera egin zituen apiriletik ekainera bitartean Euskaraldiaren herri batzarretan landu, aztertu eta hausnartu beharrekoa prestatzeko. Horrez gain, Urretxun izan zitezkeen taldeen identifikazioa ere egin zen bilera horietan: guraso taldeak, kultur elkarteak, gazte taldeak, merkatari elkarteak..

Herri batzarrak, halaber, apirilaren 18an eta maiatzaren 16an egin ziren eta ekainaren 13an, Euskaraldia egitasmoaren aurkezpen ofiziala egin zen. Irailean eta urrian, halaber, herri batzarrei jarraipena eman zitzairen eta formazio saioak eta izena emateko eta zehaztasunak azaltzeko saioak ere egin ziren Euskaraldia ahalik eta arrakastatsuenan izan zedin.

#### JAIK:

Prestaketa teknikoaren ondoren, otsaila, martxo eta apirilean 3 bilera ireki egin ziren gai berriak eta aldaketa nagusiak aztertzeko. Uztailean, halaber, beste bi bilera ireki egin ziren jaietako

programazioa lotzeko, proposamenak bozkatzeko eta erabaki zehatzak hartzeko. Irailean azken bilera bat egin zen eta behin festak amaituta, urrian, balorazio bilera egin zen.

#### SARRALDEKO ENTSEGU LOKALAK:

Lehenengo fasea barruko lanketari zegokiona izan zen. Fase horretan Udalak prozesuaren plangintza egin zuen eta ondorengo gaiak landu zituen:

- Prozesuaren joko-eremua definitu eta zehaztea.
- Parte-hartze aldetik, jada diseinu fisikoa bukatuta, erabilpen araudia zehaztea.
- Segurtasun sistemaren funtzionamendu egokiena adostea.
- Erabilpen datuak, kuoten ordainketak eta abar aztertzea.
- Aldaketa eta hobekuntza beharrak aztertzea.

#### AURREKONTUAK:

Urrian zehar auzoz-azoko bileretan herritarren proposamenak jaso ziren eta 2019ko aurrekontuetan txertatu ziren horietako hainbat. Prestaketa lanen ondoren, urriaren 29tik azaroaren 8ra zortzi auzo bilera egin ziren.

Beste urtetako datuetara joz gero, 2019ko aurrekontuak lantzen hasterako, 2018koen emaitzak kuantifikatuta zeuden eta urte horretarako jasotako 62 proposamenetatik 52 jada eginak zeuden, 4 martxan eta azken bostak bertan behera utzita, bidera ezinak zirelako.



Jon Luqui

Urretxuko alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Legealdi berri honi begira, salto garrantzitsu bat eman dugu parte-hartzearen ikuspegiari dagokionean. Lehen parte-hartzea arautegi gisa ikusten genuen baina orain, Gobernu Irekiaren estrategiaren baitan kokatzen dugun zutabe garrantzitsu bat da eta horri helduta, partaidetzaren eskuliburua eta urteko parte-hartze plangintza landuko ditugu lehen bi urte hauetan.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Esan bezala salto garrantzitsu bat eman dugu legealdi honetan parte-hartzearen ikuspegi sakondu eta hori aipatutako Gobernu Ireki horren estrategian txertatzeko. Datozen bi urteetan gutxienez ikuspegi horren garapena lehenetsiko dugun arren, horrek ez du esan nahi orain arte egindako egingo ez dugunik. Parte-hartzea zeharkakotasun batekin lantzen jarraituko dugu eta urtean zehar hainbat eta hainbat parte-hartze prozesu abiaraziko ditugu: aurrekontuak, 3 urtetarako obra potolo bat, auzoetako bilerak..

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu**

**parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Urretxuko parte-hartze prozesuetan izaten dugun jendea kuantitatiboki ez da oso altua izaten. Orokorrean gaiaren arabera aldakorra izan ohi da, baina edozein kasutan, nire ustez garrantzitsua da herritarrei proposamenak eskatzeaz haratago, gauzak samurtu, erraztu eta egindakoaren kontu ematea, hartu emana bi noranzkoa izatea, alegia. Herritarrek beren iritziak aintzat hartzen direla ikusi eta sentitu nahi dute eta gure lana hori ahalbidetzea da, modu horretara erakundearen eta herritarren arteko distantzia hori txikitzeko.

Era berean, parte-hartze kopurua kualitatiboki bilatzea oso helburu ona den arren, oso zaila da, baina baliagarria izan daiteke parte hartzen duten pertsona horiek balioan jartzeko. Herritarren parte-hartzea opari bat da guretzat, gure lana hobetzen laguntzeko bide bat. Sarritan gure begiak dira herritarrak.

Orain, gure erronka da parte-hartzeari forma eman eta Gobernu Irekiaren strategiara egokitzea.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Azaldu bezala, aurreko legealditik hona, aldaketa edo salto garrantzitsu bat egon da Udalean

parte-hartzeari dagokionean. Lehen parte-hartze prozesuez modu xumeagoan hitz egiten genuen eta ildo horretan, ordenantza baten beharra ere planteatu genuen, baina ez genuen guztiz argi ikusten. Horregatik, datorren legegaldi honi begira kontzeptua pixka bat aldatu dugu eta "Gobernu Irekia" izena eman diogu.

Orain helburua ez da, lehen bezala, ordenantza bat osatzea, zer nolako Partaidetza eredia nahi dugun definitzea eta horri helduta lan egitea baizik. Horretarako, lehenbizi Udalaren arautegi organikoa egungo arautegira, erronketara eta bereziki gobernu irekiaren strategiara egokitu dugu eta 2020ko lehen sei hilekoan onartzea espero dugu. Behin arautegi hori onartuta, horren baitan herritarren partaidetza ahalbidetuko duen eskuliburuaren oinarriak eta parte-hartzearen urteko plangintza definituko ditugu.

#### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Jarraitu dugun eskema iazko berdina izan da, ñabardura txiki batzuekin. Bilera ireki gehiago ere egin ditugula esango nuke. Eta hemendik aurrera egingo dugun lanari erreparatuz, gure lanketa gidoitxo moduko bat izango da, edozein direla hemen dauden langile edo alderdi politikoak, partaidetzari dagokion oinarri edo lan tresna bat izan dezaten.

#### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesuen balorazioa ez da batere txarra. Etekina atera dugu eta gainera ez dugu, inongo esparrutan atzera egin, beraz, positiboki baloratzen dut.

#### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Hau ez dela inoiz amaitzen eta parte-hartzea eraginkorra izan dadin etengabe hobetzen eta egokitzen jarraitu behar dela. Parte-hartzea ez litzateke posible herritarrik gabe, baina haiengana heltzeko aurre lanketa bat egitea eta informazioa ahalik eta hobekien helaraztea ezinbestekoa da. Hau da, herritarrei gauzak erraztu egin behar zaizkie.

Era berean, ikasgai baino erronka gisa aipa dezaket udal langileak parte-hartze eredian heztearena, sistema hori eguneroko jardunaren parte gisa barneratu dezaten.

# Zerain

**AZALERA: 10,37 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 266\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Zeraingo parte- hartzea indartuz

Herritarrek esparru publikoaren kudeaketan eta erabakietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, herritarren parte-hartzea puntuala baino egiturazkoa izatea beharrezkotzat jo zuen Zeraingo Udalak.

Bide horretan, 2018an, besteak beste, bi lanketa egin zituen:

1. Herri txiki desberdinetako webguneetan herritarren parte-hartzearen, gardentasunaren edota tramiteen atalen azterketa: Zeraingo sistema parte-hartzailea oinarri hartuta, herriarentzat eta bereziki herritarrentzat egitura egokiena erabaki, egokitu eta martxan jartzea.
2. Turismoari buruzko hausnarketa prozesua: herriko turismoaren norabidea zehaztea izan zen xede nagusia.

Egindako lanketak, beraz, bi atal izan zituen. Webgunearen diseinu berriari dagokionean, herritarren parte-hartzea telematikoki indartze aldera, lehenik eta behin aurretik zegoen udal webgunea aztertu eta zituen mugak, gabeziak eta ahuleziak identifikatu zituen Udalak. Ondoren, beste herrietako webgunean aztertu zituen, arreta berezia jarriaz gardentasunaren eta parte-hartzearen ataletan. Behin horiek guztiak eginda, udal webgunea berritzeari ekin zion, kanpo enpresa



baten laguntzarekin. Horri esker, orain, herritarrek hainbat tramite egin ditzakete internet bitartez.

Turismoaren buruzko hausnarketa prozesua, halaber, uda aurretik hasi zen. Lehen lana alor horretan adituak diren pertsonak bilatzea izan zen. UEUrekin harremanetan jarri zen Udala eta bertako kide baten partaidetza lortu zuen. Kide horrek, prozesuaren diseinuan lagundu zion Udalari, baita azken emaitzei ekarpenak egiten ere.

Bigarren urratsa prozesuaren berri ematea izan zen. Udalak martxan dituen hiru batzorde irekietan aipatu zuen gaia, baita herri batzarrean edota Goierriko Goiturren ere. Ondoren, lanketa saioak hasi aurretik, turismoaren inguruko datuak bildu zituen Udalak, azken 20 urtetan egindako ibilbidearen datuak, alegia.

Bertan zailtasunekin topo egin zuen Udalak. Turismoa kudeatzen duen herriko kooperatibak oso datu gutxi zuen eta, ondorioz, datu horiek Goitur eta Eusko Jauriaritzako Turismo Sailarekin osatu behar izan zituen. Horrek, noski, atzerapenak sortu zituen prozesuan.

Aipatu prozesua aurrera eramateko, turismoak herri bizitzarekin, herriko azpiegitura eta zerbitzuekin eta tokiko garapenarekin duen lotura kontutan hartuta, Udalak jada indarrean dituen parte-hartze bideak eta egiturak erabili zituen Udalak batzordeak, herri batzarrak.

Lehen saioan, datuak aurkeztu eta egoeraren analisia egin zen, barne zein kanpo faktoreak kontutan hartuz. Saio horretan, herriko sagardogileak, nekazaritza etxeetako jabeak, herritarrek eta udal ordezkariak hartu zuten parte.

Bigarren saioan, halaber, proposamenak landu ziren eta azkenik, Aste Santuan, iparraldeko Banka eskualdera bisita egin zuen Udalak bertako turismo zerbitzuak ezagutzeko.

Egindako lanketei esker, ondorengo emaitzak lortu ziren:

- Webgunea: webgunean gardentasuna eta parte-hartze atala txertatu eta herritarrei modu ez-presentzian parte-hartzeko tresnak lortu ziren. Orduz geroztik, herritarrek baliabide berriak dituzte eskura herriko webgunean.
- Turismoaren inguruko prozesua: lehen aldiz egin zen eta herritarren interesa piztu zuen. Herriko turismoak azken urteetan izan zuen bilakaera aztertu eta hurrengo urteetan izango duen norabidearen azterketa ere egin zen.

Bi gaiak herritarrentzat garrantzitsuak izanik, parte-hartzea altua izan zen. Bilera presentzialesetako kide gehienak eta gaian interesatutako herritarrek parte-hartu zuten eta haien jarrera oso aktiboa izan zen.



## Amaia Junkera

Zeraingo alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Aurreko legealdian herri programa lantzen hasi ginenean, parte-hartzea zutabe gisa baloratu genuen berdintasuna eta gardentasunarekin batera. Hiru zutabe horiek klabe dira guretzat.

Gure ustetan, gauzak edota proiektuak gauzatzerako orduan, lehenbizi zer egin behar den ikusi, ondoren, guztien artean, nola egin erabaki eta azkenik aurrera eraman behar dira. Guztiok, elkarrekin eta elkarlanean.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Hiru batzorde ditugu: hirigintza, ingurumena, zerbitzuak, tokiko garapena eta herri bizitza. Oso ondo funtzionatzen dute hiruek, batz besteko 10-12 pertsonak parte hartzen dute, modu iraunkorrean eta hilero biltzen gara.

Horrez gain, urtero herri mailako balorazio bat egiten dugu. Horretarako galdetegi bat bidaltzen dugu etxeetara eta herritarrek anonimoki

erantzuten dute. Behin emaitzak jasota, horien berri ematen dugu, kasu honetan, hiru hilez behin egiten ditugun herri batzarretan. Saio horietan mahai gainean ditugun gaien berri eman eta herritarren iritzi, galdera edo zalantzak entzun eta argitzen ditugu. Ondoren, hitz egindako guztia txosten batean bildu eta etxe guztietara bidaltzen dugu.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Batzordeetan batez besteko 30 pertsona etortzea, modu iraunkor batean guretzat zifra ona da. Herriaren %10 da hori. Herri balorazioari dagokionean 100 bat balorazio inguru jasotzen ditugu, hau da, %50ek erantzuten du galdetegiak. Kontentua gaude emaitza horiekin.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Guk udaletxe barruan gabezia nabarmen bat sumatzen genuen parte-hartzeari dagokionean eta gauzak aldatzeko nahitik abiatuta jarri ginen martxan.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua?  
Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Lau urtetan egindako lana txosten batean jaso genuen. Aldizkari formatuan kaleratu genuen eta bertan 2015-2019an egindako parte-hartze prozesuak eta proiektuak jaso genituen, baita horiek aurrera eramateko egindako lanak ere. Zailtasun gisa agian denbora aipatu beharko nuke. Nahi baino gehiago luzatu da.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Aldizkariak 32 orrialde zituen eta oso harrera ona izan zuen herritarren artean.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Partaidetzari begira, herrian dauden bi talde politikoei bat egiten saiatu behar dugula da ateratako ikasgai nagusia.

# Zumarraga

**AZALERA: 18,2 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 9.767\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Zumarragako parte-hartze eredua definitzeko prozesua

Zumarragako parte-hartze eredua definitzeko prozesuaren helburua, hain zuzen, Zumarragako egokiena den parte-hartze eredua zein zen hausnartzea zen eta horretarako, 4 irizpide hartu zituen kontuan Udalak:

1. Parte-hartzeak etorkizunean izan dezakeen bilakaera.
2. Herritarren jarrera.
3. Parte-hartzea udalgintzan txertatzeko okiko egitura baten sorrera.
4. Politikari eta teknikarien egunerokotasuneko jardunean beharrezkoak diren aldaketak.

Lanketa hori, halaber, hiru fasetan garatu zen:

1. Herrian egin diren parte-hartze prozesu eta esperientzien sistematizatzea: ordura arte egindakoen ahalmenak eta gabeziak politikari zein teknikariekin aztertu.
2. Zumarragako parte-hartze diagnosian sakontzea: herritarren iritzia jasotzea parte-hartze eredu edota egitura bat sortzeko.

3. Parte-hartze eredua inguruko hausnarketa politikoa: gobernu taldearen eta oposizioaren arteko bilerak Zumarragako parte-hartze eredua irudikatzen.

Informazioa jasotzeko, ondorengo bideak erabili ziren:

- Dokumentu eta bibliografiaren erreposoa.
- Elkarrizketak.
- Lantegiak.
- Talde politikoarekin bilerak.

Guztira 20 elkarrizketa egin ziren, udal politikari, teknikari eta herritarren artean banatuta.

- Zumarragako teknikariak eta beste administrazioetako langileak:
  - » Tokiko Agenda 21.
  - » Kultura.
  - » Euskara eta Hezkuntza.
  - » Gazteria.
  - » Planimetria.
  - » Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, eta Aniztasuna.
  - » Artxiboa.





- » Berdintasuna Urola Garaia Mankomunitatea.
- » Eskualdeko osasun publikoko teknikariak.

- Politikariak:

- » EAJ-PNV.
- » EH Bildu.
- » Irabazi-Ganemos.
- » PSE-EE.

- Komunitate garapenari loturiko lanak:

- » Kale hezitzaileak.
- » Urretxuko Aniztasun Mahaia.
- » Pediatría.

- Herritarrak:

- » Elkarte eta eragileak.
- » Norbanakoak.

Elkarrizketen ostean, bi lantegi egin zituen Udalak, biak 2018ko azaroan, lehena irizpideak definitzeko eta bigarrena proposamenak jasotzeko.

Horren ostean, Udala osatzen duten alderdi politikoen arteko lan saioak egin ziren, informazio guztia aztertu eta Zumarragako parte-hartze eredia lantzen eta irudikatzen hasteko. Bi lan saio egin

ziren: 2019ko urtarrilaren 14an bata eta otsailaren 18an bigarrena.

Helburuen betetze maila nahiko altutzat jo zuen Udalak. Elkarrizketak partaidetsuak izan ziren eta lantegietan ere parte-hartzea altua izan zen. Saio horietan gainera, errespetua oinarri izan zen eta proposamenak egiteaz gain, gainerakoena entzun eta ikuspegi orokorragoa lantzeko baliagarriak izan ziren.

Gauzak horrela, prozesu osoan zehar, Zumarragan ordura arte egindako parte-hartze prozesuen sistematizazioa egitea lortu zen. Horri esker, Zumarragako parte-hartzearen bilakaeraren irudi orokorra egin ahal izan zuen Udalak eta horren bitartez etorkizunean kontutan hartu beharreko ahalmen eta gabeziak ezagutu zituen. Era berean, herritarren parte-hartzeak etorkizunean landu beharreko hainbat arazo eta tentsio identifikatzen ere lagundu zuen.

Emaitzak, beraz, positiboak izan ziren, hausnarketaren, elkar ezagutzaren eta erlazioen indartze aldetik. Eta lan hori, halaber, ezinbestekoa izan zen parte-hartze egonkor eta iraunkor baten oinarriak definitzeko.



## Rosa Maiza

Toki administrazio eta Herritarren partaidetza zinegotzia

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea forma emateke genuen zerbait zen. Izan ere, prozesu hau abiatu aurretik, udal araudi organikoan eztabaida lantegiak egitea jaso genuen. Guretzat, lantegi horiek 2017a arte parte-hartze gisa ulertzen genuen kontzeptuaren baitan aurrera pausoak ematen jarraitzeko urratsa ziren, baina lantegiei forma ematen hasi ginenean, ordea, parte-hartzea buruan genuena baino kontzeptu askoz ere zabalagoa zela ohartu ginen.

Ordura arte, parte-hartzea kontzeptu indibiduala zen, bai teknikoki zein politikoki eta bi alderdiek gauza ezberdinak pentsatzen genituen. Parte-hartzea, baina, guztion arteko zerbait izatea nahi genuen, Udalaren egunerokotasunean eragingo zuen zerbait izatea, alegia, bide horretatik komunitatea, Zumarraga eraikitzeko.

Horregatik, komunitateko zaintza hori galdu eta gizartea gero eta indibidualistakoa den egoera honetan parte-hartze sustatzea garrantzitsua dela uste dugu, Udaletik ikuspegi indibidualista horretatik ikuspegi orokor batera, herri ikuspegira, salto egin nahi dugulako.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Parte-hartzea orain arte bezala ezagutu eta kontsideratu bitartean, hainbat parte-hartze ekintza garatu dira herrian eta guztiek lagundu digute parte-hartzea guretzat zer den eta horren bitartez nora edo noraino iritsi nahi dugun ulertzen eta barneratzen.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Asko kostatzen da. Adibidez, herriko elkarte eta eragileak Zumarragako Azoka prozesu parte-hartzailean parte hartzera gonbidatu genituenean, (aurrez egindako prozesu bat da), parte-hartze maila oso baxua izan zen, azoka orain guztiek ikaragarri erabiltzen duten espazio bat izan arren. Merkatarien parte-hartzea lortu genuen, baina asko kostata.

Eta hori elkarte edo eragileei dagokienean. Herritarrekin zer esanik ez. Zuzenean eragiten dieten gaia ez bada, oso zaila da beraien parte-hartzea lortzea.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

2017an eztabaida lantegiak egin genituen eta horietan, diagnosi politiko-tekniko bat landu genuen parte-hartzea elkarrekin

lantzeko oinarriak genituen ala ez aztertzeko. Diagnosiaren emaitzen arabera, bagenituen oinarri horiek, horrenbestez, formazio eta lan saio ugari egin genituen bai politikariok baita teknikariek ere. 2018an, halaber, lanean jarraitu dugu oinarri horiek abiapuntu gisa hartuta, Zumarragako partaidetza ereduaren oinarritzko irizpideak definitzen joateko.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

2017an zehar Igor Ahedo adituarekin lan egin genuen eta 2018an, Aradia aholkularitzarekin jarraitu genuen. Eragile politiko desberdinak elkarrizketatu genituen diagnosiaren emaitzak definitzen joateko. Dena den, momentuko egoera politikoaren eraginez, prozesua nahi baino makalagoa izan zen. Izan ere, udal hauteskundeak tarteko izan genituen eta momentu horretan Udalean lanean zeuden langile asko kargu publikoa uztear zeuden, horrenbestez, horrek asko moteldu eta zaildu zituen gauzak.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

2018ko prozesuari dagokionean, eskaera maila jaitsi beharrean gaude. Aurreikuspenen arabera askoz ere gehiago aurreratzea espero genuen, baina egoerak ez zuen posible egin.

Edozein kasutan, prozesu horren berak beste esperientzi pilotu bat abian jartzea ahalbidetu zuen, Zumarragako Azoka prozesua, alegia. Lanketa hori horrela egin ez bagenu, azokaren ekimena ez zen aurrera eramatea lortuko. Beraz, helburuak bete ez baziren ere, oso interesgarria izan zen, bestelako ekimenak bultzatzea eragin zuelako.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Prozesu honek hizkuntza bakar batean hitz egitea ahalbidetu digu, gobernu taldearen eta oposizioaren arteko harremana sendotzea, baita politikarien eta teknikarien artekoa edota teknikarien eta herritarren artekoa ere. Egunerokotasunean parte-hartze dinamika txertatzea ahalbidetu du eta dinamika horietan lan egiteko beldurra ere gutxitu du.

Funtsean gauza asko ahaztu ditugu, buruan ideia bat genuela abiatu ginelako eta azkenean, askoz hobeagoa den beste zerbait eraikitzen amaitu dugulako.

# TOLO- SALDEA

Tolosaldeak, Gipuzkoako ekialdean, 332,7 km<sup>2</sup>-ko lur eremua hartzen du. Iparraldean mugakide du Donostialdea; ekialdean, Nafarroa; hegoaldean, Goierri; eta mendebaldean, Urola-Kostaldea. Tolosak eta Ibarrek elkarrekin sortzen duten herri-gunea da eskualdeko buru; bere eraginpean beste 26 herri txiki bizi dira: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian (Bidania eta Goiatz), Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain eta Oresa. Billabona eta Zizurkil dira bi mila biztanlez gorako herri bakarrak. Billabonak eragin handia du bertatik Zarautzeraino doan GI-2631 errepidean dauden herrietan, Donostiara nahiz Tolosara jotzeko bertatik pasa beharra dagoenez zenbait zerbitzu bereganatzen baititu.

Komunikabide sarearen elementurik nagusiak N-1 (Madril-Irun) errepidea eta trenbidea dira. Ibilbide laburretan, trenak garrantzi handia dauka eskualde honetan. Abiadura handiko trenak oraingo trenbidearen bide berdintsua izango du. Gaur egun diren proiektuen arabera, Tolosatik adar bat abiatuko da Iruñea, Zaragoza etaartzelona aldera. Gipuzkoak Nafarroarekin aspaldidanik izan duen lotura zaharra, N-130 errepidea alegia, guztiz bazterturik utzi du A-15 (Andoain-Irurtzun) autobideak. Horren eraginez, eskualde honen zentroa ziur aski Tolosatik Andoain alderago joango da pixkanaka. Beste errepide nagusiak dira: Tolosatik Azpeitiraino doan GI-2634 errepidea; eta Tolosatik Leitzara doan GI-2130 errepidea.

Tolosaldeako industria gehienak txikiak dira, metalgintzan eta papergintzan ari direnak. Papergintzako lantegiak teknologia aldetik zaharkiturik gelditu dira oso, eta horren eraginez enpresa asko itxi eta beste asko berregituratu behar izan dira. Bestalde, Tolosak eta Billabonak industriagintzarako lurrak prestatzeko arazo larriak dituztenez, industria berri asko Oriako haraneko beste herrietara joan da (Aduna, Zizurkil, Anoeta, eta abar). Zerbitzuen sektoreak ere pisu esanguratsua du, batez ere Tolosan.



# Abaltzisketa

**AZALERA: 11,2 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 328\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## 2019rako aurrekontuak

Abaltzisketako Udalak, herritarrak udalgintzan inplikatu eta haien parte-hartzea areagotzeko asmoz, 2018an herritarrek udal aurrekontuak gertutik ezagutu eta horren garrantziaz jabetzeko prozesua zabaldu zuen.

Prozesuak, beraz, helburu izan zuen udal tresna ekonomikoaren berri ematea, tresna hori ezagutaraztea eta aurrekontuen inguruko ezagutza hartu eta beldurra galtzea. Era berean, Udalaren nahia zen aurrekontuekin lor daitezkeen helburuak sailkatzea, herritarren beharrak lehenetsi eta horiek aurrekontuetan txertatzea, aurrekontuaren mugak ere ezagutzea eta bereziki, herritarrak ariketa hori egitara ausartzea.

Horretarako, udaleko batzarrak eta batzar informatiboak egin zituen Udalak herritarrekin, horietan aurrekontuen nondik norakoak xehetasunez azaldu eta herritarren ideia, ekarpen eta proposamenak ezagutu eta jasotzeko.

Udal teknikaria izan zen herritarrei modu ulerterrazean azalpenak emateaz arduratu zena eta pertsona hori herrian ezaguna denez, eragin positiboa izan zuen bereziki gazteengan. Kolektibo honen parte-hartzea sustatzea lortu zuen, bere kidea ikusita, beldurra eta lotsa galdu zutelako.

Gauzak horrela, gazteek hainbat proposamen egin zituzten aurrekontuetarako, hala nola:

- Gazteentzako etxeak alokairuan edo modu eskuragarrian jartzea.

- Herri Eskolari eusteko moduak aztertzea.
- Herri giroa sustatzea.

Era berean, gazteek hausnarketa bat egitea ere lortu zuen Udalak eta horren emaitza gisa, gazteek apatia eta erosotasuna leporatu zizkieten beren buruei.

Bestalde, Abaltzisketan dauden eragileek egiten dituzten ohiko ekintzez haratago (guraso elkarteak, elkarte gastronomikoa...) Udalak ekimen eta ekintza berriak sustatzea interesgarritzat jo zuten herritarrek.

Prozesuaren emaitzak, beraz, oparoak izan ziren:

- Gazteei entzutea.
- Gazteek beren iritzia herriari jakinaraztea.
- Gazteek ere aurrekontuaren ezagutza jasotzea.
- Elkarbizitan daudenen arteko beharrak lehenestea eta horiek aurrekontuan jasotzea.
- Guztiaren irizpideak errespetatzea.

Udalaren helburuak bere osotasunean bete ziren. Are gehiago, gazteek beren apatia alde batera utzi eta herrigintzan inplikatzeko saiakera egin zuten. Asistentzia maila ona izan zen eta bileretara batz bestea 16 lagun gerturatu ziren; batzarretara 35-40 lagun inguru eta guztiak oso positiboki baloratu zuten prozesua.



## Jon Zubizarreta

Abaltzisketako alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea garrantzitsua da bata bestearen iritzia ezagutzeko iritzi desberdinak daudela ikasteko eta aurrera jarraitu nahi badugu, adostasunetara iritsi behar dugula jakiteko.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Abaltzisketako udalerrian ohikoa da parte-hartzea Udaleko lan dinamika zabalean. Hiru hilez behin alkateak eta zinegotziak herritarrengana zuzentzen dira Udalaren asmoak, ahuleziak eta momentuko egoerak adieraztera. Herritarrek Udalarari iritzia ematen dizkiote eta egokiena dena kontutan hartzen da. Horrela herritarrek Udalaren dinamikaren berri jasotzen dute.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Herritarrek bileretara hurbiltzen dira, baina ondoren, bertan sortzen diren iritzia aurrera eramatea edo gauzatzea zailagoa egiten zaie. Hala eta guztiz ere, esan behar da, herrian, herriko jaiak edota inauterietako igandearen antolakuntza jarduerak gazte taldeak antolatzen dituela. Jarrera ona duten orokorrean. Dena den, beti berdinak izan ordez, jende gehiagok parte hartu beharko lukeela uste dugu.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Betiko ohiko gauzetan parte-hartzen jarraitu ordez, herritarrek Udalaren dinamika lanetan ere inplikatzeko beharra sumatu genuen, Udalaren jarduna gertuagotik ezagutzeko.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Parte hartzeko zailtasunik handiena, guztientzako egun eta ordu egokia aurkitzea da.

Prozesuaren diseinuari dagokionez, ohikoa den erara egiten dira, ohitura hori itsatsia dagoelako.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Udalerriko %75ek parte hartzen du, eta hori portzentai egokia kontsideratzen da.

**Zein ikasgai ateratu dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Honelako proiektuekin jarraitu egin behar dela, partaidetza sendotzeko eta apurka bada ere hobetzen joatea, gai guztiak sartuz.

# Aduna

**AZALERA: 7 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 480\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Herritarren partaidetza bultzatzeko programa berria

Udala eta herritarren arteko harremanean aurrerapausoak eman eta udal komunikazioa hobetu eta garai berrietara egokitzeko asmoz, Adunako Udalak, beste hainbat inguruko herriek egin bezala, komunikazio tresna berria sortzeko prozesua abian jarri zuen 2018an.

Tresna hori sortzeko teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatu zen eta hain zuzen, mugikorrerako aplikazio bat sortzeko lanketari ekin zion. Aplikazioaren bitartez, Udalaren helburuak ziren:

- Herritarrei zuzendutako komunikazioa ohiko bideez haratago (bandoak, epostak, gutunak eta azalpen bilerak) hobetzea
- Herritarren bizi kalitatean eragiten duten gaiei buruzko proposamenak egin, iritzia eman eta ekarpenak egiteko parte-hartze tresna berria eskaintzea

Gauzak horrela, 2018ko apirilean Zitu enpresarekin harremaneran jarri zen Udala, enpresa horrek sortutako "Aiora" plataforma Adunako udalerriaren errealitatera egokitu eta abian jartzeko.

Adunako plataforma informatikoaren edukia eta egiturak adosteko bi bilera egin zituen Udalak Zitu enpresarekin. Saio horietan, aplikazioaren helburu zehatzak adostu eta horietatik abiatuta, eduki zehataz (atalak) eta horietako bakoitzaren irismena



finkatu ziren. Hortik haratago, aplikazioa diseinatzeko gunea enpresa bera izan zen.

### **Prozesuaren kronologia**

Zitu enpresak ekainek eman beharreko pausoen berri eman zion Udalari. Pauso horien artean Udalak, enpresak bidalitako informazio-txosten bat bete behar izan zuen, informazio horrekin Adunako plataformaren diseinua definitzen eta osatzen joan ahal izateko.

Uztailean zehar, aipatutako txosten hori osatu zuen Udalak. Bertan, herritarrentzat zein bisitarientzat informazio baliagarria txertatu zuen: garraio publikoko zerbitzua, udal bulegoen ordutegia, herriko saltokiak, jatetxeak, udal-tramite motak, kultur agenda..

Udalak erraztutako informazio horrekin, esan bezala, Zitu enpresak AdunaZ aplikazioa sortu zuen. Aplikazioarekin batera, logoa, erabili beharreko koloreak eta dominioa edo subdominioa zehaztu ziren.

Amaitzeko, IOS eta Android-en aplikazioa txertatzeko beharrezko gestioak egin zituzten bi alderdiek elkarlanean.

Herritarrei App-a ezagutzera emate asmoz, apirilaren 1ean hilabete osorako komunikazio kanpaina bat abiarazi zuen Udalak. Horren baitan,

App-a izateko interesa agertzen zuten herritarrak erakartzeko lehiaketa/zozketa bat jarri zuen martxan.

Gauzak horrela, prozesu honen bitartez, herritarrei udalerrian antolatzen diren jaruera kulturalen berri emateko eta horrekin batera egunerokoan herritarrentzat erabilgarri den informazioa eskura izateko aukera ematen duen aplikazioa sortzea lortu zen. Etorkizunera begira, Udalak ahalik eta herritar gehienek App-a euren mugikorretan izatea lortu nahi du, baita hori erabiltzea ere.

Era berean, 2019an zehar, App-aren sorrera udal webgunearen berritzearekin osatu nahi du Udalak, aipatu biak bata bestearen osagarri gisa direla iritzi baitu. AdunaZ prozesuan zehar, herritarren parte-hartzea sustatzeko App-a nahiko ez zela ohartu zen Udala eta horregatik, herriko elkarteek kudeatu dezaketen herriari buruzko webgune partekatu bat izatea interesgarritzat jo zuen. 2019an zehar, horrenbestez, azken lanketa horri helduko dio.





## Josu Amilibia

Adunako alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea herritarrek udaletxean eta herrian hartzen diren erabakietan inplikatzeko tresna da guretzat, beraien iritzia ezagutu eta kontuan hartzeko modu bat, alegia.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Zehar lerro izan beharko luke baina azken finean udaletxe txikia gara eta aurrera eramaten ditugun prozesuak ez dira oso potoloak izaten, horrenbestez, ekintza puntual gisa lantzen dugu. Gaiaren arabera, halaber, herri batzarrak egin ohi ditugu. Aurrekontuekin, adibidez, urtero bi herri batzar egiten ditugu: zirriborroa aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko lehena eta horiekin osatutako dokumentua aurkezteko bigarrena. Ordenantza fiskalekin, urtero ez bada ere, egin izan ditugu.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen zaie. Aurrekontuen kasuan herriko diruak zertara bideratzea gustatuko

litzaieken galdetzen badiegu ere, herrian zein proiektu egitea galdetzen badiegu ere, oraindik kostatzen zaie.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Denbora generaman egungo beharretara egokitutako komunikazio sistema baten bila, gaur egungo teknologietara egokitutako sistema baten bila, alegia. Gutxi gora behera astean behin (edo gai garrantzitsuak daudenean) bandoak etxetara bidaltzen jarraitzen badugu ere, beste komunikazio bide baten beharra sumatu genuen eta horretan genbiltzala, App-a egiteko aukera sortu zitzaigun. Izan ere, App-ak funtzio desberdinak eskaintzen ditu, horietatik bat herritarrei abisuak bidaltzearena. Eta hori izanik gure lehentasuna eta beharra, aurrera egitea erabaki genuen.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Kasu honetan gehienbat barne lanketa izan zen. Aplikazioak jada hainbat funtzio aurrez zehaztuta zituen eta gure lana hori Adunako beharretara moldatzea izan zen. App-ak funtzio asko ditu eta guk pixkanaka hasi nahi izan dugu. Aduna eta adunatarren beharrei erantzutea izan da

lehentasuna. Ondoren joango gara zabaltzen beharren arabera beti. Edozein kasutan, gaia herri batzarrean aipatu genuen, herritarrak informatu eta App-a deskarga zezaten.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua ondo baloratzen dut. Adunan 470 biztanle gara eta guk gure lehen helburua 50-80 deskargetan finkatu genuen, horrekin ia etxe guztietara heltzen bainekin. Azkenean lehen hilabetean 120 deskarga jaso genituen, hau da, herritar laurdenek jaitsi zuten App-a eta hori guretzat oso zifra ona da. Gainera, App-ak erabiltzaile kopurua ere adierazten digu eta horren bitartez, herritarrek erabilera ematen diotela jakin ahal izan dugu. Beraz, oso kontentu gaude.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Ikasgai modura, nik uste dut parte-hartzeko bide berriak bilatu beharko genituzkeela. Adunan urte mordera daramatzagu herritarren parte-hartzea sustatzen eta oraindik ere oso gutxi dira parte hartzen dutenak. Noski, gaiaren arabera ere izaten da partaidetza hori, baina orokorrean, herritarrak ez daude ohituta.

# Amezketeta

**AZALERA: 20,6 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 907 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Amestu Amezketeta

Amestu Amezketeta prozesua Amezketako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorarren idazketa gauzatzeko abiarazitako parte-hartze prozesu paraleloa izan zen, aipatu planari laguntzak, diagnosiak eta irizpideak eskaintzeko. Izan ere, Udalaren ikuspegitik garrantzitsua zen HAPOa bezalako dokumentu bat herritarrei ondo azaldu eta beraien ekarpenak jasotzea.

Prozesu horren helburua izan zen Plan Orokorren aurrerapen dokumentua osatzeko momentuan herritarren kontrastea, iritzia eta ekarpenak jasota izatea. Helburu nagusiak:

- Hasieratik herritarrek eta erakundeek ere herriko asmo nagusien berri izatea.
- Herritarren proposamenak interes partikularretik interes kolektiboen eremura muji araztea.
- Diagnostika osotasunean ezagutu eta barneratzea.
- Hirigintza eta honen prozesuen inguruko ahalduzko garatzea herrian.
- Erabakien erantzukizun partekatua sustatzea.

Esperientziak urrats edo fase desberdinak izan zituen. Lehen fasean, banakako zein taldeko elkarrizketak egin ziren aurre-diagnosi teknikoak

azaltzen zituen erronkak herritar, erakunde eta ordezkari desberdinekin kontrastatzeko.

Behin kontraste hori eginda, prozesuaren aurkezpen irekia egin zen. Saio horretarako beharrezkoak ondorioztatu ziren gai desberdinen inguruko sentsibilizazio hitzaldiak antolatu ziren (tokiko garapena, turismo erronka berriak..) eta horretarako adituak eraman zituen Udalak herrira. Bestalde, diagnosi teknikoek azaltzen zuten Amezketako emakumeen zaurgarritasun egoerari aurre egiteko "Emakumeak Erdigunean" lantegiak egin ziren.

Prestaketa guztien ostean Diagnostika Partekatua lortzea helburu zuten lantegiak egin ziren. Guztira 4 deliberazio mahai egin ziren dinamika ezberdinak erabiliz Amezketako Guztion Mapa osatuz. Mapa hori, halaber, Diagnostika Partekatua dokumentu grafiko bilakatu zen eta bertan, adostutako helburu nagusien lehen espazioa irudikatzea lortu zuten. Horrekin lehen urratsa osatu zen.

Gauzak horrela, lehen urrats horretatik lortutako dokumentuak HAPOaren aurrerapen dokumentua idazteko oinarri bilakatu ziren. Partaidetza zabal horretatik talde eragilea osatu zen, herriko sentsibilitate nagusiekin. talde eragileak aurrerapen dokumentuaren kontrasteak egin zituen eta horrez gain, gai konkretu batzuen inguruko saio monografikoak zehazten lagundu



zuen. Saio monografiko horiek, ondorengo gaien inguruan egin ziren:

- Etxebizitza (maiatzak 11).
- Landagunea (ekainak 14).
- Ugarte auzoa (ekainak 21).

Horiek guztiak eginda, aurrerapen dokumentua mahai gainean jarri zen talde eragileak "Kontraste tailerrak" egin zitzaizkien. Hau da, legeak jartzen duen iradokizun epeaz gain, ekarpenak modu kolektiboan egiteko lan saioak egin ziren. Atalez atal aukera ezberdinak eztabaidatu ziren eta haietako bakoitzaren balorazioak jaso ziren. Eraitza hauek aurrerakina egiteko "Oinarrizko Dokumentua" jaso ziren.

Aurrerakin dokumentua talde eragilearekin kontrastatu ostean lan mahai irekiak antolatu ziren. Lehen urriaren 5ean ospatu zen eta helburu zuen aurrerakin dokumentuak diagnostik eratorritako irizpideak eta helburu nagusiak onartu edota baloratzea. Behin irizpideak aurkeztu eta onartuta helburuen balorazioan sakontzeko beste hiru lan mahai diseinatu ziren:

- Mahaia 1: ingurumen babesa eta ustiapen orekatu baten aldeko gaien azterketa.
- Mahaia 2: asentamendu sistemaren antolaketa.
- Mahaia 3: etxebizitzaren gaia.

Azkenik, helburuen inguruko ebaluazioa eginda, aukeren deliberazioa helburu zuten bi saio egin ziren urriaren 11n eta 19an.

Asistentzia maila aldakorra izan zen. Lehen fase erdialdetik aurrera komunikazioa indartu egin zen eta parte-hartze maila ere nabarmen igo zen.

Prozesu horren guztiaren emaitza gisa HAPOa idazteko erabakiak hartzea lortu zen. Parte hartu zuten herritarrek garbi zituzten zeintzuk ziren ildo ezberdinak martxan jartzeko estrategiak. Azken kontraste mahaietan prozesu osoaren erabaki zehatzak hartu ziren.

Era berean, Amestu Amezketaren prozesuak amezketarrek herriarekiko duten jakintzan sakontzea lortu zuen. Aukerak eta erronkak baneratu ziren eta lehenetsi ziren aukera eta proposamenek lan ildo estrategiko berriak sortu zituzten.

Gauzak horrela, prozesuan zehar aurreikusitako urratsak betetzea lortu zen, atal batzuek ondoren lanketa sakonagoa eskatu zuten arren. Helburu orokorra zen HAPOa idazteko beharrezkoa zen aurrerapen dokumentua osatzeko parte-hartzean oinarritutako erabakiak oinarri hartzea eta aurreikusi bezala, talde teknikoak eginitako aurrerapen dokumentuak parte-hartze prozesutik egindako "Oinarrizko Dokumentua" izan zuten oinarri.



## Jon Burgaña

Amezketako Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea da herritarren iritzi, pentsamendu, amets, desioak eta esateko duten oro jasotzeko espazioa sortzea. Quim Bruguek aurrekoan esan bezala, Udalari erabakiak (bereziki zailak direnak) hartzen laguntzeko garrantzitsua da eta gainera partaidetza ematen baldin bada eta herritarrek esateko dutena esaten badute, Udalaren erabakia zilegigoa da. Horregatik ere, ezinbestekoa da partaidetza sustatzea. Hori bermatzen ez bada, Udala zein herritarrek bakoitzak bere aldetik joateko arriskua dute. Beraz, elkar hurbiltzeko ariketa bat ere bada.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Bi modutara lantzen dugu. Parte-hartzea prozedurak eskaintzen duen jendaurreko izapide hori aurrera eramatea ere bada, baina ez da nahikoa. Horregatik, hemen, Amezketan, udal erabakien berri batzorde informatiboetan ere ematen da, eta zentzu horretan partaidetza modu orokorrean eta zeharkakotasun batekin ematen da, baina horiez haratago, Udalak prozesu osagarriak egin ditu.

Esate baterako duela bi urte hezkuntzaren arloan hausnarketarako eta gai zehatzak jorrazeko prozesu konkretu bat egin zen eskolan eta 2018an Amezketako Hirigintza Antolamenduko Plan

Orokorarren baitan, urtean zehar hainbat ekintza eraman ziren aurrera partaidetzaren bitartez, horietako bat "Amestu Amezketan". Aurten, halaber, beste hainbat herri egin duten moduan, Amezketako App-a sortu dugu eta horrek partaidetzarako beste bide berri bat zabaldu digu. Hurrengo urteari begira, gobernu taldeak beste hainbat ekimen ditu aurreikusita herritarrekin batera lantzeko.

Horrez gain, gobernu taldeak beste hainbat lan-arlo herritarrekin jorrazeko lanketan ari da eta noski, herriko festak, kultur ekintzak... antolatzeko batzarrak egin dira.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Azken urtetako esperientziaren arabera, batzorde informatiboetara adibidez ez dira herritar asko animatzen baina azken hiru urtetako gai puntual horietan partaidetza nahiko ona izan da. Batzorde besteko 20-25 pertsonak hartu zuten parte eskolako prozesuan, iaz 50 lagunek eta aplikazioari dagokionez, dagoeneko 180 herritarrek deskargatu dute. Nik uste dut nahiko zifra onak direla. Baina kasu honetan, partaidetzaren gaia ez da soilik gai kuantitatiboa, kualitatiboa ere bada.

Herritarrek erakartzeko komunikazio plangintza bat ezinbestekoa da, baina egia da gaiaren arabera pizten dela herritarren interesa.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Plan Orokorra egiterako orduan, legeak partaidetza prozesu bat abiaraztera behartzen gaitu, baina ez du zehazten zer nolakoa izan behar duen prozesu horrek. Beraz, hortik aurrera bide motza edo bide luzea eta egokia har dezakezu eta gure kasuan, bigarren hori aukeratu genuen eta prozesu benetan eskuzabal eta aberasgarria bilakatu zen.

#### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Plana idaztearen arduradunek plangintza eta metodologia bat proposatu ziguten eta horren baitan hainbat bilera egin genituen herritarrekin, elkarte eta eragileekin... Eta horietatik ekintza plan bat atera zen, horien artean Amestu Amezketa.

Amestu Amezketa garatzeko aurre diagnosi bat egin zen, bilera irekiak egin ziren, elkarrizketak... Gainera aurre diagnosi horrek herrian eta herritarren artean garrantzitsuak diren gaiak zeintzuk ziren identifikatzen lagundu zigun, horien inguruan ondoren lanketa egiteko.

#### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Helburuak apalak badira, betetze maila ere apalagoa izan ohi da. Gure kasuan, helburuak apalak ziren: herritarrak hirigintza arlora hurbiltzea, herritarrei ahotsa ematea, herritarrei Udalaren asmoak helaraztea... eta horiek guztiz bete zirela esan genezake.

Kasu hauetan, baina, bada ere helburu zehatzago bat: herritarrak, norberaren interes partikularretik interes orokorrera hurbilaraztea. Gai hori, ordea, konplexuagoa da. Prozesu luzeagoa eta teknikoagoa beharko luke. Edozein kasutan, egindakoarekin kontentu gaude.

#### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Partaidetzaren garrantzian sinestea da guretzat ikasgai garrantzitsuena. Ezinbestekoa da gure udal arduradunek zein langileek partaidetzan sinestea, herritarrek benetan beraiek ahalduzko eta beraien kezkek eta iritziak jasotzeko ahalegin bat egiten dugula ikus eta sinets dezaten ere. Herritarren iritzia osagarria da udalgintzan eta hori sinetsi egin behar da.

Bestelako ikasgaien artean garrantzitsua da komunikazioa lantzea, prozesua ondo diseinatzea... Eta ez diogu inoiz herritarrek esaten diotenari beldurrik izan behar. Udalak iritzi horiek kontutan hartzen saiatu behar du beti. Batzuetan posible izango da eta beste batzuetan ez, baina prozesu horretan sortutako harremana eta elkarren arteko elkarrizketa da garrantzitsuena. Herritarrek gauza bat esan dezakete eta Udalak horren aurrean erabaki bat edo beste hartu, baina horren inguruan garrantzitsua da elkarren arteko harremana garatzea eta azalpenak ematea beti.



# Anoeta

**AZALERA: 4,1 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 2.036\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Aterpearen beharraz hausnartzeko prozesua

2018an zehar, Anoetako Udalak, bi partaidetza egitasmo garrantzitsu eraman zituen aurrera: Anoetako erdigunean kokatuta dagoen aterpearen beharraz hausnartzeko prozesua batetik eta herriko festetan eman daitekeen indarkeria matxistaren aurrean erabiltzeko protokoloaren lanketa, bestetik.

Lehen prozesuaren kasuan, helburu nagusia zen herriko erdigunean balizko estalpearen beharraz, horren erabileraz, ezaugarriez eta kokapenez herritarrekin batera hausnartzea eta erabakiak hartzea.

Metodologiari dagokionez, euskarri eta baliabide desberdinak erabili ziren prozesua gauzatzeko orduan: komunikaziorako erabilitako euskarri eta bitartekoak batetik eta prozesuaren gizarte egitura bestetik.

### Komunikazioa

#### EUSKARRIAK

- Udal aldizkariaren bidezko inkesta argitalpena.
- Etxe guztietara banatu den eskuorri bat osatu da, lehenengo bileraren data eta prozesuaren berri emateko.

#### ERAGILEEKIN KONTAKTU ZUZENA

- Herriko Elkarteei eskutitz bat bidali zaie parte hartzera gonbidatzeko.
- Prozesua hasi aurretik, zuzeneko deia egin zaie herriko elkarte eta eragileei bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu, eta honen ezaugarri orokorrak zuzenean azaltzeko ere.
- Harreman zuzen hauetarako Udalak duen herriko elkartegintzaren datu base publikoa erabili da.

#### WEB ORRIA

- Prozesuaren jarraipena egin ahal izateko, udal web orriaren barruan banner bat jarri da honen inguruko xehetasun guztiekin. Bilerak egin ahala, informazioa eguneratzen joan da.
- Sare sozialetan bileren data eta informaziorako loturak publikatu dira.
- Formulario siple bat egokitu da web orrian bertan, ekarpenak jasotzeko eta prozesu presentziala eta deliberatiboarekin uztartu ahal izateko.

Web lotura: <http://www.anoeta.eus/eu/estalpea>

## Gizarte egitura

Partaideak Anoetako herritarrek izan ziren, kategorien arabera banatuta.

### UDAL ORDEZKARIAK ETA TEKNIKARIAK:

zuzenean prozesuaren  
parte izan dira

- Alkatea
- Kultura zinegotzia
- Ongizate zinegotzia
- Hirigintza zinegotzia
- Kultura eta festak teknikaria
- Aparejadorea

### HERRIKO ELKARTEAK:

Udalak duen herriko  
elkartegintzaren datu  
basearen arabera

- Festak eta kultura taldeak
- Kirol taldeak
- Gazte taldeak
- Guraso elkarteak
- Hirugarren adina
- Emakume taldeak
- Elkarte gastronomikoak

### HERRITARRAK OROKORREAN:

Herriko biztanleria osoari  
jakinarazi zaio eta gonbidatu  
zaio parte hartzera.  
Horretarako etxe denetara  
bidali da esku-orri zehatza

## Lan saioak

1. Estalpearen beharraz eta balizko erabiltzaileez: estalpearen beharra, erabiltzaile eta kokapenaren inguruko hausnarketa egin zen. Horretarako, partaideek oinarritzko fitxa bat bete zuten. Ondoren, 3 azpi taldetan banaturik iritziak partekatu zituzten eta azkenik ondorioak kartulina batean jaso ziren.

ANOETAN ATERPEA BEHAR DUGU?
Zertarako? Zein da egun hutsunea?
Nolakoa? (ezaugarri nagusiak)
Balizko erabiltzaile edo onuradun nagusiak
Besterik?

2. Estalpearen kokapen zehatza eta ezaugarri eta elementuak: saio honetan bi kokapen desberdin planteatzen zituzten bi planoren gainean egin zen lanketa. Eredu bakoitzaren indarguneak, ahulguneak eta egin zitezkeen hobekuntzak landu eta hurrengo bilerarako jaso ziren.

3. Estalpearen oinarritzko diseinua eta oinarritzko material zehatzak: behin kokapena zehaztuta, estalpeak izak beharreko diseinu ezaugarri zehatzen eta materialen inguruan hausnartu zen.

Interneteko lanketa eta jarraipena:


Prozesuan zehar, internet bidez herritarrek iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten eta horiek ere aintzat hartu ziren aipatu hiru saioetan.

## Ondorio nagusiak

Emaitei begira, prozesuan zehar herrian estalpe bat beharrezkoa zela ondorioztatu zen, baita horrek erdigunean egon behar zuela ere (eliza ondoan). Estalpeak, halaber, leku atsegina, alai eta arina izan behar zuela adostu zen eta erabiltzaileak haur, gazte zein helduak izan behar zutelako ere zehaztu zen (baita, momentu puntaletan herriko eragileak ere).

Ezaugarri zehatzei begira, ondorengoak ziren adostu zirenak:

- Babesa eskainiko duen espazioa.
- Arina eta zabala.
- Diseinu alai eta argia.
- Berderaeen presentzia.





# Herriko festetan eman daitekeen indarkeria matxistaren aurrean erabiltzeko protokoloa

Anoetako Udalak herriko festetan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa ere sortu zuen 2018an. Helburua zen herriko festetan emakumeen segurtasuna bermatzea eta eman litezkeen eraso sexisten aurrean herriko eragileen erantzun antolatua ematea.

Prozesua aurrera eramateko 4 saio egin zituen Udalak herriko eragileekin eta brigadako langileekin, guztiak Farapi Kooperatiba Elkartearen zuzendaritzapean. Tabernarien partaidetza ere bermatu nahi izan zen eta ordezkari bat ere joan zen saioetara. Horrek, gainontzeko tabernariei partekatzen zien ondoren hitz egindakoa.

Prozeuan parte hartu zuten:

## Herri eragileen zerrenda:

**Emakume taldea** Eukene Bravo  
Ane Urkola  
Oihana Zubillaga  
Maddi Otero

**Txozna batzordea** Jokin Tolosa  
Jon Otegi

**Gazte asanblada** Alain Luisa

## Ordezkaritza politikoa:

Pedro Estanga  
Izaskun Jauregi  
Josune Eizmendi

## Udal langileak:

Endika Esnaola  
Juango Urkizu  
Xabat Ugartemendia  
Tere Soto

## Bestelakoak:

Taberna Zuriñe Goenaga  
Ikastola Itziar Lazkano

Lan dinamika desberdinen bitartez, indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa egin zuten parte-

hartzaileek: jatorria, indarkeria motak... Eta horiek testuinguruan kokatu ondoren, jaietan zehatz-mehatz nolako erantzuna eman nahi zen zehaztu eta ardurak banatzeari ekin zioten.

Lanketa horri jarraiki, Udalak festetan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa osatu zuen eta aurkezpen publikoa egin zuen, hain zuzen, herriko jaiak baino lehen. Ardurak banatu ondoren, halaber, whatsapp taldea ere osatu zen, beharra izanez gero arduradunekin berehala harremanetan jartzeko.

Gauzak horrela, egindako lanarekin erantzun antolatu bat emateko sare bat sortzea lortu zen, baita antolaketa garrantziaz jabetu, gaiaren garrantzia ere plazaratu eta herriko eragileen zein Udaleko zinegotzi eta langileen elkarlana sustatzea ere.

Adostutakoaren arabera, protokoloa herriko jaietan, kuadrila egunean edota kultura batzordearen erabakiz beharrezkoa irizten den beste ospakizunetan egongo da martxan eta ondorengo kasuetan aktibatuko da:

- Eraso jaiak irauten duten bitartean eta jaietako eremuan gertatu bada.
- Indarkeria matxista salatzen den kasu guztietan.
- Indarkeria matxista jaso duen pertsonak laguntza edo protokoloa aktibatzea eskatuko balu.
- Indarkeriaren piramirearen goiko aldean IKUSTEN DENA lelopean agertzen diren kasuetan BETI aktibatuko da protokoloa.

Prozesu honen helburuen betetze maila, beraz, erabatekoa izan zen. Parte-hartzaileen asistentzia oso ona izan zen hasieratik bukaera arte eta lan dinamikak oso praktikoak eta bereziki emankorrak izan ziren. Protokolo osoa kontsultagai eta eskuragarri dago udal webgunean.



## Pedro Mari Estanga

Anoetako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Nik benetan sinesten dut parte-hartzean eta uste dut kultura hori ez dela nahi adina zabaldu, hau da, ez gaudela horretarako hezita. Anoetan aurrera eraman ditugun ekintza guztietan parte-hartzea sustatzen saiatu gara, horretan sinesten dugulako eta erabakiak hartzeko garaian, beste babes eta berme bat ematen digulako.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Egunerokotasunean ezin dugu dena parte-hartze prozesu bidez landu baina herri mailan, aldaketa sinpleena dela ere, parte-hartze bidez egiten saiatzen gara. Prozesu batzuk besteak baino sakonagoak izaten dira eta horrelakoetan kanpo aholkularitza eskatzen dugu baina beste kasuetan gure baliabideekin egiten ditugu.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen da. Esan bezala, ez gaude horretarako hezita eta oraindik dinamika hauek barneratzea urte batzuk kostatzen da.

Jendeak arreta gehiago jartzen du oraindik zuzenean eragiten dien gaietan orokorretan baino.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Beharra baino gehiago nahia ere izan zen. Eta beti esaten den moduan, lau begik bik baino gehiago ikusten dute eta parte-hartze prozesuek hori

errazten dute. Bi kasu hauetan, bai Udalak eta bai herritarrek premia hori ikusi genuen.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Enpresa adituei laguntza eskatu genien eta beraiek egindako plangintzari jarraiki bilera ireki ugari egin genituen herritarrekin, proiektuak azaldu eta ekarpenak jasotzeko, besteak beste.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesuak ondo. Horrelako prozesu bat beti da aberasgarria. Norberak zer nahi duen beste gauza bat da, eta guk beti nahi genuke parte-hartze altuago bat, baina edozein kasutan, horrelako prozesuak beti dira aberasgarriak.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Garrantzitsuena parte-hartzean sinestea da. Zalantzan ditugun gauzak horrelako prozesuen bitartez aurrera eramanez gero, are gehiago finkatzen ditu norberaren sinesmenak, eta nire kasuan, benetan sinesten dut parte-hartzean eta eman ditzakeen fruituetan. Erabakiak hartzeko garaian beste babes bat duzu eta defendatzeko garaian, erabat legitimatuta ikusten dugu gure burua. Era berean, herritarrek kontutan hartzen ditugunean, herritarrek ere beste jarrera batekin erantzuten dute.

Batzuetan hau moda bat izango denaren errezeloa dut. Orain dena da parte-hartzea eta denok hitz egiten dugu parte-hartzearen inguruan, baina benetan honetan sinetsi behar dela uste dut. Erabakiak herritarrekin hartuz gero, emaitzak ere hobetoagoak dira.



# Asteasu

**AZALERA: 16,76 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 1.550\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Asteasu garbi baten aldea

Asteasun 2013an jarri zen martxan hiri-hondakinak bereizi, bildu eta kudeatzeko sistema berria. Hasiera batean harrera ona izan bazuen ere, denborak aurrera egin ahala herritarrek zituzten ohitura eta jarreretan motelaldi nabarmena antzeman zen.

Asteasuko Udalak, arazo horren zergatiak aztertu eta irtenbide bat aurkitu nahian, herritarrekin gaia lantzeko partaidetza egitasmoa abiarazi zuen 2018an. Prozesua 4 fasetan banatu zen.

1. Egoeraren eta egitasmoaren hasierako komunikazioa: Herritarrei adieraziz lanketa egitearen beharra adierazten duten datuak, eta egitasmoaren nondik-norakoak, aldizkari berezi baten bidez.
2. Herritarrekin lanketa: Bigarren fase honetan hondakinaren bilketaren arazoa, eta egoera horren zergatiak aztertu nahi izan dira herritarrekin, berariazko saio desberdinak eginez eta kalean galdeketa informal bat ere gauzatuz.
3. Udalaren barruko lana, Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera Aurreko fasean ateratako ondorioak eta egoera hobetzeko proposamenak oinarri hartuta, bigarren urratsean Asteasuko Udalak, Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera, hiri-hondakinaren bilketa sistema egokitzeko aukerak aztertu dituzte; gaur egun ematen

diten arazoak gainditzen lagun dezaketen neurri zehatzak adostuz.

4. Udalak hartutako erabakien itzulera herritarrei Prozesua osatzeko, Asteasuko Udalak eta Tolosaldeko Mankomunitateak adostutako neurrien berri herritarrei emateko saio ireki berezi bat burutu da; eta horrez gain, informazio hori modu zabalean etxez-etxe hedatzeko aldizkaria ere prestatu eta bideratu da.

Gauzak horrela, "Asteasu garbi baten alde" partaidetza egitasmoaren helburu nagusia udalerrian egiten zen hiri-hondakinen kudeaketa hobetzea zen eta horretarako momentuko funtzionamendu desagokiaren arazoak eta horiek gainditzeko aukerak eta sisteman egin beharreko egokitzapenak herritarrekin landu eta adostu nahi izan zituen Udalak. Era berean, egitasmo horren bitartez, hondakinak kudeatzerakoan herritarrei dagokien ardura nabarmendu nahi izan zen, herritarrek gaiaren inguruan kontzientzia har zezaten.

Horretarako, bigarren fasea, herritarrekin egindako lanketa, alegia, lau ataletan banatuta egitea planteatu zen.

Azken fasean, ekainetik azarora bitartean, Udalak, Tolosaldeko Mankomunitatearekin elkarlanean, herritarren saioetan hitz egin eta proposatutakoaren lanketa sakonagoa egin zuen, epe motzera hiri-hondakinen bilketa eta kudeaketa sistema hobetzen lagunduko zuten neurriak zehazteko.

Neurri horiek praktikan jarri aurretik, ordea, neurri horien berri herritarrei emateko bilera ireki bat egin zen, azaroaren 19an. Saio horretan, 34 lagunek hartu zuten parte, 21 emakumezko eta 13 gizonezko. Bertaratu zirenek, proposatutako aldaketak onzat ematez gain, hainbat zalantza eta hausnarketa partekatu zituzten. Beraz, itzulera saioa, maila batean, formakuntza saio ere bilakatu zen.

Azkenik, neurri hori komunikazioa etxez-etxe banatutako aldizkariaren bitartez zabaldu zitzaizen gainerako herritarrei.

Prozesuaren emaitzei dagokienez, maila sustantiboan abiapuntuan definitutako helburuak bete ziren bere osotasunean: parte hartu zuten herritarrekin batera, hiri-hondakinen bereizketa eta bilketa sistemaren momentuko arazoaren zergatiak aztertzea ziren eta horiek hobetzeko neurri zehatzak definitu eta hartu ziren, horien artean:

- Errefusaren edukiontzia ixtea.
- Informazio bulego bat zabaltzea, herritarren kezka argitu eta aldaketek eragin ditzaketen arazoak kudeatzeko.
- Herriko hondakinen bilketa puntuak

berrantolatzea eta puntu guztietan papera eta ontziak biltzeko edukiontzi berriak jartzea.

- Froga moduan hondakin organikoaren bilketa sistemaren itxura sistema duen edukiontzi marroi bat edo bi erdigunean jartzea.
- Sortzaile bereziei atez-ateko bilketa eskaintzea.
- Tamaina handiko hondakinen bilketa indartzea.
- Partaidetzaren, komunikazioaren eta sentikortzearen ikuspegitik, halaber:
  - » Herritar guztien ardura den hondakinen kudeaketaren gaia eta Asteasuko azaroko herritarrekin partekatzea lortu zen. Horretarako oso lagungarri izan zen aldizkaria etxez-etxe banatzea, baita ondoren egindako bilerak ere.
  - » Presentzialki egindako lanketa hondakinen kudeaketan ematen ziren jardunbide desagokiengan fokua jarri eta horiek ekiditeko neurriak hartzearen beharra azpimarratzen lagundu zuen.
  - » Emandako urrats bakoitza herritarrei komunikatzea Asteasu bezalako herri batean aktiboki prozesuan parte hartzeko aukera ia herritar orori ematea bermatu zuen.

Gauzak horrela, Udalak oso modu positiboan baloratu zuen prozesua eta helburuen betetze-maila. Izan ere, guztiona zen arazoa herri mailan azaleratzeaz gain, urtea amaitzerako aplikatu ahal izan ziren neurriak landu eta adostu ziren, herritarrekin elkarlanean.

Gainera, lanketa hori baliagarria izan zen jasagarritasunarekiko eta hondakinen kudeaketa egoki batekiko erantzunkidetasuna duten herritarren babesa jaso eta elkarrekin konpromisoak definitzeko; jardunbide egokiak dituztenetan oinarrituz, ardurak ondo betetzen ez dituztenei zailtasunak jartzea erabakiz. Azken finean, neurri horiek elkarrekin adostea bestelako babesa eman zion Udalari.

Metodologiari dagokionean, argitasunean, naturaltasunean eta begirada eraikitzailean jarri zen fokua. Prozesu osoan zehar, Udalak bidelagun izan zuen Tolosaldeko Mankomunitatea, baita Prometea lan taldea ere eta esan bezala, elkarren arteko koordinazioari zein herritarrekin egindako lanketa sakonari esker, urte amaierarako adostutako neurri guztiak aplikatu ahal izan ziren, herritarrekiko eta hartu beharreko erabakiekiko errotak ere zainduz.



## Pili Legarra

Asteasuko alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Garbi izan dut beti partaidetzak arlo garrantzitsua izan behar duela erakunde baten funtzionamenduan; herritarrak Udalaren eginkizunaren parte izatea oso beharrezkoa iruditzen zait, baina egia da asko kostatzen dela jendea erakarri edota hurbiltzea; pedagogia landu beharrean gaude oraindik ere.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Orain arte ekintza puntual gisa landu dugu hainbat prozesuetan, nahiz eta badiren urtero lantzen ditugun prozesuak, hala nola aurrekontu parte-hartzaileak (2012tik aurrera), auzoen beharren lehenetsunak, kultura ezberdinen elkarretaratzea...

Horiez gain, proiektuak esanguratsuk direnean edo herritarrei zuzenean eragiten dietenean beti egiten dugu aurretik parte-hartze prozesu bat. Hauek dira orain arte egin ditugunak: herriko hondakinen kudeaketa-zerbitzuan aldaketak gauzatzeko prozesua, ingurumen-iraunkortasuna Hezkuntzaren alorrean, osasun bidearen diseinua, EBIA- Kultur Taldearen sorrera, Elhuyar taldearekin, trafikoaren ordenazioa, Prometea taldearekin, herriko informazioa eta parte-hartzea bultzatzeko Udalaren APP-a, plazaren eraberritze proiektua aurrera eramateko prozesua, Asteasu garbi baten

aldeko prozesua, App-a ren erabilera sustatzeko dinamizaziorako prozesua eta herriko jolas eremuak eraberritzeko prozesua.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen zaigu, baina saiatzen jarraitu behar dugu eta horrek kultura aldaketa bat suposatzen du. Udalatik prozesuak diseinatzerakoan deialdiak nola egin eta nori zuzendu garrantzia handia duela uste dut.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

2012an hondakinen zerbitzuan zenbait aldaketa egin ziren. Orduan kudeaketa nola egin erabaki zen, baina azken urteotan hainbat herritarrek oraindik jarrera txarra dutela konturatu gara, hondakinak lurrean uzten baitituzte. Gaia garrantzitsua da guretzat eta berriro prozesu bat jarri da martxan herritarrak kontzientziatzeko eta Asteasu garbi mantentzea guztion ardura dela ulertarazteko. Bide horretan zailtasunak badaude, horiek azaldu eta konponbideak aurkitu behar ditugu elkarrekin.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Prometea enpresa kontratatu genuen eta prozesua Udalarekin eta Mankomunitatearekin elkarlanean

diseinatu eta garatu zen. Ez genuen zailtasunik izan eta parte-hartzea nahiko altua izatea lortu genuen.

Egindako lanketan, lehenik eta behin, prozesu parte-hartzailea eta herriko hiri hondakinen egoera eta bilakaera azaltzen zuen informazioa banatu genuen herrian (aldizkari bat, web orria, APP-a, ahoz aho, eskola organoak..) Informazioa Mankomunitatearekin batera osatu genuen.

Datu horiek argitaratu ondoren eta Udalaren kezka bistaratuta, zer gertatzen ari zen lantzeko prozesua martxan jarri zen. Horretarako, herriko 9 taldeekin bilerak egin ziren (Guraso Elkarte, kultur taldea, Komentzioa emakume taldea, Nazio anitzeko taldea, elkarte gastronomikoa, gazte asanblada, hirugarren adineko taldea, LH eta DBHko ikasleak). Horrez gain, goizetan dendetan, kafetegietan zein kalean, zenbait herritarrei galdeketa txiki bat egin zitzaion, gurasoei zuzendutako bilera bat egin zen eskolan eta azkenik bilera irekiak egin ziren herritarrekin.

Behin hori eginda, datuen azterketa eta lanketa egin genuen Udalak, Prometeak eta Mankomunitateak elkarlanean eta ondoren, emaitzak azaldu eta ekarpenak jasotzeko beste hainbat bilera egin genituen. Horrez gain, APP-aren bitartez zein paperez, galdeketa ere egin ziren. Amaitzeko, prozesuak emandako emaitzak exekutatu zituen Udalak.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua ondo joan zela esango nuke. Iritzi desberdinak jaso genituen eta ateratako emaitza eta ondorioak exekutatu egin ziren, horrenbestez, helburuak bete zirela esango nuke. Herritarrak sentsibilizatzea lortu genuen eta prozesu honetan zein egindako besteetan, herritarrekin izandako lotura, beraien iritziak, ikuspegi ezberdinak... oso baliagarriak izan dira niretzat.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Parte-hartzea beti da aberats, naiz eta ezin dugun beti guztion gustukoa izatea lortu. Esan bezala, Udalak eskuartean dituen proiektu garrantzitsuak gauzatu aurretik parte-hartze prozesu bat abiarazi dugu eta horrek, ekimenak aurrera eramateko legitimitate bat ematen digu. Herritarrek ezagutza dute eta horri bidea eman behar zaio; prozesuek honetarako balio dute. Pixkanaka herritarrak beraien iritziak emateko ohitura hartzen ari dira eta hori aberatsa da.

Prozesu honek hondakinen gaia herritar ororen ardura den gaia dela ikusarazteko balio izan digu, hau da, herria txukun mantentzea guztion ardura eta ez soilik Udalarena dela ikusarazteko, alegia. Jarrera txarrek besteengan duten eragina azaleratu du; hondakinak lurrian uzteak ez du soilik Udala kezkatzen, baita herritarrak ere. Prozesuan azaldutako eskakizunak Udalak kontuan hartu eta gauzatu egin ditu.

# Baliarrain

**AZALERA: 2,8 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 151\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Ekintza kulturalak koordinatzea

Herriko eragileak herri baten dinamizazioan duten garrantziaz jabetuta eta haien lana balioan jarri eta aitortzeko asmoz, Baliarraingo Udalak, 2018an, herriko ekitaldi guztiak modu koordinatuan antolatzeko prozesua abiarazi zuen. Koordinaketa lan horren helburua, halaber, herriko elkarteen elkar ezagutza eta elkarlana sustatzea izan zen.

Horretarako, Udalak, herriko eragile guztiei deialdia zabaldu eta hainbat lan saio egin zituen haiekin udal aretoan zein eragile horien espazio edota gune fisikoetan, kultur batzarra edota eragileen batzarrak aprobetxatuz.

Esperientzia baikorra eta positiboa izan zen. Eragile guztien helburuak ezagutu ahal izan zituen Udalak. Izan ere, eragile bakoitzaren ordezkariak aldatuz joan dira eta prozesu honek, eragile bakoitzak herrian duen helburu eta garrantziaz jabetzeko balio izan zuen.

Emaitza, beraz, egokia izan zen. Ekitaldien asistentzia eta antolaketa egokiagoa izan da orduz gerotik eta ekitaldiak antolatzerakoan ere, gainerako elkarteek esku bat bota dute, euren arteko lankidetzat sendotuz.

Laburbilduz, hauek izan ziren prozesu honetatik ateratako emaitza nagusiak:

- Eragileen garrantzia berrestea.
- Udalak eragileak baloratzea eta eragileen beraien artean baloratzea.

- Eragileen helburuak ezagutzea eta ondorioz garrantzikoagoak direnak lehenestea.
- Eragileen arteko elkarlana eta elkar ezagutza indartzea.

Gauzak horrela, Udalak aurreikusitako helburuak bete zituen eta parte hartu zutenen artean erantzuna eta jarrera ezin hobea izan zen. Horrek ez du esan nahi hobetu ezin denik, baina lan ildo hori aurrera eramanez gero, herria zein herritarrentzat onuragarria izango zela ondorioztatu zuen Udalak, eragileen eta kultur ekintzen arteko koordinazio bat lortzeaz haratago, elkarteen arteko harremanak sendotzea lortu zelako.

Izan ere, Baliarrain bezalako herri batean ezinbestekoak dira eragileak eta eurek antolatutako ekintzak. Orokorrean asistentzia maila altua izaten dute guztiek, haur, gazte zein helduek hartzen dute parte eta gutxiengoan kasuan, 10 lagun inguru biltzen dira.

Lan metodologiari dagokionean, garrantzitsua da herriko ohiturak ezagutzea eta horien arabera jokatzeko: norbanakoen lana, ordutegia..

Edozein kasutan, prozesu honi esker, Udala zein herriko eragileak lan metodologia koordinatu horri heltzearen garrantziaz jabetu ziren, emaitzak sistema horren martxa ona erakutsi baitzuen. Ekitaldietako asistentzia maila handitu egin zen, azken finean, prozesuaren edota ekitaldiaren diseinua elkarrekin egiteak ekitaldiari berari indarra ematen diolako.



# Nekane Lopetegi

Baliarraingo idazkaria

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Baliarraingo herria herri txiki izanik, erabakiak hemen dauden bost zinegotziek bakarrik hartu beharrean ohikoa da beste herritarrek ere parte hartzea eta orain era formalean egin ohi dira prozesu horiek baina aurretik prozesu informal asko ere egin izan dira, horrenbestez, parte hartzeko ohitura hori jada badago.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Ekintza puntual gisa orain hasi garen prozesu horietan, baina Udaletik kanpo esango nuke zehar lerro gisa funtzionatu duen dinamika hori badagoela.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gero eta nekezago hartzen dute parte. Jende helduarentzat errazagoa da parte hartzea, herri sentimendu hori errotuago dutelako baina gazteen kasuan, urrunago sentitzen dute eta arrotzagoa egiten zaie parte-hartze hori.

Baliarrainen jaio ez direnentzat ere, hau da, herrira duela denbora gutxi bizitzera etorri direnentzat ere, zaila egiten da parte-hartzea eta gu herri dinamikan ahalik eta herritar gehien sartzen ahalegintzen gara.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Baliarrainen eragile desberdinak daude: elkarte bat dago, Guraso Elkarte ere, Herriko festen komisia.. eta bakoitza bere aldetik ibiltzen zen ekintza eta ekitaldiak antolatzen eta egoki ikusi genuen guztiak elkarrekin biltzea urteko egitaraua osatzeko denek parte hartuz, batak bestearen babesa senti zezaten. Ekitaldiaren arabera, horren gidaritza eta antolaketa batak edo besteak eman arren, guztiak dute denen babesa hori aurrera eramateko.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Eragile bakoitzarekin hitz egin genuen eta urtean zehar antolatu nahi zituzten ekitaldien berri jaso genuen. Ondoren, horiek guztiak egitarau baten pean jaso genituen eta horien berri eman genien.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua ondo joan zen. Hobetu daitekeela? Noski, beti dago zer hobetu. Prozesuan zehar eztabaidak ere sortu ziren eta horiek onak direla uste dugu etorkizunera begira horrelako prozesuak hobetzen jarraitzeko.

**Zein ikasgai ateratu dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Nik uste dut Udalak antolatzen dituen parte-hartze prozesu hauek garrantzitsuak direla, baina garrantzitsu ikusten dut baita ere eragile horiek egindako lana balioan jarri eta beren lanari bultzada bat ematea, azkenean errazago iristen direlako elkarteak herritarrengana, Udala baino.



# Berastegi

**AZALERA: 45,9 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 1.053\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Berastegi sarean



Udalaren erabakietan herritarren parte-hartzea bermatzen jarraitzeko eta bide horretan, herritarrei parte-hartze zein komunikazio kanal berriak eskaintzeko, Berastegiko Udalak mugikorreko aplikazioa martxan jartzeko prozesua abiarazi zuen 2018an.

Gauzak horrela, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatuz, Zitu enpresak eta Berastegiko Udalak, herria zein herritarren beharretara egokitutako aplikazioa definitzeko lanketari ekin zioten.

Horretarako, hainbat bilera egin zituzten enpresan bertan, baita Udalean ere, esan bezala, diseinu hori zehazten eta elkarlanean eraikitzen joateko.

Aplikazioaren sorrera aurrekusi bezala joan zen eta erabilgarritasunari begira, funtzio desberdinak Berastegiko biztanleen beharretara egokituak izan ziren. Esperientzia, beraz, guztiz positiboa izan zen. Enpresarekin hartu-emana gertukoa eta egokia izan zen eta helburuen betetze maila erabatekoa izan zen.

Berastegi Sarean aplikazioak informazioa eskuragarri izateko aukera eskaintzen die herritarrei:

- Udaleko albisteak
- Udal eraikinen erreserba
- Tramiteak
- Agenda
- Elkarreen inguruko informazioa
- Udal kontaktuak
- Farmazia
- Garraioa
- Intzidentziak
- Inkestak

Horrek, era berean, informazioa eskuragarriago jartzeaz gain, parte hartzeko bide edota kanal berri bat zabaltzen die herritarrei, Udalaren eta herritarren arteko harremana indartuz.



## Amaia Azkue

Berastegiko alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea herritarrei hitza ematea da. Eguneroko erabaki guztietan galdetzea eta iritzia jasotzea ezinezkoa da baina erabaki orokorragoak edota herri guztiari eragiten dienak galdetu eta partekatu egin behar direla iruditzen zaigu eta noski, horretarako ezinbestekoa da eman behar dugun informazioa aurrez ondo lantzea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Guk tresna ezberdinak ditugu herritarren iritzia jasotzeko. Tresna orokorrei erreparatu, aipatu beharra dago gure egunerokotasunean herri martxaren berri jasotzen dugula. Izan ere, gobernuan gaudenok herrian bizi gara eta herrian bertan egiten dugu bizitza, beraz, modu informalean bada ere, etengabeko hartu-emana dugu herritarrekin. Horrez gain hiru hilez behin herri batzarrak egiten ditugu. Horietan mahai gainean ditugun gai guztiak jorrotzen ditugu, egiten ari garenak, egiteke ditugunak. 15-25 lagun bitarte etortzen dira, gaiaren arabera gehiago ala gutxiago. Eta behin herri batzarrak eginda, 8 orriko aldizkaria ateratzen dugu. Edozein kasutan, jarraikortasun bat badugu herri batzarretan eta herritarrek dinamikak barneratuta dituzte. Gai zehatzei dagokienean, lan talde irekiak ditugu eta horietan lan potoloak edo herritarrei zuzenean eragiten dizkietenak lantzen ditugu. Horiez gain sare sozialak ditugu eta azken tresna bezala App-a sortu dugu.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Guk jada ez diogu horrenbeste garrantzia ematen kopuruari. Hau da, parte-hartzea ez dugu kuantitatiboki baloratzen. Etortzen direnak etortzen direla, guk guztien iritzia ezagutu, jaso eta aintzat hartu nahi ditugu, hori da gure lehentasuna. Ulertzen dugu etortzen direnak interesa dutelako etortzen direla eta gainera, ondoren, modu batera edo bestera jasotako informazio zabaltzen laguntzen

digute, horrenbestez, gehiago ala gutxiago ez da lehentasunezkoa.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Kasu honetan, App-a garatu duen enpresa jarri zen gurekin harremanetan bere eskaintza aurkezteko. Guri oso baliagarria iruditu zitzaigun, parte hartzeko eta beste herritar batzuei iristeko tresna egokia iruditu bait zitzaigun.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

App-ak oinarrizko diseinua egina zuen. Guk elkarte eta eragileekin partekatu genuen eta herri batzarretan herritarrei ere zabaldu genien, azken batean, App hori Berastegiko beharretara egokitzeko. Elkarte eta eragileen kasuan bilera berezi bat egin genuen, azken finean, beraiek App-aren administratzaile ere izan daitezkeelako. Zailtasun bezala, denbora izan dugu. Prozesua asko luzatu da martxan jarri ahal izan dugun arte. Baina urte bukaerarako martxan izatea espero dugu.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua oso ondo joan da. Enpresa beti egon da laguntzeko prest eta balorazioa oso ona da. Betetze maila, App-ari dagokionean erabatekoa izan da. Orain ikusi beharko dugu herritarren artean zein harrera duen.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Parte hartzeko gero eta aukera gehiago emanaz gero, herritarren harrera ona da. Gero eskaintako baliabideak eta tresnak erabiliko dituzte ala ez. Baina parte hartzeko eskaintzen den edozein tresna, beti da ona. Herritarrek baloratuak sentitzen dira, eta gardentasunerantz beste pauso bat da.



**AZALERA: 2,99 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 1.811\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarilaren 1ean

## Denon etxea, guztion etxea

Irurako Udalak udaletxea eraberritu eta egokitzeko proiektuari ekin zion 2018an, udalerraren premia berriei eta zenbait irisgarritasun-arauri erantzuna emateko xedez. Horretarako, behin-behineko proiektu bat aurkeztu zien herritarrei eta horren inguruan udalerriko bizilagunek zituzten iritziak eta ekarpenak ezagutzeko asmoz, Denon Etxea Guztion Artean ekimena abiarazi zuen.

Prozesua 2018ko ekainaren 13tik 30era bitartean gauzatu zen eta parte hartzeko hainbat bide zabaldu ziren:

- Informazio karpa maiatzaren 19an, udaletxeko plazan.
- Partaidetza@irura.eus helbide elektronikoa.
- Kutxatila udaletxeko sarbidean.
- Online galdera sorta udal webgunean.
- Partaidetza lantegia, herritar guztiei zuzenduta, ekainaren 26an kultura aretoan.

Bide horien bitartez, herritarren ekarpenak jaso ahal izan zituen Udalak, hain zuzen 94 galdera sorta:

- 40 kutxatilan.
- 38 udal webgunean.
- 16 informazio karpan.

Horrez gain, partaidetza lantegian 5 herritarren ekarpenak jaso ahal izan ziren. Oro har ekarpenak nahiko kontrajarriak izan ziren eta eraikinean hobekuntzak egiteko beharra zalantzan jartzen ez zen arren, prozesua antolatzeko moduaren eta kostuaren inguruan jarrera kontrajarriak azaldu ziren. Batzuek proiektua hasieratik birplanteatzeko premia adierazi zuten, herritarrek hasieratik parte har zezaten. Beste batzuek, ordea, udal-irizpideak lehenetsu izan behar zutela adierazi zuten. Goiko solairua eraikitzeari buruzko gaien ere ez zen adostasunik lortu espazio horren erabilera zehazteko. Kasu honetan, batzuek udal zerbitzuak bateratu eta solairu horretan kokatzeko proposamena egin zuten. Horrez gain, espazio hori ezkontza eta zeremonia zibilak egiteko espazio egoki moduan aprobetxatzeko aukera ere planteatu zen. Beste zenbait herritarrek, aldiz, ez zuten beharrezko ikusten solairu horren eraikitzea eta horren ordez, beste udal eraikin batzuk erabili eta optimizatzea proposatzen zuten. Edozein kasutan, parte-hartze prozesu hori herrian egiten zen lehena izan zen eta jasotako ekarpenak, udal eraikina birgaitzeko behin betiko proiektua idazteko baliagarriak izan ziren. Horrenbestez, Udalak prozesua positiboki baloratu zuen, nahiz eta etorkizunera begira herritarren parte-hartze hori sustatzeko bideak hobetzeko premia agerian gelditu zen.



## Gorka Murua

Irurako alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea gobernatzeko modu demokratikoena da, herritarrekin harreman zuzena izateko modu bat, alegia, ez duena harreman hori 4 urtetik behinera soilik mugatzen.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Orain arte momentu puntaletan eman da parte-hartzea baina gure asmoa partaidetza teknikari bat kontratatzea da Udalaren jardunean parte-hartzea zabaltzeko. Horrez gain, auzoz-auzoko bilerak berreskuratuko ditugu eta laster hasiko gara horiek aurrera eramaten. Partaidetzan gehiago sakondu nahi dugu. Irurak ez du parte-hartze ordenantzarik baina asmoa da bide horri heltzea.

Ekintza puntual gisa udaletxea berritzeko prozesua eta duela bi urtetik hona aurrekontu parte-hartzaileak egin dira.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Nik uste dut oraindik nabaria dela herritarrek erakundearekin duten distantzia hori. Europa mailan adibidez, parte-hartzea askoz ere garatuago dago eta hemen hasi besterik ez garela egin esango nuke. Dena den, bideari ekin diogu jada eta nora iristen garen ikusi beharko dugu.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Eraikina zahartuta zegoen eta udaletxeak berritzeko premia zuen, azken finean, herritarrei ere zerbitzu eta azpiegitura hobetoago bat eskaintzeko. Eraberritze hori proiektu handia izanik, orduko alkateak herritarrak inplikatzeko ezinbestekotzat jo zuen eta puntu horretatik abiatuta jarri zen martxan prozesua.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Bilera ireki bat egin zen herritarrekin proiektua aurkeztu eta zalantzak argitzeko. Panelak jarri ziren, webgunea ere erabili zen iritziak jasotzeko eta lantegi bat ere egin zen. Parte-hartzea, ordea, oso baxua izan zen.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Helburuen betetze maila makala izan zen. Esan bezala pertsona gutxi etorri ziren eta horrenbestez ezin dugu esan helburuak bete zirenik. Guk prozesua oposiziotik bizi genuen eta gure asmoa da prozesua berreskuratu eta martxan jartzea, nahiz eta jakin zaila dela herritarrak erakartzea. Interes partikularretik herri ikuspegia izatera pasatzea prozesu zaila eta geldoa da.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Joko arauak ondo definitu behar direla prozesua abiatu aurretik. Zenbait kasutan marra hori oso fina dela uste dut eta edozein gauzari ezin diogu parte-hartze prozesua deitu. Gauza bat da informazioa ematea eta hori gizarteratze prozesu bat izan daiteke, baina benetan ez da parte-hartzea. Ondo definitu beharreko zerbait da.



# Lizartza

**AZALERA: 12,33 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 647\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Herritarrek eta Udala inoiz baino gertuago

Gizartea etengabe aldatuz doan honetan, Lizartzako Udalak, udal erabakietan herritarren parte-hartzea bermatzen jarraitze aldera, Udala eta herritarren arteko parte-hartze eta komunikazio kanal berriak irekitzeko lan egin zuen 2018an zehar, horretarako, hain zuzen, teknologia berriek eskaintzen dituzten erremintak erabiliaz.

2018-2019an zehar egindako lanketak, beraz, mugikorrekako aplikazio baten diseinua eta garapena izan zituen helburu nagusizat, horrenbestez, lanerako gune nagusia kontraturiko informatika enpresaren egoitza izan zen. Era berean, Udalak eta enpresak hainbat lan bilera egin zituzten udaletxean bertan, aipatu aplikazioa Lizartzako beharretara egokitzeko.

Aplikazioaren sorrera aurreikusi bezala izan zen. Enpresa sortzailearekin hainbat bilera egin ziren aplikazioaren diseinua eta erabilgarritasuna definitu eta zehazteko. Esperientzia oso positiboa izan zen eta etorkizunera begirako erronka, horren erabilera sustatzean ezarri zen.

Aplikazioa herritarrek udal jardunaren berri ezagutu ahal izateko diseinatu zen, baita, era berean, herritarrek Udalarekin harremantzeko ere, horretarako, bide desberdinak eskainiz: inkestak, kexak, iradokizunak. Aplikazioa euskaraz zein gaztelaniaz diseinatu zen, baina gaur egun ez dago erabilgarri.



## Iñaki Azpiroz

Lizartzako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea beharrezkoa da herritarrek nahi duten herri eredura gerturatzeko aukera gehiago ematen dizkigulako. Hau da, herritar desberdinen sentsibilitatea ezagututa, Udaletik ere hori aintzat hartuta lan egiten saiatzen gara eta horrek herritarrek nahi duten herria eraikitzen laguntzen digu. Lizartza halaber, herri txikia da eta gu herriko talde eragile ezberdinetatik gatoz. Horrek, nolabait, parte-hartze natural bat ere sortzen du, udaletxetik haratago, espazio eta egoera desberdinetan herritarrekin egoten garelako. Nire ustetan, kalean herritarrekin egotea parte hartzeko kanal oso zuzena da. Jendea ez da udaletxera etortzen baina kalean topo eginda bai hurbiltzen da gugana.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gure kasuan baietz esango nuke. Lizartzako biztanleak nahiko aktiboak dira eta asko inplikatu dira, orain arte behintzat, egindako auzolan edota prozesuetan, nolabait horren partaide sentitzen direlako. Eta hori ezinbestekoa da. Egia da parte gehiago hartzen dela beti erakundetik kanpoko ekintzetan, elkarteetatik bultzatutakoenetan, alegia. Baina gure kasuan, lehen aipatu bezala, gobernu kideok herriko talde eragile ezberdinetatik gatoz eta horrek erakundearen eta herritarren arteko muga hori apurtzen edo samurtzen laguntzen ari zaigu. Edozein kasutan, herritarrak parte-

hartzaileak direla azpimarratu behar dut. Udaletxeko atarian buzoi bat jarri dugu eta horren bitartez jasotako erantzuna izugarria izan da.

### **Nola lantzeko asmoa duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Zehar lerro bezala landu nahi dugu noski. Dagoeneko badugu herriko WhatsApp talde bat, Facebooka, Twitterra eta noski, udal webgunea eta horrekin, alor teknologikoa osatzen dugu. Horrez gain auzolanak ere egiten ditugu eta jarraipena emango diegu, alor desberdinetan, legegaldian zehar. Era berean, parte-hartzeko zutabe garrantzitsu bat eragileekin etengabeko harremanetan egotea dela iruditzen zait eta hori betetzen dugu, udal talde kideok herriko talde eragile desberdinetako kide garelako.

### **Aurreikusi al duzue dagoeneko parte-hartze prozesuren bat martxan jartzea? Ze hausnarketa edo behar konkretuetatik abiatuta? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Aurreikusita duguna da gu kalera irten eta herritarren iritzi, ideia eta proposamenak ezagutzea, nolabait erakundearen eta herritarren arteko muga hori ezabatuz. Eta horrez gain, enpresekin harremanetan jarri gara, haien nahi eta beharrak ere kontutan hartuz. Esfortzu handia egiten ari gara horretan, benetan muga horiek apurtu nahi ditugulako eta benetan sinesten dugulako, herritarrak entzunda, herria eta herritarren eta Udalaren arteko hartu-emana oso aberatsa izan daitekeela.

# Orendain

**AZALERA: 6,4 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 202\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Aurrekontu parte-hartzaileak

Orendain herritarrekin elkarlanean garatzen jarraitzeko, Orendaingo Udalak aurrekontuetako inbertsioetako atala herritarrei zabaltzen die, proposamenak egin ditzaten. Izan ere, parte-hartze programaren helburua da herria eta biztanleriaren arteko lotura sendotzea eta herritarrak udalgintzan inplikatzeko, herritartasun sentimendua indartzeko. Urtero, beraz, aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzen ditu herritarrei dirua zertan eta zertarako gastatzen duen azaltzeko eta baita noski, haien ekarpenak jasotzeko ere.

Horrela, 2018an aurrera eramandako prozesuaren helburua izan zen herritarren iritzi eta ekarpenak ezagutu eta jasotzea eta horiek aintzat hartzea udal aurrekontua osatzerako garaian. Bide batez, aurrekontuen egitura eta balioak edota Udalaren ahalmen eta ahuleziak ezagutarazteko ere aprobeztatu zuen Udalak herritarrei, alor horretan haien ezagutza zabaltze aldera.

Gauzak horrela, urteroko ohiturarekin jarraituaz, herritarrei aurrekontuen berri eman, aurreko urteetan partaidetza egitasmoaren bitartez ateratako proposamenak jaso eta Udalak egin eta bultzatu zituen beste ekintzak azaldu zituen.

Prozesuak herritarren harrera ona jaso zuen eta emaitzen ikuspegitik, positiboak izan ziren. Abenduaren 16an egin zen aurrekontuen inguruko saio irekia eta horretan 27 lagunek hartu zuten parte. Udaletik alkateak eta beste 3 langilek.

2018an egindako ekintzak (aurrekontu parte-hartzaileetan jasoak) ondorengoan dira:

- Ikastaroak: Yoga, josteko lantegia, adinekoen memoria tailerra, trikitia eta panderoa, ludoteka, zumba, egur zizelatzea, lehen sorospenak,

haurrentzako programak... Guztira 63 herritarrek eman zuten izena ikastaroetan 2018an zehar. Ikastaroak antolatzekeo garaian, galdeketa bat banatu zitzaion herritarrei haien behar edota nahiak ezagutzeko.

- Pizgarrien programa: kontzientziazio programa uraren, bertako produktuen, energiaren edota garraioaren kontsumoaren inguruan. Pizgarrien programan, halaber, esku-orri bat banatu zen etxez-etxe Udalaren planteamenduaren harira, gai bakoitzaren inguruko nahiak jasotzeko.
- Auzolana: zakarrak botatzeko etxolak margotu ziren. Auzolana burutzeko, etxez-etxekeo deialdia egin zen, etxola margotzeko ekintza hori koordinatzeko helburuz.
- Genero indarkeriaren inguruko panel informatiboa eta herriarentzako ekintzak azaroaren 25ean. Dantza saio herrikoia antolatu zen zumba ikastaroko emakume taldearekin. Panel informatiboa udal teknikariek osatu zuten.
- Euskara lan taldea Euskaraldia antolatzekeo lehen urrats gisa eta azaroaren 8an bildu zen lehen aldiz.

Prozesu horretan zehar, Udalak ezinbestekotzat jo zuen herritarrengana hurbiltzea, herrian egiten diren ekintzetan haien parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko. Orokorrean herritarrak erakarri bazituen ere, talde zailena gazteena izan zen. Horretarako, 10-22 urte bitarteko whatsapp taldea ere sortu zen, baina ekintza bakar batean hartu zuten parte, nahi baino gazte gutxiagok gainera. Era berean, ez zuten inolako proposamenik aurkeztu Udalean.



## Migel Angel Arsuaga

Orendaingo alkatea

**Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Udalerrria herritarrek osatzen dutenez, parte-hartzea garrantzitsua iruditzen zait herritarren iritzia jakitea beharrezkoa delako. Eta beraien iritzia jakin ahal izateko Orendaingo Udalak bere tresna eta baliabideak jarri behar ditu.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Orendainen parte-hartzea beti puntuala da, hurrengo urteko aurrekontuak aurkeztu eta bertan egin behar diren ekintzak jasotzen dira. Herritarrek beren ekarpena egiten dute, ahal bada hurrengo aurrekontuan txertatzeko.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte-hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Parte-hartzea bultzatzea zaila egiten da. Komunitatean behar kolektiboak ikustea zaila egiten da, norbanakoen beharrak bakarrik adierazten dira eta. Parte-hartzearen zailtasun nagusia, gaur eguneko bizimodua ere bada. Egunerokoan, norberak bere lana egiten jarduten du eguna eta denbora gutxi geratzen da komunitateko bizitza egiteko. Ondorioz, komunitateko bizitza egiteko ohitura galdu egin da, egunerokoan murgiltzen garelako. Ohitura areagotzeko, parte-hartzeari onurak ikusi beharko genizkioke eta orain obligazio

bezala sentitzen da. Eta ez gara gai onurak ikusteko. Horregatik zaila da parte-hartzea. Herritarrek parte-hartzeari onurak ikusteko hausnarketa asko egin beharra dago.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Orendainen prozesuari hasera eman zitzaion Aldundiak jarri zuen egitasmoari hasera emanez. Herritarrek bildu ahal izateko ekitaldiak jarri ziren.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Diseinuan zailtasunak topatzen dira, ez baitago diseinu bat idatzita guztientzako. Udalerrian dauden ohiturak, pertsonak eta joerak jakin ondoren diseinatu behar izan da.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Herritarrek ondo erantzuten dute. Hobetzeko asko egon arren, beraien ahalegina eskertzekoa da. Zaila da betebeharra bezala ikusi ordez, zerbait onuratsua ikustea.

**Zein ikasgai ateratu dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Parte-hartze lanetan egiteko asko dagoela. Beharrezkoena herritarren borondatea eta ikuspuntuak direla.



# Orexa

**AZALERA: 5,85 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 110\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

Orexan parte-hartzea  
sustatzeko teknologia  
berrien erabiltzea



Orexako Udalak, herritarren parte-hartzea sustatu eta horretarako bide berriak eskaintze aldera, 2018an zehar, Orexapp aplikazioa sortzeko prozesua abiarazi zuen.

Prozesua bi gune nagusitan banatuta landu zen. Aplikazioa bera, Udalean eta hori garatzearen arduradun zen enpresan burutu zen. Aplikazioaren aurkezpena eta formakuntza saioak, halaber, herri erabilera anitzeko gunean egin ziren, gainerako ohiko parte-hartze prozesu guztiak bezala.

Gauzak horrela, aplikazioaren diseinua udal politikari eta informatika enpresaren artean eman zen aurrera. Herritarrei zuzenduriko parte-hartze mekanismo desberdinak sortu ziren, mugikorra duten orexatar guztien eskura jarritz.

Aplikazioa erabiltzen ikas zezaten aurkezpen eta formakuntza saio desberdinak egin ziren. Zehazki bilera berezi bat egin zen herriko elkarte eta eragile nagusiekin (Orexa Bizirik kultur elkarte, Orexako ostatua, Ohian Txiki kooperatiba, herriko gazteak, jubilatuta elkarte..). Bilera horren helburu nagusia, aplikazioa erabiltzen irakasteaz gain, erreminta hori beraien elkarteetarako ere garrantzitsua eta erabilgarria izan zitekeela erakustea izan zen. Bestetik, norbanakoei zuzendutako beste saio bat ere egin zen eta bertan 17 herritarrek hartu zuten parte.

Herri batzar erabakitzaileek ere garrantzia izan zuten prozesuan zehar. Batzar horiek aspalditik egin ohi dira Orexan eta 2018an bi egin ziren. Jorrotutako gaiak ondorengoak izan ziren:

- Ulizargo pinudiaren egoera eta etorkizuneko ekintzak erabakitzea.
- PR-a doan herri bidean, izandako luiziaren aurrean, bidea berreskuratu eta bertan behera uztea.
- 2019ko aurrekontuei begira ostatuan egin beharrekoak zehaztea.

Bai Orexapp prozesuan zein herri batzar erabakitzaileetan, helburuen betetze maila erabatekoa izan zen. Aplikazioa sortu eta martxan jartzea lortu zen, herritarrei parte hartzeko bide berri bat eskainiz eta parte-hartze hori areagotzea lortuz. Horrez gain, aplikazioaren sorrerari esker, Udala eta herritarren arteko komunikazioa asko hobetu zen. Aplikazioaren bitartez Udalak inkestak, komunikazioak eta bestelako parte-hartze mekanismo berriak erabil ditzake eta herritarrek eta elkarteek komunikazio inizatiba ere har dezakete: proposamenak egin, kexak eta bestelakoak plazaratu...

Herri batzarrei dagokienean, herri batzar horietan erabakiak hartu ziren 2018an, erabakitzeko ahalmen hori bermatzen duen ordenantza bat baitu Orexako Udalak.

Prozesua, beraz, guztiz positiboa izan zen bi esparru horietan eta herritarren parte-hartzeak altua izaten duela erakutsi zuen, Orexan badela parte-hartzeko ohitura bat, alegia.



## Eneko Maioz

Orexako alkatea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Orexan orokorrean zortedunak izan gara. Garai batean 100 biztanletik behera ginen eta kontzeju ireki bezala funtzionatzen genuen. Lege-figura horren bitartez, herri batzarrak erabakitze ahalmena du, alegia, alkateak ez badu erabaki nahi, herri batzarrak egin dezake. Horrenbestez, Orexan betidanik egon da parte hartzeko ohitura hori. 2011n jada 100 biztanletik gora izatera heldu ginenean, lege-figura hori desagertu eta bost zinegotzitara pasa ginen, baina guk, parte-hartze ordenantza baten bitartez, lehengo sistema hori mantendu nahi izan genuen.

Beraz, zortea dugu 2011tik hona sistema bera mantendu dugulako eta herritarrek jada barneratuta dutelako erabakietan parte hartzeko dinamika hori. Horrek gainerako guztia errazten du.

Bestalde, herri txikia izanik, guztia parte-hartze prozesu bitartez egiten da, bestela ez bailitzake gauza askorik egingo. Parte-hartze bezala irudikatzen ditugu festak edo ekintzaren bat antolatzea, bideren bat garbitzea, obra bat egitea edo udaletxean bertan egotea. Guztia da parte-hartze ariketa bat.

Oraingo lana, beraz, ohitura horiek mantendu eta berritzea da.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Dudarik gabe zehar lerro gisa lantzen dugu. Azken finean, aurrez aipatutako historiko horretatik gatoz eta guztia auzolan gisa herritarrekin elkarlanean egiten saiatzen gara.

Beti ostiral iluntzean biltzen gara guztiak, 21:30ean, lehenengo kafea hartu eta ondoren bilera egiteko. Dagoeneko herritarrek mekanika hori barneratuta dute. Behin hori aldatzen saiatu ginen, baina herriak ez zuen nahi izan. Nik uste dut herritarrek erabakietan inplikatz gero errazagoa dela ondoren beren parte-hartzea eskatzea.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egiten zenuke joera hori areagotzeko?**

Gure kasuan ohitura handia dago parte hartzeko eta udaletxean lan egiten dugunoi asko errazten digu lana, sekulako babesa dugulako. Era berean badakigu aurrera eramaten diren proiektuak herritar guztion artean erabakitakoak direla eta horrek segurtasuna eta lasaitasuna ere ematen du.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Esan bezala, parte-hartzea Orexan oso barneratuta dagoen zerbait da. Ostiraletako bilerez gain, herriko WhatsApp talde bat ere badugu eta bertatik Udaleko mezu eta abisu ugari zabaltzen ditugu, baina horri lotuta, berrikuntza bide horretan mugikorrerako aplikazio bat izateko aukera sortu zitzaigun eta aukera ona iruditu zitzaigun parte-hartze dinamika horri "plus" bat emango ziolakoan.

Aplikazioa bere horretan parte-hartzean sakontzeko tresna bat gehiago bezala ulertu genuen guk eta oinarria, herritarrekin genuen informazio trukea azkartzea eta informazio guztia euskarri baten pean jasotzea zen, udal informazioa herritar gehiagori eta bereziki gazteei edo bileretara etorri ezin zutenei, helarazteko. Ildo horretan, aplikazioak herritarrekin hobeto komunikatzeko, Udalari abisuak pasatzeko eta informazioa partekatzeko aukera ematen zigun, herritarrek ondoren, nahi edo ahal zutenean kontsultatzeko aukera izan zezaten.

Horrez gain, aplikazioa udal tramiteak egin edota bestelako zerbitzu batzuk eskaintzeko aprobeztatu nahi dugu: frontoia erreserbatzeko, ostatuko informazioa jartzeko..

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Aplikazioa diseinatzeko orduan kanpo-enpresa batekin jarri ginen harremanetan eta jasotako planteamendua oso interesgarria egin zitzaigun. Behin oinarria diseinatuta, Orixako beharretara moldatzea izan zen hurrengo pausoa. Ildo horretan, herritarrei begira gure beharrak zeintzuk ziren azaldu genien enpresako kideei eta puntu horiek gehiago garatu genituen.

Orain aplikazioa jada amaituta dago, azken frogak egiten ari gara baita edukiak eguneratu eta txertatzen ere eta asmoa da ahal den epe motxenean herritarrei azaltzea eta beren artean erabilera zabaltzea. Zailtasunik ez nuke esango izan dugunik, gure ideia nahiko argi baikenuen. Edozein

kasutan, zailena aplikazioa bera martxan jartzea izaten ari da, eduki guztiak txertatu eta ondo lotzea luze jotzen ari delako.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Prozesua oso positiboa izan da. Aspaldian sumatu genuen komunikazio euskarri berri baten beharra baina ez genekien ondo nondik jo. Bilerek funtzionatzen zutela ikusten genuen eta ez genituen bertan behera utzi nahi, baina aldi berean, bileretara etorri ezin diren pertsona horiei edota jenerazio berriei heltzeko osagarri bat falta genuen eta aplikazioak behar horiek guztiak asetzen zituen.

Horrenbestez, oso gustura gaude prozesuak emandako emaitzekin. Herritarrei ere azaldu zaie zein den asmoa eta orain azken saltoa falta zaigu, baina ez dut uste inolako arazorik egongo denik, herritarrek jada interesa baitute aplikazioarekiko.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Oraindik martxan ez dagoen arren, gazte jendea erakartzeko bide bat izango denaren susmoa dugu. Momentu honetan Orixan gazte mordoak ditugu, 20 urtetik bera 33, hain zuzen ere, eta aplikazioaren bitartez beraiek ere udal informazioa eskuratuko dutelakoan gaude. Azken finean egindako lana sakontze ariketa bat izan da eta ariketa hori teknologia berriekin lotzea garrantzitsua iruditu zaigu.

# Tolosa

**AZALERA: 37,38 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 19.270\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Udal partaidetzaren egituraketa

Udal administrazioa, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik eta indarrean sartu diren azken legeetatik eratorritako betebeharrak eta erronkak tarteko (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa, besteak beste), paradigma aldaketa batean aurkitzen dira udal administrazioak. Paradigma aldaketa horren aurrean Tolosako Udalak bere burua birkokatu eta udal partaidetzaren egituraketan hasitako bidean falta zaizkion azken urratsak bete eta burutu behar zituen.

Bide horretan udal teknikari desberdinekin batera burutu beharreko ko-sorkuntzako prozesu estrategiko bat planteatu zen, udal kudeaketa etengabeko berrikuntza eta ikasketak gisa planteatzen duelako Tolosako Udalak. Horren baitan, sortu berria zen Komunitatea eta Gobernantza sail berriaren misioa eta baloreak zehazteaz gain, sailaren garapen markoa eta eginkizunak zehaztu ziren.

Ibilbide horretan, lehenbizi ordura arteko ibilbidearen bizi-historia eraiki zen elkarlanean. Izan ere, parte-hartzea, komunitatea, gardentasuna, zeharkakotasuna.. ez ziren erronka eta gai berriak Tolosako Udalean. Kontakizun horretatik abiatuta, beraz, etorkizunerako lagungarriak eta baliagarriak izan daitezkeen ikasketak ere identifikatu ziren. Behin sail berriaren misioa, baloreak eta eginkizunak

argituta, 2 barne prozeduraren lanketa partekatu burutu ziren:

1. Udal aurrekontuak: parte hartzea eta zeharkakotasuna txertatuz lantzeko prozedura.
2. Udal aurrekontu eta urteko planean jasotako ZEHARKAKO EGITASMO ESTRATEGIKOAK MODU PARTE-HARTZAILEAN gauzatzeko prozedura.

Hasiera batean 4 lan eremu aurreikusi ziren, baina behin proiektua abiatuta horietako bat bertan behera geratu zen: herritar eta eragileekin egin beharreko kontraste saioa, hain zuzen. Arrazoiak: udal barnera zein kanpora begira partaidetzaren egituraketa lantzea helburu nagusia bazen ere, proiektuaren bilakaerak berak agerian utzi zuen jorratutako gaien markoa berak ez zuela eskatzen kanpo kontraste hori egitea fase horretan.

Ondorioz, 3 lan eremu egon ziren:

- Udal teknikarien arteko gunea.
- Udal gobernuarekin kontrasterako gunea.
- Gainerako ordezkari politikoekin kontrastatzeko gunea.

Oso esperientzia aberasgarria izan zen, batetik, udal teknikari desberdinen artean lortu zen



konplizitate eta kohesio mailagatik eta, bestetik, departamentu berriaren eginbeharrak zeintzuk ziren eta egitekoak aurrera nola eraman gainerako udal teknikariei komunikatzeko moduari dagokionez, oso modu positiboan baloratu zelako egitasmo parte-hartzailea.

Egiazko ko-sorkuntzako prozesu bat izan zen, landutako prozedura desberdinei dagokionez bereziki.

Egindako ibilbideak ondorengo ahalbidetu zuen:

- Departamentuaren ardatzak diren gai edo arloetan, orain arte Tolosako Udalean egindako ibilbidea aitortu, eta aurrera begira mantendu beharreko elementuak identifikatzea.
- Aurrekoak kontuan hartuta, eta Udalaren egituraren beste sailekiko lotura eta hartu-emanen oinarrituta, departamentu berriaren funtsezko elementuak landu, partekatu eta adostea. Zehazki: xedea, baloreak, funtzioak eta egiteko nagusiak.
- Udal egitasmo desberdinen artean, gakoak ziren bi prozedura nagusien lanketa:
  - » Udal aurrekontuak: parte-hartzea eta zeharkakotasuna txertatuz lantzeko prozedura.
  - » Udal aurrekontu eta urteko planean jasotako ZEHARKAKO EGITASMO ESTRATEGIKOAK MODU PARTE-HARTZAILEAN gauzatzeko prozedura.

Azken bi horiek, sail desberdinen parte-hartzearekin eta adostasunarekin egindako prozesuak izan ziren.

Era berean, bereziki positiboki baloratu ziren ondorengo elementuak:

- Prozeduren egituraketa eta zehaztapena:
  - » Urratsak zehazteak ibilbide komuna bisualizatzen laguntzen du; eta horrekin batera eragile eta pertsona bakoitzaren rola, eginkizunak, epeak... argi ikusten ere. Hori guztia lagungarria da joko-eremua argi izateko, eta espektatibak eta lorpenak neurtzeko.
- Epe luzerako noranzkoa markatzea, plangintzan oinarrituta.
- Politikarien bultzada eta presentzia prozesu osoan zehar:
  - » Udal gobernua eta oposizioa presente egon ziren prozesuan zehar. Eta funtsezkotzat jo zen hausnarketa politikoa izatea abiapuntua.
- Ibilbidean zehar jasotako ekarpenei bere lekua ematea.
- Aurrekontuen prozeduran barneratu ziren saio sektorialak:
  - » Udaleko teknikarien eta ordezkari politikoaren eta herritarren eta herri-eragileen arteko hausnarketa eta lanketarako espazio egokiak dira.
  - » Gainera, pixkanaka txertatzen doaz udalaren funtzionamenduan eta herritarren imajinarioan.
- Interes publikoan eta orokorrean begirada jartzea:
  - » Tolosatzen plangintza estrategikoa, aurrekontuak eta zeharkako egitasmoak barne hartuz.



## Garikoitz Lekuona

Komunitatea eta gobernantza saileko teknikari arduraduna

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea ezinbesteko gauza bat da. Ez da erakundeek asmatutako zerbait, ez haien menpe dagoen zerbait ere. Gaur egun parte-hartzea instituzionalizatu egin da eta orain, badirudi, herri bat parte-hartzailea izan dadin erakundeek hori ahalbidetu eta sustatu behar dutela eta lortutako oihartzunaren arabera herri parte-hartzailearen izendapen hori lortzen duela ondoren.

Baina nik, pertsona bat izatez parte-hartzailea dela uste dut. Tolosa esaterako, herri parte-hartzailea da, herri bizia da eta bizia da, hein handi batean, herri ekimenez sortzen diren ekintza desberdinengatik. Parte-hartzea bizitzeko modu bat dela uste dut, komunitatean besteekin harremanetzeko eta partaide izateko modu bat, alegia.

Eta bide horretan, guk, administrazio bezala, eskuartean ditugun proiektuen baitan ahalik eta espazio desberdin gehien eskaintzen ditugu, proiektu horietan ere, elkarrizketaren bitartez, herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko eta egiten dugun hori aberasteko.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Parte-hartzea kanpora begirako gauza bat bezala soilik irudikatzen da askotan baina guk

barruan ere baditugu gure gabeziak. Udaletxe barruan egunerokotasuneko jarduneko gai edota proiektuak, proiektu konplexuagoak diren eta bereizi behar ditugu. Lehenak automatikoki egiten dira, baina besteak, aldiz, konplexuagoak dira, epe ertain-luzerakoak, estrategikoak, eraldaketa bat ahalbidetu nahi dutenak, alegia. Horietarako ezinbestekoa da barne komunikazio egoki bat izatea, barne parte-hartze hori ahalbidetzea, egitasmoa kalera atera aurretik begirada desberdinak batu dituzan, herritarrei proiektu osatuagoa eta aberatsagoa aurkezteko. Eta hori guztia, ezin da begirada jakin batetik soilik egin.

Horregatik, proiektuak modu antolatuan eta zeharkakotasun batekin lantzeko espazio bat sortzen hasi ginen eta gaur egun mantendu egiten dugu. Horri esker, lehen proiektu jakin batzuen gainean egiten genuena orain zerbait estrukturala bilakatu da. Bide horretan, agintaldi berri honetan Udalean antolaketa berri bat onartu da eta horrek departamentuen arteko barne komunikazio hobetua ahalbidetu du, besteak beste.

Prozesu hau, beraz, udaletxe barruan izan dugun garapen prozesua izan da. Kanpora begira Tolosatzen bezala ezagutu da, baina barrura begira gure ibilbidea ere egin dugu, kanpoan ondo egiteko ezinbestekoa baita barruan ondo egitea.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kosta egiten zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Nik uste dut herritarrek parte asko hartzen dutela. Zer dira, bestela, Tolosako inauteriak eragilerik gabe? Urteko agenda hartuko bagenu bertako ekintza mordera herri ekimenetik antolatutakoak direla konturatuko ginateke. Gero agian hori ez da behar bezala azaleratzen, baina lehen esan bezala, Tolosaren kasuan, oso herri parte-hartzailea da. Udaletxeak ezer egingo ez balu ere, Tolosak parte-hartzailea izaten jarraituko luke.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Barne hausnarketa horretan, forma antolatua eman nahi izan diogu lehen inertziatz edo borondatez egiten genuen horri. Orain batetik nondik abiatu garen eta non gauden balioan jarri dugu, egindako ibilbidea ikusarazteko, eta horrez gain, kanpora begira horrelako prozesuak modu antolatuan egiteko irizpideak definitu ditugu. Bi noranzko horietan landu dugu prozesua.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Barne bultzada bat izan zen, Komunitatea eta Gobernantza sailetik bultzatua. Babes politikoa ere izan dugu eta sintonia politiko-tekniko horretatik abiatuta egin dugu lanketa. Kanpo enpresa bat kontratatu genuen eta beraiek ezarritako metodologiari jarraitu genion.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Emaitza oso ona izan da. Tresna oso indartsua lortu dugula esango nuke eta guk definitu dugun metodologia hau beste hainbat udalerririk aintzat hartuko dutela uste dut.

Helburuak guztiz bete dira eta gure ideia erabat plasmatea lortu dugu. Orain praktikan jartzea tokatzen zaigu eta ziurrenik hobetzeko aukera ere izango dugula.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Ikasgaiak asko dira. Ez dago ezer ikasten ez dugun prozesurik. Herritarrak aldiro aldatzen dira eta horrek asko erakusten digu.

Edozein kasutan, ikasgairik nagusiena egon egin behar dela da. Hau da, egon, hitz egin... Probetxuzko zerbait eraikitzeke modu bakarra edo ezinbesteko baldintza elkar ezagutza da eta horrek jarrera aktibo bat eskatzen dizu, enpatia izatea, bestea aintzat hartzea, entzuteko eta besteak zer esaten duten ulertzeko ahalegina egitea, besteen beharrak ezagutu eta ulertzea...

Beti ikasten da zerbait, guk ikasten dugu eta herritarrek ere ikasten dute.





# UROLA KOSTA

Eskualde honen iparreko muga itsasoa da. Ekialdean Donostialdearekin eta Tolosaldearekin egiten du muga; hegoaldean Goierriarekin; eta mendebaldean Deba Garai eta Beherearekin. Guztira 327,2 km<sup>2</sup>-ko lur eremua dauka, hau da, Gipuzkoakoaren %16,5 eta bi ibaiak zeharkatzen dute, Urola ibaiak eta Oriá ibaiak. Hamaika udalek osatzen dute eskualde hau. Zarautz eta Azpeitia dira hirigunerik garrantzitsuenak. Zarautzen eraginpean daude itsasaldeko herriak: Aizarnazabal, Aia, Zumaia, Getaria eta Orió; azken herri hori oso lotua dago Donostiari. Azpeitiak bere eraginpean ditu barrualdeko herriak: Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizama.



Komunikazioak, W-E norabidean, errepide hauen bitartez egiten dira: A-8 (Bilbao-Behobia) autobidea; N-634 kostaldeko errepidea; eta Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Errezil eta Tolosa lotzen dituen GI-2634 errepidea. Bestalde, norabide berean, Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen bide estuko trenbidea dago. Urolako arroarekin lotura GI-631 errepidearen bitartez egiten, da (Zumaiaitik Zumarragaraino doana), eta Goierriarekin berriz GI-2635 errepidearen bitartez (Azpeititik Beasainerraino doana). Urolako trenbidea azken errepide horren albotz albo zihonan, baina urte luzeen ondoren 80ko hamarkadan zerbitzua kendu eta trenbidea deuseztatu zuten. Azpeitiko geltoki zaharrak Trenbidearen Euskal Museoa gordetzen du egun.

Zerbitzuen sektoreak eta industriak dute pisu gehien, baina lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka hemen; bereziki herri txiki batzuetan: Getarian, Aian, Beizaman, Errezilen eta Orion. Getarian eta Orion arrantzak duen pisuak eragin handia izan dezake lehen sektore horretan hainbeste langile izateko. Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira kostaldean, batez ere Zarauzko hondartzaren eta Zestoako bainuetxearen inguruan. Oporretako bigarren etxeak eta udaldiko alokairuzkoak ugariak dira Zarautzen. Azpeitia epai barrutiko burua da; barruti horretan eskualdeko herri guztiak, eta orobat ere Tolosaldeko Bidegoian sartzen dira.



# Aizarnazabal

**AZALERA: 6,55 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 763 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Nolako herriko plaza

Herri guztiek edo ia gehienek, handi zein txikiek, dute Herriko plaza deituriko gunea. Herriko plaza bezala ezagutzen dugu herri bakoitzeko erdigunea, herriaren bihotza eta hain zuzen plaza hori izan ohi da herritarren topagune nagusia, bereziki herri txikietan.

Aizarnazabalek ere badu, noski, bere Herriko plaza. Plaza bitxia gainera. Bertan nahasturik daude gaur egun udaletxea, frontoia, probalekua, eliza, eta horrekin batera, baita ibilgailuen eta oinezkoen joan etorriak ere. Elementu horiek guztiek plazaren benetako erabilera lausotzen dute eta ildo horretan, Udalaren nahia da horiek kudeatu eta birbideratzea, Herriko plazari izaera eta bizi berri bat emateko.

Helburu horrekin abiarazi zuen, bada, 2018an, Nolako Herriko plaza parte-hartze prozesua, herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko plazak izan beharreko ezaugarriak adostu eta horien baitan proiektu teknikoa idatzi ahal izateko.

Herritarrak dira espazio horren erabiltzaile nagusiak eta herritarrek izan behar dute, beraz,



espazio horri emango zaion erabilera berria erabakitzen dutenak. Plazaren birmoldaketak aldaketa handia eragingo du herrian eta horregatik, Udalak herritarrak egin nahi ditu aldaketa horren protagonista nagusiak.

Parte-hartze prozesuaren helburua, beraz, hori izan da: herritarren iritziak eta ekarpenak entzun, jaso eta horiek bilduta, plazaren egitura berria erabakiko duen diseinu lehiaketa abiarazteko oinarriak finkatzea.

### **Metodologia**

Prozesuaren baitan hiru saio ireki egin dira, maiatzean, ekainean eta uztailan hurrenez hurren. Guztira 61 lagunek hartu dute parte horietan, 35 gizona eta 26 emakume, hain zuzen. Interes talde ezberdineko pertsonak izan dira horiek (ikastolako zuzendaria, ostalaritza edota industrialdeko ordezkariak..) eta guztien artean talde anitza osatu da.

Lehen bi saioetan, plazaren egungo egoeraren eta elementuen diagnosi sakona egin da eta

elementu horiei zein bizi eman erabakitzeko ideiak eta ekarpenak bildu dira. Hirugarren eta azken saioan, aurreko bietan hitz egindako guztia amankomunean jarri eta ondorio zuzen batzuk atera dira.

Ondorengo urratsen artean, Udalak proiektu teknikoa idatziko du jasotako ekarpen eta ideietan oinarrituta eta proiektu horrek etorkizuneko Aizarnazabalgo Herriko plazak izan beharko dituen ezaugarri nagusiak jasoko ditu. Ondoren diseinu lehiaketa abiaraziko du eta jasotako proposamenekin erakusketa bat egingo du herrian, Aizarnazabalgo bizilagunak aukera dezaten gustukoaren duten plaza eredua.



## Patxi Gaztaminza

Udal arkitektoa

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Parte-hartzea ezinbestekoa iruditzen zait herri txiki zein handietan, are gehiago hartu beharreko erabakiak bereziki garrantzitsuak direnean. Erabaki zuzenak hartzeko ezinbestekoa da guztiek parte hartzea. Herri oso txikietan, gainera, batzuetan ez daude legeak edota kodeak ere, orduan, parte-hartzea bereziki beharrezkoa bilakatzen da, komunitateak proiektua bereganatzen ez badu ez delako aurrera aterako. Aizarnazabalen kasuan, adibidez, herriko espazio publiko nagusiaren inguruan erabaki garrantzitsuak hartu behar zirelako jarri zen martxan parte-hartze prozesu hau. Erabaki hori ez genuen soilik udal teknikarien irizpideen baitan hartu nahi, herritarren iritzia eta ekarpenak ere ezagutu eta jaso nahi genituen. Azken finean, espazio hori herritarrena da herritarrek erabiliko dute eta horregatik ezinbestekoa iruditu zitzaigun proposamenak biltzea.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Kontutan izan behar dugu Aizarnazabal oso herri txikia dela eta hori horrela izanik, herritarren eta Udalaren arteko harremana etengabekoa dela. Hau da, ezin dugu esan parte-hartzea etengabeko zerbait denik, baina

bai herritarrekin dugun hartu-emanan. Erabaki handi edo garrantzitsuak hartu behar direnean, ordea, prozesu parte-hartzaileak zabaltzen dira, horrela egin da esate baterako Plan Orokorren lanketarekin eta azkena, 2018an, Herriko Plazarekin. Azken hau birmoldatu egin nahi dugu eta emaitza herriak bereganatzea nahi dugu.

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Oraindik kostatzen zaigu parte hartzea, bereziki leku edota herri txikietan. Azken finean, bakoitzak bere interesen baitan ematen du iritzia eta kasu horietan Udalaren zein udal ordezkarien lana da interes publiko edota kolektiboa interes pertsonalen aurretik jartzea. Horrelako bileretara, gainera, normalean beti pertsona berdinak hurbiltzen dira. Guk Udaletik herriko eragile ezberdinak identifikatzen baditugu ere (eskolako zuzendaria, industrialdeko ordezkari bat, ostalarien sektoretik beste pertsona bat...) normalean, sektore horietatik etorri ohi diren pertsonak beti berdinak izaten dira. Hori ikusirik, "Nolako Herriko plaza" prozesu honetan, herriak benetan zer nahi zuen jakiteko, azken saioan, amaierako zatian, Herriko Plazara joan eta bertan tragoxka bat hartu eta nolabaiteko eztabaida sortu genuen. Horrela, bileran izan ziren herritarrez haratago, lagun gehiago ere gerturatu zen bere iritzia ematea, sarritan, gela itxi batean hitz egitera ausartzen ez direnak.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Zein helbururekin abiarazi duzue?**

Aizarnazabalgo Herriko plaza oso arraroa da, osagarri ugari baitaude nahastuta: kotxeak, frontoia, probalekua, bi zuhaitz nahiko itsustuta eta noski, oinezkoen joan-etorria. Ez da ohizko plaza bat eta eztabaida hain zuzen hori zen, nola edo zer egin puntu horiek guztiak kudeatu eta bideratu.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu duzue bidean?**

Prozesua bere horretan ez dago amaituta oraindik. 2018an zehar hiru saio egin genituen, lehen biak diagnosi edo arazoaren planteamendua egiteko eta azkena ondorioak ateratzeko. Orain, jasotako ekarpen eta ondorio horiekin, plazako diseinu lehiaketa abiarazteko pleguak lantzen ari gara, plazak izan beharko dituen ezaugarriak jasotzen dituzten pleguak, alegia. Behin martxan jartzean, jasotako diseinuekin erakusketa bat egingo da eta herritarrek bozkatzen dutena izango da aurrera eramango den proiektua.

**Zer moduz joan da prozesua? Parte hartzearen eta helburuen betetze maila espero bezalakoak izan al dira?**

Lehen esan bezala, horrelako prozesuetan jendea erakartzea da gehien kostatzen dena, baina kasu

honetan azken saioan Herriko plazara joan eta eztabaida bertatik jarraitzeak asko lagundu zuen. Gela itxi batean ez da gauza bera. Kanean naturalki ateratzen dira interakzio horiek. Eta bertan egonda gainera, gauzak hobeto ikusten dira. Parte-hartze prozesuan zehar, gainera, iritzi desberdinak egon ziren eta ondoren kanean, nonahi hitz egiten zuten herritarrek horren inguruan. Hau da, bileraz haratago, ahoz aho ere zabaldu zen eztabaida, horrenbestez, parte-hartzea baliagarria izan da erabat. Jende gehiago etortzea gustatuko litzaiguke arren, prozesua erabat positiboa eta aberasgarria izan da.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki honetatik?**

Ikusirik kalera aterata parte-hartzea errazagoa eta jendetsuagoa dela, herritarrek Udalera erakarri ordez, Udala herritarrengana hurbildu dugu. Parte-hartze prozesu honetan ikusi eta ikasitakoarekin, orain, auzo bilerak auzoetan bertan egiten hasi gara. Orain arte toki itxi batean egiten ziren (Lauburun) eta gehienez pertsona bat etortzen zen. Aldaketa horrekin, ordea, emaitzak asko hobetu dira eta 10-15 bat lagun animatu dira. Herritarrek asko eskertu dute bertara joatea. Horrez gain, noski, argi dugu aldaketa handia zein txikia suposatuko duen proiektu bat egin nahi dugunean, aberasgarria dela herritarren iritziak entzun eta ekarpenak jasotzea, herritarrek ere horrela proiektu hori bereganatu dezaten.

# Azpeitia

**AZALERA: 69,4 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 15.055 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

Soreasuko kulturgintza eta artegintza sormen gunearen erabilerarako baldintzen erregulazioa eta lan dinamikak zehazteko parte-hartze prozesua

Sormena beti izan da Azpeitiko Kultur Mahaiaren lan ildoetako bat. 2013ko batzarrean aipatu zen sormen gune baten beharra, herrian dagoen kultur mugimendu bizia elikatzen jarraitzeko. Orduz geroztik, Kultur Mahaiak eta Azpeitiko Udalak sormen gune hori burutzeko urratsak eman zituzten elkarlanean eta behin proiektua onartu eta eraberritze lanak hasita, eguneroko martxarako oinarriak finkatzeko premia sortu zen.

Eta hain zuzen premia horretatik abiatuta, oinarri horiek finkatzeko abiatu zuen Udalak 2018an parte-hartze prozesua.

Aipatu prozesua prozesu zabal eta inklusiboa izan zen, ondo diseinaturikoa eta emaitzak eman zituena, alegia. Herritarren parte-hartzea zabala izan zen, norbanakoez gain, gizarte eragile eta talde desberdinek hartu zuten parte eta guztien iritzi, ideia eta ekarpenak jaso ahal izan ziren.

Hain zuzen 52 eragile desberdinek hartu zuten parte egindako saio irekietan eta guztiek azaldu zuten jarrera proaktibo eta positiboa.

Egindako lanketari esker, sormen gunearen izaera osatu eta etorkizuneko norabidea marrazteko oinarriko ezaugarriak definitu eta finkatu ziren. Honakoak lirateke ezaugarri horiek:

1. Anitza eta askea. Sormen askatasuna bermatuko da bertan.
2. Irekia. Sormen diziplina, espresio eta adierazpen orori bide emango dion proiektua da.
3. Parte-hartzean oinarritua. Sortzaileak eurak eragile. Sormena jardun indibiduala zein kolektiboa da.
4. Denona. Sormen gunea lanerako lekua da. Proiektuak eta jardunak definituko dute espazioaren izaera eta erabilera.
5. Dinamikoa. Denbora tarte baterako utziko dira lekua eta baliabideak, erabiltzaile eta proiektu berriei bide emateko zirkulazioa kontuan izanez.
6. Zabala. Errespetua oinarri hartuta, denontzako lekua izango da.
7. Euskalduna. Beste hizkuntzak aintzat hartuta, euskara izango da ardatz.
8. Euskal Herrikoa. Herrikoak eta eskualdekoak lehentasun, Euskal Herrira begira.
9. Mundukoa. Bertatik abiatuz mundura, mundutik abiatuz bertara.
10. Belaunaldi artekoa. Transmisioa sustatu eta bermatuko da bertan.
11. Jakintza trukerako. Hartu eta emateko lekua izango da, partekatzekoa.



Horretaz haratago, sormen gunearen funtzionamendu arauak, espazioen izaera eta erabilera (ordutegia...), kudeaketa ereduak eta eskaintza ere definitu ziren, besteak beste, parte-hartze prozesuan.

Amaitzeko, sormen gunearen izena eta izana ere finkatu ziren. Kasu honetan, 2018eko apirilean egindako "Sormena zertarako?" jardunaldien baitan, sortzaile gonbidatuek sormen gunearak izan beharko lukeen izenez galdetu zuten behin eta berriz.

Ildo horretan, "Soreasuko sormen gunea" izenak zailtasunak besterik ez zekartzan. Soreasu izenak

nahasmena sortzen zuen, jada badira eta izen berdina duten auzoa, aparkalekua, antzokia... herrian. Horregatik, DINAMOA hitza egokiagozat jo zen. Hitz garbia eta bakana zen! Euskal herria osoan ez dago besterik eta ez ahaztu sormenaz ari garela: izena, irudia, estetika...dena da bat: marka. Eta marka egiteko, Dinamoia sormen gunea jo zen egokientzat.

Dinamoia sormen gunearak, horrela, arte eszeniko, hitz, irudia eta soinu proiektu estrategikoak biltzen ditu eta horren baitan, sormena mugagabea izan daiteke.

**DINAMOA**



**SOREASUKO SORMEN GUNEA**





# Getaria

**AZALERA: 10,6 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 2.846\***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Parte- hartze ordenantza landu

Bi arrazoi nagusi zirela medio jarri zuen Udalak parte-hartze prozesu hau martxan.

1. Udal-gobernuan zegoen taldeak hauteskunde-programan agindutakoa betetzea.
2. Getariako herritarrek, aurrerantzean, parte-hartzea gauzatzeko tresna egonkor bat izatea. Hau da, etorkizunean abian jarriko diren prozesuetarako bermeak eta gutxieneko baldintzak zehaztu nahi izan ziren, adostasunez eta kontsentsuz.

Parte-hartzeko prozesu honen bidez, irizpide argiak jartzea zen asmoa, besteak beste, zehaztasun faltak sarritan eragin ditzakeen arazoei aurre hartzeko eta herritarren parte-hartzea ahalik eta ondoren bideratzeko.


Prozesu horren helburua, horrenbestez, argia zen: Getariako errealitatera egokitutako ordenantza sortzea, eta, noski, ordenantza hori herritarrekin elkarlanean garatzea.

Horretarako, Udalak, Emun aholkularitzaren zuzendaritzapean, bi saio ireki antolatu zituen. Lehena maiatzaren 22an izan zen, arratsaldeko 19:00etan Alondegian eta, bertan, prozesuaren nondik norakoak azaltzeaz haratago, lanketa horren lehen urratsak egin ziren.

Bigarren saioa, berriz, ekainaren 19an izan zen eta saio horretan finkatu ziren aurrerantzean herritarren parte-hartzea arautuko duten irizpide eta ildo nagusiak.



## Ibilbide orria



Ibilbide orri horren baitan, esan bezala, bi saio ireki planteatu ziren eta horien aurretik, prestaketa lanak egitea ere aurreikusi zen.

Lehen saioaren plangintzari jarraiki, aurkezpenak egin ondoren, eta herritarren espektatibak jaso ondoren, gaien sakontzen hasteko girotze ariketa bat egin zen. Horren baitan, besteak beste, herritarren partaidetza arloko usteak, zalantzak, galderak eta antzerakoak jaso ziren eta ondoren, herritarren partaidetza zer den eta udal batek herritarren partaidetza ahalbidetzeko daukan bideak azaltzen dituen azalpen bideo bat jarri zitzaion.

Bideoa aztertu ondoren, aurreko ariketako ekarpenak berreskuratu eta horiek udal ordenantza batek izan ditzakeen atalen arabera sailkatu ziren. Modu honetan, ordenantza izango denaren lehen bizkarrezurra osatzen joan ziren.



Saioarekin amaitzeko, Getariako parte-hartzeari buruzko ordenantzak bilduko dituen printzipioak adosteko saioa egin zen. Hauek izan ziren talde mailan adostu diren printzipioak:

- Integrala: Herriaren kohesiorako balio behar du. Ez banatzeko.
- Errealitatera egokitu behar da.
- Berdintasuna (aniztasuna, adina, jatorria, genero berdintasuna, ikuspegi osoa...).
- Lankidetzeta.
- Eraginkortasuna - Praktikoak, legitimoak, emaitzak, errealitateak.

Prozesuaren bigarren saioarako, talde motorrak lanketa bat egin zuen lehen saioko ekarpenak kontuan hartuta zirriborroa ahalik eta gehien aurreratzeko.



Gauzak horrela, bigarren saioan, ordenantza zirriborroaren azalpena egin zen. Erakusketa moduan jarri ziren ordenantzaren puntu guztiak eta horiek azaldu ziren.

Horrekin batera, aurreko saioan egin ziren zenbait eskaerei erantzuna emateko asmoz, herritarren parte hartzeko aukerak eta bideak azaltzen zituen esku-orri txiki bat banatu zitzaion parte-hartzaileei.

Zirriborroa irakurri ostean eta bakoitzak hausnarketarako tartea izan ondoren, talde eztabaida egin zen, ordenantzaren inguruko galderak eta iradokizunak jasotzeko. Amaitzeko, lehen saioan adostutako printzipioak birplanteatu ziren eta parte-hartzaileak horiek mantentzearen alde egin zuten.

Horrekin guztiarekin, Egun aholkularitza sistemak txosten bat eta ordenantza zirriborroa landu eta aurkeztu zion Udalari. Orain, Udalaren lana da ordenantza zirriborro hori lantzea eta ohiko prozesua jarraituz aurrera eramatea.

# Getaria Gertu APP-a

Egungo gizartea etengabean aldatzen ari dela jakinik eta eraldaketa horretan, komunikazio bideak eta komunikatzeko moduak ere aldatzen ari direla ikusita, Getariako Udalak, herritarren eta Udalaren arteko harremana sendotu eta gerturatzeko tresna berria sortzeko premia antzeman zuen.

Premia horretatik abiatuta, hain zuzen, sortu zen Getaria Gertu mugikorreko App-a. Kostu txikiko zerbitzua da eta herritarren eta Udalaren arteko komunikazio bide berri bat zabaldu du, herritarrei parte hartzeko kanal berri bat ere eskainiaz.

Gauzak horrela, Getaria Gertu App-aren bitartez, herritarrek udal informazio guztia poltsikoak izateko aukera dute, besteak beste:

- Albisteak
- Iradokizunak
- Tramiteak
- Erreserbak
- Agenda
- Dokumentu publikoak
- Intzidentziak
- Herriko ostatu, saltoki eta elkarten inguruko informazioa
- Garraioa
- Farmaziak

Prozesua barne bileren bitartez eraman zen aurrera eta uneoro, herriaren eta herritarren behar eta lehentasunak izan ziren kontutan, App-a Getariako errealitatera egokitu zedin.



## Ibon Gereka

Parte-hartze zinegotzia

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Guretzat parte-hartzea udal ekintzaren zutabetako bat da. Dagoeneko hirugarren legealdia dugu Udalean eta legealdiz legealdi urratsak eginez jarraitzen dugu. Gure kasuan, aurrekontu parte-hartzaileekin ekin genion parte-hartzeari eta ondoren urratsak egin genituen ordenantzak egiterakoan, hala nola, terrazak, aparkalekuak.. Araudi horiek guztiek egiteko herritarren nahiak eta beharrak identifikatzea ezinbestekotzat jotzen dugu eta horregatik haiengana jotzen dugu. Horrelako prozesuetatik irizpide orokor batzuk ateratzen ditugu eta ondoren Udal gisa irizpide horiek errespetatzen ditugu. Zergatik? Parte-hartzea sustatzeko ezinbestekoa delako parte-hartze prozesuetatik ateratzen diren proposamen zein erabakiak gauzatzea.

Baina parte-hartzea gardentasunarekin ere lotzen dugu. Ildo horretan, Udalak informazio garbia eta heldu erraza eman behar du eta horretarako, herriko medioez haratago, urtean lau aldiz, "Udala informatzen" deituriko prozesua egiten dugu. Horietan gaitegi bat zabaltzen dugu informazioa emateko eta herritarren galdera edota zalantzak erantzuteko.

Parte-hartzean beraz, pixkanaka, eraikitzen jarraitzen dugu, betiere benetan garrantzitsuak diren gaitetan.

Oraindik ez dugu parte-hartze ordenantzarik, Getarian praktikatik hasi baikin. Orain, urte hauetako esperientziarekin, ordenantza osatuko dugu eta bertan definituko dira parte hartzeko dauden kanal eta medio desberdinak.

**Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Udaleko sail guztietan parte-hartzea txertatuta dago. Horretarako dugu parte-hartze zinegotzia, ni neu, alegia, eta aurrera eraman behar den edozein prozesuetan, parte-hartzeari dagokionez egin daitekeen guztia aztertzen dugu, beharrezkoa den kasuetan martxan jarritz.

**Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gaiak herritarrentzat interesgarria izan behar du. Hau da, gaiak zuzenean eragiten badie, parte hartzen dute. Baina Udalak parte-hartzea ere indartu beharra dauka. Eta horretarako, erantzun egin behar du. Prozesuan hartutako erabakiak edo irizpideak bete egin behar dira eta horrez gain, herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten bermatu, kanal edo medio desberdinen bitartez.

**Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Udal webgunea zaharkituta zegoen eta berri egin behar genuela aprobetxatuz, eraginkortasunari begira, App-a behar genuela sumatu genuen. Hausnarketa prozesu horretan geundela, eskaintza bat jaso genuen eta ikusi genuen, proposamen horrek guk genituen gabezia asko gainditzen lagunduko zigula, aukera asko ematen baitzizkigun. Helburua da bide bikoitzeko komunikazioa, hau

da, Udala-herritarra eta herritarra-Udala, erraztea eta horretarako primerako tresna iruditzen zaigu. Horrek ez ditu gainerako kanalak ezabatzen, osagarri bat da.

**Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Esan bezala, komunikazio hori hobetzeko zer egin hausnartzen ari ginela, kanpo enpresa baten eskaintza jaso genuen. Herriko Facebook-ak duen funtzionamendu ona ikusirik eta APP-ak gabeziei aurre egiteko aukerak eskaintzen zizkigula aintzat hartuta, aurrera egitea erabaki genuen. Ondoren, App-a Getariako beharretara egokitu genuen. App-an ofiziala ez den guztia sartu dugu: agenda, abisuak, dokumentu publikoak... eta ondoren, beste maila batekoak direnak gehitu egin dizkiogu: tramiteak, erreserbak, intzidentziak...

**Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Udala makal xamar joan da. Azken finean, egunerokotasunak jan egiten gaitu, baina urte amaierarako prest izango dugu. Edozein kasutan, autokritika moduan hori da aipatu beharrezkoa, denboran asko luzatu dela.

**Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Prozesutik konkretuki ez dugu ikasgaririk atera, baina App-aren erabilgarritasunari dagokionez, hemendik hiru hilabetera izango dugu.

# Zestoa

**AZALERA: 43.7 km<sup>2</sup> | BIZTANLEAK: 3.833 \***

\*Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika 2019 urteko urtarrilaren 1ean

## Zestoa herri hezitzailea

Zestoa Herri Hezitzailea prozesuaren helburua udal langileen eta herriko eragileen arteko koordinazioa sistematizatzea zen, horretarako proiektu amankomunak identifikatuz eta garatuz.

Bide horretan, 2018an bi ekintza burutu ziren:

1. Zestoako eskola txikiko patioa herriko gurasoekin auzolanean garbitu, txukundu eta margotu.
2. Festetako haurren programazioa haurrekin diseinatu.

"Herri hezitzailea" prozesuko auzolana lau larunbatetan burutu zen eta 40 gurasok hartu zuten parte. Egindako lanari esker, oso utzita zegoen eremu bat txukuntzea lortu zen, baita haur txikien gurasoengana Gaztelekuaren zerbitzua hurbiltzea eta nolabaiteko harreman sarea sortzea ere. Era berean, egitasmo horren bitartez, guraso etorkinen parte-hartzea ere sustatu zen.

Festei dagokienean, haurrei zuzenduriko ekintzak haurren iritzia kontutan hartuta antolatu ziren eta



uztaileko udaleku irekietan 3 egunen programazioa ere haurrek diseinatu zuten.

Prozesua emankorra izan zen eta bi helburu nagusi lortu ziren:

1. Zestoako Herri Hezitzailea egitasmoa herritar gehiagok ezagutzea.
2. Udaleko hirigintza eta ingurumen sailekin haurren espazioak egokitzeko elkarlanerako lehen urratsak ematea.

# Gaztelekuko erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea

Zestoako Udalaren helburu nagusietako bat da herritar aktiboak eta parte-hartzaileak lortzea eta horretarako, lanketa berezia egiten ari da haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroan, parte-hartzea txikitatik sustatzen hasteko.

Bide horretan, Zestoako Gaztelekua helburu hori lortzeko herriko espaziorik garrantzitsuena da, bertan biltzen baitira Zestoako haur, nerabe zein gazteak.



Hori horrela izanik, Gaztelekuko erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko prozesua abiarazi zuen Udalak 2018an, besteak beste, ondorengo helburuak lortzeko:

- Haur eta nerabeen proposamenak jaso eta erraztea.
- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea.
- Harremanak sortu eta sendotzea
- Adinean aurrera doazen bezala ardurak handitzea.
- Herri sentimendua landu eta handitzea.

Prozesu hori urtarrila eta ekaina eta iraila eta martxoa bitartean burutu zen eta denbora horretan, erabiltzaileen proposamenak aintzat hartuta urteko egitarau bat osatu ahal izan zen, taillerez, eskulanez, jolasez, herri mailako ekimenez... osatutako egitaraua, alegia.



Egitarau hori osatu ahal izateko lan saio desberdinak egin ziren haur, nerabe zein gazteekin, adin multzotan banatuta. Saio horietan izandako parte-hartzea altua izan zen eta ekintza gehienak nerabeek proposatutakoak izan zirenez, inplikazio altua izan zuten prozesuan.

## HAPOaren diseinua

Era berean, herriko haur, nerabe eta gazteen iritzia kontutan hartu zen HAPOaren diseinurako eta horretarako 3 parte-hartze saio egin ziren adin multzotan banatuta. Saio horietan, guztiek erakutsi zuten gaiarekiko interesa eta seriotasuna eta herri mailako gaietan zer esana badutela.





## Leire Otaegi

Gazteria dinamizatzailea

### **Zer da zuretzat parte-hartzea? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua herritarren parte-hartzea sustatzea?**

Gaztelekuan gazteriaren parte-hartzea ikasketa prozesu bat bezala irudikatzen dugu. Herritar aktiboak eta parte-hartzaileak ditugu helburu eta horretarako beren haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroan parte hartzen ikastea da lortu nahi duguna. Hau da, beraiek beren iritzia ematen trebatzea, iritzi hori herri mailan interesgarria izan daitekeela sinestea, alegia.

### **Nola lantzen duzue parte-hartzea Udalean, ekintza puntual gisa edo zehar lerro bezala Udaleko jardunean oro har?**

Udal mailan ekintza puntual gisa lantzen den zerbait dela uste dut baina Gaztelekuan etengabe lantzen dela esango nuke. Esate baterako, urtero ikasturtea haurren proposamenak jasotzen hasten dugu, urtean zehar zein ekintza egin nahi dituzten jakiteko. Horregatik, Gaztelekura datozenek jada barneratuta dute iritzi emate hori eta sarritan beraiengandik ere ateratzen dira proposamenak, guk eskatu behar izan gabe: Gabonetan, inauterietan...

### **Uste duzu herritarrek nahikoa parte-hartzen dutela edo oraindik ere kostatzen zaigu parte hartzea? Zer egingo zenuke joera hori areagotzeko?**

Gaztelekuari dagokionez, begirada atzera botaz gero, duela bost urte baino errazagoa egiten zaie haurrei orain beren iritzia eman edo proposamenak egitea. Ildo horretan, trebatzen

hasiak direla esan genezake, Gaztelekuaz haratago, eskolan ere parte-hartze maila areagotu egin delako.

Dena den, herri mailan, herritar aktiboak lortzeko lankeeta handiagoa eta sakonagoa egin behar dela uste dut.

### **Zein hausnarketa edo behar konkretuetatik sortu da parte-hartze prozesu hau? Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Gipuzkoako Gazteleku sarean parte hartzen dugun kide ezberdinek herritar aktiboak lortze aldera, haur, gazte eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko premia nabari genuen eta behar horretatik abiatuta, gaur egun Gipuzkoako Gazteleku askotan gaude jada haur eta nerabeen proposamenak, ideiak edota iritziak jasotzen.

"Herri hezitzailea" prozesuaren bitartez, Gaztelekuaz haratago, haurren parte-hartzea herri mailan sustatu nahi izan genuen eta nolabait, prozesu horretan, haurren heziketan parte hartzen duten beste eragile batzuk ere inplikatu nahi izan genituen, kasu honetan gurasoak. Horretarako lan talde bat sortu zen herritarrekin, Guraso Elkartearekin eta Gaztelekuarekin eta esperientzia batzuk martxan jartzen hasi ginen; horietako bat iraileko festen haurren programazioarena.

Horrekin batera, "Herri hezitzailea" prozesuan, Eskola Txikiko patioa gurasoekin auzolanean konpondu genuen. nolabait gurasoen inplikazio hori sustatzeko.

### **Nola diseinatu eta gauzatu duzue prozesua? Zailtasunik aurkitu al duzue bidean?**

Gaztelekuan ez dira haur guztiak batera etortzen, beraz, bilera bat planteatzea ez da eraginkorra. Horregatik, paretan kartulina batzuk jartzen ditugu (proposamenen txokoa) eta hurrek proposamenak idazten dituzte bertan. Ondoren, gehien errepikatzen diren ekintzak egutegi batean irudikatzen ditugu eta hurrek, gometxen bidez, ikasturtean zehar zein momentutan egin nahi dituzten adierazten dute. Behin hori guztia eginda, programazioa Gaztelektik osatzen dugu.

"Herri hezitzailea" prozesuko auzolana, aldiz, lau larunbatetan burutu genuen. Lehenbizi eskuorri bat prestatu genuen eskoletan banatu eta hurrek etxera eraman zezaten. Bertan gure asmoak azaldu eta boluntario gisa parte hartzeko fitxa jaso genituen. Izena eman zuten artean WhatsApp talde bat sortu genuen eta lehen bilera batera deitu genituen guztiak prozesuko azalpenak eta lan plangintza azaltzeko. Eta ondoren lau larunbatetan zehar auzolana burutu genuen.

Festatako programa garatzeko ere esku-orria banatu genuen gure asmoak jakinaraziz eta ondoren, eskolatik jaisten dagoen parkean jarri ginen proposamenak bertan biltzeko. Horretarako karpa moduko bat jarri eta, Gaztelekuan egiten dugun modura, kartulinen bidez haurren proposamenak jaso genituen eta astebete ondoren, proposamenen sailkapena eginda, gometxen bidez lehentasunak markatu zituzten. Era berean, Udala HAPO garatzen

ari zela, herritarrekin hainbat saio egin zituen eta bide horretan, umeen iritzia jasotzea interesgarria litzatekeela erabaki zen. Horrela, udal zinegotzi eta teknikariak Gaztelekura etorri ziren hurrekin hiru saio egitera. Egia da hemen jasotakoa HAPOren eranskin gisa gelditu dela momentuz, baina dena den, prozesua aberasgarria izan zen.

### **Zer moduz joan da prozesua? Parte-hartzearen eta helburuen betetze-maila espero bezalakoak izan al dira?**

Urtetik urtera garapena ikusiz goaz. Haur, nerabe eta gazteek egindako proposamenak burutzen goazen heinean, beraiek ere beren iritzia baliagarria eta baliotsua dela ikusten dute eta horrek ahaldu egiten dituzte, etorkizunean herritar aktiboak izateko. Hau da, konturatu dira beren iritzia entzuten ditugula eta horrela ez bada, entzunak izan daitezkeen bideak erabil ditzaketela barneratu dute. Horrenbestez, helburuak betetzen goazela esan dezakegu.

### **Zein ikasgai atera dituzue oro har zuen udalerrian parte-hartzeak izan duen bilakaeratik eta konkretuki prozesu honetatik?**

Esperientziak erakutsi ditugu parte-hartzea ikasketa prozesu bat dela eta prozesu horren baitan gauza askok baldintzatzen dutela haurren parte-hartzea: izan daiteke kuadrillaren nortasuna, eguraldia... Horrek sarritan frustrazioak ere sortzen dizkigu, guk apustu sendoa egiten baitugu parte-hartzearen alde. Baina orokorrean kontentu gaude eta lanean jarraituko dugu urtetik urtera parte-hartzeak areagotzen jarraitu dezan, herritar aktibo horiek lortzeko.





# Aurrekontu Irekiak 2019

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan bultzatutako "Aurrekontu Irekiak 2019" partaidetza prozesua 2018ko apirilaren 9tik 2018ko ekainaren 30era egin zen, herritarren iritzia jasotzeko helburuarekin, izan ere, horixe da Kudeaketa Plan Estrategikoaren bost helburu nagusietako bat, non, besteak beste, "Gipuzkoako gobernu berrasmatzeko beharra" jasotzen baita, "herritarrek parte hartzeko modu errazak irekiz".


Hirugarren urtez jarraian, Aurrekontu Irekien prozesua abian jarri, eta herritarrei parte har zezaten dei egin zitzaion, Gipuzkoa, gobernantza-eredu berri bat finkatzen ari den erreferentziazko lurralde historiko gisa finkatuz. Foru Administrazioan Gobernu Irekiaren eredia finkatzeak berekin dakar, besteak beste, herritarren eta horien ordezkarien artean konfiantza sortzea, kontuak gardentasunez eman daitezen laguntzea, kontuak modu eraginkorrean eta berme osoz ematea eta partaidetza prozesuak herritar guztientzako gobernantza modu berri bat bezala finkatzea.

Aurrekontu irekiak egitea helburu duen prozesu parte-hartzailea finkatzeko, beharrezkoa da herritarrek Lurralde Historikoko kudeaketan zuzenki eta gardenki engaiatzea. Herritarren parte-hartzeak aukera eta abantaila handiak ditu, eta Foru Aldundi moderno, eraginkor, garden eta, batez ere, hurbila eraikitzen laguntzen du.

Honako helburu hauek lortu nahi zituen prozesuak:

- Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin KONEKTATU, haren lana eta kudeaketa ezagutzera emanez.
- Gure herritarren lehentasunak eta beharrak EZAGUTU, eta guztion eskaera errealei egokituko zaizkien emaitzak eskaini.
- Gipuzkoaren egunerokotasunean gizartearen protagonismo aktiboa BULTZATU, herritarrek lurraldeko bitza publikoaren ikusle hutsak izateari utz diezaioten lortuz.
- Ahaldundutako herritarrekin kudeaketa publiko eraginkor, arrazional, eraginkor eta garden egingo duen Foru Aldundia FINKATU.
- Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako BIDEAK IREKI, herritarren eta Foru Aldundiaren arteko elkarrizketa eta komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- Herritarrekin, ordezkari publikoekin eta teknikariek eztabaidatutako aurrekontu irekiak ONARTU.

Herritarrek 2018ko aurrekontu irekietan egindako proposamenei erantzuteko prozesua amaitu ondoren, 2019ko prozesua martxan jartzeko lehen pausoak eman ziren. Plangintza martxoan hasi zen eta prozesua abenduan bukatu zen, herritarrekin adostutako aurrekontu irekiak Batzar Nagusietan onartu ondoren.



# PROZESUA SOZIALIZATZEKO KANALAK

Komunikazio-estrategia bitarteko hauen bidez hezurramitu zen, prozesuaren hedapena, zabalkuntza eta sozializazioa bermatzeko:

- Komunikabideak eta sare sozialak.
- Frankeo ordaindua duten galdera-sorten banaketa.
- Partaidetza birtuala.
- Herriz Herri kanpaina.
- Erakunde eta elkarteekin gaikako topaketak.

## KOMUNIKABIDEETAN ETA SARE SOZIALETAN ZABALDUZ

Imanol Lasa Gobernantza eta Komunikazio Diputatuak 2018ko apirilaren ogan aurkeztu zuen aurrekontu irekien prozesua komunikabideen aurrean, eta, aurkezpen horren bidez abiatu zen partaidetza-prozesua. Prentsaurrekoak oihartzuna izan zuen prentsan (Gipuzkoa mailan), eta prozesuaren xehetasunen berri eman zen komunikabideetan.


Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio departamentuak eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak prozesuaren sozializazio aktiboaren alde egin zuten prentsan irratian eta sare sozialetan.

## FRANKEO ORDAINDUA DUTEN GALDERA-SORTAK ETA INFORMAZIO-LIBURUXKAK GUTUNONTZIAN BANATUZ

310.000 galdera-sorta baino gehiago banatu dira Gipuzkoako etxeetan. Liburuxka horietan, parte hartzeko galderez gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontuen arloan egindako jarduera garrantzitsuenak laburtzen dira, eta Etorkizuna Eraikiz proiektua osatzen duten proiektu estrategikoen mapa jasotzen da.



2019ko Aurrekontu Irekiei buruzko informazio-materiala Gipuzkoako etxe guztietara zabalduz, prozesurako sarbidea demokratizatu zen, eta, gainera, lurralde osoan hedatu ahal izan zen proiektua. Berrikuntza gisa, edizio honetan, postontzietan banatu ahal izan dira galdera-sortak, helmugako frankeoaren bidez.



Halaber, telefono iraunkor bat ezarri zen, parte hartzeko interesa zuten herritarrentzako, eta prozesuari buruzko galderei edo sozializazio-kanpaina izandako edozein gorabeherei erantzuteko.

Zehazki, herritarrek parte hartzeko bide hauek jarri dira martxan ekitaldi honetan (apirilaren 6tik ekainaren 30era):

- Helmugan ordaindutako frankeoa.
- Presentzialki, 54 herritan jarritako partaidetza-karpetako postontzien bidez (Herriz Herri).
- Birtualki, [gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza](http://gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza) web-orriaren bidez.
- Foru Aldundiaren erregistroa eta tokiko erregistro publikoak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan (Gipuzkoa Plaza, Donostia).
- Gizarte zibilarekin egindako topaketak eta herri txikietako ordezkari politikoekin egindako bilerak.

## PARTAIDETZA BIRTUALAREN BIDEZ

Parte hartzeko kanal presentzialen osagarri gisa, beste behin ere, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza/> web-orria jarri zen martxan. Web-orrian, galdera-sorta eta prozesuaren informazio zabala jasotzen zen. Tresna teknologiko eta birtualek gure gizartean duten pisua kontuan izanda, ezinbestekoa da teknologia berrien bidez parte hartzeko aukera ematea. Hala, modu arin, erraz eta azkarrean nahi dugun informazio hori aurkitzeko eta, beraz, parte hartzeko bide tradizionalen ordeztu, beste modu batera parte hartzeko baliabideak jarri ziren.

## HERRIZ HERRI KANPAINAREN BIDEZ

Herriz Herri kanpaina da prozesuaren funtsezko mekanismoetako bat. Ekitaldi honetan, askoz ere herri gehiagotan jarri diren partaidetza-karpak. Karpa horietan, prozesuari buruzko informazioa jaso, parte hartu eta zalantzak argitu ahal izan dituzte herritarrek. Hain zuzen, 54 udalerrri txiki, ertain eta handitan jarri dira partaidetza- karpak, 10:00etatik 19:00etara.

Lehenengo urteko ekimen parte-hartzailearekin alderatuta (38 udalerrri), hazkunde handia izan da. Hala, partaidetza presentziala lurralde osoan finkatzea lortu da. Hiru dinamizatzaile kualifikatuk zuzendutako karpe horietan, honako gai hauei buruzko azalpenak eman zizkieten interesa agertu zuten herritarrei:

- Zer dira Foru Aldundiaren aurrekontuak?
- Zergatik hautatu dira data hauek partaidetza-prozesua aurrera eramateko?
- Aurrekontuak herritarrekin eztabaidatzen dituen ekimen baten garrantzia.
- Parte hartzeko erabil daitezkeen kanalak.
- Herritarrek prozesuari buruz zituzten zalantzak argitu zituzten.
- Galdera-sortan egiten diren galderei erantzuteko laguntza eskaini zuten.
- Eztabaida-prozesu aberasgarri eta ireki batean parte hartzera bultzatu zituzten herritarrak.

Unibertso osoa kontuan izanda (guztira, 717.832 biztanle daude Gipuzkoan erroldatutan Estatistika Institutu Nazionalaren 2016ko datuen arabera), potentzialki, 10 biztanletik gra iritsi da Herriz Herri kanpaina. Hala, populazioaren % 97ra iritsi da, eta, beraz, asko handitu da lehenengo urteko kanpainan karpek izandako presentzia.

## TOPAKETAK ERAKUNDE, ELKARTE ETA UDALERRI TXIKIEKIN

2019ko Aurrekontu Irekien ekimen parte-hartzailea sozializatze fasea amaitzeko, proiektua aurkezteko eta zuzenean hitz egiteko Topaketak egin ziren erakunde, gizarte-talde, hainbat motatako elkarte eta udalerrri txikiek.

Gizarte-ordezkariek eta elkarte-sarea gure gizarteko eragile oso garrantzitsuak dira, metatua duten jakintzagatik eta transmititzen duten ikuspegi kolektiboagatik. Hori dela eta, Mikel Lasa Gobernantza eta Komunikazio diputatuak eta Joseba Muxika Herritarren Partaidetzarako zuzendariak bilera-egutegi bat zehaztu zuten hainbat udalerrri txikitako eragile zibil eta ordezkari politikorekin, haien ahotsa entzun, parte hartzera gonbidatu, eta 2019ko Aurrekontu irekien ekimen parte-hartzaileei ekarpenak egiteko.

Guztira, 28 topaketa egin ziren askotariko elkarte eta erakundeekin, eta 800 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

Udalerrri txikiei dagokienez, Foru Aldundiko ordezkariak topaketak egin zituzten, lehen aldiz, tamaina txikiko 35 udalerrirekin. Topaketa horietan, 70 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

## ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

2019ko Aurrekontu Irekien ekimena Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiei irekia egon da hiru hilabetez.

Aurrekontu Irekien prozesu honetan, bi galdera ireki egin dira:

- Zer proposamen dituzu 2019ko aurrekontuetarako?
- Zure ustez, zein dira Gipuzkoako etorkizunerako erronka nagusiak?

Planteamendu metodologiko horretan oinarriturik, herritarren hausnarketa, kezka, nahi, gomendio eta iradokizun nagusiak bildu ahal izan dira, eta horiek guztiak baliagarriak izan dira foru-erakundeak aurrekontuak egiteko orduan hartu dituen erabakien norabidea zehazteko orduan.


## ZER BERRIKUNTZA DAKARTZA PARTE-HARTZE PROZESU HONEK?

Orain arte martxan jarritako prozesuen ibilbideari jarraiki, 2019ko Aurrekontu Irekien ekimen parte-hartzailea prozesu berria eta berritzailea izan da, mamiari nahiz azalari dagokionez.

- Lehenengo aldiz, parte hartzeko kanal kopurua handitu da, eta helmugako frankeoa gehitu zaie ohiko kanalei: presentziala (Herriz Herri), birtuala eta foru- erregistroak.
- Ekimen parte-hartzaileak askoz ere iraupen handiagoa izan du: 83 egun (apirilaren 01tik ekainaren 30era).
- Herri Herri kanpainak Lurralde Historikoko udalerrri ertain eta handi guztiak bildu ditu (54 udalerrri bisitatu dira).
- Topaketak askotariko elkarteetara iritsi dira, eta 800 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.
- Lehen aldiz, hartu-eman aktiboko prozesua udalerrri txikietara ere iritsi da, eta, hala, lurraldeko udalerrrien % 100a bildu du prozesuak.

## PARTE-HARTZE EMAITZAK

Guztira, 13.267 ekarpen kuantifikatu eta kodifikatu ziren prozesuan zehar, 8.250 erantzun lehenengo galderari eta 5.017 bigarrenari. Bestalde, gizarte zibilarekin egindako Topaketetan, 265 ekarpen egin ziren eta tamaina txikiko udalerriekin egindako topaketetan 119, guztira 384.



Karpa ibiltariekin egindako Herriz Herri kanpaina izan zen, eskura zeuden kanal guztietatik, ekarpen gehien bildu zuena (% 65). Guztira, 10.899 lagunek jaso zuten prozesuan parte hartzeko gonbidapena, 4.847 galdera-sorta eta informazio-liburuxka banatu ziren, eta 2.583 gipuzkoarrek parte hartu zuten.


## PROZESUAREN EMAITZAK

### 1. galdera: Zer proposamen dituzu 2019ko aurrekontuetarako?

Esan bezala, herritarrek 8.250 ekarpen egin zituzten Zer proposamen dituzu 2019ko aurrekontuetarako? galderari, hain zuzen, 2019ko foru aurrekontuetarako ideia, iradokizun, gomendio edo ikuspejeari buruzkoari.


Herritarrek egindako ekarpenak eskumen-alorren arabera kodifikatu eta aztertu ostean, esan behar da Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamenduak (1.670 ekarpen) eta Gizarte Politiken departamenduak (1.574 ekarpen) jaso zituztela, hasiera batean, ekarpen gehien:

### EKARPENAK FORU ESKUMENEN ARABERA




Aldiz, prozesuan parte hartu zuten herritarren ustez lehentasun gehien duten gaiari arreta jarritz gero, hauek sortzen zuten interes handiena: bidegorriak (908), Lurraldebusen lineak eta ordutegiak (560), adinekoak (467), errepideen mantentze-lanak (449), egoitza-zentroak (448) eta hondakinen tratamendua (398).

### LEHENETSITAKO GAIAK



## 2. galdera: Zure ustez, zein dira Gipuzkoako etorkizunerako erronka nagusiak?

Zure ustez, zein dira Gipuzkoako etorkizunerako erronka nagusiak? galderari erantzuten zioten 5.017 ekarpen egin zituzten herritarrek. Herritarren ustez, nabarmen, erronkarik handiena enplegua da, baina erronka nagusizat kokatu zituzten herritarrek baita Etorkizuna Eraikiz, Ingurumena eta Ekologia, Hondakinen kudeaketa, Azpiegiturak, Hezkuntza eta Jaiotza-tasa-Zahartzea ere.





# OGP Euskal Zuzentasun Sistema

Gobernu Irekirako Aliantzako (OGP) kide gisa, Euskadiko erakundeek 2018-2020 Ekintza Plana onartu dute, Euskadin gobernu irekian aurrera egiteko. Plan honetan 5 konpromiso zehaztu dira, bi urteko epean garatu beharrekoak eta eraldatzeko gaitasuna izango dutenak.

Lehenengo erakunde arteko Plan horren 5. konpromisoa Euskal Zuzentasun Sistema eredu bat ezartzea da, helburu hauekin:

- Herritarrek administrazioarengan eta bertako langileengan duten konfiantza berreskuratzea eta areagotzea.
- Administrazioa ordezkatzeko duten pertsonen jokabide etiko eredugarriak izan ditzaten sustatzea, partekatuzko ditugun eta euskal gizarte bezala identifikatzeko gaituzten printzipio eta balio etikoetan oinarrituta.
- Administrazioaren errendimendua hobetzea eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak hobetzea.

EZS eredu bat ezartzea da helburu, euskal administrazio guztientzat, ikuspuntu etikotik begiratuta desegokitzat jotzen diren jokabideak prebenitzen dituzten tresnetan oinarrituta, jarduketa gida izan dadin euskal administrazioaren langile eta karguentzat, eta eredu, herritar guztientzat.

Herritarrekin eraiki eta kontrastatu nahi da EZS eredu hori, eta horretarako, partaidetza prozesu bat burutu zuen konpromisoa garatzeko martxan jarri zen lan-taldeak, erakunde eta eragile ezberdinekin osatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazioaren,

Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du lan-taldearen lidergoa, beste erakundeekin batera.

## PARTE-HARTZE PROZESUAREN HELBURUAK

Prozesu honek helburu izan du Zuzentasun Euskal Sistema ereduaren herritarrekin kontrastatzea eta balioztatzea, eredu partekatua lortzeko eta EZS ereduaren plazaratzea eta eztabaidatzea herritarrekin, batez ere gutxi ordezkaturik daudenekin, ereduaren hobetu ahal izateko.

Helburu nagusi horiez gain, honako helburu zehatzak definitu ziren:

- Herritarrek jarduketa etikotik erantzunkidetzara eta gaiaren inguruko interesa ezagutzera, interes-taldeak identifikatzera.
- EZS ereduaren indarguneak eta ahulguneak identifikatzea, herritarrentzat lehentasunak izan daitezkeen alderdiak aztertuz.
- Erakunde eta herritarren arteko partaidetza esperientzia bat sustatzea, bi alderdietarako ikasketa izan dadin.
- Genero ikuspegia integratzea partaidetzako proiektuan zehar, gizartearen existentzia diren desberdintasunak kontuan hartuz eta gainditzen bilatuz eta, batez ere, emakumeen eta gizonen artean ematen direnak.




# PROZESUAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

KOORDINAZIO TALDEA:

## KOORDINAZIO TALDEA (KT)



PROIEKTUAREN FASEAK:



Ekarpenak jasotzeko bideak bi izan ziren:

- Online bidezko galdetegia: txostenaren eta prozesuaren zabalkundearekin batera, online bidezko galdetegia jarri zen herritarren eskura ekarpenak egin ahal izateko: 247 erantzun jaso ziren.
- Aurrez aurreko saioak: aurrez aurreko hiru saio egin ziren 2019ko apirilaren 2tik 4ra. Saioak Bilbon, Gasteizen eta Donostian izan ziren, hurrenez hurren. Deialdi zabala egin zen lurralde bakoitzeko elkarteetan, Bilbon 14 pertsonak parte hartu zuten, Gasteizen 9k eta Donostian 16k, guztira 39 ordezkari.

# PROZESUA


## EUSKAL ZUZENTASUN SISTEMAREN PRINTZIOAK

Euskal Zuzentasun Sistema diseinatu zuen lantaldeak hiru printzipio nagusiren inguruan eraiki zuen sistemaren eredua, Interes Orokorra, Errespetua eta Irekidura eta Eraginkortasuna/Ondorio onak. Saioretan, partaideak taldeetan banatu ziren eta taldeetako bakoitzak printzipio baten lanketa egin zuen. Aurretik, printzipio horrenganako hurbilketa egin zuten euren arteko pertzepzioan oinarrituta, eta bigarren fasean konpromiso taldeak landutako definizioarekin alderatu zuten, hobekuntzak eta moldaketak egiteko aukera emanez. Printzipio bakoitzaren baitako balio garrantzitsuenak ere lehenetsi ziren, bai saioretan eta baita online galdetegien bidez.

### 1. printzipioa. Interes Orokorra

Definizioa:	Proposatutako aldaketak:
Hau da, guztion onura bilatzea. Erakunde publikoen helburu nagusia da guztion onura bilatzea, hau da, guztiok partekatua eta guztiontzat onuragarria dena zaintzea; horretarako jardunbide desegokiak ezabatuz (baliabideak xahutzea, informazio pribilegiatua gaizki erabiltzea, interes pertsonalak lehenestea, komisioak edo opariak onartzea, etab.).	<b>Bilbo</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Denboraren kontzeptua txertatzea (guztien ongia epe motz, ertain eta luzera planteatzea dadila).</li><li>• Ekitatea VS Berdintasuna: Denok ez gara berdinak, ez ditugu behar berdinak.</li><li>• Definizioetan adibideak ez txertatzea.</li></ul> <b>Gasteiz</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Erakunde publikoen helburu nagusia da guztion onura bilatzea, gizartean dauden interes kontrajarrien arteko oreka lortzeko laguntzea.</li><li>• Baliabideak xahutzea, informazio pribilegiatua gaizki erabiltzea, interes pertsonalak lehenestea, komisioak edo opariak onartzea, etab.): POSITIBOAN JARRI.</li><li>• Hau da, guztiok partekatua eta guztiontzat onuragarria dena zaintzea.</li><li>• Horretarako jardunbide desegokiak.</li></ul> <b>Donostia</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Horretarako beharrezkoa da herritarren partaidetzarako mekanismoak sustatzea, hezkuntza baliabideak gizartean zeharka txertatuz haurtzarotik hasita.</li></ul>

Printzipioaren baitako balio garrantzitsuenak:



## 2. printzipioa: errespetua eta irekidura

Definizioa:

Hau da, herritarrei begira eta herritarrekin lan egitea. Errespetuaren printzipioa oinarritzen da herritarrak duintasunez tratatzean, hau da, kontzientzia, askatasuna eta eskubideak dituzten subjektu moduan. Baita subjektu aktibo bezala, hau da, politika publikoetan parte hartzen duten eragile eta laguntzaile bezala.

Proposatutako aldaketak:

Bilbo

- Erakundeen zerbitzurako bokazioa.
- Bi norantzako errespetuaren beharra.
- Irekidura, gardentasun eta partaidetza aukera bezala.
- Informazioarako sarbidea erraztea, espazioak eta teknologia.
- Pertsonetikiko enpatia barneratzea (enpatia sortzea eta garatzea).


Gasteiz

- HerritarreKIN eta herritarrenTZAT lan egitea , berdinetik berdinerara.
- Errespetuaren printzipio orokorra herritarrak duintasunez tratatzean datza, subjektu bezala eta autonomia, askatasuna eta eskubideekin. Elkarrekikoa izan behar du.
- Baita subjektu aktibo bezala ere, hau da, politika publikoetan aktiboki parte hartzen duten agente bezala, ezagutzatik hasi eta gainbegiratzera arte (4 urtez behin bozkatzeaz harago).
- ERANTZUKIDETASUN +

Donostia

- Herritarrak eta herritarren elkarteak.
- Subjektuak: bakarrak eta anitzak.
- Eskubideak: eta konpromisoak.
- Laguntzaileen orde, transformatzaileak.
- Politika publikoetan hirizpide propioarekin parte hartzen duten transformatzaileak.

Printzipioaren baitako balio garrantzitsuenak:



### 3. printzipioa. Eraginkortasuna eta ondorio onak

#### Definizioa:

Hau da, gauzak ongi egitea emaitza onak lortzeko.

Printzipio orokor horrek balioztatzen du alde batetik jarduera publikoaren bitartez lortzen diren emaitzak egokiak diren ala ez, eta bestetik helburu hauek lortzeko baliabideen erabilera egokiena egin den; azken helburua baita herritarren ongizatea eta bizitza kalitatea lortzea administrazio onaren bitartez.

#### Proposatutako aldaketak:

##### Bilbo

Gehitzen da:

- Bizkortasuna / malgutasuna.
- Sinpletasuna / hizkera.

Matizatzen da:

- Emaitzak ongi definitu.
- Nola definitu beti adostasunak lortzen dituzten bizi kalitatea, ongia egitea eta abar bezalako hitz "ongizaleak". Zehaztasunetan dago sakontasuna.
- Jasangarritasuna: Beharrezkoa dena egiteko erabili, ez dirurik ez dagoelako "ez egiteko" argudio modura. Pertsonen bizitza egitea jasangarri.


##### Gasteiz

- Baldin eta herritarren partaidetza erreala eta balio publikoa sortzeko eraginkorra bada.
- Pertsonak eta planeta erdigunean jartzea.

##### Donostia

- Emaitza egokiak: administrazioak jendartearen beharrei / arazoei erantzuna emanez.
- Herritarren ongizatea > herriaren ongizatea.
- Azken helburua baita herritarren ongizatea eta bizitza kalitatea lortzea. administrazio onaren bitartez: BALIOKIDETASUNA / KOLEKTIBOIA (ez ongizate indibiduala, baizik eta kolektiboa).

#### Printzipioaren baitako balio garrantzitsuenak:



#Elkarteak

# Arrats elkarteak

## Ikusezinak irrati saioa

Ikusezinak proiektua ekimen bizia da, etengabeko bilakaeran dagoen proiektua, alegia. Bilakaera hori teknologia berriei zein gizartearen behar berriei loturik dago. Izan ere, egungo gizartea oso aldakorra da eta tamalez, individualismoak gero eta indar gehiago du. Ondorioz, bakardade sentimendu eta sentsazioa gero eta zabaldago dago.

2018an jarri zen martxan lehen aldiz Ikusezinak programa eta urte gutxiago ibilbidea badu ere, harrera ona izan du. Helburu du, hain zuzen, bakardadea saihestea, bazterkeria egoera edota arriskuan daudenen gizarte sentsibilizazioa bultzatzea, esperientziak elkarbanatzea, elkarlana bultzatzea, entzute aktiboa lantzea.

lido horretan, irrati saioa nahi baino beranduago hasi zen eta nahi baino eduki gutxiagorekin eta saioak zuzenean egin ahal ez izanak (bereziki intsonorizazioarekin loturiko arazo teknikoak medio) asko zaildu zuen prozesua.

Dena den, zuzenean grabatzen ez den arren, podcast zerbitzua eskaintzen du wordpress plataformaren baitan. Gaur egun, aipatu plataforma internet mailan erabilienetarikoa da eta horren baitan, ikusezinak.net webgunea, ikusezinei, komunikabideetara iristerik ez dutenei ahotsa emateko erreferentziatzeko espazio bilakatzen ari da.

Martxan hasi zenetik, ondorengo edukiak izan dira irratsaioak landu dituenak:

- Martxoak 8ko greba.
- Etxez-etxeko zerbitzuko langileen greba: elkarrizketak, prentsaurrekoak, azken berrien jarraipena.
- Umorezko bakarrizketak.
- Emakumea eta kalea: bazterkeria egoeran dauden edo egon diren emakumeei elkarrizketak.
- Kaletika: etxebizitzaren arazoa, alokairuaren gehiegizko kostua, etxegabetzeak eta horren eragina etorkinengan.
- Munduko herriak: Kamerun. Jaques-en eskutik herrialdea ezagutzuz.
- Etorkinen edota bazterkeria egoeran daudenei harrera ekitaldien kobertura.
- Elkarte feministek, antimilitaristek, pentsiodunek edota bestelako gizarte mugimenduek antolatutako ekitaldien hedapena.

- Kartzela: kartzelen inguruko artikuluen loturak. COPEL dokumentalari babesa eta mahai-ingurua. Salhaketa Nafarroak antolatutako jardunaldien jarraipena.

2019ari begira, lankidetzatza saio bat osatzen ari da, bakoitzaren lan arlotik edukiak sortu eta ikusezinak saiorako elkarrizketak egin eta debateetan parte hartzeko prest dauden kideekin:

- Oarsoaldeko Emakumeen elkarteak: elkartearen ekintzen jarraipena eta elkarrizketa eta debateetan parte-hartze zuzena.
- Pasaiaiko Udaleko Berdintasun eta Aniztasun saila: harrera herria. Gizarte aholkularitza programa.
- Pasaiaiko kaleetako hezitzaileak: programan parte hartzen duten gazteekin aktualitateko gaien inguruko elkarrizketak eta debateak.
- Euskaltegiak: aktualitateko gaien inguruko debateak, euskara ikasten duten ikasleei euskaraz hitz egiten laguntzeko.
- Sexualitatearen inguruko espazioa.
- Munduko herriak: jatorri desberdinetako lagunekin elkarrizketa gehiago, beren kultura lehen eskutik ezagutu ahal izateko.
- Arrats elkartearen programa edota zerbitzuen erabiltzaileekin elkarrizketak egin jarraitu. Ahotsa eman.

Sortuko diren eduki berriez edota jarraipena emango zaien gaiez haratago, Ikusezinak-en posizionamendua landuko da ahalik eta entzule gehienei iristeko.

2018ko urritik ondorengo mugimenduak erregistratu dira Ikusezinak.net webgunean:

	Bisitak	Bisita-tzaileak	Bisitzaileko bititak
URRIA	521	220	2.37
AZAROA	354	122	2.90
ABENDUA	311	130	2.39
URTARRILA	192	56	3.43
OTSAILA	141	61	2.31

# Elhuyar

## ZientziaKIDE, euskal ikerketa-sistemarako RRIa parte-hartzeaz definitzen

ZientziaKIDE proiektuan 2018ko helburua zen euskal ikerketa-sistemara RRI kontzeptua ekartzea eta horretarako ezinbestean bertako ikertzaileekin zuzenean RRIa zer den lantzea. Izan ere, ikerketa-sistemarako paradigma aldaketa bat suposa dezakeen kontzeptua da eta hura onartzeko beharrezkoa da eragindako ikerketa sistemako aktoreak zuzenean iritzia eman eta lanketa egitea. Helburu zehatzak, halaber, ondorengoak izan ziren:

Metodologia topaketa-tailerretan oinarritu zen. Topaketa horiek helburu bikoitza izan zuten: batetik, trebakuntza eskaini eta bestetik elkarrekin eraiki eta ikastea. Hau da, alderdi teorikoa landu da batetik, eta, bestetik, alderdi praktikoa lantzea, alegia.

Topaketa horietara euskal zientzia-sistemako erreferentziazko agenteak gonbidatu zituen Elhuyar elkarteak. Asmoa zen erakunde bakoitzeko ordezkari bana gonbidatzea eta guztira 15-20 ikertzaileko taldea osatzea. Azkenik, 12 bat ikertzailek parte hartu zuten erakunde hauetatik:

- Igor Campillo (Euskampus) zuzendaria
- Elena Urdaneta (Euskampus)
- Julieta Barrenechea (Euskampus)
- Nagorre Ibarra (CIC nanoGUNE)
- Estibaliz Capetillo (UPV-EHU)
- Oihane Basurko (AZTI)
- Ainhoa Garayar (UPV-EHU)
- Jasone Urkola (UPV-EHU)
- Eduardo Jacob (UPV-EHU)
- Fernando Diez Ruiz (Deusto)
- Pablo Herrera (UBA)

Topaketen formatuari dagokionez, bakoitzean aditu batek gaiaren kokapena edo trebakuntza-saioa eskaini zuen. Ondoren, gidatutako tailer horietan ikertzaileek RRIaren inguruko hausnarketak egin eta beren ikerketa-esparruan dituen inplikazioen inguruan eztabaidatu zuten. Gidari-lana egin zuten adituak bi emakume izan ziren Gema Revuelta eta Rosina Malagrida. Biek esperientzia zabala dute RRIaren inguruan eta Europako proiektuetan liderrak izan dira.

Kontuan izan behar da, hiru topaketa-tailerrak gradualak eta progresiboak izan zirela. Hau da, hitz egindako edukiaren inguruan eraikiz joan ziren hurrengo edukiak.

Zientziakide proiektuaren emaitzen artean, nabarmendu behar da, RRIaren hausnarketa eta partaidetza topaketetan espero ziren emaitzak lortu direla. Helburua, haiei trebakuntza eskaintzea eta RRIaren inguruko eztabaida, erpinak eta arazoak eta hausnarketak eraztea zen parte-hartzea oinarri hartuta.

Saioetan, ikertzaileek oso aktiboki parte hartu zuten eta parte-hartzaileen inplikazioa eta gaiarekiko eboluzioa ere nabarmentzekoa da. Asistentzia gehienez 20 pertsonentzat zegoen aurreikusita eta azkenean 12 lagun inguruk hartu zuten parte saioetan. Izena emanda, aldiz, 18 pertsona zeuden, baina azken uneko bajak izan ziren. Edozein kasutan, denek eskertu zituzten tailerrak eta oso balorazio positiboa egin zuten haien inguruan. Balorazio-inkestetan ere gaia oraindik gehiago lantzen jarraitzeko gogoia adierazi zuten.

Saioen dinamizatzaile izan zen Rosina Malagridak esaterako, nabarmendu zuen ikertzaileak ebaluatzen modua aldatzeko proposamena, eta gizarte-erronketara bideratutako I+G+Bko proiektuak finantzatu beharra, lan sistemikoagoa eta konpartimentuetan ez hain banatua bultzatzeko.

Horrenbestez, prozesua hasi aurretik finkatutako helburuak guztiz bete ziren. Proiektuak, parte-hartzea oinarri hartuta RRIren gaiak euskal zientzialarien begietara zer ezaugarri dituen erauzi ahal izan zen. Horretarako, Mondragon Unibertsitateko ikertzaile bat izan zen kolaboratzaile gisa, gaiaren inguruko hausnarketa horiek jaso eta mamitzeko, Andoni Eizagirre ikertzailea, hain zuzen. Asteroko bilerak egin ziren bi erakundeen artean, tailerren gaitetia finkatu, dinamizatzaileak adostu, lan-dinamika eta metodologia adosteko eta abar.

Amaierako inkestaren diseinua ere elkarrekin egin zen, eta komunikazioko ekintzetan ere parte hartu zuen, esaterako, aldizkarirako analisi artikuluan edo telebistarako erreportajeetan. Beraz, esan liteke bi erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa egokiak eta eraginkorrak izan zirela.

Beste maila batean, koordinazio-lanak ere egin behar izan ziren trebakuntza eta eztabaida saioetako bi dinamizatzaileekin. Haiekin ere koordinazioa oso ona izan zen. Tailerren gaitetia adostu eta parte-hartzean oinarritutako lanketa egitea nahi zela erraz eta ondo barneratu zuten. Koordinazio-lan horietarako, Gema Revueltarekin aurrez-aurre elkartzeko Elhuyarko kideak Donostian eta Rosina Malagridarekin Skype bilera batzuk egin zituzten tailerretara etorri aurretik.

Azkenik, Orona Ideon egin zirenez tailerrak, hango gelen eta catering zerbitzuaren arduradunekin ere koordinazioa eta harremana oso ona izan zen. Gelen ezaugarriak finkatu eta aukerak eskaini zizkieten eta catering-zerbitzuarekin ere aukera desberdinak emanda gustura geratu ziren zerbitzuarekin. Parte hartu zutenek ere oso ondo baloratu zuten janaria eta lekua zein saioen antolakuntza.

Metodologikoki erabilitako parte-hartzea, halaber, ezinbestekoa izan zen proiektuaren emaitza arrakastatsua izan zedin. Batetik, ikertzaileak motibatuta eta haien iritzia eta hausnarketak jasotzeko ezinbestekoa baita zuzenean parte hartzea. Eta RRI ikuspegia euskal zientzia-sistemara ekartzeko teoriatik ea kanpotik ezarritako arau batzuk emateak izan dezakeen alboratze erreakzioa ekiditeko, eragindako zientzialari-sistemak zuzenean erabakietan parte hartzeko eta edukien bidez elkar ahalduntzeko eta parte-hartzea gakoa izan da.



# Emanhar

# gizarte elkarte

## Eraldatu Barrutia

Emanhar Gizarte Elkarte elkarriketa eremuak eta herritarren partaidetzaren suspertzea sustatzen duen elkarte da; bateratzean eta elkarlanean, jasagarritasunean eta eraginkortasunean oinarritzen diren lantalde eta bizi-tokiak eratzeko helburuarekin.

Ildo horretan, 2018an bultzaturiko "Eraldatu Barrutia proiektuak" ondorengoak zituen helburu:

- Egungo beharrei era integralean eta komunitate-mailan erantzuna ematen diete esku-hartze metodologiak aurkitzea.
- Gizarte beharrei erantzunez arlo ekonomikoak garatzen diren egitura publiko-pribatuak sortzea.
- Eragile ezberdinen arteko harremanak sendotzea eta elkarren arteko lankidetzaren espazioak sortzea.
- Komunitatean dauden narratibak biltzen dituen kontzeptualizazio marko amankomuna sortzea.
- Lankidetzaren eta talde sorkuntza ahalbidetzen dituzten talde-dinamiketako jakintza zabaltzea.

Gauzak horrela, lankidetzaren eta elkarlanean oinarrituta, esperientzia honen lehen fasean, aurreko AoCO esperientziako eragile eta boluntarioekin batera egindako ebaluazio hausnarketetan eta nazioarteko zenbait esperientziatan oinarrituta, komunitate mailako esku-hartze baten diseinua egin zen, 20 lagun inguruko talde baten lankidetzari esker.

Ondoren, sortutako diseinua Euskal Herria mailan erreferentziazkoak diren zenbait eragile eta arduradunekin partekatu zen eta esperientzia gazitu zuen lurraldeko eragile eta arduradunekin bilerak eginez esku-hartzearen inplementatzeko interesa lantzen joan zen.

Prozesuaren garapena kanpo aholkulariekin partekatu zen hilabetero eta diseinua nahikoa landuta zegoenean, parte-hartzeko lankidetzaren hitzarmenak sortu ziren interesa erakutsi zuten eragileekin. Horrekin batera, ekimena aurrera eramateko teknikari eta adituak bilatu ziren, horiekin harremanetan jarritz, lan ildoak zehaztuz eta etorkizunera begirako egutegiak bateratuz.

Nazioarteko esperientzietan oinarrituta beraz, komunitateko bizimoduan, harreman, ekonomia eta imaginario kolektibo mailan eragin zezakeen prozesua marraztu zen. Proposamen hori komunitate bateko eragile nagusiei aurkeztu zitzaion eta haien erreakzioak jaso ziren. Horrez gain, adituekin ere gauza bera egin zen, aipatutako proposamen hori are gehiago finduz eta definituz. Ekimenean maila ezberdinetan parte hartuko zuten lagunak identifikatu eta horiekin harremanetan jarri zen elkartearen. Era berean, prozesua maila teknikoan garatzeko beharrezko lantaldea sortu eta azpiegiturak lotu ziren.

Lan taldeen bilerak zein lanerako espazioak Herrerako Kirol Elkartearen, ImpactHUB-en egoitza (Tabakaleran) eta Tarifako "Molino del Guadalmesi"

Ekoherrixka izan ziren. Erabilitako metodologiei dagokionez, ebaluazioak egiteko "Arraiontzia" deiturikoa eta Joana Macy-ren "Egiaren biribila" erabili ziren; ekimenaren bisioa eta planifikazioa definitzeko "Dragon Dreaming" deiturikoa eta horrez gain, diseinuaren nondik-norakoak zehazteko bilerak ere egin ziren.

Bi kidez osatutako "koordinazio lantaldea" prozesuaren jarraipenaz arduratu zen: deialdiak egin, bilerak bideratu, finantziario iturriak lortzeko txostenak prestatu, logistika eta baliabideen horniketa egin... Horretarako erabilitako komunikazio bideak posta elektronikoa, telefonoa eta "mailchimp" izan ziren.

Koordinazio taldeaz haratago, ebaluaziorako talde motorra eta gainerako boluntario eta partaidez osatutako talde handiagoak ere egon ziren, tokiko ziren, azken hori ebaluazioa egiteko. Horrez gain, tokiko eragileen arteko bilerak, eragileen banakako bilerak edota profesionalen artekoak ere egin ziren.

Horri guztiari esker, ondorengo emaitzak lortu ziren:

- Esku-hartze oso bat diseinatzea, gizarteko erronka estruktural nagusi batzuei erantzuna emateko.
- Esku-hartzea aurrera eramateko oinarritzko profesionalekin harremanetan jartzea eta lan egiteko prestutasuna lortzea: sistematizazioa, webgunearen prestakuntza, sorkuntza artistikoa, talde dinamizazioa, ekintzailetasun proiektua sortzeko laguntza teknikoak.

- Komunitate bateko eragile aktibo batzuei zein arlo desberdinetan lan egiten duten profesionalei lan-ildo bateratu bat aurkeztu eta horretan parte hartzeko eta laguntzeko interesa piztea.
- Ekimena aurrera eramateko hasierako finantziarioak.

Kronogramak aurreikuspena bete zuen eta sortutako lankidetzaren sarea esperotakoa baino aberatsagoa bilakatu zen. Emaitzak, beraz, aberatsak eta oparoak izan ziren eta esperientziaren balorazioa ona izan zen.

# Euskararen Gizarte Erakun- deen Kontseilua

## Hizkuntza eskubideak aliantza bidez

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (protokoloa.eus) 2016ko abenduan aurkeztu zuen Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Donostiako Kursaalean, hainbat urteko lanaren emaitza gisa.

2018an, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Euskal Herrirako garapena osatzeko, aurreko prozesuan ekarpenak egin zituzten eragileengana jotzeko erabakia hartu zuen Kontseiluak, baita eragileen esparrua zabaltzekoa ere.

Helburua izan zen aliantza estrategia bidez, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan agertzen diren neurriak Euskal Herrian aplikatu ahal izateko, hizkuntza politika egoki bat garatzeko lehenetsunak eragileekin arloka zehaztea.

Emaitzari dagokionez, 2018an berariazko lanketa hori egitea lortu zen, arloz arlo: kultura, aisialdia, hezkuntza... protokoloan jasotako arloak dira horiek guztiak eta arlo bakoitzak bere neurri sorta propioa du (guztira dauden 185 neurriak alor desberdinen artea daude banatuta).

Horretarako, eragileak lan talde desberdinetan egituratu ziren, talde berriak sortuz: aisialdia, hedabideak, IKT (ingurune digitala), kultura (sortzaileak). Beste batzuk, ordea, jada aurrez sortuak zeuden Kontseiluaren baitan, hala nola osasungintza, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea eta lan-mundua (eremu

sozioekonomikoa). Onomastika, unibertsitatea eta hezkuntza formala (haur hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza, lanbide heziketa eta trebakuntza eta unibertsitateaz besteko goi mailako hezkuntza) arloak ez ziren 2018an oraindik propio sortu baina harremanak garatu ziren arlo guztietako eragileekin.

Bestetik, arlo horietako bakoitza euskararen gizarte-erakundeen eta arloko eragile espezifikoekin eta espezializatuen artean ari da bideratzen. Horien atzean pertsonak daude, hainbat lan-inguruetan trebatutako herritarrak edota boluntario gisa dabiltzanak: auzo-elkarteak, aniztasuna sustatzeko plataformak, eskola formatiboak, jasangarritasuna lantzen dutenak, kultura-elkarteak, euskara- eta euskaltzale-elkarteak... 2 irizpide jarraitu ziren gizarte-erakundeak lehenesteko:

- Gizarte-erakunde esanguratsuak izatea (bilgune-izaera, irismena, ordezkartza, prestigioa..).
- Errepresentatibitate askikoak izatea (arlo jakinari buruzko ezagutza profesionala, aintzatespena sektorean, hizkuntza-kontzientzia aitortua izatea..).

Azkenik, lantaldetan bildutako eragileen konpromiso-maila 3 gradutakoa izan zen:

- Batzuek Protokoloari atxikimendu soila baino ez zioten eman [1. graduko konpromisoa].
- Beste batzuek, berriz, prestasuna azaldu zuten

beren arlo bereko beste eragile batzuekin batera –Kontseiluak dinamizatuta– taldeak osatzeko eta arloaren proposamena egituratu-arte partaidetza izateko (2. gradu konpromisoa).

- Hirugarrenik, arloka antolatuta, dinamika jarraikorra izango duten lantaldeetan ari diren eragileak egon ziren 2018an (azken honi "3. gradu konpromiso-maila" deitu zaio).

Aipatu hiru graduazio horien arabera, eragileen mapa osatu zen. Eragileak eremuka artikulatu ziren hiru graduazioen baitan. Banakako aurkezpenak egin zitzaizkien eragileei eta neurri bakoitzaren ezaugarrien gaineko ekarpenak bildu ziren berengandik. Konpromiso-mailari lotuta, Protokoloan datozen neurrietatik euskarak delako eremuan dituen lehentasunak adostu ziren eragileen protagonismoa –herritarren partaidetza-aintzat hartuta, eta erabakitakoaren arabera dinamika/estrategiak pentsatu ziren aurrera begira.

Gauzak horrela, hizkuntza eskubideak berma daitezzen hartu beharreko neurrien artean, lehentasunezkoak direnak alorrez alor identifikatzea lortu zen.

- Kultura: Euskarazko kulturaren sendotze beharra, ikusgarritasuna, eta transmisioari lotutako neurriak inplementatu beharra.
- Hedabideak: Euskarazko hedabideen egonkortzea.

- Hezkuntza: murgiltze-mantentze ereduaren beharra.
- Eremu sozioekonomikoa: Administrazioarekin elkarlanean estrategia bateratu bat ezartzearen beharra.
- Aisialdia: euskarazko eskaintzaren orokortze beharra eta euskarazko formakuntza bermatu beharra.
- Ingurune digitala, euskarazko ingurune digitalaren sistema osatzeko neurriak hartzea.
- Osasungintza: eremua euskalduntzeko formakuntza, zirkuituak eta arnasguneak indartzea.

# Eusko ikaskuntza

## Herritarren Mahaia eta Gizarte Foroak

Eusko Ikaskuntzak 2018an abiarazitako proiektuak hiru helburu nagusi zituen:

1. Gobernantza demokratikoan euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzeta sendotzeko dauden aukerak lantzea eta plazaratzea.
2. Liburu berdeak jasotzen dituen ardatz desberdinen kontzeptu mapa eta diagnosian oinarrituta agertoki aukerak eta adituen arkitektura ezberdinak lantzea.
3. Herritarrak, eragile soziopolitikoak, erakundeak eta adituak deliberazio subjektu bateratua bilakatzea.


Horretarako bi esperientzia desberdin jarri zituen martxan:

- Herritarren mahaia (2018-04-21): adituek eta eragileek osatutako Liburu Berdeari (diagnosiari) herritarren ikuspegia gehitzea / Etorbizuna: herritarren nahiak eta lehentasunak identifikatzea / Gizarte eragileei zuzentzeko galderak jasotzea.
- Gizarte Foroa (2018-05-24): Lurralde guztietako eragile soziopolitiko gakoak biltzea / Herritarrek hobetutako liburu berdearen aurkezpena / Herritarrek galdeketatik abiatuta eragile soziopolitikoaren agertoki proposamenak lantzea.

Esperientzia horien baitan, hausnarketa saioak egin ziren ondorengo gaien inguruan:

- Euskal lurraldeen kanpora begirako harremanak: globalizazioa, Europa eta estatuak.
- Barrura begirako harremanak: balioak, lurraldeen arteko kohesioa eta demokratizazioa.

Herritarrak, eragile soziopolitikoak eta adituak osatutako deliberazio prozesua gauzatu zen legitimazio desberdinen arteko loturak ezarriz:



Deliberazio prozesu hori dinamika parte-hartzaileen bidez gauzatu zen Donostiako Eureka! Zientzia museoan. Aplikatu zen metodologia desberdinen arteko solasa ahalbidetzeko prestatu zen. Solasaldia, halaber, galdera orokorren bitartez bideratu zen edukiaren trataera eta progresioa gauzatuz.

### **Herritarren mahaia**

- Abiapuntua: diagnosiaren laburpen exekutiboa.
- Edukiaren eskemak eta galderak.
- Solasaldiaren ondorio gisa adostutako kezkak, lehentasunak eta galderak.

### **Gizarte foroa**

- Diagnosiaren aurkezpenak. (eskemetan oinarrituta).
- Solasaldia bideratzeko herritarren kezkak, lehentasunak eta galderak.
- Solasaldiaren ondorio gisa eragileen proposamenak.

Gauzak horrela, edukiaren lotuta hiru emaitza lortu ziren: aipatutako gaiekiko herritarren diagnosis, kezkak eta erronkak zein galderak jasotzea, eragileen erantzunak eta proposamenak ezagutzea eta Euskal Herriko lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzarako liburu berdearen osaketa.

Herritarren eta eragileen euskal lurraldeen kanpora zein barrura begirako harremanak nola irudikatzen diren jasotzen dituzten agertokiak deskribatzeaz gain, elkarrekin inoiz egon ez diren pertsonak edota kolektiboak elkartu ziren adostasun bideak identifikatzeko.

Lurraldeen ikuspegitik, halaber, baita ikustegi ideologiko batetik ere, oso aniztasun maila altua lortu zen, Euskal Herriko lurralde guztietako pertsonen eta alderdi politikoen ordezkaritza lortu baitzen. Azpimarratzeko beste datu bat gazteen partaidetza izan zen. Herritarren mahaiari herritar gisa eta gizarte foroan eragile gisa. Alderdi politikoen gazteen lerroak izateaz gain, azpimarratzekoa izan zen EAEko eta Nafarroako Gazte Kontseiluen inplikazioa.

Beste lorpen aipagarria izan zen, baita ere, alderdi politikoak beste eragile sozial batzuekin elkarlanean jarri izana. Esaterako: Globernance, Kontseilua, Gernika gogoratuz, Etxerat, Foro soziala, SOS arrazakeria..

# Garaion natur elkarteak

## Bizi bizia: Zumezko jolasgune parte-hartzaileak

Herrietako jolas guneak natur elementuekin eta herritarren parte-hartzearekin batera eraikitzeke asmoz, Garaion Naturarteak Zumezko jolas gune parte-hartzaileen prozesua abiarazi zuen 2018an.

Horren bitartez, helburua zen 2018ko azarotik 2019ko otsailera bitartean, Debagoienako bost herrietan zume biziko bost jolasgune adostu, landatu eta eraikitzea herritarren partaidetzarekin, modu horretara, herritarrei jolasgune biziak lantzeko aukera, formazioa eta baliabideak eskainiz.

Horrez gain, prozesuak helburu izan zuen bost herri horietan, guraso zein aisialdi talde, ikastetxe, jubilatuen egoitzen eta Udalen arteko elkarlana sustatu eta indartzea, aipatu jolasgune horiek sortzeko.

Aipatu jolas guneak Otazan, Eskoriatzan, Arrasaten, Leintz-Gatzagan, Soraluzen eta Tolosan eraiki ziren: Zumarraga-Urretxuko ikastolarekin eta Arrasate eta Eskoriatzako ikastetxeekin etxola ibiltariak egin ziren, Almen gunearekin Eskola bideak jorratu ziren eta horrez gain, Arrasaten tipitunela, Soraluzen iglupi mailouk, Leintz-Gatzagan barraskiloa eta Tolosan labirintoa jarri ziren.

Horiek garatzeko fase desberdinak burutu ziren:

1. Bost herrietako eskola, aisialdi talde eta guraso elkarteekin bilerak egin eta proiektua aurkeztu, parte-hartzeko gogoak pizteko.
2. Udalari proiektua aurkeztu eta bere oniritzia eta beharrezko baimen eta baliabideak lortu.

3. Partaide diren herritarrekin aurrean faserako, hau da, egitasmoaren definizioa zehazteko bilera data zehaztu.
  - a. Lehen bileran proiektuaren aurkezpena eta beste herri batzuetan egindako prozesuen inguruko informazioa eman eta proiektua gauzatzeko egutegia eta erritmoa adostu.
  - b. Bigarren bileran ideien lanketa burutu eta "sugea" landu (hiru orduko bilera).
  - c. Hirugarren bileran ideiatutako maketa aurkeztu eta eztabaidatu eta lana egingo den espazioan aurrelana burutu: lurra prestatu, ureztatze sistema aurreikusitu.
4. Jolas gunea sortzeko zume-landaketa eta zumeari forma emateko lanak (egun osoko auzolana).

Guztietan elementu naturalekin egindako interbentzioak egin ziren, horretarako zumea oinarri hartuta eta material horri dagokien denborak errespetatuz. Horrela, zume lehorrarekin etxolak egin ziren, zumea landatzeko garaia iritsi arte. Ondoren, zume biziko jolastoki eta egonleku berdeak sortu ziren.

Gauzak horrela, prozesuaren emaitza gisa modu parte-hartzaile batean ikasle eta herritarrek elkarlanean jolastoki mota desberdinak sortzea lortu zen. Hasieratik bukaerarako prozesua euren esku egon zen: diseinu amankomun baten sorreratik abiatuta guztion artean parkea eraiki arte. Era berean, parte-hartzaileek zumearen ziklo desberdinak ezagutzeko aukera ere izan zuten.

# Herrizomak

U.LAB: Nola pasa gu geu gizarte gisa, gizarte ahaldundu, inklusibo eta jasangarri batetara?

Gipuzkoako ekintzaileen elkarteak, Herrizomak, 2018an Teoria U deiturikoa oinarri hartuta, parte-hartze prozesu bat abiarazi zuen gizarte antolatu eta ez antolatuari zuzendua, Gipuzkoan gizarte ahaldundua, inklusiboa eta jasangarria bultzatzeko ideiak eta ekimenak garatzeko helburuz. Era berean, prozesuak helburu izan zuen Teoria U metodologiaren ezagutza prozesu parte-hartzaile berritzaile gisa zabaltzea.

Gauzak horrela, "U.Lab 2018: Nola pasa gu geu gizarte gisa, gizarte ahaldundu, inklusibo eta jasangarri batetara?" ekimenak interes handia sortu zuen eta proiektuaren aurkezpenean eta lehen saioan 34 lagun inguru elkartu ziren. Prozesua irailetik abendura bitartean garatu zen eta denbora horretan zehar presentzialki zein online bidez, gizarteko erronka konkretuei erantzuna emateko 9 eredu garatu ziren. Bigarren fasean, halaber, 2019ko urtarriletik apirilera bitartean, 4 talde saio egin eta eredu horien jarraipen indibiduala egin zen.

Lehen fasean, beraz, lan saio guztiak MIT (Massachusetts Institute of Technology) eta Presencing Institutek zuzenduriko online ikastaroan oinarrituta egon ziren. Saio horietan, parte-hartzaileek online ikasitakoaren inguruko sarrera bat egiten zuten eta ondoren, taldeka banatzen ziren horiek sakontzeko. Bigarren fasean, halaber, taldekako saioak egin ziren proiektu bakoitzaren garapena amankomunean jartzeko.

Eraitza garrantzitsuen prozesuak berak parte-hartzaileengan izan zuen eragina izan zen. Presentzialki egindako saioak online ikastarokoekin uztartu ziren eta hori lagungarri izan zen parte-hartzaileek Teoria U-k parte-hartze prozesu baterako bultzatzen dituen hainbat kontzeptu barneratu (adimen irekia, bihotz irekia, borondate irekia) eta horietatik abiatuta, hasierako galderari erantzuna emateko ereduak landu zituzten. Aipatu eredu horiek sakonago landu ziren bigarren fasean.



# Hezkide eskola

Ireki begiak,  
elkartu eta ekin!



Boluntariotzak norbanakoarekin, gizartearekin eta komunitatearekin lotutako gaitasunak sustatzen ditu, gizarte bazterketarekin eta bidegabekeriarekin lotutako egoerak aldatzen ditu, konpromisoa sustatzen du, jokabide prosoziala areagotzen du. Orokorrean gizarte parte-hartzea sustatzen du (herritartasun aktiboa eta ahalmentsua), elkartasuna, lankidetzeta, auto-estima, leialtasuna, aniztasuna eta errespetua bezalako balioak garatzen ditu.

Bide horretan, Ireki Begiak, elkartu eta Ekin! programaren bitartez 15-18 urte bitarteko gazteei egungo egoeraren kontzientzia hartu, horren aurrean izan dezaketen ardura landu eta boluntariotza eta parte-hartzea hurbildu eta ezagutarazi nahi izan zitzaizkien.

Izan ere, ireki begiak, elkartu eta ekin gazteen artean gizarte parte-hartzea eta boluntariotza sustatzeko programa da eta horrenbestez, aipatu adin tarteko ikasleak dituzten heziketa zentrotan burutu zen. Bigarren hezkuntzako gazteek, gizarteko hainbat errealitatearen aurrean begiak ireki eta errealitate horietan eragiteko duten aukerez eta ardurez jabetzeko hausnarketa sustatu zen. Era berean, entitateen boluntarioek nola parte hartzen duten gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Prozesuak, beraz, helburu izan zuen ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den

herritartasuna eraikitzea eta parte-hartze eta boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa eta boluntarioen erakarpena Gipuzkoako hezkuntza eremuetan sustatzea.

Horrez gain, prozesu honen bitartez, gazteen artean elkartasuna, doakotasuna, berdintasuna eta orokorrean gizartearen aldeko balioak sustatzea lortu nahi zen, baita gazteak gizartearen hobekuntzan eragiteko parte-hartzearen eta boluntariotzaren garrantziaz jabetu araztea, etorkizunean gizartearen aktiboki parte hartzera animatzea, gizarte arloko entitateekin elkarlanean ikastetxeetako ikasleen gizarte parte-hartzea sustatzea eta elkarte sareari heziketa zentroetara sarbidea erraztea ere.

Gauzak horrela, heziketa zentroak programan parte hartzera animatu zitezten ikasturte hasieran email bidalketa berezia egin zen Gipuzkoako heziketa zentro guztietara, baina programaren difusiorako urte osoan zehar burutzen da lana, email bidez, webgunearen bidez, sare sozialen bidez, eta neurri txikiago batean baita telefono bidez ere. Programa martxan jarri zenetik duela urte batzuk, heziketa zentroen artean ahoz ahozkoak funtzionatu du, eta kasu batzuetan programaren berri elkarren artean informazioa emanez ezagutu dute.

Erabilitako metodologia, noski, parte-hartzailea izan zen. Saioterako gidoia aurrez finkatzen zen,

heziketa zentroarekin hitz egindakoaren arabera, noski. Ikasleek beraien hausnarketak, kezkek eta galderak askatasun osoz planteatu zituzten. Ikus-entzunezko materiala ere erabili zen eta denek parte har zezaten dinamika desberdinak egin ziren, bai ikastetxetako gela barruan zein kanpoan.

Programa honi esker, beraz, gazteei parte-hartzea eta boluntariotzaren arloak hurbildu zitzaizkien eta horien inguruko hausnarketa sustatu zen. Era berean, programan zehar burututako hausnarketekin eta bistaratutako elkarteetako eguneroko lanarekin, parte-hartzeak eta boluntariotzak bere baitan dituzten elkartasun, doakotasun, berdintasun eta orokorrean gizartearen aldeko balioez jabetu ziren eta entitateek eta bertan parte hartzen duten boluntarioek burutzen duten lana gertutik ezagutu ahal izan zuten; parte-hartzeari aurpegia jarri zioten eta edonorren esku dagoela ikusi zuten.

Horrez gain, Gipuzkoako elkarteek beren lana heziketa zentroetako gazteei erakutsi ahal izan zieten, gazte horiei gizartearen errealitate zehatzena ikusaraziz. Gainera, programa honen ondorioz, hainbat ikastetxek parte-hartzearen arloko ekimen desberdinak martxan jarri zituzten eta programa aurrera eraman zen hainbat ikastetxetako irakasle zein ikasle, ondoren Gizaldera hurbildu ziren elkartegintza, parte-hartzea edo boluntariotzaren inguruko informazio bila.

# Hiritik at

## San Miguel auzoa 2019-2025 Eraiki nahi dugun auzoa

Hiritik at tokiko Garapena sustatzeko espazioak, prozesuak eta estrategiak sortzen dituen diziplina anitzeko kooperatiba da eta 2018an, hain zuzen, San Migel auzoa biziberritzeko prozesua abiarazi zuen.

Aipatu prozesuak helburu zuen, hain zuzen, Irungo San Migel auzoan kohesio sozialaren indartzea egituratzea, hiria egiteko modu berritzaileak bilatzea, kondizio ezberdineko pertsonen arteko guneak sortzea eta oro har auzoa hobetzea.

Era berean, prozesuaren bitartez, auzo dinamizaziorako talde egonkor bat sortzea ere lotu nahi zen, baita parte-hartze prozesu eraginkor, inklusibo eta eredugarri bat aurrera eramatea. Auzo Plana osatzea eta Plan hori ezagutzera ematea ere. Gauzak horrela, aipatu esperientzia fase desberdinetan garatu zen:

### **Lehen fasea:**

#### **Auzo-Plana prozesuaren prestaketa**

Lehen fase honen xedea zen aurrera begirako prozesurako oinarri ahalik eta sendoen eraikitzea. Horretarako, ondorengo urratsak eman ziren:

- Auzo Elkarte eta Hiritik At lehen bi bilerak: Prozesua ber-begiratu, adostu eta lanak banatu
  - » Bigarren bilera: bertaratutakoen artean auzoko eragileen zerrrenda egin zen.
- Behin zerrrenda eginda, eragile horietako bakoitzarekin bilerak egin ziren helburu bikoitzarekin:
  - » Diagnostikorako elkarrizketa egin.
  - » Talde motorrean parte hartzeko gonbidapena egin.

Honekin batera, auzoko norbanako interesgarrien zerrrenda egin eta talde motorrera gehitzeko gonbita egiteko bilerak egin ziren horiekin.

Era berean, hori guztia egiten zen bitartean prozesua aurkezteko, ezagutzera emateko eta auzotarrak prozesuan inplikatzeko auzo bilera edo auzo aurkezpena egin zen (20 lagun inguru gerturatu ziren). Horrez gain, auzoko merkatuan panel bat jarri, komunikabideetan prozesuaren berri eman eta herriko atari guztietan kartelak jarri ziren, besteak beste.

Ondoren, talde motorraren lehen bilera egin zen. Talde motorra herriko eragilek eta auzoko norbanakoek osatu zuten. Aldi berean, Hiritik At auzoaren historia sozio-espaziala osatzeko artxibo lana burutu zuen.

### **Bigarren fasea:**

#### **San Miguel 2019-2025: eraiki nahi dugun auzoa diseinatzeko foro parte-hartzaileak**

Fase honetan parte-hartze foro irekiak izan ziren puntu nagusia. Horrez gain, talde motorraren formazioa (nola diseinatu eta aurrera eraman horrelako foro ireki bat: metodologiak, helburuak, dinamizazio tresnak, aurkezpen tresnak...) landu eta bide batez foroak prestatu ziren.

Lehen foro irekia azaroaren 6an egin zen. Bertan prozesua eta egindako diagnostia azaldu eta horren inguruan auzoak dituen beharretan sakondu eta herritarren ekarpenak jaso ziren. Bigarren saioan, aldiz, azaroaren 20an, lehen proposamen sorta aurkeztu eta horiei berriak gehitu zitzaizkien. Ondoren, leheneste ariketa

bat egin zen eta bertaratuek bozka bidez erabaki zuten proposamen bakoitzaren "urgentzia" eta "egingarritasuna".

### **Hirugarren fasea:** **Auzo Planaren onarpen zabala**

Fase honetan hirugarren foro irekia egin zen eta horretan, puntuz puntu auzo planaren ildoak eta proposamen konkrituak azaldu ziren. Asmoa zen herritarrak informatu eta haien azken proposamenak jasotzea.

### **Laugarren fasea:** **Planaren difusioa**

Plana bi moduz aurkeztu zen: Auzo Elkartean aurkezpen formalagoa egin zen eta bertan,

elkarte kideez haratago, alderdi politikoek ere parte hartu zuten.

Horrez gain, kale bisitak egin ziren herritarrekin. Horietan, auzoan zehar bisita gidatuak egin ziren, planteatzen ziren esku-hartzea tokian bertan azalduz.

Prozesu horri esker, San Migeleko Auzo Plana osatzea lortu zen eta horrekin batera baita, besteak beste, ondorengo lorpenak ere:

- Auzo elkartearen dinamizazio paper eta erreferentzia handitzea.
- Auzoko eragileen arteko harremanak indartzea.
- Hiria behetik gora eraikitzeko prozesu arrakastatsu bat aurrera eramatea.
- Auzo kohesioa eta auzo atxikimendua handitzea.



# Impact Hub Donostia

Nik emakume gisa, nola nahi dut profesionalki errealizatu?

Impact Hub Donostiak 2018an abiarazitako prozesuak helburu izan zuen Gipuzkoako emakumeen ekintzailatza bultzatzea eta horretarako, parte-hartze prozesu bat abiarazi zuen emakume ekintzaileak beren beharrak identifikatu, horiei irtenbideak bilatu eta aplikatu eta emaitzak ebaluatu zituzten.

Era berean, prozesuak helburu izan zuen emakumeen artean emakumeen ekintzailatzak Gipuzkoan dituen beharren inguruko eztabaida piztea, emakumeen egoera profesionala hobetzeko elkarlanean sortutako irtenbideak identifikatu, inplementatu eta ebaluatzea eta emakume ekintzaileek artean edota etorkizunean ekintzaile izateko aukera ikusten duten emakumeen artean komunitate sentimendua bultzatzea, kolektibo gisa haien kontzientzia indartzeko.

Proiektua hiru fasetan banatu zen:

1. Lehen fasean proiektua ezagutarazi zen eta bertaratu zirenen artean lehen beharrak eta talentuak aztertu ziren.
2. Bigarren fasean emakume parte-hartzaile taldeak berak emakumeen ahalduntzerako formazioa prestatu eta eskaini zuten, auto-ezagutzarako moduluak landu zituzten eta hausnarketarako topaguneak ere sortu zituzten.
3. Azken fasean, proiektua ixteko ekitaldi bat egin zen eta bertan, prozesu osoaren inguruko hausnarketa egin zen, bertaratu zirenen artean komunitate eta kolektibo sentimendua bultzatuz.

Parte-hartzea oro har altua izan zen. Lehen fasean, proiektua ezagutaraztera emateko azaroan

antolatutako saioan 25 lagunek hartu zuten parte eta jasotako emaitzak oinarri hartuta, abendua eta apirila bitartean beste zazpi lan saio egin ziren, arlo desberdinak lantzeko: kudeaketa emozionala, negozioen estrategia, markaren sorrera, produktibitatea, komunikazio eta marketing digitala, elkarlana eta lan taldearen zabalkuntza, finantzak eta fiskalitatea. Esan bezala, gai eta lan saio bakoitza taldea osatzen zuten emakumeek prestatu zuten eta horretarako ezinbestekoa izan zen elkar ezagutza eta elkarlana. Itxiera ekitaldia maiatzean egin zen eta bertan prozesuaren nondik-norakoak azaltzeko bideo bat jarri zen.

Emaitzak ondorengoak izan ziren:

- Parte-hartzaile guztien artean sortu eta landutako egitaraua: lan saioak, ekitaldiak.
- 111 emakume proiektuaren inguruko hedapenetara izenpetu ziren.
- 55 emakumek elkarren artean kontaktu zuzena izateko datu base bat sortzeko baimena eman zuten.
- 10 emakume hizlari gisa lan saioen diseinuan, prestakuntzan eta exekuzioan aktiboki inplikaturik egon ziren.
- Bideo baten sorrera.
- Emakume ekintzaileen arteko komunitate baten sorrera.

# Kale dor kayiko

## Demam Thaj Letu

Aurreko urteetan bezala, Kale Dor Kayiko elkarteak 10 eta 20 urte bitarteko ume eta gazte ijitoen parte-hartzea bultzatzeko burutu zuen 2018an ere prozesu hau. Prozesuaren oinarria kolektibo honen parte-hartzea bultzatzea izan bazen ere, horretaz haratago, helburu izan zuen gazte ijitoen artean eztabaidarako espazioak sustatzea eta Gipuzkoan dagoen aniztasun kulturalarekiko onarpena indartzea.

Prozesua Bidasoa behean, Debabarrenan, Donostialdean, Oarsoaldean eta Goierrin garatu zen ikastetxe ezberdinetan: Dunboa LHI, Txingudi Ikastola, Lekaenea LHI, Toki Alai LHI, Hirubide BHI, Bizarain Ikastola, Koldo Mitxelena BHI, Urdaneta LHI, Loinazpe DBH, Intxaurren Ikastola, Centro ADSIS, Inmakulada Ikastetxea, Zubimusu Ikastola, Anoeta ikastola... Guztira 455 haur eta nerabek parte hartu zuten, ijitoak eta ijito ez direnak ere.

Ijitoak gizarteko kide diren heinean, gainerako etnietako kideak bezala, parte-hartze prozesuetan integratu behar dute. Kale Dor Kayiko ijito elkarteko kideak jakitun dira ijito komunitateak ez duela inoiz gizarte eta auzolan prozesuetan parte hartu eta aldentzeko eta baztertzeko joera izan duela beldur eta desberdintasun ugari tarteko.

Eta hain zuzen egoera hori aldatzeko asmoarekin jarri zen martxan Demam Thaj Letu!! Prozesua, haur eta nerabe ijitoak parte-hartze prozesuetan integratu eta beraien artean parte-hartze kultura sustatzeko.

Gauzak horrela, 2018ko maiatzean aipatu eskualdeetako hezkuntza zentroetan parte-hartze prozesua garatzeko ideia zabaltzea izan zen lehen urratsa. Eta ekainean, halaber, lan saioak dinamizatzeaz arduratuko ziren bi emakumeak (ijito bat eta ijito ez den beste bat) formatzeko mintegi bat antolatu zen.

Ekainean, halaber, lantaldeak antolatu ziren bi irizpideen arabera: adina (10-15 eta 16-20) eta kokalekua ( Bidasoa behea-Donostialdea eta Oarsoaldea-Goierri).

Iraila eta urria bitartean, lehen eta bigarren faseak eraman ziren aurrera: sentsibilizazioa eta ametsa, hurrenez hurren. Lehen fasean lantaldeek ordu eta erdiko iraupena izan zuten bi saio egin zituzten: lehen saioan parte-hartzearen inguruan sentsibilizazioa landu zuten eta bigarrean, halaber, ikastetxeetan izan zituzten bizipen positiboak partekatu zituzten elkarrekin.

Bigarren fasearen helburua partaideek gustuko luketen ikastetxea irudikatzea izan zen eta horretarako bi orduko lan saio bat egin zuten. Abiapuntua partaide bakoitzaren amets bat gainerakoekin partekatzea izan zen.

Urri amaieran eta azaroan, prozesuko azken fasea garatu zen, hau da, lehentasunen aukeraketa eta plangintza. Lantaldeekin saio ugari antolatu ziren bigarren faseko amets horiek gauzatzeko aurrera eraman behar ziren ekintzak definitzeko.

Prozesu horrek, haur zein nerabe parte-hartzaileak galdetuak, entzunak eta errespetatuak izatea bermatu zuen eta bere helburu nagusia beste behin aski betetzea lortu zen.

# Landetxa

## auzo elkarteak

Ametsa: guztion auzoa ARTEz eta auzolanean eraikitzen jarraitzea

Landetxa auzo elkarteak 2015ean abiatu zuen auzoa auzotar guztiekin elkarlanean eraikitzeko proiektua, horrenbestez, 2018an, hirugarren edizioa egin zen. Prozesu horrek helburu izan zuen bizilagun bakoitzaren erabaki eta beharretatik abiatuz auzoaren diseinuan parte-hartzeak duen garrantziaz jabetzea, abiatutako prozesuak osatzen jarraitzea eta auzoko jende desberdinak elkartzeko espazioak berreskuratzea.

Azken helburu horren baitan, hiru espazio desberdinen berreskuratzea aurreikusi zen:

1. Irurtunzar inguru berdea: auzotar guztientzat inguru berdea ahalbidetzea.
2. Parkour gunea: haur eta gazteen inplikaziotik esparru bat sortzea.
3. Familien txokoa: 0-5 urte dituzten familiek beraien beharrei erantzungo dieten gunea egokitzea.

Auzo elkarteak ikuspegi orokor bat dauka eta garrantzitsua da urtean zehar ekintza ezberdinak sustatzea jendearen inplikazioa lortzeko. Ekintza gehienetan talde motor bat sortzen da auzoko eragile ezberdinen parte-hartzea ziurtatzeko (eskolako gurasoak, elkarte ezberdinak, adin ezberdinetako pertsonak, auzoko gunea ezberdinetan bizi direnak...). Ondoren, lanerako edo jai giroan parte hartzeko deialdia zabaltzen da, nahi duenak parte har dezan.

Konpromiso maila ezberdinak duten pertsonekin lan egitea ezinbestekoa da elkartearen ustez. Horrela, urtean zehar egiten diren ekintzetan motibazio maila desberdinak jasotzen dira, ekintzaren arabera parte-hartzea ere desberdina da, baina guztiek bultzatzen dute auzo sena eta elkarrekin zerbait eraikitzearen

motibazioa. Gainera, belaunaldien arteko lotura ere bermatzen da.

2018an ondorengo ekimenak burutu zituen Landetxa auzo elkarteak elkarlanean:

1. Amets dezagun ekimenaren ondorioak: udaleko gobernu eta oposizioari aurkezpen ofiziala. Udalarekin elkarlanean parkea diseinatzen hasi. "Auzo sortzailea-Barrio Creativo".
2. Auzolana: auzoko eragile ezberdinekin Irurtunzaharra parkea diseinatu eta elkarrekin eraiki. Beste eragileen inplikazioa sustatu (ikastetxekoena adibidez): ekimen honek bultzada ederra izan zuen apirilean eta horri esker, zelai bat izatetik eraikitzen ari den parke bat izatera pasa da. Ideiak bizirik jarraitzen du eta auzolan gehiago aurreikusten dira.
3. Auzoa bizituz-Coloreando el barrio: ekintza batzuetan jendearen partaidetza bermatzeko, urtean zehar hainbat ekintza sustatzen dira parte-hartzea bultzatuz: korrika txikia / kantubazkaria, auzoko jaien dekorazioa, parkourreko espazioa, euskal jira eta memorialab. Kasu honetan, parkour parkeari dagokionean, gazteek hala eskatuta, haien proposamenak entzun eta jasotzeko prozesu bat diseinatu zen. Parkour modalitatean aditua den lagun batekin saio bat ere egin zen eta prozesu guztiaren ondoren, horrelako parke zehatz bat ez eraikitzea erabaki zuten gazteek.
4. 2014ean prozesu parte-hartzaile baten bidez "3 gunea elkarbizitzarako" ekimena jarri zen martxan eta Eskola Zaharrean Familien Txokoa sortzeko ideia bultzatu zen. 2018an berriro loratu zen ideia hau. Talde motorra osatu

ostean, urtean zehar hainbat topaketa egin ziren espazioarekiko interesa balioztatzeko, espazioarekiko asmoak, arauak edota planteamenduak entzun, partekatu eta lantzeko eta azkenik auzolanean, espazioa egokitu eta dagoeneko erabilgarri dagoen gunea sortzeko.

indartuz. Horretarako, adin guztietako bizilagunak entzun eta beraien entzunak sentitzea bermatu nahi du, ekintza desberdinen bitartez. Horregatik, etorkizunera begira, ekimen horiei jarraipena emango dietela ziurtatu dute.

Guzti horren bitartez, auzo elkartearen helburua da auzoarekiko atxikimendua bultzatzea eta auzo bizi bat eraikitzea, elkarren arteko harreman positiboak





# Natul

## euskara elkarteak

Hika Azpeitian:  
nork, nori, nola eta zergatik?

Hitanoaren beherakadaren aurrean, Natul Euskara Elkarteak, hitanoaren arnasmune den Azpeitian hitanoaren osasuna zein den aztertzeko, hitanoaren gaia (eta haren beherakadarena) gizarteratzeko eta hitanoa biziberritzeko (emakumeengan eta emakumeen formetan azpimarra jarrita) prozesua abiarazi zuen 2018an.

Prozesuaren helburua zen, halaber, nokako formen beherakada eragin zuten eragileak identifikatzea, hitanoaren gaineko zenbait auzitan sakontzea (erabiltzeko irizpideak, erabilera ohiturak, aldaketarako bideak eta arrazoiak...), hitanoaren erabilerak beste esparrutan izan ditzakeen inplikazioen inguruan hausnartzea eta ateratako emaitzak inpaktu-indize altuko aldizkarietan argitaratzea.

Esperientzia honek bi fase izan zituen: lehenengoan, hitanoak Azpeitian bizi zuen egoera aztertzeko diagnostiko zabala egin zen. Horretarako, galde-sorta diseinatu eta ahalik eta gehien zabaldu zen herritarren artean zein sare sozialen, hedabideen eta ahoz ahokoaren bidez. 850 helduren erantzunak jaso ziren.

Bigarren fasean, parte-hartzaile profilak multzotan sailkatu (adina, hika-erabilera eta abarren arabera) eta talde-eztabaidak antolatu ziren. Gaiaren gaineko iritzi kualifikatua eman zezaketenei elkarriketa sakonak egin zitzaizkien, binaka. 60 lagun pasatxok hartu zuten parte orotara bigarren fasean.

Hirugarren fasea hitanoaren biziberritzea izango da, eta azken fase honetarako ideiak biltzea izan zen talde-eztabaidetako helburu nagusietako bat.

Gauzak horrela, 850 azpeitiarren erantzunak ikusita, ondorioa honakoa izan zen: emakumeek askoz gutxiago egiten dute hika, baita gizonak emakumeei hitz egiterakoan ere. Adinean behera egin ahala, are nabarmenagoa da joera hori, eta beraz ez luke etorkizun oparorik izango hitanoak emakumeentzat gauzek horrela jarraituz gero.

Herritarrak, baina, gogotsu daude egitasmoren bat martxan jartzeko. Prozesuan jasotako proposamenek ez zuten zehaztasun maila handirik izan, baina ideiak jaso ziren.

Horrenbestez, emaitzei dagokienez, Azpeitian hitanoaren egoera zein zen xehetasun maila handiz ezagutu ahal izan zen, hitanoaren gaia Azpeitian hilabetetan zehar presente egotea lortu zen eta azkenik, lehen eta bigarren faseetako helburua berez hizkuntza-ohiturak aldatzea ez bazen ere (hirugarren faseari dagokio hori), aldaketa txiki batzuk lortu ziren prozesuan zehar, talde-eztabaida eta abarretan.

# Politki elkarteak

## Guneak zabaltzen



Politki elkarteak, bizitzaren jasangarritasuna egunerokoan sustatzea helburu hartuta "Guneak Zabaltzen" deituriko ekimena bultzatzen du.

Aipatu ekimena Donostiarekiko kezka sakonetik jaiotzen da. Hiria erabat eraldatzen ari diren aldaketak gertatzen ari dira eta hain zuzen aldaketa horiek sortutako ezinegon eta arduraren horietatik abiatuta, "Guneak Zabaltzen" ekimenak hainbat ekintza desberdin planteatzen ditu Donostia elkarrekin sortu eta hobetzeko ideiak partekatu, hausnartu eta horiek martxan jartzeko.

2018-2019an "Bizitzaren jasangarritasuna Donostian" izan zen aukeratutako gaia eta hori oinarri hartuta, hainbat ekintza gauzatu ziren ikasturtean zehar, guztiak, helburu orokor berarekin: herri jasangarriago bat sustatzeko asmoz, ekologia eta feminismoa herritarren artean zabalduko duten ekimenak egitea. Horretarako, hain zuzen, ondorengo ekintzak burutu ziren "Guneak Zabaltzen" proiektuaren baitan:

- Bi elkarlan saio ireki, urtarrilaren 24an bata eta 31n bigarrena, biak Okendo Kultur Etxean.
- Elkartasun bazkaria azaroaren 11n, Txantxarreka Gaztetxean.
- Hiri-baratze ekologiko tailerra, 2019ko maiatzaren 11n, Uliako Mintegien parkean.
- Topaketa ireki auto-eratu, otsailaren 2an, Impact Hub Donostian.

Horietan, "Bizitzaren jasangarritasuna Donostian" ideia arakatu eta herritarren parte-hartzearen bidez, bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptuaren inguruko hausnarketa bideratu eta pertsonak beraien bizitzan integratzeko urratsak eman ziren. Horretarako,



Donostiako eragile eta hiritarren arteko harremana sustatu zen, elkarren arteko ezagutza bultzatuz. Horrez gain, hiria hobetzeko proposamen jasangarriak ere lortu ziren. Aurreko urteetan egin bezala, lanerako Open Space metodologiak baliatu ziren eta horrela, eztabaidatutako gaien agenda partaideek osatu zuten. Gainerako lanez koordinazio taldea arduratu zen.

**BIZITZAREN JASANGARRITASUNA DE LA VIDA SOSTENIBILIDAD EN DONOSTIA**

**URTARRILAK ENERO**  
**24,31** OKENDO KULTUR ETXEA  
18:00 - 20:30  
BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEN DUTEN ELKARLAN SAIO IREKIAK  
SESIONES COLABORATIVAS ABIERTAS QUE PONEN LA VIDA EN EL CENTRO

**FEBRERO OTSAILAK**  
CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA  
10:00 - 18:00  
**2**  
TOPAKETA IREKI AUTO-ERATUA  
ENCUENTRO ABIERTO AUTO-ORGANIZADO

**NOLA BATU INDARRAK BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN BIDEAN ERAGINKORAGOAK IZATEKO?**  
¿CÓMO PODEMOS UNIR FUERZAS PARA SER MÁS EFICACES EN NUESTRA LABOR HACIA LA SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA?

Logos at the bottom: Gipuzkoa, Donostia, Guneak Zabaltzen, guneakzabaltzen.eus, guneak.zabaltzen@gmail.com

# Gipuzkoako

# SOS arrazakeria

## Pertsona errefuxiatuak, Isla eta pertzepzioa



SOS Arrazakeriak herritarrek errefuxiatuen inguruan zuten pertzepzioa ezagutzeko abiarazi zuen prozesu hau, horren bitartez errefuxiatuen harrera hobetu ahal izateko.

Prozesuak, halaber, helburu izan zuen herritarrek asiloaren eta babesaren inguruan zituzten gizarte sinesmenak ezagutzea, errefuxiatuen etorrerarekiko herritarren jarrerak aztertzea, errefuxiatuen harreraren alde gizarte euskaldunaren solidaritate aukerak identifikatzea eta errefuxiatuei zuzenduriko mentoretza programa baten sorreraren inguruko emaitzak aztertzea eta gizarteratzea.

Guzti horretarako, irailean proiektuaren helburua birdefinitu eta herritarrek errefuxiatuen etorrerarekiko, harrerarekiko eta inklusioarekiko zuten pertzepzioan jarri zen azpimarra. Horretarako 31 galderaz osatutako galdetegi bat osatu zen eta behin hori eginda, lanketari ekin zitzaion. Lanketa, halaber, hiru fasetan banatu zen: datuen banaketa eta jasotzea, jasotako datuen analisisa eta emaitzen kontu-ematea.

Gauzak horrela, irailean euskaraz zein gaztelaniaz zabaldu zen galdetegia Interneten bitartez: webguneak, sare sozialak, mailing-a. Parte hartu zuten prozesuan Zarautz, Donostia eta Tolosako Udalek eta baita Hotz Zarautz eta CEAR erakundeek ere.

Abenduaren hasieran, inkestaren emaitzak jaso ziren, guztira 420. Horrekin, herritarrek errefuxiatuen harreraren inguruan alor desberdinetan zuten pertzepzioa jaso eta aztertzen zuen txostena osatu zen. Jasotako informazioaren artean, esate baterako, galdetegia erantzun zuten pertsonen orientazio politikoa edota desberdintze elementuen, estereotipoen edota tokiko laguntza publikoen inguruko pertzepzioa jasotzen zen, baita, adibidez, errefuxiatuei laguntza eskaintzeko norberaren disposizio edo borondate maila ere.

Azken fasea, emaitzen kontu-ematean, alegia, 2019ko martxorako aurreikusi zen, World Cafe metodologia erabiliaz. Bi saio egin ziren, Donostian bata eta Zarautzen bestea. Horrez gain, Donostiako Udalean prentsaurrekoa ere egin zen azterketaren emaitzak ezagutzera emateko.

# Topagunea

## euskara elkarteen federazioa

### 1eratu: nola antolatu tokiko euskaltzaleen mugimendua?

Behin Euskaraldia amaituta, Topaguneak euskaltzaleen mugimendu berria irudikatzeko parte-hartze prozesu bat abiarazteko premia antzeman zuen eta behar hori abiapuntutzat hartuta jarri zuen martxan, hain zuzen, 2018ko abenduan, euskaltzaleen mugimendua antolatzeko prozesua.

Aipatu prozesuaren helburua izan da herrietako norbanako euskaltzaleak elkarteratzea, osatuta dauden baina indarberitzeko beharra duten elkarte euskaltzaleak babestea eta euskara elkartearen egiteko, antolakuntza eta egituraz hausnartzea. Era berean, ekimen horren bitartez, Topaguneak ondorengo prozesuak diseinatzeko lehen urratsak ere egin zituen:

- Euskara elkarterik ez duten baina Euskaraldirako batzordeak osatu dituzten herrietan elkarteak sortzeko prozesuak.
- Euskara elkarte ahulak dauden herrietan horiek indartzeko prozesuak.

Horrez gain, herri ezberdinetako Euskaraldiko batzordekideekin hausnarketa prozesu parte-hartzaile bat abiarazteko urratsak ere egin zituen, horiek elkarte moduan zituzten beharren eta aukeren inguruan hausnartzeko, hain zuzen.

Gauzak horrela, 2019ko martxoaren 23an Elgoibarko IMHn goiz bateko saioa egin zuten Euskal Herrian zehar euskaltzaleen mugimendua osatzen duten hainbat eragileekin, hain zuzen Euskal Herriko bost lurraldeetako euskaltzaleak bildu ziren, haien arteko harremanak estutu eta elkarren arteko egoeraren berri izateko aukera emanaz. Bi ariketa nagusi egin ziren helburu horrekin:

1. Euskaltzaleen antolaketan izan diren esperientzien kontaketa eta haietatik ikastea: hiru ikuspegi ezberdinetako kasuak jaso ziren:

- a. Arabako lautada: eskualde eta komunitateko ikuspegitik.
  - b. Elgoibarko Izarra: bide luzea duen euskara elkartearen ikuspegitik.
  - c. Ikaztegieta euskara taldea: sortu berri den euskara taldearen ikuspegitik.
2. World Cafe estiloko elkarrizketa zabala euskaltzaleen mugimendua etorkizunean irudikatzeko, kontakizunetan ikasitakoa oinarri hartuta.

Saioa guztiz parte-hartzailea izan zen. Lehengo zatia "Storytelling"-ean oinarritutako "Collective Story Harvest" (istorioen uzta kolektiboa) metodologian oinarritu zen. Ariketa horren bitartez, euskaltzaleen komunitatean izandako istorio arrakastatsuak entzun eta hainbat alorrei erreparatu zitzaizkien: lidergoa, baliabideak, elkarlana... Ondoren, istorio ezberdinetako ikasketak alderatu ziren, zer errepikatzen zen ikusteko.

Bigarren zatian, Word Cafe metodologija erabili zen parte-hartzaile guztien arteko elkarrizketa ahalbidetzeko. Hiru erronda egin ziren guztira, euskalgintzaren egoerari, bisioari eta aukerei buruz aritzeko helburuarekin. Saio guztian zehar arreta berezia jarri zen ekarpenak jasotzeko eta informazio guzti hori euskarri desberdinetan jaso zen: ariketa bakoitzarekin egindako irudi bisualak, txostena eta bideo bat.

Prozesuak oro har, euskaltzaleen mugimenduaren izaerari eta antolaketari buruzko hausnarketa beharra azpimarratzeko balio izan zuen. Parte-hartzaile gehiengoak elkarbanatutako hainbat ideia, kezka eta aukera asko mahai gainean jarri eta hausnarketarekin jarraitzeko beharra agerian geratu zen. Hori aintzat hartuta, Topagunea lanean da dagoeneko bestelako hausnarketa prozesuen eta ekimenen sorrerak bultzatzeko hainbat herrietan. Horrez gain, bestelako foroetan ere jarraipena ematen ari zaio hasitako elkarrizketa horiei.

# Txatxilipurdi

## Arrasatek Hezi

### Gauzapen fasea III

Txatxilipurdi elkarteak Arrasateko herri antolamendua modu parte-hartzaileenean egiteko asmoarekin abiarazi zuen Arrasatek Hezi egitasmoa. Egitasmo honen gauzatze faseen lehen eta bigarren fasea aurreko urteetan eman ziren eta 2018ko ekainetik 2019ko maiatzaren bitartean proiektu honen hirugarren gauzapen fasea burutu zen. Hirugarren gauzatze fase honetan, ondorengoak landu ziren:

1. Kolektiboen arteko harremanak: kolektibo desberdinen arteko harremanean eta ezagutzan sakondu eta harremana sistematizatzeko aurreko urteko esperientziak aintzat hartuta hainbat ekimen egin ziren elkarlanean eragile desberdinen artean eta ikasturtean zehar ASPACE eta Herri Eskolaren arteko harremana egonkortu zen. Ikasturte osoan zehar 4 ekintza bateratu eraman ziren aurrera, horien artean bi bisita Aspacetik Herri Eskolara eta bat Erguina.
2. Konfiantza guneak: herriko gune eta zerbitzuak herritar ororentzat konfiantzazkoak izateko aurreko ikasturtean HARRERA ONERAKO GIDA gidak inprimatu eta zabaltzea izan zen asmoa, baina ez zen lortu konfiantza guneen lan taldea aktibatzea eta lan honi modu bateratuan eustea.
3. Espazioen izaera eta erabilera: herriko espazioen izaera eta erabilera aztertu eta modu kolektiboan hobekuntzarako proposamenak egiteko, Arizmendi ikastolako ikasle talde batekin parte-hartze saioak egin ziren eta hainbat parketako egoerak eta hobekuntza proposamenak jaso ziren horietan. Hortik aurrera ez zen lortu ikasturtean lan ildo gehiago garatzea.

2018an ez dira ezarritako helburuak guztiz bete, baina urte horretako esperientziaz haratago, Txatxilipurdik Arrasatek Hezi egitasmoaren ibilbideak emandako lorpenak azpimarratzen ditu: hezkuntza eragile anitzen arteko harremanaren saretzea, konfiantza lantzea eta elkarlanen ahalbidetzea hurrenez-hurren. Hainbat elkarlan betirako sendotu eta errotu dira, ikasturte guztietarako sistematizatu baitira.

Bestalde, ahalegin bereziak egin diren arren 2018an ez zen lortu ekimen gisa lan bateratu eta iraunkor bat bideratzea baina oinarria jarrita dagoela azpimarratu dute Txatxilipurditik. 2019an ez dituzte ekimen horietarako diru laguntza eskaerak egin, momentuz ez baita baldintza egokirik ikusten, baina egindako ibilbide guztitik eta ikasitako guztitik lanean jarraituko du posible denean ekimen hau berraktibatzea eta Arrasate herri hezitzaileago bat izateko bidean beren alea jartzeko.

# Zerainlab

## Zerain

## etorkizunari begira

Zerain etorkizunari begira gogoeta prozesu ireki bat bultzatzeko asmoz abiatu zuen ZerainLab elkarteak. Helburu du auzolaneko kultura sustatzea egungo behar kolektiboari herri mailako erantzuna emateko, baita komunitate bizitzan sakontzea herriko elkarbizitza hobetzeko ere.

2018an aipatu prozesuaren hirugarren fasea garatu zen eta aurreko urteetakoetatik apur bat ezberdina izan zen. Kasu honetan, ikerketa, gogoeta eta esperimendazioa uztartu ziren, eguneroko bizitza normalean jendeak hitz egiten ez duen gai kolektibo garrantzitsu baten inguruan: auzolaneko kultura komunitarioa, alegia.

Prozesu guztian zehar, herritarren parte-hartzea izan zen ardatz nagusia eta emaitza onak lortu ziren, herritar helduen %25ak baino gehiago hartu baitzuen parte, baita inguruko herri txiki batzuetako bizilagunek ere.

Lan egiten orduan, metodologia ezberdinak uztartu ziren, eta arduradun ezberdinek diseinatu zituzten. Ikerketaren metodologia Lanki-ko ikertzaileek diseinatu zuten; gogoeta prozesuko dinamikakoa Agintzariko teknikariak, eta formaziokoa CIALT-eko profesionalak. Horretaz gain, prozesu guztiaren faseak betetzea eta koordinatzea Zerainlab-eko lan taldeak kudeatu zuen.

Hirugarren fase horretan inkesta, sakoneko elkarrizketak, talde dinamikak eta tailerrak uztartu ziren teknika metodologiko gisa. Hortaz, modu eta aplikazio aldetik, metodologia anitz eta aberatseko prozesua izan zen.

Emaitzak halaber, hiru multzotan banatu ziren:

- Ikerketaren bitartez ezagutza berria sortu zen eta gaiaren inguruko galdera berriak jarri ziren mahai gainean.
- Gogoeta prozesutik ezagutza aplikagarria egiteko hausnarketa eta ideia interesgarriak plazaratu ziren.
- Aurrera begira bizitza komunitarioa eta auzolaneko kultura indartzeko bide batzuk identifikatu eta testatzen hasi ziren.

Emaitza horiez haratago, baina, prozesu honek eragin zuzen eta positiboa izan zuen parte-hartzaileengan, hain zuzen, jaso zuten formazioan, bizi izan zuten ikasketa prozesuan eta gaiari buruzko hausnarketaren azaleratzean. Horrenbestez, prozesuak berak emaitza aberasgarriak utzi zituen parte-hartzaileengan, eta horrez gain, aurrera begirako lan ildo garrantzitsua abiatu zen, herri txikiak garapenerako eta komunitate bizi arduratsu eta parte-hartzaileak edukitzeko lan ildoak, alegia.

# HERRITARREN PARTAIDETZA GIPUZKOAN **2018-2019**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro